

eus Jakin 256 257

herria kultura hizkuntza maiatz-aabuztua
2023

Gizarte berrikuntza pentsamendu sistemikotik

AITOR ZUBEROGOITIA
MONIKA MADINABEITIA
ANDONI EIZAGIRRE
MIREN LARREA
MILLE BØJER
SHARAM YALDA
IGOR CALZADA
GORKA ESPIAU

NAIARA GOIA
IONE ARDAIZ
JAVIER CASTRO-SPILA
AUXKIN GALARRAGA
KORO MUÑOZ
LUIS BERAATEGI
LOREA AGIRRE
AMAIA RUIZ

EGUNEN GURPILEAN

MAIALEN AKIZU BIDEKAIN
JOANES IGEREKI SANTAMARIA
CIRA CRESPO

Jakin ^{•eus} **256**
257
herria kultura hizkuntza maiatza-abuztua
2023



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

ERREDAKZIOA

Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Gizarte berrikuntza pentsamendu sistemikotik

- 13** Krisi globalari dagokion pentsamoldearen
arrastoan

Aitor Zuberogoitia Espilla

Monika Madinabeitia Medrano

Garapen ereduaren krisiari loturiko korapilo nagusiak deskribatzen dira, beroriei aurre egiteko ikuspegi sistemikoan eta transdiziplinazkotasunean sakondu beharra defendatuta. Ondoren, zenbaki monografikoan bi ardatz horiek landuko dituzten artikuluen sintesia eskaintzen da.

- 23** Lurralde garapenerako ekintza-ikerketa
eta politiken eredu klasikoaren eraldaketa
Andoni Eizagirre • Miren Larrea

Politika ulertu eta egiteko modu berrien premia azaltzen da, eta, Etorkizuna Eraikiz foro programa abiapuntu hartuta, esperientzia erreal baten inguruko gogoeta egiten da.

- 39** Etorkizuneko errealitateen kosorkuntza
Etorkizunari aurre egitean erori ohi garen hiru tranpak
Mille Bøjer

Bide berrien eraikuntzan izan ohi diren hiru oztopo nagusiak deskribatzen dira. Horrez gain, kosorkuntzatik abiatuta etorkizun partekatuak diseinatu nahi izanez gero aintzat hartu beharreko zat jotzen diren faktoreak zehazten dira.

- 49** Kontzientzia oinarri duen ekintza kolektiboa eta sakoneko berrikuntza: behetik gorako trantsizio bidea
Sharam Yalda

Aurrez aurre jartzen dira egungo botere politiko eta ekonomikoa, batetik, eta paradigma berri baten alde diharduten indarrak, bestetik, eta azken horien aldeko aldarria egiten da, maila lokaletik abiatu eta komunitateak sendotzeko dei eginez.

- 77** Euskal Herria 2025, nazio algoritmikoa
Eskubide digitalak babestuz, datafikazio estrategia emantzipatzaileak egikaritu
Igor Calzada

Euskal Herria sektore digitaletik aztertzen da. Bereziki, datafikazioak dakartzan erronkak eta arriskuak zedarritzen dira, Euskal Herria 2025, nazio algoritmikoa markoa proposatuz.

- 91** Eraldaketa handien dimentsio kulturala: euskal esperientzia
Gorka Espiau Idoiaga

Euskal gizarteak Francoren diktaduraren amaieratik gaur egunera arte bizi izan duen eraldaketa sozioekonomikoaren dimentsio kulturean sakontzen da.

- 107** Lankidetzazko gobernantza eta berrikuntzarako ekosistemak gizarte erronken aurrean aldaketa eragiteko: Arantzazulab-en adibidea
Naiara Goia Imaz • Ione Ardaiz Osacar

Lankidetzazko gobernantza eredu berrietan eta gobernuen eta gizarte zibilaren arteko sareak eta harreman ereduak eraldatzeko berrikuntzan sakontzen da, xxi. mendeko erronkei aurre egiteko alternatiba gisa, esparru horretan Arantzazulab-en lana aurkeztearekin batera.

- 131** Berrikuntza sozial sistemikoa:
Eusko Ikaskuntzaren GizarteLab esperientzia
Javier Castro-Spila • Auxkin Galarraga Ezponda
Koro Muro Arriet
Egungo trantsizio demografiko eta ekologikoaren testuinguru orokorrean, Euskal Herriko udalerriek dituzten erronka lokalei aurre egiteko tresna praktikoak garatzea helburu duen GizarteLab egitasmoa aurkezten da, Eusko Ikaskuntzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin garatua.
- 147** Desiderata: Hiri Laborategizatua
Luis Berasategi Retegi
Hiri Laborategiak aro berriko erronkei irtenbide berritzaileak egiteko espazioak dira, diziiplina anitzeko ikuspegiarekin. Bilbao AS Fabrikek desiderata formatuan kontaktzen ditu prozesu horretan ikasitakoak.
- 165** Bestela pentsatu bestela ekiteko
Gizagintza eta mundugintza bizigarri baterako
Lorea Agirre Dorronsoro
Euskal pentsamendu berria, 56ko belaunaldiarekin abiatzen dena, egun gizarte berrikuntza deitzen dugun horren eredu bat da. Eta gizatasunaren definizioaren lubakietan bizi garen honetan, hizkuntza eskubideetan, feminismoan, dekolonialismoan, aniztasun eta berdintasunean eta bizitza bizigarrien defentsan hartzen du oinarri.
- 173** Norabide aldaketarako unea al da?
Amaia Ruiz Castellanos
Gizakiak duen berebiziko joera eta gaur egun dugun gizarte postmodernoa alderatuz, norbanakoan zentratutako zenbait aldaketa sortzeko unea heldu dela argudiatzen da, zaugarritasuna eta interdependentzia bidelagun izanik, besteak beste.

EGUNEN GURPILEAN

187 Kultura
Maialen Akizu Bidegain

193 Glokalia
Joanes Igeregi Santamaria

200 Historia
Cira Crespo

KONTRAZALA Dom Campistron

SOCIAL INNOVATION AND SYSTEMIC THINKING

A thinking approach to the global crisis

The Humanities lecturers, Aitor Zuberogoitia and Monika Madinabeitia, describe the core elements of the crisis in terms of development, defending the need to study the systemic, transdisciplinary perspective in depth as a means for tackling them. They summarise the articles from the special issue below. [Aitor Zuberogoitia](#) • [Monika Madinabeitia](#)

Action research for the territorial development

The Humanities lecturer, Andoni Eizagirre, and Orkestra researcher, Miren Larrea, explain the need for new ways of understanding and exercising politics and reflect on a real experience via the *Etorkizuna Eraikiz* Forum. [Andoni Eizagirre](#) • [Miren Larrea](#)

Co-creation of future realities

Mille Bøjer, director of the European office of the social innovation agency, Reos Partners, describes the three main obstacles to the constructions of new channels and specifies the factors that need to be taken into account in order to design shared futures through co-creation. [Mille Bøjer](#)

Collective action and major innovation

Sharam Yalda, founder of the consultancy firm for innovation, Human Nature, pitches current political power against the forces that seek a new paradigm with which the author identifies. Starting from a local level, he advocates strengthening communities. [Sharam Yalda](#)

Basque Country 2025, algorithmic nation

The Social Science researcher, Igor Calzada, analyses the Basque Country from the digital standpoint. Specifically, he defines the risks and challenges associated with datafication, proposing the Basque Country 2025, algorithmic nation. [Igor Calzada](#)

The cultural dimension of major transformations: the Basque experience

The director of the Agirre Lehendakaria Center, Gorka Espiau Idoiaga, undertakes an in-depth study into the cultural dimension of the socio-economic transformation that Basque society has undergone between the end of the Franco dictatorship to the present day. [Gorka Espiau Idoiaga](#)

Collaborative governance and innovation ecosystems: the case of Arantzazulab

Naiara Goia, general manager of Arantzazulab, and Ione Ardaiz, project manager, undertake an in-depth study into new forms of collaborative governance and innovation towards the transformation of networks and relationship models between governments and civil society. **Naiara Goia • Ione Ardaiz**

Systemic social innovation: the experience of GizarteLab

The researchers and experts in social innovation, Javier Castro-Spila, Auxkin Galarraga and Koro Muro, present the GizarteLab project, developed by Eusko Ikaskuntza, the aim of which is to develop practical tools for tackling local changes being faced by Basque towns. **Javier Castro-Spila • Auxkin Galarraga • Koro Muro**

Desiderata: The Laboratorized City

Luis Berasategi, coordinator of Bilbao AS Fabrik Urban Laboratories, describes Urban Laboratories as spaces where innovative solutions can be offered to challenges being faced in the new era from a multidisciplinary standpoint. **Luis Berasategi**

Thinking differently to act differently

The journalist and director of JAKIN, Lorea Agirre, highlights the fact that the new Basque school of thought that first came to the fore with the 1956 generation is a model that we now refer to as social innovation. This model is based on the defence of language rights, feminism, decolonialism, plurality and equality and liveable lives within the concept of humanity in the strictest sense of the word. **Lorea Agirre**

Is it time for a change of direction?

The Humanities student Amaia Ruiz, argues that the time has come to make certain changes that focus on the individual and on company, among others, in terms of vulnerability and interdependence. **Amaia Ruiz**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, globalization and history matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain, Joanes Igeregi Santamaria and Cira Crespo. **Various authors**

Jakinen helburuetan beti egon da inguruko erakundeekin lankidetzan jardutea, bakarrik ezin dena taldean lor daitekeela sinetsita. Horregatik ditu lankidetzak hainbat eragilerekin eta horregatik da hainbat talde eta bilgunetako kide. Pentsamendua-
ren gaineko egitasmo bat izaki, akademiarekin, unibertsitateekin, berariazko harreman naturala du. Bada akademian lantzen den pentsamendu eta ezagutzaren zabalkunderako eta dibulgaziorako, eta baita azterketa kokaturako ere, akuilu eta leiho bat. UEUrekin, jakina, euskarazko unibertsitatea izaki, lan lerroak irekita ditugu oso aspalditik, Jakineko kide historikoak UEUren sortze prozesuan egon zirenetik. EHUrekin ere bai, eta hainbat monografia, jardunaldi eta liburu bilduma antolatu ditugu elkarrekin. EHUren barnean, bereziki aipatzekoa da Joxe Azurmendi Katedra, hasieratik Jakin bidelagun izan duena; ez alferrik, Azurmendi Jakin Talde historikoko partaide emankorrena da, eta are euskal pentsalari garrantzitsuenetako bat, garrantzitsuena ez bada.

Oraingoan, Mondragon Unibertsitatearekin batera osatu du Jakinek zenbaki monografiko hau; hain zuzen ere, Humanitate Digital Globalaren graduako kideekin, 2019tik hona antolatu ohi duten UniverCity-UniberZiutatea nazioarteko mintegiaren markoan. Orain bi urte egin zen azken mintegiaren emaitza biltzen du zenbaki bikoitz honek. «Gizartearen irakurketa sistemiko eta eraldatzailean diharduten antolakundeek esperientziak partekatzea» izan da jardunaldiaren helburua, hala Euskal Herrian dihardutenen bitartez, nola mundu zabalean dihardutenen aldetik, Aitor Zuberogoitia eta Monika Madinabeitia antolatzaileek monografia honi egindako sarreraren artikuluan dioten moduan. Bi horiez gain, honako hauek hartu dute parte zenbaki honetan: Andoni Eizagirre (HUHEZlko irakaslea eta Herrigintza Berrikuntza graduondoko koordinatzailea), Miren Larrea (Deustuko Unibertsitateko Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzailea), Mille Bøjer (Reos Partners gizarte berrikuntzako erakundearen Europako bulegoko zuzendaria), Sharam Yalda (Human Nation berrikuntzarako aholkularitzako enpresaren sortzailea), Igor Calzada (Cardiffeko Unibertsitateko Gizarte Zien-

tzietako ikertzailea), Gorka Espiau (Agirre Lehendakari Centerreko zuzendaria), Naiara Goia (Arantzazulab gizarte berrikuntzako laborategiko zuzendaria), Ione Ardaiz (Arantzazulab laborategiko proiektuen zuzendaria), Javier Castro-Spila (SOCINNOVA gizarte berrikuntzako aholkulari sareko ikertzailea), Auxkin Galarraga (Eusko Ikaskuntzako GizarteLab proiektuaren zuzendari zientifikoa eta EHUKo irakaslea), Koro Muro (Eusko Ikaskuntzako gizarte berrikuntzako proiektuen arduraduna), Luis Berasategi (Bilbao AS Fabrikeko Hiri Laborategien koordinatzailea eta MUko MIKeko ikertzailea), Amaia Ruiz (MUko Humanitate Digital Globalak graduiko ikaslea) eta Lorea Agirre (JAKINEko zuzendaria). Erakunde, laborategi, akademia eta institutuei dagokienez, bederen, ordezkaritza zabala biltzen du monografikoak.

Egunen gorpilean sailean, Joanes Igeregi nasa herriarekin egindako egonaldi batekin abiatu eta, egungo auziei erantzun ahal izateko gizarte eraldaketarako gakoen artean, hizkuntza biziberritzea kokatu du, nolabait ere, zenbaki honen gai monografikoari nahi gabeen ekarpen mamitsua eginez. Cira Crespok, berriz, gerraurreko emakume abertzale euskaltzaleen kausa –geure amona eta birramona odoleko zein sozialak, geure genealogia– berariaz ahaztua dakar argira, espainiar nazionalismoaren eta gizarte matxistaren arteko anaitasunaren pean guk geuk arbuiatu eta arbuiatzen ditugunak. Maialen Akizuk, berriz, argazkia hartu du gogoeta gai, argazki kamera eskuaren protesi bihurtu zaigunez, eta galdetzen du zeri ateratzen diogun argazkia soilik argazkiak ateratzen bizi garen garai hauetan. Eta pribatuaren itxiturak zartatu eta (ia) dena argazki publiko den honetan, nola pentsatu behar dugun eremu publikoaren eta kulturgintzaren arteko harremana; izan ere, hitzei bezala argazkiei erabilerak ematen die zentzu bat edo beste. Dom Campistronek, kontrazalean berriro, egungo krisi nagusiari egin dio marrazkia: krisi ekosozialari.

GIZARTE BERRIKUNTZA PENTSAMENDU SISTEMIKOTIK

- 13** Krisi globalari dagokion pentsamoldearen arrastoa
Aitor Zuberogoitia • Monika Madinabeitia
- 23** Lurralde garapenerako ekintza-ikerketa eta politiken eredu klasikoaren eraldaketa
Andoni Eizagirre • Miren Larrea
- 39** Etorkizuneko errealitateen kosorkuntza
Mille Bøjer
- 49** Kontzientzia oinarri duen ekintza kolektiboa eta sakoneko berrikuntza: behetik gorako trantsizio bidea
Sharam Yalda
- 77** Euskal Herria 2025, nazio algoritmikoa
Igor Calzada
- 91** Eraldaketa handien dimentsio kulturala: euskal esperientzia
Gorka Espiau
- 107** Lankidetzazko gobernantza eta berrikuntzarako ekosistemak gizarte erronken aurrean aldaketa eragiteko: Arantzazulab-en adibidea
Naiara Goia • Ione Ardaiz
- 131** Berrikuntza sozial sistemikoa: Eusko Ikaskuntzaren GizarteLab esperientzia
Javier Castro-Spila • Auxkin Galarraga • Koro Muro
- 147** Desiderata: Hiri Laborategizatua
Luis Berasategi
- 165** Bestela pentsatu bestela ekiteko
Lorea Agirre
- 173** Norabide aldaketarako unea al da?
Amaia Ruiz

Krisi globalari dagokion pentsamoldearen arrastoan

Aitor Zuberogoitia Espilla

Monika Madinabeitia Medrano

Mondragon Unibertsitateko Humanitate Digital

Globalak graduako irakasleak

Aldaketa bideratzen saiatu behar dugu, eta saiatu ere, bata bestearengandik ikasten duten, erronkaren alderdi desberdinak estrategikoki adierazten dituzten eta denborarekin egokitzen dakiten esku hartzeen konstelazioen bidez. Horrela lan egiteak garrantzi handia ematen dio ikas-kuntzari eta egokitzapenari (proiektu zorroen kudeaketa dinamikoaz ari garela diogu horrelakoetan), eta gure denbora horizonteak eta anbizio mailak zabaltzea eskatzen du horrek, sistema konplexuen aldaketa ez baita gautik goizera gertatzen.

Søren Vester Haldrup

2021eko udazkenean klima larrialdiari aurre egiteko Glasgow antolatutako COP26 goi bilera amaitu zenean, aditu gehienak bat etorri ziren baieztatzean bilera hartan neurri batzuk hartu, hartu zirela, baina, era berean, ia aho batez erantsi zuten, 2030erako munduko batez besteko tenperatura gehienez 1,5 graduako igoeran mantentzeko helburuari begira, motz, oso motz geratzen zirela neurriok. Unai Pascual IPBESeko ikertzaileak, horrez gain, garapen ereduaren eztabaida gelan geroz eta presenteago zegoen elefante baten berri eman zuen: ingurumen justiziaren garrantzi hazkorren

berri, hain zuzen; izan ere, munduko herrialde pobreenek ozen entzunarazi zuten euren ahotsa Eskozia aldean, aldarrikatuz Mendebaldeak euren ekonomiak berdeagotzea eskatzen bazien (emisioak gutxitu eta klima aldaketari aurre egite aldera), gero, eskatzeaz gain, herrialde aberatsek diruz ere lagundu beharko lieketela eskaera horiei erantzuteko doikuntzen ezarpen prozesuan.¹

Urtea igarota, 2022ko azaroaren 6tik 18ra Sharm El-Sheikhen (Egipto) bildu ziren 200 herrialdetako gobernu, erakunde, sektore pribatu eta gizarte zibileko ordezkariak, eta elefanteak, ordurako, eztabaida gela ez ezik, goi bilera guztia monopolizatua zuen: ofizialki zabaldu zen ezohiko gertaera meteorologikoek eragindako krisietarako konpentsazio ekonomikoei buruzko negoziazioa. Prozesu agoniko samar baten ostean, azkenean ozta-ozta lortu zen funts bat sortzea klima aldaketaren aurrean herrialde ahulenei jasaten dituzten galera eta kalteetarako. Isuriak gutxitzeko konpromisoari gagozkiola, aldiz, azken testuak ez zuen ezelako aurrerapenik Glasgowko COP26ri dagokionez (Glasgow'n erabaki zen estatuek isuriak murrizteko planak zehaztuko zituztela 2022an, mende amaierarako 1,5 graduko berotzea ez gainditzeko helburua egingarria izan zedin; urtea joan zen, ordea, eta estatu gehienek ez zituzten plan horiek aurkeztu eta Sharm El-Sheikhen ez zen ezer aurreratu arlo horretan).

Bizi dugun krisi globalaren adierazle nagusietako bat da klima aldaketarena, baina ez bakarra: Ukraina eta Errusiaren arteko gerraz mintzo gara batik bat, baina Wikipediaren arabera beste 59 gatazka armatu daude munduan barrena, urritzen ari dira natur baliabideak, ugaritzen bloke geopolitiko handien arteko tentsioak, globalizazio prozesua inboluzio betean murgilduta dago, ehunka lagun ari dira hiltzen migrazio fluxuen eraginez...

Ez alferrik, krisia sistemikoa dela aipatzen da (Gorobets 2011), eta erantzunak ere halakoxea behar duela azpimarratzen da puntuan: Nazio Batuen Garapenerako Programatik ohartarazten dutenez, barbarako, ez da komeni sistema bat

alde bakarreko ekimenez eraldatzen saiatzea; haatik, sistema batean interesa duten aldeei sistema horren ulermen partekatua lortzen laguntzea oso baliagarria izan daitekeela zehazten dute, jokabide horrek ekimen bateratu aberatsen abiapuntu modura balio dezakeelako (Vester Haldrup 2021).

Erantzun sistemikoek pentsamendu sistemikoa izan behar dute iturburu, bistan denez, baina zertaz ari gara zehazki? Modu honetan definitu izan da pentsamendu sistemikoa: diziplina, funtzio, erakunde, pertsona, joera eta kulturen arteko osagaiak, funtzioak, konexioak, egiturak, erlazioak eta dinamikak behatu, pentsatu, modelatu, simulatu, aztertu, diseinatu eta sintetizatzeko gaitasun teorikoa eta praktikoa, garapen iraunkorrek bat datozen irtenbideak lortzeko, irtenbideok arazo zorrotzetan esku hartzeko aukera eman dezaten (Gallón 2019).

Horri gagozkiola, munduko goi mailako hezkuntzari buruzko zazpigarren txostenak defendatu zuen gizarte teknologiko moderno eta globalizatuek dituzten erronka konplexuei aurre egiteko beharrezko direla

a) zientzien, teknologiaren eta humanitateen arteko diziplinarteko lana, eta b) lan horrek ahalbidetutako pentsamendu sistemikoa (GUNi 2019).

Zientzien, teknologiaren eta humanitateen diziplinarteko uztarketa hori gorpuzte aldera abiatu genuen Mondragon Unibertsitatean Humanitate Digital Globalen gradua 2019an (ikus horri buruz Zuberogoitia *et al.* bidean), transdiziplinartekotasuna (Barnett 2022) eta gizarte aldaketarako ekintza-ikerketa (Greenwood eta Levin 2006) zutabe nagusi eta ipar genituela.

Asmo horri jarraiki landu genuen UniberZiutatearen kontzeptua ere (Madinabeitia *et al.* bidean). UniberZiutatea bi ideia nagusik osatzen dute, funtsean:

Krisia sistemikoa dela aipatzen da, eta erantzunak ere halakoxea behar du. Erantzun sistemikoek pentsamendu sistemikoa izan behar dute iturburu, baina zertaz ari gara zehazki?

1. Hiria campusaren parte bihurtzen da.
2. Hiria eta bertako eragileak ez dira jada gehiago ikerketa objektu pasiboak: unibertsitateak hiriarekin batera egiten du lan, hiriarentzat (hiriaz ikertzeraz mugatu beharrean).

Kontzeptu hori zabaldu eta hiriaren eta unibertsitatearen arteko harremanaz gogoeta egiteko abiatu genuen UniverCity-UniberZiutatea nazioarteko mintegia 2019an.² Mintegi horren bigarren ekitaldian (Bilbo, 2021) aurkezturiko lanak dira, nagusiki, orain JAKINEN zenbaki monografiko honetan bildu ditugunak. Bigarren ekitaldi horren helburua izan zen gizartearen irakurketa sistemiko eta eraldatzailean diharduten antolakundearen esperientziak partekatzea (Euskal Herria eragin eremu nagusitzat dutenak batzuk, mundu zabalean dihardutenak besteak): artikulugileak etorkizun berriak irudikatzen diharduten erakundeetako ordezkari dira, eta bat datoz guztiak esaterakoan etorkizuneko sistemak izan behar direla irekiagoak, askotarikoagoak, berdinkideagoak eta, horrez gain, holistikoki lan egiteko gaituak (Fazey *et al.* 2020, Scharmer 2009). Miren Larrea eta Andoni Eizagirre harago ere badoaz euren testuan, eta azpimarratzen dute erronka nagusiek, izaera konplexukoak izaki, ikuspegi sistemikoari kontu egiten dieten gobernantza ereduak behar dituztela. Hori dela eta, lankidetzazko gobernantzaren bidea urratzea proposatzen dute, horretarako palanka modura lurralde garapenerako ekintza-ikerketa (LGEI) baliatuta. Epe ertain-luzeko metodologia eta estrategia berezia da berori, gaitasun eta baliabideak mobilizatu eta eragilearen arteko konfiantza giroa areagotzen laguntzen duena; egileon ustez, hori hasi da dagoeneko antzematen osatu dituzten deliberazio taldeetan.

Bide hori urratzeko, ezinbesteko deritzo Mille Bøjerrek ezagutza zentroetako kideen eta erabakiguneetan dihardutenen arteko elkarrekintzari. Izan ere, bere ustez, hori da modua bide berrien eraikuntzan izan ohi diren hiru oztopo nagusiak saihesteko: *wishful thinking*-a, etorkizun posible ugarien artean aukerarik egokiena hautatzeko zailtasunak eta, hirugarrenik, ikusmolde desberdinetako interes taldeak

ekintza plan komunen inguruan ezin biltzea. Kosorkuntzatik abiatuta etorkizun partekatuak diseinatzeari begira, horrez gain, faktore hauen garrantzia azpimarratzen du: elkarlanean espazio berriak eratzea, errotikako lankidetzeta eta irudimena lantzea, errealitateari ahalik eta ikuspegi berri eta osatuenarekin erreparatzea (guretzat ezezagunak diren gune eta pertsonak ere ezagutuz) eta ekintza-ikaskuntza zikloak aktibatzea, askotariko interes taldeen jardunean oinarrituta.

Haatik, bide berrien eraikuntza horretan zantzu positibo batzuk ikusten hasiak direla aitortu arren, Sharam Yaldaren ustez aldaketak motelegi datoz, kontuan izanda batik bat zein den desafioaren tamaina. Antagonikotzat jotzen ditu berak egungo botere politiko eta ekonomikoa, batetik, eta paradigma berri baten alde diharduten indarrak, bestetik, eta azken horien aldeko aldarria egiten du, maila lokaletik abiatu eta komunitateak sendotzeko dei eginez, U teoriak edota barne garapenerako helburuek dakarten mintzo berriari arreta jarrita. Yaldari begitantzen zaio, gainera, saretze alternatibo hori gertatzen ari dela dagoeneko, jendea modu globalean konektatzen eta ekintza kolektiboak aktibatzen ari baita Interneti eta mundu zabalean barreiatutako hainbat guneren jardunari esker.

Hizpide ditugun bide berri horiek, bestalde, dena datu bihurtu zaigun garaian jorratu beharrekoak dira, ekonomia, egun, hein handi batean, gure aztarna digitaletik eratorritako datuetan oinarritzen baita. Hori dela eta, Igor Calzadaren aburuz, gobernantzaz, herrigintzaz, erakundetzeaz, herri-estrategiaz, nazioa kohesionatzeaz edota balizko estatugintzaz jarduteak bai ala bai sistema algoritmikoak kontuan izatera behartzen gaitu. Datafikazio estrategia emantzipatzaileak erdieste aldera, lau lanabes proposatzen dizkigu berak nazio-gintzaren narratiba berri bati ekiteko: nazio algoritmitakoaren bidea urratzea datuak lurraldeari itzuliz, zelatatze-estrategiak saihestu eta gizarte desberdintasunak murrizteko datu burujabetza lantzea, erabiltzaile eta hiritar modura

dagozkigun eskubide digitalak bermatzea eta, hori guztia hezurmamitzen hasteko, datu kooperatibak eratzeari ekitea.

Arazoa da, ordea, Gorka Espiauren arabera, egungo narraitibek ez dutela argitzen zelan integra daitezkeen horrelako dinamika komunitarioak indarrean diren garapen ereduetan. Kultur dimentsioari garrantzi handiagoa ematea ezin-

Krisi sistemikoak
gizartea eratzeko
modu berriak bilatzera
behartzen gaituenez,
unibertsitateek ere gara
ditzatela berrikuntza
arduratsua sustatzen
duten modelo
pilotu esperimental
erreflexiboak euren
eragin eremuen barruan

bestekotzat jotzen du berak, sustrai kulturelek eragin erabakigarria daukatelako ekintza kolektiboan. Haatik, eransten du, euskal eragile instituzional eta ekonomiko nagusien diskurtsoak ez du faktore hori behar beste aintzatesten, fokua enpresen eta produkzio ehunaren garapenean jartzen segitzen duelako: berdintasunaren eta giza garapen iraunkorraren inguruko diskurtso positiboa gorabehera, hutsune nabarmenak daude haren iritziz genero berdintasunarekiko

ko eta lurraldearen trantsizio ekologikoarekiko benetako konpromisoarekin; gabezia nabarmen horiek gogoan, euskal gizartearen hurrengo eraldaketa berrirudikatu beharra da-goela ondorioztatzen du.

Sistema baten aldagai guztiak eta euren arteko harremanak aintzat hartuko lituzketen aldaketa prozesu eta gobernantza ereduez ari garela, azken batean, eta, Miren Larrea eta Andoni Eizagirrereren ildo beretik, Naiara Goia eta Ione Ardaiz ere lankidetzazko gobernantzaren eta analisi sistemikoaren premia nabarmentzera datoz, herri erakundeei agenda publiko eraberritua eraikitzen eta kudeatzen laguntzeko funtsezko elementuak direla iritzita. Egileon irudiko, gaur egungo gobernantza moduak motz geratu dira, eta instituzioen gaitasun estrukturala eta ezagutza ez dira nahikoa «uneko erronken

eskalari, abiadurari, interrelazioari eta konplexutasunari aurre egiteko». Horregatik, ezinbesteko deritzote herritarrek ahalduntzeko mekanismo berriekin esperimentatzeari eta abian diren tokiko ekimen eraldatzaileak elkarrekin konektatzeari.

Eraldaketa-aren dimentsio hori garrantzitsua da Javier Castro-Spila, Auxkin Galarraga eta Koro Murorentzat, iruditzen baitaie gizarte berrikuntza-aren planteamenduetatik abian jarritako ekimen askoren eragina «partziala eta mugatua» baino ez dela izan. Hori dela eta, «aldaketa sistemikoan eragiteko desirak» akuilaturik, egile horiek azaldu digute zelan diharduten gobernantza eredu berriak esperimentatzen Eusko Ikaskuntza-aren GizarteLab laborategian ere. GizarteLab tailerretan ikuspegi eta ekarpen teoriko-praktiko berrien garapen kolektiboa gauzatzen da eremu lokaletik, udaletatik abiatuta (eta udalekin elkarlanean), bizi dugun trantsizio aldirako herritarrek ahaldu guran; Legazpi, Laudio, Deba, Beasain, Arrasate eta Donostia-ko garaturiko esperientzien muinean zer dagoen azaldu digute, besteak beste, monografiko honetarako prestatutako lanean.

Izan ere, UniverCity-UniberZiutatea mintegiaren bigarren ekitaldira gonbidatutako erakunde guztiek, irakurketa sistemiko globala egiteaz gain, tokian tokiko erantzun lokalak ere sustatzen dituzte. Geroz eta garrantzitsuago da unibertsitateek ere perspektiba hori izatea, komunitate lokaletan oinarritutako tokiko garapen jasangarriaren potentziala ikertuz (European Committee of the Regions 2019) eta ikasketen curriculumetan komunitatearen beharrei erantzutera bideraturiko ekintza-ikerketaren ikuspegia txertatuz (Frandsen eta Andersen 2019). Krisi sistemikoak erantzun desberdinak eta gizartearen eratzeko modu berriak bilatzera behartzen gaituenez, unibertsitateek ere, hortaz, gara ditzatela berrikuntza arduratsua sustatzen duten modelo pilotu esperimental erreflexiboak euren eragin eremuen barruan.

Horretan ari dira, hain zuzen ere, Luis Berasategik azaldu digunez, Bilbao AS Fabrik-eko Hiri Laborategiak, teknologo, ikertzaile, ekintzaile eta herritarren bilgune izateko bokazioz:

esperimentazio zientifiko eta teknikoari espazioa eskainiz eta, aldi berean, erronka sozialei modu sistemikoan erantzute aldera, ikuspegi sozioekonomiko eta humanista ere espazio horretan sartzeko apustua eginez; hau da, giza zientziei buruzko kontsiderazioak ikuspuntu tekniko eta ebidentzian oinarritutakoarekin konbinatuz, gizarte inklusiboago, iraunkorrago eta erresilienteagoaren alde lan egin guran.

Ez alferrik, Lorea Agirrek azpimarratzen duen moduan, modernitateak hankapean harturiko gorputz eta komunitatei duintasuna eta agentzia ahalmena itzuli gura badiegu, praktika eta ezagutza kokatuak behar ditugu, bai pentsatzeko, bai pentsamendua jokabide zehatzetara itzultzeko, *pentsatu* diogunean pertsonen eta komunitateen bizitza hobetzeko balio duen mundua hausnartzeaz ari baikara. Eta badago premia, gogorarazten digu azkenik Amaia Ruizek, askotariakoak baitira alerta seinaleak, ez bakarrik garapen ereduaren krisiari dagozkionak, hor baitaude gaixotasun mental geroz eta ugariagoen inguruko datuak ere. Garaia da, beraz, diosku Ruizek, gure zaurgarritasuna eta interdependentzia aitortuta, norabide aldaketari ekiteko. Zenbaki monografiko honek, bistan denez, galtzada harri bat gehiago izan gura luke bide berri hori eraikitzeko prozesuan. 🍷

Oharrak

1. www.berria.eus/paperekoa/1946/002/001/2021-11-16/cop26-bileraren-argiak-eta-itzalak.htm
2. <https://univercity.mondragon.edu/es/inicio>

Bibliografia

- Barnett, R. (2022): 'Transdisciplinarity: A Suitably Ambiguous Idea for Higher Education', *Postdigit Science and Education* 4, 659-664. doi: 10.1007/s42438-022-00290-8.
- Fazey, I. *et al.* (2020): 'Transforming knowledge systems for life on Earth: Visions of future systems and how to get there', *Energy Research & Social Science* 70, 1-18.

- Dabars, W. B.; Dwyer, K. T. (2022): 'Towards institutionalization of responsible innovation in the contemporary research university: insights from case studies of Arizona State University', *Journal of Responsible Innovation* 9(1), 114-123.
- European Committee of the Regions (2019): *Think globally, act locally: Potential of Community Led Local Development (CLLD) in post 2020 EU Territorial Agenda*, European Committee of the Regions.
- Frandsen, M. S.; Andersen, J. (2019): 'Action research in planning education: Experiences from problem-oriented project work at Roskilde University', *Journal of Problem Based Learning in Higher Education* 7(1), 51-69.
- Gallón, L. (2019): 'Systemic Thinking', in W. Leal Filho *et al.* (argk.): *Quality Education. Encyclopedia of the UN Sustainable Development Goals*, Cham, Springer, 830-840.
- Gorobets, A. (2011): 'The global systemic crisis and a new vision of sustainable human development', *Environment, Development and Sustainability* 13, 759-771. doi: 10.1007/s10668-011-9288-6.
- Greenwood, D.; Levin, M. (2006): *Introduction to Action Research. Social Research for Social Change*, 2. arg., Thousand Oaks, Sage.
- GUNi (2019): *Higher Education in the World 7 - Humanities and Higher Education: Synergies between Science, Technology and Humanities*, Bartzelona, GUNi.
- Madinabeitia, M.; Hyatt, Susan B.; Zuberogoitia, A. (bidean): *UniberZiutaterantz: Conversing with the City*, Reno, Center for Basque Studies.
- Scharmer, O. (2009): *Theory U. Leading from the Future as It Emerges*, Oakland, Berret-Koehler.
- Vester Haldrup, S. (2021): 'We are experimenting with different approaches to systems transformation – here are five insights', *UNDP Innovation*, 2021-05-14 (<https://medium.com/@undp.innovation/we-have-experimented-with-different-approaches-to-systems-transformation-here-are-five-insights-ae545a2339b1>).
- Zuberogoitia, A.; Madinabeitia, M.; Greenwood, D. (bidean): 'Transdisciplinary Humanities for Social Transformation: The Global Digital Humanities Degree and Mondragon University AS Fabrik', *Learning and Teaching. The International Journal of Higher Education in the Social Sciences* 17(1).

Lurralde garapenerako ekintza-ikerketa eta politiken eredu klasikoaren eraldaketa

Andoni Eizagirre

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea

Miren Larrea

Deustuko Unibertsitateko Orkestra Lehiakortasunerako

Euskal Institutuko ikerlari seniorra

Ingurumen, ekonomia eta gizarteko erronka berri eta ezberdinei aurre eman beharrean gaude. Badira, noski, nazioarteko mailan eta adostasun handien babesarekin eragin eta bideratu beharreko akordioak, erabakiak eta zereginak. Gertuko eskalan ere, baina, esperimentazio aktiboaren bidetik, ari gara agenda publikoa eta gobernantza eraldatzeko ahalegin betean.

Izan ere, politika publikoen eredu klasikoak zailtasun ikaragarriak ditu egungo erronkak ulertu eta gobernatzeko. Gobernantza publikoa, orain gutxi arte behintzat, erronkak eta beroriei loturiko auziak zatitu, eta modu bereizian, bananduan eta aurreikus daitekeen eran ulertu eta antolatu izan da. Jakinekoda, ordea, erronka digital, soziodemografiko edota energetikoak eta horiei loturiko eragin ezberdinek izaera konplexua dutela, eta, horren haritik, besteak beste, ikuspegi sistemikoari kontu egiten dien gobernantza ereduen premian gaudela.

Bide berriak urratzeko aukeren artean, lurralde garapenerako ekintza-ikerketa (LGEI) da gu gehien lantzen ari garen

estrategia. Horren gauzatze bizi eta zehatza da Euskal Autonomia Erkidegoan Gipuzkoako herrialdean garatu den Etor-kizuna Eraikiz (EEI) foru programa. Orriotan behin-behineko ikaskuntzak jasotzen ditugu.

Politiken eredu klasikoa

Eskualde baten garapenerako estrategia, gaur egunean oraindik, siloen pentsaerarekin eta politikaren faseak sekuentziazatuta diseinatu eta gauzatu ohi da.

Herri erakunde nahiz administrazio publikoetan, lanaren banaketa da gauzarik nabarmenena. Sailetako funtzioak eta eginkizunak orokorrean bakarrak eta eskusiboak dira, baita plan estrategikoak ere. Antolaera eta egiteko moduek, berriz, izaera zentralizatua, goitik beherakoa eta zatikatua dute, gehientsuenetan behintzat.

Halako eredu zurrunez, inplizituki gutxienez, zera iradokitzen dute: auzi publikoak modu argian bereizi eta bakartu daitezkeela; eta, adituek, gaiaren dimentsio teknikoan zentratu eta ezagutza ziurra –edo eskura eta erabilgarri duten ezagutza– baliatuz gero, modu eztabaidea zinean aurreikus dezaketela arazo edo erronkaren irtenbidea. Behin aterabidea definitu eta formulatuta, ondoren exekuzioa diseinatu eta inplementatzen da erabaki politikoen, lege berrien edota neurri administratiboen bidetik. Eredu lineal horretan, helburu berrien definizioa ere ordura arte metaturiko ezagutza, lorpen eta eraginak kontuan hartuz erregulatzea eta garatzea izaten da arruntena.

Jarduera lerro eta norabide tazitu bat balego bezala, ardurak, eta neurri batean zereginak, argitasun eta zehaztasunez daude ezarriak eta banatuak, beraz. Hori dela eta, eskualde bateko politiken arrakasta maila, bide huraxe urra dezan, baliabideak mobilizatzeko dituen gaitasunarekin eta ahaleginarekin parekatzen da. Eskualdeen arteko politika konparatuek ere inbertsio ahalegina neurtu eta alderatzeko sesgo garbia izaten dute.

Adibidez, ikerketako baliabideetan –funtsak, giza baliabi-deak, azpiegiturak– inbertituz gero, garapen teknologikoa, lehiakortasuna eta hedaduraz eskualdeko bizi kalitatea urratsez urrats eta bata bestearen segidan hobetuko lirateke. Ildo beretik, eskualde batek ekoiz-peneko gaitasunak sofistikatuz gero, hazkunde ekonomikoaren bidetik, modu automati-koan etorriko lirateke enple-gua, irabaziak, errentak eta ongizatea gizartean barreiatzea ere (*trickle down effect*). Poli-tika desarrollista edo garapen-zalea deiturikoa da ekonomia eta gizarteari buruzko irakur-keta lineal eta positibo horren aldaera ezagunena.

Azken hamarkadetan, gorabehera askorekin bada ere, politika publikoen ulermenean bestelako irakurketek arreta irabazi dute. Neurri apalagoan izan arren, politiken gobernantzan ere hainbat zuzenketa egin dira

Gobernantza klasikoaren arazoak

Azken hamarkadetan, gorabehera askorekin bada ere, politika publikoen ulermenean bestelako irakurketek arreta irabazi dute. Neurri apalagoan izan arren, politiken gobernantzan ere hainbat zuzenketa egin dira.

Alde batetik, eredu linealaren arazo operatiboak agerian jarri dira. Hori dela eta, politikaren fase nahiz partaide ezberdinen arteko harremanak sendotzeko beharra eta joera hazi da. Zalantzarik gabe, premia klasikoaren eraginkortasunik ezak eragin edo behartu du gehien politika publikoen transformazioa, arlo eta jarduera batzuetan, bereziki.

Esate baterako, 1980ko hamarraldiaz geroztik, politika industrialetan, organizazio ezberdinen artean –unibertsitateak eta lanbide heziketako erakundeak, zentro teknologikoak, finantza entitateak, enpresak– kolaborazio eta integrazio es-plizitua erraztu nahiz sustatzeko programak eta estrategiak

ugaritu dira; gobernu maila ezberdinen artean ere bai. Alde horretatik, lehiakortasuneko politiketan, eskualde mailako ekinbideek gaur egunean erlaziozko konplexutasun gero eta handiagoa dute, edo behintzat hori bilatzeko kontzientzia eta interesa handitu da. Horrek, neurri batean, erakundeen izaera eta zentzua birpentsatzea eskatzen du (ikus, unibertsitateen kasuaz, Eizagirre eta García Fronti 2021), baita harremanak erraztu eta emankor egiteko kulturen bidea egitea ere, noski (Canto *et al.* 2018).

Bigarrenik, politiketan auzi teknikoak modu argian edota adierabakarrean zehazteko zailtasuna ere antzeman eta berretsi da. Kasu batzuetan, aldaketa teknologikoak eta garapen ekonomikoak inpaktu ez-desiratuak eta aurreikusi gabeko ingurumen eta gizarte inpaktuak izan ohi dituztela aitortu da. Hori dela eta, arriskuen erregulazio teknikorako neurri instituzionalak etengabe hedatu eta zorroztu dira, esate baterako, ezagutza zientifiko ezberdineko lantaldeak mobilizatu, osatu eta koordinatuta. Beste kasu batzuetan, ordea, arriskuak neurtu eta erregulatzeko zailtasuna edo ezintasuna ere agerikoa da; efektu ez-desiratuak gertatzeko probabilitatea edota kalteen magnitudea neurtzeko ezintasunak ziurgabetasun edota ezjakintasunezko agertoki konplexuetan ipini ohi gaitu (Eizagirre 2011).

Hirugarrenik, gero eta gehiago onartzen da edozein auzik dimentsio eta ikuspegi anitz izan ditzakeela, eta horien artean sarri askotan kontraesan eta tentsio konplexuak egon daitezkeela. Esate baterako, europar ikerketa eta berrikuntza estrategietan, azken hamabost urteotan, dimentsio tekniko eta ekonomiko hutseko programei ardurazko printzipioak ere gaineratu zaizkie, hala nola inklusioa, deliberazioa, erantzunkidetasuna, aurre hartzea, erreflexibitatea (Eizagirre 2020). Lehen une batean, printzipio horiek merkaturatzeko fasean edota onargarritasun soziala eta etikoa baloratzera-koan aplikatu dira. Baina, oraintsu, klima, osasuna edota elkarbizitza bezalako erronkei buruzko ikerketen gaia definitu eta diseinatzeko faseetan ere, pluraltasun ezberdinak

kontuan hartzeko kultura berria esperimentatzen hasiak gara (Rodríguez, Eizagirre eta Ibarra 2019).

Gobernantzaren berrikuntza

Pixkanaka-pixkanaka eta ondo kostata izan arren, arazo askoren izaera konplexuaz jabetzen eta arazo konplexuek ikuspegi sistemikoa eskatzen digutela aitortzen hasiak gara. Jakina, gaur-gaurkoz inertzia asko ditugu auzi publikoen ulermenean, eta zer esanik ez politika antolatu eta egiteko moduetan. Uste osoz edo konbikzioz batzuetan, modu erreaktiboan besteetan, Europako eskualde ezberdinetan gobernantza berritzeko esperientziak ere ugaltu dira.

Esperientzien arteko konparaketa eginda, lau ikuspegi teoriko zein praktiko ezberdindu ditugu. Batzuen arabera, parte hartze soziala erresistentzia arintzeko edota herritarrak –‘informazio onaren jabe eginez’– konbentzitzeko tresna da (argudio pragmatikoa). Bigarren ikuspegi batek, berriz, lankidetzan, politika hobeak, eraginkorragoak, bizkorragoak izan daitezela, mekanismo kultural eta instituzional bezala sustatzeko premia iradokitzen du (argudio instrumentala). Hirugarren ereduak praktika deliberatiboa gizarte bateko ikuspegi ezberdinek parte hartzeko duten zilegitasun demokratiko bezala arrazoitzen du (argudio etikoa). Laugarren ikuspegiak gaineratzen du edozein ikuspegik izan baduela, zilegitasuna ez ezik, argudio onargarriak, zentzuzkoak, desiragarriak, arrazoizkoak –baita alternatiboak ere– egiteko gaitasuna (argudio substantiboa).

Lau ereduak, noski, eguneroko politikan, intentsitate gehiago ala gutxiagorekin, elkarrekin nahastu daitezke. Horixe berretsi dugu EEI foru programak garaturiko estrategietan. Politiken konplexutasuna aitortu ahala, sakon-sakonean, bi eratako irekitasuna formulatu eta esperimentatzen ari gara. Lehenengo kasuan, gobernu eta herri erakundeak jabetu dira euren ezintasunez eta inguruko beste erakundeen ezagutza, gaitasun eta baliabideez, eta kolaborazioaren bidetik euren

jarduera legitimatu eta eraginkor egiteko aukera, edo beharra, esploratzeari ekin diote.

Bigarren erako irekitasunean, ostera, ardura demokratiakoaren izaera erlazionala eta sistemikoa modu sakonagoan planteatzen da. Horren arabera, arazoen formulazioa bera, baita arazoak ebazteko modua nahiz ebazpenak eragingo lituzkeen onurak, kalteak eta eragin aurreikusi gabeak ere, eztabaidagai bilakatzen dira; hein horretan, politika publikoaren oinarrian aurkitzen diren printzipioak, interesak, eskariak, ikuspegiak, espektatibak eta usteak, ezinbestean, eztabaidagarri bilakatu beharko lirateke (Eizagirre, Rodríguez eta Ibarra 2017). Irekitasun arduratsu horren esperimentazioa ezohikoa da, zailagoa, eta orokorrean ariketa puntual gisa eta esparru mikroan garatu da. EEI da ziurrenik lehen esperientzia trinkoa, maila anitzekoa, iraupen luzekoa eta lurralde bateko

eragile ezberdinen lankidetzaz sustatuta erronka berriei aurre hartzeko ahalegina egiten ari dena.

Edonola ere, gaur egun, globalizazioarekin eta konbergentzia teknologikoarekin batera, eraldaketa handiak bizi ditugu. Agenda publiko berrian, garrantzia hartzen ari dira, besteak beste: herrialdeetako egitura sozial eta demografiakoaren transformazioa; ekonomia tertziarioren garrantzia; ezberdintasun sozial berriak;

auzi energetikoa eta digitala. Alde horretatik, trantsizio sakonak egiteko premia eta aukeren sasoi betean gaude. Gurean ere ari gara gobernantzako eredu berriak esperimentatzen, eta horietatik ikasten, besteak beste, lehiakortasun estrategietan, pertsona zaurgarriak laneratzeko eta gizarteratzeko programetan, mugikortasun jasangarrietarako trantsizioetan

Eskualde mailan arazo
konplexuei ikuspegi
sistemikoa erabiliz
erantzuteko modu bat
ekintza-ikerketa da.
Ikerketa metodologia
moduan ez ezik, lurralde
baten garapenerako
estrategia moduan ere
ulertu eta garatu dugu

edota gizarte plural eta inklusiboetan pertsonak duintasunez elkarrekin errespetuan eta askatasunean bizi ahal izateko ekinbideetan, besteak beste.

Lurralde garapenerako ekintza-ikerketak

Eskualde mailan arazo konplexuei ikuspegi sistemikoa erabiliz erantzuteko modu bat ekintza-ikerketak da. Gure proposamenean, ekintza-ikerketak, ikerketak metodologia moduan ez ezik, lurralde baten garapenerako estrategia moduan ere ulertu eta garatu dugu, gainera (Karlsen eta Larrea 2014, Costamagna eta Larrea 2018).

Ekintza-ikerketak, hasteko eta behin, ikerlariak eta horien eskutik unibertsitateak lurraldean joka dezaketen ezohiko rol bat mahaigaineratzen du. Ohiko irakurketak zera dio: ikerlariak errealitatea kanpotik aztertzen, neurtzen, ulertzen eta azaldu behar dute. Zorroztasunaren izenean, printzipio horri ondo-ko gaineratzen zaio: ikerlariak ez dute inolako interakziorik izan behar aztertzen duten errealitatearekin, errealitate hori kutsatuko luketelako, eta, azken unean, ikerketaren bidez neurtu eta interpretaturikoa ez bailitzateke berezko errealitatea, ikerlariak manipulaturiko egoera bat baizik.

Bestelakoa da ekintza-ikerketak egiten duen proposamena. Ekintza-ikerketak egiterakoan, ikerlariak gizarte fenomenoak dituzte aztergai, alegia, gizataldeak eta horien arteko harreman ezberdinak eta horien bilakaerak. Aztergaiari ez zaio kanpotik begiratzen, baizik eta, ikertzaileak gizatalde horiekin modu dialogikoan arituz eta jarduera erreflexiboa errazteko baliabideak eskaini eta landuz, elkarrekin jakintza (teorikoa, praktikoa, enpirikoa, prozesuala) sortzen dute. Alde horretatik, ikerlariak gizataldearen egoeran eragiten dute, eta gizataldeak ere eragiten du ikerketan, eta ikertzailearen gan. Hori ez da kutsadura edo manipulazio moduan ulertzen, baldin eta ikerlariak printzipio etiko zorrotzak jarraitzen badituzte, transparentziaz arituz taldearekin, gizataldearen jakintza eta erabakimenarekiko errespetu osoz jokatu eta

horren ahalduntzea bilatuz. Bestalde, ikerketa taldeak, prozesu dialogiko horretan, distantzia kritikoa hartzeko aukera eduki behar du, eta taldeko dinamikarekin kritikoa izateko askatasuna sentitu. Baldintza horiek betetzen ez direnean, prozesua bertan behera uztea da zentzuzkoena.

EAEn ekintza-ikerketaren hurbilketa berezi bat ondu eta garatu dugu, LGEI deiturikoa (Larrea 2020). Jatorrizko proposamena Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutuak egin zuen, eta azken urteotan erakunde ugariarekin batera esperimentatuz osatu eta hobetu da; orokorrean, gobernu maila desberdinekin lankidetzan arituta (udalak eta horien eskualde garapenerako agentziak, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza). 2009an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (GFA) hasi genuen elkarlanak garrantzi berezia izan du LGEIren garapenean.

Eta aurreko ataletan azaldu ditugun arazoei zer-nolako erantzunak eman zaizkie LGEIren bidez?

Alde batetik, LGEIk linealtasuna gainditzeko proposamena egiten du, plangintzaren inportantzia ukatu gabe, baina prozesu emergenteen garrantzia aitortuz. Urte hauetako esperientziak erakutsi digu plan batetik abiatzea lagungarria izan ohi dela, baina nekez espero dezakegu gizataldeen eraldaketa planaren aplikazio hutsetik etortzea. Gobernantza publikoaren eraldaketa prozesuan, gutxien-gutxienik, beste hiru prozesu osagarri gertatu behar dute (Aranguren eta Larrea 2015):

- Lehena ikasketa da. Eraldaketa ikasten goazen neurrian soilik gerta daiteke, eta plana egin ondoren elkarrekin arituz ikasten dugunak planean jasotakoak adina garrantzi du gizataldearen eraldaketa prozesuan. Hori dela eta, eraldaketa bideratu nahi duen gizataldeak, ikasketa prozesuari bere tokia eman nahi badio, onartu beharra dauka plana egin zuenean ez zekiela gaiaz, ekosistemaz edota lurraldeko gaitasunei eta premiei buruz eraldaketa gauzatzeko jakin beharreko guztia.
- Bigarrena negoziazioa da. Gizataldean izaten diren bostere jokoak eta interesen arteko konkurrentzia onartzea ezinbestekoa da, baita ikerlari eta gainontzeko eragileen

artean izaten direnak ere. Eraldaketak zer bide urratuko duen, eta nolakoa izango den, negoziazioaren bidetik argitu eta jakin ohi dugu.

- Hirugarrena eztabaida ideologikoa da. Gizarte eraldaketa sakoneko prozesua da. Zentzu horretan, eraldaketa gertatuko bada, parte hartzaileek euren sakoneko balio eta sinesmenen kontzientzia hartu behar dute, eta horien inguruan taldean dauden ezberdintasunak eztabaidatzeko jarrera eta portaera izan behar dituzte. Ikasketa eta negoziazioa ez badira sakoneko ikuspegi horiek kontuan hartuta egiten, eraldaketa azalekoa izaten da.

Bestalde, gobernantza publikoaren eraldaketa prozesuan konplexutasuna eta ikuspegi sistemikoa kontuan hartu eta landu daitezen, LGEIk ekintza-ikerketa sistemikoaren zenbait printzipiori kontu egiten die (Larrea 2019). Alde horretatik, gizataldeko harremanetan zuzendaritza eta lidergo formalak egon daitezke, eta horiek normalean prozesuaren oinarritzko baldintzak eta arauak jarri ohi dituzte. Hala eta guztiz ere, lidergo horietatik ez da posible izaten eraldaketa prozesuaren konplexutasun osoa ulertzea edota azpitalde bakoitzaren unean uneko interesak, kezkak, egin-asmoak gidatzea. Ezer bada garrantzitsua, hori da eraldaketa prozesuko gizataldearen baitako azpitalde ezberdinei –gehientsuenetan prozesu berean sortu edo aliatuak– euren prozesua definitu eta garatzeko aukera ematea. LGEIn oinarrituriko esperientzia ezberdinetan berretsi dugu eraldaketako prozesuen baitan prozesu paraleloak gara daitezkeela. Eta hori emankorra da, betiere, azken helburuak partekatzeko eta elkarrengandik eta elkarrekin ikasteko, eta negoziatu eta eztabaida ideologikoan aurrera egiteko, une oroko ahalegin partekatua –eta erantzunkidetasunez– egiten bada. Jakina, esperientzia berean marko orokorra eta horri loturiko arauak ezarri ohi dituen lidergo formal bat eta modu emergentean sortzen diren prozesu paraleloak daudenean, kaos sentzazioa egon daiteke. Oreka hori mantentzea izaten da erronka nagusietakoa, LGEI arazo konplexuei modu sistemikoan erantzuteko erabiltzen denean.¹

Etorkizuna Eraikiz Think Tanka

Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), 2016an, EEI, lankidetzaren bidetik, eta esperimentazioan oinarrituz, lurraldearen oraingo eta etorkizuneko erronka handiei erantzuteko tresna nagusi gisa definitu zuen (Barandiaran, Canel eta Bouckaert 2023). Sei urte hauetan, EEIk 140 egitasmo berritzaile bultzatu eta 26 proiektu esperimental ipini ditu abian, eta foru programak lurralde mailako 11 proiektu eta estrategia ditu indarrean. Ekimen ezberdin horien bidetik, gainera, EEIk 50.000 pertsona eta lurraldeko 50 erakunde baino gehiago mobilizatu ditu.

Horiez gainera, EEIk, LGEIren bidez, esperimentazio aktiboaren alde egin du bi eremu gehiagotan. Horrekin bilatu da, esperientzia zehatza eta kontzeptualizazio abstraktua eta behaketa erreflexiboa eta esperimentazio aktiboa etengabe

Sei urte hauetan,
Etorkizuna Eraikiz
foru programak 140
egitasmo berritzaile
bultzatu eta 26 proiektu
esperimental ipini ditu
abian, eta lurralde
mailako 11 proiektu eta
estrategia ditu indarrean

errepikatuz, ikaskuntzak modu partekatuan lortzea, edo bilaketa hori ipar izatea, behintzat. Lehen lan eremua GFAko administrazio publikoa izan da, horren gobernantza eredua transformatzeko helburuarekin, ekinez ikasi (*action learning*) metodologian oinarriturik. Bigarren lan eremu nagusia hiru gune izan dira (EEIren Lurralde Garapenerako Laborategia, EEI Think Tanka eta Lankidetzazko Gobernantza-

ren Laborategia). Kasu horretan, LGEI berariaz aplikatuta, eta herrialdeko beste erakundeekin arituta, lurralde mailako lankidetzazko gobernantza eta kultura sakondu eta hedatu nahi izan da.

EEI Think Tanka 2020ko ekainarekin hasi zen lanean; intentsitate gehiago ala gutxiagorekin, 90 pertsonak hartu dute

parte, lau arlotan bereizita: kultura politiko berria, lanaren etorkizuna, gizarte politikak, klima aldaketa eta berreskuratzeko berdea (Larrea eta Karlsen 2021). Talde bakoitzean daude GFeko arloko ordezkari politikoak eta politiken ekosistemako erakunde nahiz pertsonak, zeinak gutxienez hilean behin biltzen diren; lau taldeak batera urtean zehar hiruzpalautan elkartzen dira, eta zuzendaritza eta jarraipen talde bana ere badago, politikariek eta ikertzaileek osatuak.

Bi lan eremu nagusi horietan, esperientzia zehatzen bidez ikasiz, arloko errorentzat erantzun sistemikoak bilatzearekin batera, guztiek badute xede orokor bat eta bera: lankidetzako gobernantza esperimentatzearen bidetik, lurraldean kultura politiko berria trinkotzea. Xede orokor horren ardura zehatza Kultura Politiko Berria (KPB) Think Tankak izan du, eta bera arduratu da bi lan eremuetako aktibitate eta gogoeta guztietan gai horri buruzko gaiak bideratzeaz ere.²

Lankidetzak eta gobernantza publikoa

KPBko taldea, 2021eko udaberritik aurrera, bi lerrotan aritzen lanean: (i) lankidetzako gobernantzako aditu ezberdinekin ikuspegi teoriko eta kontzeptualen kontrastea; (ii) administrazio publikoaren eta lurraldeko politiken gobernantza ereduak eraldatzeko proiektu errealean esperimentazioa, zeinak auzi praktikoen eta operatiboen inguruan ere deliberatzeko aukera eman digun.

Ikaskuntza horietatik abiatuta, 2022ko maiatzetik azaroa bitartean, KPBko taldekideen arteko deliberazioa abstrakzio gehixeagoko lanetan zentratu da. Jarraian, hiru ikaskuntza orokor jasotzen dira.

Eredu emergente eta plurala

EEI eta lankidetzako gobernantzaren ulermena eta artikulazioa prozesu irekia ari da izaten, erakunde askoren parte hartzean oinarrituta. Gainera, prozesu horri buruz deliberatu

egiten da (erreflexibitatea), eta antolakuntzako, erlazioko, ku-deaketako zein estrategiako ikaskuntza ezberdinak denbora errealean gaineratu eta probatzen dira.

Hasiera batean, ziurrenik, herri agintariek, edo EEIren lider formalek, gobernantza publiko berria, inplizituki behintzat, eredu formalizatu bat izatera iritsiko zela irudikatzen zuten, baita beste erakunde askok ere. Alde horretatik, plan moduko bat diseinatu, eta inplementazio bidean jarri zen, lurraldeko politikak eta erakundeen arteko erlazioak eta ardurak eredu horretara doituko zirela uste izanda. Eredu ezberdin bat, konplexuagoa, baina ohiko erara modu lineal samarrean eta deterministan planifikatua, nolabait esateko.

Hasierako planaren eta gaur egungo ekimenaren artean badira desberdintasunak, ordea. Alde batetik, lankidetzazko gobernantza modu emergentean ari gara eratzen. Bestetik, prozesu horrexek zera berretsi digu: lankidetzazko gobernantza ere, politikaren, xedearen, kulturen eta gaitasunen arabera, modu askotara ulertu eta garatzen dela.

Badira esperientziak zeinetan herri erakundea eta gobernua diren erdiguneko, eta lurraldeko erakundeei agenda politiko hobetu eta eraginkor egiteko asmoarekin parte hartzeko aukera ematen zaie. Egiaztatu dugunez, lurraldeko erakundeei ere, hainbatetan, zuhurtasunez hartzen dute bestelako lidergoak, gaitasunak edota ardurak lantzea. Bigarren esperientzia sorta batek, berriz, gobernantza agenda publikoaren eremuan kokatzen du. Kasu horretan, erabakiguneak, jardun eremuak, legimititateak eta betekizunak erakunde bakoitzak ditu bereak, baina erronka, helburu edo programa adostu samar bat ere badago, eta, elkarrekin deliberatzen duten heinean, gauza arrunta da batak bestearen ikusmoldean edota jardueretan eragitea.

Hirugarren esperientzia sorta komunitarioa da, edo subjektu politiko berri bat, zeinetan lurraldekoak diren erabakimena, baliabideak, estrategiak eta lidergoak. Kasu aurreratu bat da, gurean oraintsu esperimentatzen ari garena; halako esperientzia baten berme demokratikoak zer-nola blindatu eta landu

argitzea da auzi inportanteetako bat. Gobernantza ulertu, antolatu, formalizatu eta aurrera eramateko modu berri eta ezberdin baten adibide dira EEIn Gipuzkoaren etorkizunerako proiektu estrategikoak gara daitezen azken urteotan martxan ipinitako lehentasunezko hamaika erreferentzia zentro.

Bigarren eta hirugarren esperientziak sustatzen dituen heinean da EEI berritzailea, noski. Ikertzaileon egitekoetako bat izango da testuinguruko faktoreen arabera lankidetzazko gobernantza optimoak egon ote litezkeen argitzea. Neurri batean, eredu bakoitzaren zilegitasun demokratikoa eta berme juridikoa ere horrek argituko dizkigu. Guztiarekin, EEI, gaur egunean, lankidetzazko gobernantzaren aldaera ezberdinekin osatu eta ontzen ari den lurralde mailako estrategia adostu, sendo eta egonkortua da.

Zilegitasunaren auzia

Demokrazia ordezkatzaillearen premisa teorikoek diote herri erakundeen ardura eta betekizuna dela erabakiak hartzea; pertsona eta erakundeek alde bateko interesak baizik ez lituzkete izango, gainera. Guztien ongiaz arduratzeko zilegitasuna eskusiboa da, azken unean. Parte hartze publikora irekitako esperientzia ezberdinei buruzko kasu ikerketek orokorrean tesi hori berresten dute; balio judizioetan, batzuek hori hala izatea ontzat emanez, eta besteek kritika zorrotza eginez.

LGEI baliatuz esperimentatzen ari garen lankidetzazko gobernantzak, ordea, bestelako aukera teoriko, praktikoa eta enpirikoa bat zabaldu digu. Jakina, LGEI metodologia eta estrategia berezia da, epe ertain-luzekoa; lurraldeko erakunde ezberdinen gaitasun eta baliabideak mobilizatzen ditu, eta konfiantzak trinkotu eta hedatzeko gaitasun kulturalak lantzeari garrantzi berezia ematen dio, besteak beste.

Ekintza-ikerketaren bidez, esperientzia eta bizipenen inguruan elkarrekin deliberatu eta landuriko jakintza berri horiek gure jardueretan probatzerakoan, hainbat gai edo ideia azaleratu eta ahalbidetu dira. Hiru dira esanguratsuenak:

(i) lankidetzazko gobernantzaren bidez erantzunkidetasuna aukera instituzional eta kultural bezala lantzea; (ii) erakunde ezberdinek erabakien eta horiei loturiko ondorio eta eraginen gaineko erantzukizuna hartzea; (iii) zilegitasun ezberdinak eta horien garrantzi estrategikoa aitortzea.

Erantzunkidetasun kultura

LGEI testuinguru kultural edota sozioekonomiko zehatze-tan garatzen da. Alde horretatik, ekintza-ikerketak pertso-na ezberdinen kultura politikoak (guztion auziei buruzko hautemate subjektiboak eta orientazio psikologikoak) ere azaleratu ditu, noski.

Esperientziei buruz deliberatzeko gai edo kezketan, baita deliberaturikoa ekintzan sakontzerakoan ere, zenbait kasutan ikuspegi komunitarioaren arrastoak garbiak izan dira. Horri zor zaizkio agenda politikoa zein publikoa lankidetzazko gobernantza berriak esploratuz garatzeko adorea, eta ekimen askotan erantzunkidetasun kulturak pisua hartu izana. Zalan-tzarik gabe, LGEI aukera berriak irekiko ditu aurrerantzean ere. Jakitun gara deliberazio taldeetako pertsona eta erakunde askotan guztion auziei buruz ardurak hartzeko gogoia, ausar-dia eta eskuzabaltasuna modu mailakatuan eta elkarrekiko konfiantzak bizkortzearen bidetik sendotzen ari direla.

Lankidetzazko gobernantza, azken unean, antolaera eta pro-zedurazko kontu huts bat baino gehiago, disposizio instituzio-nal eta kultural ezberdin batzuen adierazpena (eta lanketa) ere izan daiteke. Hori dela eta, lurraldeko elementu singularrek zer garrantzi eta potentzialtasun dituzten esploratu, ikertu eta adoretzea izango da gure jomuga berrietako bat, noski.

Itxaropen horixe zuen EEIk bere jatorrizko formulazio ko-munitarioan, eta, neurri batean behintzat, berretsi ere egin da. Aipatu bezala, ordea, lankidetzazko gobernantza ezber-dinak daude lurraldean. Anbibalentzia horretan errotzen eta kultibatzen da EEI, LGEIri esker ikasten ari garenez. 🌱

Oharrak

1. Ideia horiek esperientzia ezberdinak bizi eta ikertuta osatu ditugu. LGEIren adibideetako bat da jarraian landuko dugun EEI Think Tanka. Talde horretan bizitako gogoetetan oinarrituta, LGEIri buruzko gure ikaskuntzak modu analitikoan, sakonean eta zehatzean bildu eta garatu ditugu (Eizagirre, Larrea eta Tapia 2023).
2. Gipuzkoako lurraldean kultura politiko berriari buruzko ekarpen konzeptualak, baita metodologia eta esperientzia berritzaileak ere, hemen jaso ditugu: Etorkizuna Eraikiz Think Tank (2022).

Bibliografia

- Aranguren, M. J.; Larrea, M. (2015): 'Territorial strategy: Deepening in the «how»?', in J. M. Valdaliso eta J. R. Wilson (argk.): *Strategies for shaping territorial competitiveness*, Londres, Routledge, 55-72.
- Barandiaran, X.; Canel, M.; Bouckaert, G. (argk.) (2023): *Building Collaborative Governance in Times of Uncertainty. Pracademic Lessons from the Basque Gipuzkoa Province*, Leuven, Leuven University Press.
- Canto, P.; Costamagna, P.; Eizagirre, A.; Larrea, M. (2018): 'Challenges for co-generation in the search for social impact of the university: a case of the construction of a dialogic space through action research', *European Public & Social Innovation Review* 3(1), 46-67.
- Costamagna, P.; Larrea, M. (2018): *Facilitative actors of territorial development. A social construction-based approach*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- Eizagirre, A. (2011): 'La precaución como principio de acción sostenible', *Isegoría* 44, 303-324.
- (2020): '¿Nuevos patrones de investigación? Dinámicas de apertura y cierre en el proceso de integración socio-técnica', *Arbor* 195(794), a528. doi: 10.3989/arbor.2019.794n4002.
- Eizagirre, A.; García Fronti, J. I. (2021): 'Research dynamics at european universities: changes, tensions, and possibilities', *Sociologia, Problemas e Práticas* 100, 125-141.
- Eizagirre, A.; Rodríguez, H.; Ibarra, A. (2017): 'Politicizing Responsible Innovation: Responsibility as Inclusive Governance', *International Journal of Innovation Studies* 1(1), 20-36.
- Eizagirre, A.; Larrea, M.; Tapia, F. (2023): 'Active Experimentation Through Action Research: The Experience of Etorkizuna Eraikiz Think

- Tank', in X. Barandiaran, M. Canel eta G. Bouckaert (argk.) (2023), 125-138.
- Eizagirre, A.; Udaondo, A. (2020): *Eraldaketa globalari neurria hartzen: euskal gizartea aro ekonomiko berrian*, Arrasate, Mondragon Unibertsitatea.
- Etorkizuna Eraikiz Think Tank (2022): *Kultura politiko berri baten erakuntza Gipuzkoan: Kontzeptuak, metodologia, esperientziak*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Karlsen, J.; Larrea, M. (2014): *Territorial Development and Action Research. Innovation Through Dialogue*, Farnham, Gower.
- Larrea, M. (2019): 'Systemic action research as a strategy to face the institutionalization of participatory approaches: A case study in the Basque Country', *Systemic Practice and Action Research* 32(6), 645-662.
- (arg.) (2020): *Roots and Wings of Action Research for Territorial Development. Connecting Local Transformation and International Collaborative Learning*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- Larrea, M.; Karlsen, J. (2021): 'Think tanks for a new generation of regional innovation policies', *European Planning Studies* 30(11). doi: 10.1080/09654313.2021.1985085.
- Rodríguez, H.; Eizagirre, A.; Ibarra, A. (2019): 'Dynamics of Responsible Innovation Constitution in EU Research Policy: Tensions, Possibilities and Constraints', in R. von Schomberg eta J. Hankins (argk.): *Handbook of Responsible Innovation. A Global Resource*, Cheltenham eta Northampton, Edward Elgar Publishing, 167-180.

Etorkizuneko errealitateen kosorkuntza

**Etorkizunari aurre egitean erori ohi garen
hiru tranpak**

Mille Bøjer

*Reos Partners gizarte berrikuntzako erakundearen
Europako bulegoko zuzendaria*

«Zer etorkizun nahi dugu?»

2021. urtearen amaieran, gai horri buruz hitzaldi bat emateko eskatu zidaten, Mondragon Unibertsitatearen UniverCity-UniberZiutatea mintegian, Bilbon. Atsegin handiz hartu nuen gonbidapena. Lankidetzaren eta antolaketa modu berrien arloan aritzen naizen heinean, betidanik piztu dit jakin-mina Mondragon taldeko kooperatiba berritzaileen historiak, ereduak eta bilakaerak.

Kooperatiba horietariko bat da Mondragon Unibertsitatea, eta UniverCity-UniberZiutatea kontzeptu apurtzaileak iradokitzen du hiriak unibertsitatearen parte izan beharko lukeela eta unibertsitateak lankidetzan jardun beharko lukeela hiriarekin eta hiriarentzat.

Zehazki, krisi globalei ikuspuntu lokaletatik nola hel da-kiekeen aztertu zen mintegi hartan.

Mintegia hurbildu ahala, gogoeta egiten aritu nintzen zergatik zitzaidan hain deserosoa eskatua zidaten gaiaren inguruan aritzea eta zergatik kostatzen ari zitzaidan hainbeste gauzak nola azaldu erabakitzea. Egia esan, ez zen gai

ezezaguna niretzat. Segur aski, egunero eta orduero aterako da hizpidera, aldaketari buruzko edozein forotan, munduan han eta hemen, eta nik neuk ere hamarkada bat baino gehiago daramat etorkizuna ulertzeko eta etorkizunean eragiteko gaiiei buruz askotariko diziplinetako askotariko interes taldeekin lanean.

«Zer etorkizun nahi dugu?» galdera oso ohikoa da aldaketa sozialaren arloan, baina, hala eta guztiz ere, baditu traba egiten didaten hiru tranpa. Hona hemen, beraz, hiru tranpak, eta baita bestelako mentalitate bat eta gaitasun sorta berri bat garatzea dakarren ikuspegi alternatibo bat ere.

#1 tranpa: ‘Nahia’

Lehen tranpa ‘nahi’ hitza da. Alegia, zer nahi dugun argi baldin badugu, lortuko dugu egia bilakatzea. *Nahi* bat dagoen tokian, beti badago *bide* bat, ezta? Tamalez, gure gizartearen etorkizuna ezin da diseinatu urtebetetze bateko desioen zerrenda bat balitz bezala.

Etorkizunarekin lan egiten dugunean, funtsezkoa da ulertzea zer desberdintasun dagoen fantasiaren eta irudimenaren artean. Nolako etorkizuna nahi dugun galdetzeak *ameskeria* dakar berekin, eta horrek fantasiara eraman gaitzake, hau da, geure burua egungo errealitatetik deskonektatu eta besterik gabe etorkizuna asmatzera. Alegia, munduari buruzko itxaropen eta desiorik handienak proiektatzen ditugu, eta ez diogu gure errealitateari heltzen errealitate hori den bezalako onartuz eta horren egiazko potentziala ulertuz.

Fantasia ez bezala, irudimenaren funtsa ez da zerbait asmatzea. Areago, esan nahi du mundu errearekin interakzioan aritzea, jakin-mina eta lilura lagun; benetako aukeretakako sarbidea lortzea; eta gure sormen gaitasunak aktibatzea eraldaketan laguntzeko. Esate baterako, fantasia izango litzateke hiri ideal bat asmatzea eta hura geure hirian proiektatzea, eta amestea gure hiri magiaren poderioz bilakatuko dela gure buruetan sortu dugun hiri hori. Gure fantasiak ongi

aztertzen ez baditugu, *fata morgana* erakargarri bat izaten jarraituko dute, baina ez digute lagunduko aurrera egiten; areago, trabatuta eta jarrera pasibo batean atxikiko gaituzte, ilusio bati loturik. Alta, irudimena geure egoerari beste begi batzuekin begiratzean datza. Geure lekuan murgiltzea dakar, baita haren berezitasunak, jendea, ondarea eta baliabideak ezagutzea ere; hartara, gaur egun nolakoa den hautemateaz gain, etorkizunean zer izango den ere irudika dezakegu.

‘Nahia’ erdigunean jartzea okerra dela esateak ez du esan nahi ‘nahia’ garrantzitsua ez denik. Ez da gauza bera nahi dugun horrekin konektatzea (horrek eskubide bat iradokitzen du, eta, askotan, kanpo mundutik jaso nahiko genukeen zerbaitekin lotzen da) eta barrutik datorkigun nahimena-rekin eta borondatearekin konektatzea. Borondateak gure ekarpenean arakatzea dakar, gure eginkizuna betetzea, eta garairik zailenetan ere ekinean aritzeko konpromisoa eta erabakitasuna izatea. Borondatea funtsezkoa da, eta hori gabe ez gara inora iritsiko. Baina, paradoxikoki, ‘nahia’ erdigunean jartzeak borondatea kentzea eta besteenganako arreta desbideratzea ekar diezaguke, are besteak gure desioak oztopatzearen erruduntzat hartzeraino.

Horrez gain, nahia erdigunean jarritz gero, esaten ari gara nahi duguna ‘ona’ izango dela nahitaez; baina gizarte osasuntsu batean badira jendeak nahi ez dituen edo irmoki ukatzen dituen gauzak (zergak ordaintzea, adibidez), nahiz eta gauza horiek beharrezkoak izan kolektibo handiago baten onurarako. Izan dezakegu zergak ordaintzeko ‘borondatea’, nahiz eta ez dugun zergarik ordaindu ‘nahi’.

Etorkizunarekin lan egiten dugunean, funtsezkoa da ulertzea zer desberdintasun dagoen fantasiaren eta irudimenaren artean. Nolako etorkizuna nahi dugun galdetzeak *ameskeria* dakar berekin, eta horrek fantasiara eraman gaitzake

#2 tranpa: 'Etorkizuna'

Bigarren tranpa 'etorkizun' hitza da. Iradokitzen du badagoela etorkizun berezi bat aukeratu daitekeena eta aukeratuko dena. Ohikoa da denborari buruz pentsatzea lineala balitz bezala, lerro baten gainean oraina puntu bat eta etorkizuna aurreragoko beste puntu bat balira bezala. Dena den, etorkizunera begiratzen badugu orainaren ikuspuntutik, aukera zabaleko esparru bat da egiaz etorkizuna. Ez dago etorkizun berezi eta linealik. Areago, *etorkizun posible ugari* daude, eta, horien artean, ez dago etorkizun onargarri edo desiragarri bakarra.

'Agertoki eraldatzaileak' deritzogun ikuspegitik, nire lankideek eta nik askotariko interes taldeei laguntzen diegu etorkizun posibleei aurre egiten. Saiatzen gara etorkizun 'proiektatuaren' (hots, norabidea aldatu ezean jomuga izango duguna) eta beste etorkizun 'posible' askoren (gure kontzientzia hedatuz eta gure irudimena erabiliz erdiets ditzakegunak) arteko desberdintasuna azaltzen. Aukeren ertzetan bultza egin dezakegun arren, esplizituki eta berariaz saihesten dugu etorkizun 'absurdoen' eremuan sartzea, fantasia hutserako eremua baita.

Azalpen horretan oinarriturik, etorkizuneko narratiba askotarikoak sortzen laguntzen diogu jendeari, izan desiragarriak, izan ez-desiragarriak, askotariko ikuspuntuetatik. Ikasi dugu funtsezkoa dela, nahi dugun etorkizunaz aritzea ez ezik, nahi ez ditugun etorkizunez aritzea ere, arriskuez eta erronkez ohartu gaitezen, baita orobat ekintzarik ezaren eta ohiko jokabideei segida ematearen ondorioez ere.

Etorkizun posible askotarikoak mahai gainean jartzeko ariketa egiteak irudimena hedatzea eta malgutasunez irekitzea dakar, eta, horri esker, paretik ken ditzakegu fantasia eta desio aldaezinak. Era berean, orotariko pertsonak desiratzen dituzten etorkizunak bateratzeko aukera ematen du, zeren eta, pertsona bakoitzak ikuspegi bakarrari heltzen badio, ezin da bateratzerik egin. Ez da prozesu erraza; nahasia, nahasgarria eta gatazkatsua izan daiteke. Oinarri bat eratzen da, nolanahi ere, kide eta aukera berriekin harremanetan jarri eta hartara modu kolektiboan etorkizun bat itxuratzeko.

#3 tranpa: ‘Gu’

Hirugarren tranpa ‘gu’ hitza da. Askotan, ‘gu’ esaten dugu ‘gu’ nor garen galdetu gabe. «Zer etorkizun nahi dugun» esaten dugunean, zer ari gara onartzen, badagoela ‘gu’ lerrokatu bat, denok gauza bera nahi dugula eta badakigula zer den onena gizarte batentzat? Badagoela ikuspegi objektibo edo egoki bat etorkizun onaren inguruan soilik guk identifika badezakegu?

Egia esan, aldaketa sozialaren inguruan lanean ari garenean –maila lokal, nazional zein globalean–, *interes, premia eta balio ugari dago jokoan*, ezinbestean. Zoritxarrez, ezin ditugu arazo konplexuak konpondu modu sistematikoko batean aliatuekin soilik hitz eginez eta lan eginez eta alde ditugunak kontuan hartuz. Lankidetzarako saiakera askok huts egiten dute balio, interes eta logika desberdinak agertzen direlako, edo elkarrekin ados dauden parte hartzaileengan ezartzen delako fokua, modu estu batean, eta horrek eragina mugatzen duelako.

Garrantzitsua da onartzea norbanako bakoitza beti dela ‘gu’ askoren parte. Nik badut nire familiaren ‘gu’ bat, nire komunitatearen ‘gu’ bat, nire nazioaren ‘gu’ bat, nire generoaren ‘gu’ bat, nire enpresaren ‘gu’ bat... Baliteke ni parte naizen ‘gu’ horien premiak elkarrekin talkan egotea. Esate baterako, nire enpresak nik bidaiatzea nahi du, eta nire familia ez dago ados horrekin. Hori aldaketa sozialaren esparruan zerbait lortu nahi duten askotariko pertsonen talde batera eramanda, ezin dugu ‘gu’ bakar bat osatu xede jakin batekin, parte hartzaileek konpromisoa hartua duten beste ‘gu’ batzuk kontuan hartu gabe, bestelako interes batzuk izango dituzte eta. Etorkizun posibleez ari garela, kontuan hartu behar da nork eta nola lortzen duen onura, eta nork ez. Eta zer ondorio duten eragileentzat. Ez dugu esan nahi interes guztiek balio bera dutenik; baina ez ditugu aintzat hartzen, eta hori gure kalterako da.

Nire esperientziaren arabera, posible da elkarrengandik hain desberdinak diren interesen artean taldeak osatzea. Nire lankideek eta nik egoera problematikoko berean dauden orotariko interes taldeak biltzen ditugu, izan egoera horretan eragina dutenak, izan egoera horren eragina jasotzen

Aldaketa iraunkor
baten aldeko lankidetz
sortzeko, interes taldeek
beren hiri edo gizarteko
erronka espezifiko
inguruan denboran zehar
elkarrekin lan egiteko
esparruak behar dituzte

dutenak. Adibidez, hezkuntza edo osasun sistema akastun bat, indarkeriazko krimen edo gatazka bat edo ingurumen hondamendi bat. Beharbada ez dira ados jarriko, ez arazoa definitzeko orduan, ez konponbideak bilatzeko orduan; baina badakite *statu quo*-a ez dela sostengagarria eta beharrezkoa dela aldaketa bat. Desadostasunak desadostasun, interes talde askotarikook elkarrekin lan egiten dute zeregin komunengatik inguruan, eta, prozesu horretan, elkarrengako konfiantza sortzen eta beren ikusmoldea eraldatzen dute. ‘Gu’ bat osatzen dute, parte diren beste ‘gu’ horiek ere aintzat hartzen dituenak. Askotan, zenbait ekintza partekatuko dituzte, nahiz eta bakoitzak bere arazoak izan.

Era horretako talde lanak, elkarrengandik urrun dauden interesak biltzen dituen heinean, elkarriketa eta kosorkuntza praktikatuaz lankidetzarako indarrak eratzea eskatzen du. Trebetasun bat eskatzen du aldi berean gatazka eta batasuna onartzeko, nork bere rolen gaineko ardura hartzeko eta prozesu emergente batean prozedurarako modu bat aurkitzeko. Beti osa daiteke ‘gu’ bat, are pertsona guztiek gauza bera ‘nahi’ ez dutenean ere.

Ikuspegi alternatibo bat

Etorkizuneko errealitateen kosorkuntzari buruz aurkeztu ditugun gogoeten harira, zenbait faktore lagungarri azalduko ditut.

Lankidetzarako esparru berriak sortzea

Aldaketa iraunkor baten aldeko lankidetz sortzeko, interes taldeek, zeinek beren zereginak eta ezagutza esparruak

baitituzte, beren hiri edo gizarteko erronka espezifikoen inguruan denboran zehar elkarrekin lan egiteko esparruak behar dituzte. Esparruok ez dira ohiko bulego edo ikasgelak, eta horien helburua ez da soilik ikastea, baizik eta baita ikasketa eta ekintza uztartzea ere. Oro har, erronka partekatu baten inguruan sortzen dira, eta era askotara izendatzen dira: laborategi sozialak, laborategi politikoak, ikasketa laborategiak, lankidetzarako plataformak eta talde arautzaileak. Halako esparruetan, unibertsitateek, aditu taldeek edo beste ezagutza eragile batzuek sorturiko ezagutza balia daiteke eragin bat lortzeko, eta hiriaren, gizartearen eta orotariko interes taldeen premia espezifikoei informazioa eman dezakete ikerketarako eta ikasketarako.

Gaitasuna sortzea

Etorkizuneko errealitateak askotariko balio, interes eta logiken bitartez kosortzeko, beharrezkoa da edukien ezagutzatik haragoko gaitasun batzuk izatea. Zehazki, beharrezkoa da lankidetzeta eta irudimen erradikalak gauzatzea eta praktikatzea; izan ere, bi gaitasun multzo horiek baztertuta daude eskola eta unibertsitate tradizionalen esparruan. Gaitasun mota horiek ikastea zaila da, eta ez dira alboratu behar. Prozesu eta programa jakin batzuk garatuz, agerikoago egin daiteke gaitasunon premia, eta, ariketa espezifikoen bitartez eta ekinez ikasiz eta praktikaren ganean hausnartuz, asko sakondu daiteke.

Errealitatea eta haren potentziala berriz hautematea

Fantasiaren tranpari iskin egin eta irudimena aktibatu nahi badugu, ezbairik gabe beharrezkoa da ikasgelatik eta gure konfort eremuetatik ateratzea. Toki ezezagunetara joan, normalean hitz egiten ez dugun jendeari entzun edo gure hedabideen burbuilatik irten: errealitatean murgiltzeko modu asko dago, denak ere lagungarriak errealitatea begirada berri batez ikusteko eta gure aurreiritziei aurre egiteko.

Hain zuzen ere, agertokiekin lan egitea, funtsean, eraldatze prozesuan dagoen errealitate bat berriz hautemateko metodo bat da. Momentuko potentziala antolatzean datza, eta momentuko eta tokiko joerak eta berrikuntza emergenteak sakonki ezagutzea eskatzen du. Ikasketa hori erabiliz gero etorkizunean askotariko ibilbideak marrazteko, errazago identifikatuko ditugu esku hartzerako eta aldaketarako aukera giltzarriak.

Elkarrekin eta denboran zehar esperimentatzea eta lankidetzan aritzea

Helburua baldin bada hirian edo gizartean egiazko eragin bat lortzea, sortzen diren ezagutzek ekintza osatu behar dute etengabe. Ezagutzaren eragileen arteko lankidetzak –hots, unibertsitatearen eta gizarte eragileen artekoak– ziurta dezake ekintza hori iraganeko ikasketan oinarrituta egongo dela eta ikasketa-ekintza zikloen bitartez osatuko dela etorkizuneko ikasketa. Askotariko interes taldeak talde lanean modu jarraitu batean arituz gero, gaitasunak eta konfiantzazko harremanak sor daitezke, eta horrek lankidetzari denboran zehar eustea errazten du. Nolanahi ere, beharrezkoa da arretaz begiratzea ‘nola’ gauzatzen den lankidetzari; hots, berariaz diseinatu behar dira lankidetzaren prozesua eta egitura, eta kontrol mekanismoak ezarri lankidetzak nola funtzionatzen duen aztertzeke eta moldaketak egiteko. Lankidetzari erraza eta arina izango dela uste izateak lankidetzari gaizki ateratzea ekar dezake, eta, beste modu batera jardunez gero, eragin handia lor daiteke.

Beste modu batera pentsatzeko eta jarduteko premia

Gaur egungo gure akzio eta inakzioen bidez, etortzearen etorkizuneko errealitatearen kosorkuntza dihardugu. Kosortzen ari garen etorkizuneko zenbait alderdi desiragarriak

dira. Beste batzuk ez dira desiragarriak, eta halakoak saihesteko joera dugu, egiak min ematen baitu. Egin dezagun etenaldi bat eta galde diezaiogun geure buruari, modu kolektiboan eta gureez bestelako ikuspegiak dituztenekin bat eginda: etorkizuneko zer errealitate ari gara kosortzen gaur egun? Etorkizuneko zer errealitate posible irudika ditzakegu, gaur egungo munduko errealitateak kontuan hartuta? Zer dakarkio horrek gutariko bakoitzak –gizabanako, talde zein erakunde– hiri, komunitate eta gizarte osasuntsuago, bidezkoago eta jasangarriago bat lortzeko gaur egun jokatu behar dugun rolari?

Maila globaletik lokalera, gizarte trantsizio konplexuak behar dira, gizakiaren premiak planetaren muga naturalen arabera asetzeko. Ez da esperantzan eta fantasian galtzeko garaia. Errealitateari aurrez aurre eta adorez begiratzeko ordua da, sormena aktibatzekoa, gure rola jokatzekoa eta modu berri eta erradikalagoetan besteekin lankidetzan aritzekoa. 🌱

Kontzientzia oinarri duen ekintza kolektiboa eta sakoneko berrikuntza: behetik gorako trantsizio bidea


Sharam Yalda

*Human Nation berrikuntzarako aholkularitza
enpresaren sortzailea*

Muturreko krisi ekologiko, sozial eta pertsonalak bizitzen ari gara, eta, denborarekin, larriagotzen ari dira; izan ere, azken hamarkadetan bereziki, azkartu egin da polikrisi gisa eta porrot sistemiko bezala defini dezakegun fenomeno hori.

Krisi horien ondoriorik larrienek sistema politiko eta ekonomikoei eragiten diete, Bigarren Mundu Gerraz geroztik ezagutu dugun 'mundu ordena industrial' ezarria desorekatu dute, eta, akaso, auzitan jarri dituzte azken mendeetan, Ilustraziotik gutxienez, helduleku izan ditugun uste oinarritzkoenetako batzuk.

Klima aldaketak, mundu osoko biodibertsitatea galtzeak eta tokian tokiko hondamen ekologikoak erronka itzelak izan dituzte ondorio, eta horrek esan nahi du gizateriaren historia modernoaren inflexio puntu batean gaudela, lehen aldiz nekazaritza iraultzak masa ekoizpenaren aroa abiarazi zuenetik eta gizakiok eskura ditugun baliabideak amaigabeak direlakoan eratu dugun ustiapen eredua martxan jarri zenetik.



Doughnut Economics-en eredu honek planetaren muga ekologikoak eta muga sozial onuragarriak haustearen ondorioak jasotzen ditu.
Iturria: World Economic Forum.

Orain bizi dugun aroari ‘Antropozenoa’ deitu diote geologoen. Seigarren suntsipen masiboaren aroarekin bat egiten duen epealdi horretan, gizakia planetaren ekosistemak muturreraino estutzen ari da, baita Lurraren geologia ere, eta ekosistema natural osoak eraldatzen ari da, baldintza hilgarriak eragiteraino. Norabidea aldatu eta baliabideak eta energia ekoitzi eta kontsumitzeko dugun modua mudatu ezean, krisi ekologiko gero eta sakonagoa eta Gaiaren ordena natural zabalaren hira pairatzera kondenatuta egongo gara, giza zibilizazioaren kolapsoranzko galbidean; hala, gizakiok geure buruak desagerraraziko ditugu ordena naturalaren baitatik.

Aberatsen eta pobreen arteko polarizazio soziala gorenean dago egun, tokian toki nahiz mundu osoan. Gero eta esku gutxiagotan biltzen dira aberastasuna eta diru sarrerak,^{1 2} eta,

ondorioz, gero eta jende gehiago bizi da pobrezian. Azken urteetan izan diren krisi ekonomikoek joera hori areagotu besterik ez dute egin; bereziki, 2008ko finantza porrotak eta COVID-19aren pandemiak.

2030 Agendak xedatutako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) 2030erako betetzeko bidean gauden honetan, ekologiaren egoera okertu eta gizarte desparekotasuna areagotu dela dioten txostenak jasotzen ditugu urtero.

Azken olatu globalizataileak, orokorrean, pertsona gutxi batzuei egin die mesede, eta handitu egin da elite horrek finantza sistemaren eta kapitalaren banaketaren gainean duen kontrola. Horren ondorioz, aberastasuna modu desparekoan banatu da, eta gero eta jende gehiago geratu da ekonomia globaletik at, enpleguari, jaki elikagarriak eskuratzeko aukerari, lurrari eta eragin politikoari dagokienez, besteak beste. Itzalpeko edo legez kontrako ekonomia ere kontuan hartzen badugu, zenbakiak are gordinagoak dira; armen trafiko ilegalak, droga trafikoak eta pertsonen trafikoak (lanerako nahiz sexu esplotaziorako), kontsumo ondasun faltasuek eta lapurretek merkataritza globalaren atal esanguratsua osatzen dute, eta atzera ere elite txiki hori da legez kontrako jarduera horien onuraduna. Berriki argitaratutako txosten baten arabera, «itzalpeko mundu kriminalak bat egin du negozio eta politikaren mundu ikusgaiarekin, eta lausotu egin ditu legezkoa eta legez kontrakoa denaren arteko mugak».³


Artean:

Industriaren deslokalizazioak Europaren eta, oro har, Mendebalde osoaren industria sarea ahitu du, hornidura kate ahulak sortu ditu

2030 Agendak
xedatutako Garapen
Jasangarrirako Helburuak
2030erako betetzeko
bidean gauden honetan,
ekologiaren egoera
okertu eta gizarte
desparekotasuna
areagotu dela dioten
txostenak jasotzen ditugu

eta erresistentzia indarrez gabetu ditu tokian tokiko ekonomiak; besteak beste, langabezia eta azpienplegua dira gizarte arrakalaren kausa nagusietako bat.

Egun, mundu osoko herritarrek kontra egiten diote Ilustrazioaren garaitik ezarritako kontratu sozialari, zeinaren iturburua askoz lehenago ere aurki baikenezake, giza zibilizazioaren jatorrian, hau da, gizarte eredu patriarkalean. Aski ezaguna da eredu horrek darabilen antolaera politiko eta soziala, baita jabetza eskubide eta tituluen banaketa ere; halaber, genero eskubideak, genero dinamikak eta gizarte parekidetasuna taxutu ditu, eta, legeen eta logika filosofikoen baitan kodetuta, gizarte industrial modernoaren sistema eragilearen muintzat funtzionatu du.



Adimen Artifizialaren bidez sortutako artelan honek 'jainko buru eta errege patriarkal monoteistari' eginiko desafioa irudikatzen du, suge energia emearen birsorkuntzaren bitartez, zeina bat-batean altxatzen baita, dualtasun naturala biziberritzeko.
Iturria: DALL-E (OpenAI). Egilea: Sharam Yalda.

Gerda Lerner eta David Graeberren lanek agerian uzten dituzte genero desparekotasunaren eta gizarte ekitatearen krisiaren azpian dautzan misoginiaren eta sistema sozioekonomiko esplotatzailearen erroak, zeinak Babiloniako Ham-murabi kodean eta Abrahamen bideetan barrena (judaismoan, kristautasunean eta islamean batez ere) ezarritako pentsamolde monoteistan aurki baititzakegu.

Gero, esan zuen Jainko Jaunak: «Ez da on gizona bakarrik egotea;egin diezaiodan berari dagokion laguna».

Jainko Jaunak, landako abere guztiak eta zeruko hegazti guztiak lurrez moldatu eta gizonari eraman zizkion zein izen ezartzen zien ikusteko; honela, bizidun orok gizonak ezarritako izena izango zuen. Beren izena jarri zien, beraz, abere guztiei, zeruko hegaztiei eta piztiei; baina berari zegokion lagunik ez zuen aurkitu. Orduan, Jainko Jaunak lozorroan murgilarazi zuen gizona. Loak hartu zuenean, saiheits-hezur bat kendu zion, hezuraren hutsunea haragiz bete ziolarik. Jainko Jaunak gizonari kenduriko saiheits-hezurrez emakumea moldatu eta gizonari eraman zion. (*Hasiera 2*, 18-22)

«Sor itzazue umeak eta ugaltu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean narraska dabiltzan piztia guztiak». (*Hasiera 1*, 28)

Gizonen eremu den razionalismoak gizonezko monoteismoa izan du oinarri, eta zientzia eta industria modernoaren sistema eragilea izan da, Isaac Newton, Thomas Hobbes eta Charles Darwin aita figurekin. Haatik, garrantzitsua da aitor-tzea garaian garaiko testuinguru kultural eta historikoak taxutu zituela horien ideiak; tartean, elite nagusiek generoaren, erlijioaren eta razionaltasunaren gainean zituzten ikuskerek.

Historia nagusiak klase nagusi boteretsua edo estatua ordezkatzeko, nekez islatzen du errealitatea, eta bazter uzten ditu subjektu zapalduen mundu ikuskerak. Mendebaldeko zientzia eta industria modernoaren garapena taxutu zuten faktore konplexuak egiazki ulertzeko, ezinbestekoa da diziplina anitzeko ikuspegi erradikala baliatzea; hain zuzen, loratzen ari diren konplexutasun ikasketei esker, modu osoago eta konplexuago batean uler ditzakegu gure historia eta

ondarea, antropologia, arkeologia eta beste zientzia batzuk konbinatuta.

Harrigarria da antzinako ideiek eta pentsamendu sistemek nola irauten duten, aurrerapen itzelak eginagatik; hain zuzen, aurrerapauso horiek garaipentzat hartzen ditugu, baina, egiazki, oinarri-oinarrizko giza eskubideen eta ekitatearen

berreskurapena baizik ez dira. Emakumeek gizartean dituzten rolek aurrerapen handia egin dute azken bi mendeetan, Mendebaldean bereziki; bertan, hiru olatu feministen abarogan egin dute aurrera, azken hamarkadaren amaieran hasitako laugarren olatua hartzeraino. Alabaina, emakumeen askatasun eta eskubideak handituta ere, balio patriarkal eta

Sistema politiko bertikalen nagusitasuna gorabidean da mundu osoan, eta prozesu hori azkartu egiten dute teknologiaren arloko aurrerapen esponentzialek

hierarkikoen eraginpean daude oinarri-oinarrizko egitura eta erakundeak oraindik ere; tartean, sistema politikoak, jabetza, erakunde ekonomikoak, armadak eta erlijioa.

Gobernu sistemak, gizarte arauak eta kultur praktikak goitik behera inposatu zaizkie komunitateei, eta ez dira modu naturalean garatu. Orokorrean, ‘inplementatutako sistema’ horiek eragin esanguratsua izan dute komunitateen antolalarokalean: sinesmen sistemen eta balioen bitartez, tokian tokiko kulturetan sartu dira, are etxeetan, familietan eta jendearen eguneroko jarrera eta ohituretan ere. Sistema horiek inplementatzeko, indarkeria edo hertsadura baliatu izan dira maiz, edo, bestela, konplizitatea bermatzeko ‘pizgarriak’.

Sistema politiko bertikalen nagusitasuna gorabidean da mundu osoan, eta prozesu hori azkartu egiten dute teknologiaren arloko aurrerapen esponentzialek; batik bat, energiaren erabilerari, garraioari, komunikazio digitalari edo armei dagozkienek. Finantza sistema lausoen eta zerga paradisuen bitartez, sistema horiek aberastasuna esku jakin batzuetan

are gehiago kontzentratzea ekarri dute, eta tokian tokiko ekonomia eta negozio txikiak desagerrarazi dituzte. Era-kunde inbertitzaile handiek (nagusiki, BlackRock, Vanguard eta Blackstone) eta estatuaren itunpeko hitzarmenek (zeinak lobby taldeen eta *think tank* edo aditu taldeen interes jakinen eraginpean baitaude) gobernatzen dituzte sistema horiek, eta, normalean, talde txiki eta ez-demokratiko horiek epe laburreko irabaziak lehenesten dituzte, epe luzerako jasan-garritasunaren aurretik.

Boterea diruak gidatutako eragin indar ez-demokratiko eta elitista horien esku egoteak gutxitu egiten du estatuak eta erakunde multilateralek beren herritarrak ordezkatzeko eta arazo transnazionalei (klima aldaketari, adibidez) heltzeko duten ahala; izan ere, erakunde pribatu horiek interes pribatuen eta finantza merkatuko emaitzen arabera lerritzen dute beren eragin indarra alde batera edo bestera. Interes eta emaitza horiek, normalean, kontraesanean daude epe luzeagoko asmoekin eta ongizate amankomuna babesteko helburuarekin.

Egun indarrean dauden arauak kulturalki eta sozialki erai-kiak diren heinean, porrot sistemikoaren aurrean auzitan jarri behar ditugu beroriek.

Krisitik, aukera: ‘amorraren aroko’ arrakala eta nostalgia, eta elkarlana oinarri duen etorkizun eraberritzailea ernatzea

Establishment politikoa *statu quo*-an errotuta dagoenez, ageri-koa da ez daukala krisi gero eta larriagoari aurre egiteko nahi-rik, ezta gaitasun nahikorik ere; bien bitartean, ezegonkorta-sun soziala gero eta kezkarriagoa bilakatzen ari da. Gero eta nabarmenagoa da: eragile nahiz erakunde politiko boteretsuek osatutako gutxiengoaren eraginpean, eta interes nazional eta globalek zeharo baldintzatuta, *establishment* politikoak auke-ra mugatuak ditu maniobratzeko. Apurkako aldaketak egin arren, eta aldaketa hauspotzeko merkatu berrikuntza nahiz


tresna politiko berriak sustatu arren, emaitzak eskasak dira; itxuraz, agintean diren indar politikoak eta *statu quo*-arekiko interes ezarriak dira oztopoa.

Tokian toki nahiz eskualdeetan, shock ekonomikoak eta horien albo kalteak pairatzen dituzte herritarrek, eta, horien ondorioz, larritu egiten dira. Kontzientzia eta jarrera kontentagaitza handiagotzen ditu horrek, eta jende saldoak altxatzera daramatza. Aldi berean, polarizazioa handiagotzeak gizarte arrakala itzela sortu du, eta zalantzan jarri du Bigarren Mundu Gerratik bederen indarrean egon den kontratu soziala (Mendebaldeko herrialdeetan). Kontzientzia globala eta hornidura kateen shockak berebat ari dira garabidean diren herrialdeak desegonkortzen, are erregimen 'egonkor' autokratikoak dituztenak ere. Gizarte arrakala eta polarizazio gero eta handiagoa izan da horren ondorio nagusia: 'amorruren aro' izendape-nak definitu bezalaxe, estremismoak gora egin du espektror politikoaren ezker nahiz eskuin muturretan, eta talka egiten du erakunde eta politikagintza nagusiekin; horren adibide ditugu, esaterako, itzalpeko estatuaren teoriak AEBetan.

Politika multilateralei dagokienez, Europako Batzordearen Trantsizio Berde, Digital eta Justu baten aldeko gidalerro politikoekin ari da Europa ekonomia berri bateranzko bidea urratzen, Europako Batasunaren Hitzarmen Berdean ezarritakoari jarraiki. Haatik, politikek norabide berria hartu badute ere, herri ekintzaileen ustez mantsoegia da aldaketa, maila globalean batez ere. Aurrez aurre ditugun erronkei heltzeko premia larrian gaude,⁴ eta ez goaz bide onetik: noraezean gabiltza, eta ez gara gai GJHak betetzeko eta klima aldaketa 1,5 gradura mugatzeko, Nazio Batuen nazioarteko hitzarmenek, 2030 Agendak eta Parisko Akordioak ezarri modura. Ekimen horien aurkako *backlash* edo kontrako erantzuna agerikoa da. Elitearen zokorik kontserbadoreenak eta horien jarraitzaile diren gizarte estratuek babesten dute jarrera hori, espektroraren eskuin nahiz ezker muturreko ikuspegi nostalgiko eta estremistekin. Haatik, AEBetako eta Europako eskuin muturreko talde kontserbadoreak dira,

batik bat, *backlash* horren sustatzaileak: horien ikuspegiaren baitan bat egiten dute familia balio tradizionalen berreskurapenak, aniztasunaren eta LGTB kolektiboaren aurkako jarrerak eta gutxiengoen, migranteen eta kanpoko langileen kontrako arrazakeriak. Halaber, klima aldaketa ukatu egiten dute, eta ekologistak eta manifestari antisistemak gizartea desorekatu nahian dabiltzan erradikaltzat dituzte. Muturreko indar politiko horiek amorruta zirikatzen dute sarri, eta promesa itxaropentsuak egiten dizkiete sistemak bazter utzi eta bozkatzeko eskubiderik ere ez duten kide zapuztu horiexei; esaterako, hezkuntza eta kritikotasun maila apalagoa duten landako herritarrei, zeinek sentitzen baitute sistema politikoaren korrante nagusiak alde batera utzi dituela.

Diseinu marko birsortzailea



Praktika konbentzionaletatik aldentzen den diseinu birsortzailerako markoa (Daniel Christian Wahl; Mang eta Reed (2012) jatorrizko lanetik moldatua).

Bien bitartean, erro sakoneko ingurumen eta gizarte porro-
tei heldu nahi die ikuspegi konbentzionalak, finantza merkatu
'jasangarri' berri bat sortzeko. Horretarako, Jasangarritasunari
dagozkion 'estrategia progresista' deritzenak erabiltzen ditu:
Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (ingelesez, Corporate So-
cial Responsibility, CSR), eta, berriki, Ingurumena, Gizartea
eta Gobernantza (ingelesez, Environmental, Social and Gov-
ernance, ESG). Beren aldetik, ingurumen eta gizarte auzietan
aritzen diren aktibistek sentitzen dute jasangarritasuna eta
horri lotutako estrategiak ez direla nahikoa erronka horien
jatorria aurkitzeko, bereziki arazo horien jatorrian dauden
antolakunde politiko eta instituzional berberak badira auzi
horiei heltzen dietenak. Estrategia horiek eta horietatik erato-
rritako ekintzek ez dituzte kolokan jartzen arazo horien erroan
dauden oinarritzko egiturak eta sistemak (sinesmenak/usteak),
eta hori da gorago aipatutako eszeptizismoaren jatorria.

Sakoneko eraldaketaren aldekoek Kultura Birsortzaile eta
Ekonomia Birsortzaile deritzon ikuspegiari heldu diote; hain
zuzen, gero eta indartsuagoa da ikuspuntu hori, eta erro sako-
nak ditu. Gauza bera gertatu da Ekonomia Zirkularrean bu-
ru-belarri diharduten pertsonekin; izan ere, Ellen MacArthur
Fundazioak zehaztu duen eta orokorrean onartu den defini-
zioaren arabera, ekonomia eredu hori berez da birsortzailea,
diseinatuta dagoen moduagatik.⁵ Ikuspegi sakonago horiek
ekodiseinua eta bizi zikloaren kudeaketa bateratzen dituzte:
Michael Braungart eta William McDonough-ek garatutako
cradle-to-cradle (sehaskatik sehaskara) diseinu ereduak hala
definitu zuen, baita Janine Benyusek garatutako biomimetis-
moak ere.⁶ Ikuspuntu horiek argi eta garbi aldentzen dira 'har-
tu, egin, erabili, bota' eredu tradizional eta linealetik, eta eredu
zirkularrera gerturatzen dira: produktuak irauteko diseinatzen
dira, eta sistemek materialak berrerabili, birmanufakturatuz,
hobetzeko berrerabili eta birziklatzea sustatzen dute, begizta
ziklo itxi zehaztugabea; hala, giza jardueraren eta naturaren
arteko sinbiosia areagotzea da asmoa. Kate Raworth-ek antze-
ko ekonomia ereduak diseinatu zuen: *Doughnut economics*.⁷

Gizartearen eta planetaren mugak orekatu nahi ditu eredu horrek, ekonomia birsortzaile eta distributibo baten baitan.

Giza diseinuak dituen erronkei aurre egiteko ikuspegi sakonek joera komunak dituzte: guztiek nahi dute joan ja-sangarritasun kontzeptu kon-bentzionaletatik harago,⁸ eta gizartea eta ingurumena berreskuratu eta birsortuko dituzten sistemak garatzea dute xede, harmonia soziala, berdintasuna eta, azken buruan, naturarekiko sinbiosia lortzeko (Birkeland 2002, Rahimi-fard *et al.* 2018). Kultura birsortzailea abiada betean da, eta elkarrekin bat egiten duten mugimendu sorta askotarikoa gorpuzten du.

Sakoneko eraldaketaren
aldekoek Kultura
Birsortzaile eta
Ekonomia Birsortzaile
deritzon ikuspegiari
heldu diote

Egun aurrean ditugun erronka sistemiko globalek, nola diren desparekotasuna, ingurumenaren hondamena eta tentsio sozial nahiz kulturalak, tokian tokiko eraldaketa eskatzen dute, baita hori mundu osoan kopiatu eta moldatzea ere. Eraldaketak norbanakoak, kolektiboak eta erakundeak inplikatu behar ditu, pentsatu eta izateko modu berriak sor daitezen, zeinak inklusiboagoak, parekideagoak eta bideragarriagoak izango baitira epe luzean, eta berebat egingo baitiete aurre oinordetzaren egiturak ordezkatzeko dituzten sistema sozial eta politikoei. Horrenbestez, behar premiazko eta funtsezkoa dugu eraldaketa sakonagoak eta bide argiagoak aurkitzeko, behar-beharrezko trantsizio hori gerta dadin.

Erreduktionismoa, razionalismoa eta monokultura: lehia neoliberalaren eta kapitalaren indibidualismoaren oinarriei aurre egitea

Erreduktionismoari, enpirizismoari eta berrikuntza sistematikoari dagozkien zenbait ikuspuntu modernok onura sozial ugari ekarri dute; auzi sozial eta existentzialei heltzerakoan,

ordea, mugak dauzkate. Zientzian eta teknologian ardaztutako ikuspegi konbentzionalek ahalmen mugatua dute krisi sistemiko eta existentzialei aurre egiteko. Ikuspegi erredukzionistek ez dute giza harreman eta antolakundeen izaera sistemiko eta konplexua kontuan hartzen: horixe dute mugapena.

Froga historikoek erakusten dutenez, estatu aurreko gizarte ugari parekideak ziren,⁹ eta botere hierarkia horizontalak zituzten. Agerikoa da hori, halaber, naturarekin eta genero rolekin harreman desberdina duten kultura indigenetan: gauza guztien arteko loturan jartzen dute azpimarra, eta giza esperientziaren gaineko kontzientzia emozionalagoa edo sakonagoa dute (Schulze eta Mooney 1993, Walker 2000).

Erredukzionismoaren mugak baieztatu ahala, jakintza arlo berriak sistemak osotasunean pentsatzea sustatzen ari dira; hala gertatu da, esaterako, basoen nerbio sistemaren inguruan berriki egindako ikerketetan (Simard 2018).¹⁰ Koexistentzia eredu parekideagoetarantzko joerak islatzen duenez, botere egitura hierarkiko tradizionalen mugak errekonozitu dira. Horren ondorioz, arau monoteistak kolokan daude eta bizimodu esanguratsu eta asebetegarriagoekin ordezkatzeko desirak gain hartu die. Beste bizimodu hori bat letorke natura eta unibertsoa hautemateko dugun moduarekin, eta ikusmolde eta pentsamolde pluralistekiko interes berpiztuarekin garatuko litzateke, aniztasuna eta konplexutasuna balioetsita.

Tokian toki garatutako jarduera eta egitasmo asko dira bilaketa horren erakusgarri: egitasmo horiek koexistentzia eredu parekideago bat berreskuratu nahi dute, elkar laguntza eta elkarlana oinarri dituzten komunitate eta erakunde berariazkoen bitartez. Esanahi eta gogobetetasun handiagoa bilatzeko desirak bultzatzen gaitu bizimodu arretatsu eta berariazkoago baterantz, eta horren isla da pentsamendu pluralistarekiko eta bizimodu parekide eta jasangarriagoetara lerratutako filosofiekiko dagoen interes gero eta handiagoa. Gizartearen korrante nagusiak bazter utzi ditu aniztasuna eta konplexutasuna sustatzen dituzten ikusmolde horiek, eta oso intelektual gutxik eta horien jarraitzaile gutxik onartu dituzte. Hala, orain ari

gara atzera deskubritzen hala Kant nola Jung, baita pentsalari existentzialista ugari eta, berrikiago, Ken Wilbur ere: publiko gero eta zabalagoak bereganatzen ditu horien ideiak.

Erantzun globala hedatzea, kontzientzia oinarri duen tokiko ekintza kolektibo deszentralizatuaren bitartez

Genero berdintasunaren, aniztasunaren eta askatasun indibidualaren aldeko mugimendu deszentralizatu eta globalek kokolan jartzen dituzte estatu modernoaren eta mundu ordena globalaren inguruko noziorik oinarritzkoenak. Mugimendu horiek zabalak eta askotarikoak dira, baina feminismoaren laugarren olatuak biltzen ditu. Sare sozialek nahiz sareko aktibismoak ahalbidetu dute goraldi feminista hori (gauza bera gertatu zen Udaberri Arabiarrarekin, Errusiako Pussy Riot mugimendurekin, Femen mugimendurekin, #MeToo kanpainarekin eta, orain, Iranen, Emakumeak-Bizitza-Askatasuna iraultzarekin). Laugarren olatuko feministek zalantzan jarri nahi dute 'emakumeen esperientzia' bakar eta unibertsal bat dagoenik, eta injustizia eta desparekotasun sistematikoa seinalatu nahi dituzte. Beste mugimendu batzuekin intersekzioan zertzen dira, eta denek ere bilatzen dute erantzukizuna, gardentasuna, belaunaldien arteko okerrak zuzentzea, belaunaldi arteko traumak sendatzea, injustizia ekologikoak konpontzea eta gutxiengoaren eskubideak babestea. Gizarte ekitatiboago eta justuago bat sortzeko desira islatzen dute erronka horiek, eta agerian uzten dute pentsamendu alternatibo baterantz lerratzen ari garela, gero eta konplexuagoa eta interkonektatuagoa den munduan esanguratsua eta asebetegarria izango den bizimoldea bilatzeko.


Orokorrean, bi tentsio global nagusi nola areagotzen diren ikusten ari gara. Alde batetik, dagoeneko existitzen diren botere politiko eta ekonomikoek bertikalki egiten dute bultza, goitik behera: gobernantza porrotak eta interes pribatuak esplotatzen dituzte aukera ekonomiko berriak edukitzeko,

jasangarritasunaren auziaren erroan dauden kauei heldu ordez. Bestalde, behetik gora dator bigarren bulkada: komunitatean antolatutako mugimenduek bide berriak urratu nahi dituzte erronka komunei heldu eta aldaketa sortzeko. Gizarte arrakalak egonagatik, eta erresistentzia ekonomikorako indarrik ez badago ere, elkarrekin ikusmolde eta irtenbide berriak lantzeko elkartzen ari da jendea: norbanakoen eta gizartearen ongizatea eta osasuna dituzte helburu, baita ekosistema naturalekin harmonia handiagoa edukitzea ere. Teknologia berriek komunitate deszentralizatuak ahaldundu ditzakete, baina kezka iturri ere badira; izan ere, gero eta kontrol autoritarioagoa dago teknologiaren eskuragarritasunaren gainean, eta zientziak eta teknologiak badute nahikoa botere eraginik edukitzeko askatasunaren, ongizatearen eta giza eskubideen baitan. Ongiaren-aldeko-teknologia eta ongiaren-aldeko-zientzia aldarrikatzen dituen mugimendua handitzen ari da, eta gardentasuna sortu eta interes talde jakinen autoritate zentralizatua geldiarazteko ikuspegiak sustatzen ditu. Gero eta mugimendu zabalagoa dago nork bere burua antolatu eta tokian toki komunitate berriak sortzeko. Erresistentzia eraiki, elikagai eta energia burujabetza garatu eta komunitate indartsuagoak eratu daitezke, elkarbizitzaren eta elkarlanaren bitartez leku eta guneak diseinatuz, landaguneak birpopulatuz eta ongiaren aldeko teknologia erabiliz: hala nola plataformak edo DLTak (ingelesez, *distributed ledger technology*; honela itzul liteke: kontabilitate banatuko teknologia). Tokian tokiko alkateak eta eskualdeak berebat ari dira herritarren eskakizunei erantzuten: erakunde deszentralizatuen bitartez erakundeak modu berritzailean erreformatu dituzte, praktikarik onuragarrienak garatu eta partekatu ahal izateko.

Sakoneko berrikuntza, kontzientzia oinarri duen ekintza kolektiboaren bitartez

Antolamenduaren inguruko teoria aldakorrei esker, komunitate berriak loratu dira eta aldaketarako bide berriak

sustatu dituzte. Horren eredu da Massachusetts Institute of Technology (MIT) unibertsitatearen School of Management (SLOAN) erakundearen garatutako ikuspegia. Duela hogeitau urte inguru sortu zen eskola adar hori, Presencing Institute izenpean. MITeko irakasle titular Otto Scharmer gidari zela, Presencing Institutek U teoria delakoa garatu zuen, aldaketa eta sakoneko berrikuntza bideratzeko marko gisa; egun, U-School for Transformation izena du (Eraldaketa-rako U eskola).¹¹ Sakoneko berrikuntza berebat lerrokatzen da International Futures Forum (Etorkizunen nazioarteko foroa) erakundearen hiru horizonteen ereduarekin; hala, Daniel Christian Wahlen moldaketak etorkizun bideragarri eta birsortzaile baterako trantsizioa agertzen du¹² (H3Uni erakundeak eskaintzen du hiru horizonteen azalpen xehea),¹³ hau da, eraldaketa sakona.



Hiru horizonteen eredua, International Futures Forum erakundearen lanetik moldatua; hirugarren horizonteak sakoneko berrikuntzaren bidea erakusten du. Iturria: Daniel Christian Wahl.

U teoriaren oinarritzko ideiaaren arabera, norbanakoeak, kolektiboak eta erakundeak gaitasuna dute *presencing* deritzena egiteko, hau da, 'presentzia lantzeko': auzien azpian datzan

U teoriak metodologia, tresna eta ikastaro irekiak biltzen ditu bere baitan. Norbanako nahiz kolektiboentzako laguntza eskaintzen du

errealitate sakonagoa sumatu eta errealitate horren arabera etorkizun desberdin bat sor dezakete. U teoriak honakoa proposatzen du: aldaketa eta berrikuntza eraginkorrak izan daitezen, halabeharrez ulertu behar du nork bere burua sakonki, baita norberaren ekintza eremu den testuinguru

sozial eta sistemiko zabalagoa ere, hala nola norbanakoak eta kolektiboak. Ikuspegi horrek 'kontzientzia oinarri duen sistema aldaketa' aktibatzea eta zabaltzea du helburu. Ekintzan oinarritutako ikerketa ikuspegi horren arabera, kontzientzia maila gorena da gizartearen eraldatzeko indargune erabakigarria.

Testuinguru horretan, azalean ikusten denaz gaindi begiratzea litzateke kontzientzia: aurrean dugun errealitatean are sakonago murgiltzea, errealitate berri bat azalera dadin, *presencing* edo 'presentzia lantzearen' praktikaren bitartez gure gogo, bihotz eta borondatea aukera horri zabaltzen dizkiogun. Presentziaren lanketa hori modu kolektiboan eginez, 'ekiteko konfiantza' duten komunitateak garatu ditzakegu, zeinek U teoriaren arabera lan egingo baitute; horrela, gai izango dira gizarte erronka errotikoenei helduko dieten soluzio berriak elkarrekin diseinatu, prototipoak egin, probatu eta garatzeko. Modu horretan, elkarlana eta engaiamendua sustatzeko marko gisa balio du U teoriak, kontzientzia eta kontenplazioa oinarritzat hartuta. Kideak talde dinamiketan areago murgil daitezen laguntzen du, eta erakundeei aukera eskaintzen die berariazko planifikazioa, prototipoen diseinua eta ekimenak aurrera ateratzeko, baita ekintza horiek asmo sakonago batekin lerrokatzeko ere.

U teoriak proposatutako ‘presentziaren lanketaren’ atzean, funtsezko ideia hau datza: eredu alternatibo bati etorkizunean bidea zabaltzeko, bizi dugun errealitatearen ‘jatorrian’ sartu behar dugu; alde horretatik, arretaren edo kontzientziaren ondotik heldu da forma, hau da, gure sinesmen sistemen bitartez (pentsamenduaren bitartez) ematen diogu forma, hein batean, gure errealitateari. Hori horrela, gure ekintzen muinean dagoen barne espazio hori aldatuta, hots, pentsamenduak eta oinarritzko sinesmenak aldatuta, errealitatea alda dezakegu. Hori modu kolektiboan eginez gero, ekintza gune dugun ‘eremu soziala’ aldatzeko gai izango gara. Hala ere, arretak errealitatean duen eragina ulertzeko, maila indibidualean aritzeko dugun moduari erreparatu behar diogu lehenengo.

U teoriak metodologia, tresna eta ikastaro irekiak biltzen ditu bere baitan (doan daude eskuragarri, Creative Commons lizentziarekin). Norbanako nahiz kolektiboentzako laguntza eskaintzen du, talde autogestionatu eta deszentralizatu horiek U teoriak proposatutako prozesutik igaro daitezen. Hala, U eskolaren programen bitartez, online komunitate globalak dituzte topagune, elkarrekin ikasi eta elkarren esperientziak partekatzen.

Presencing Instituteren lana Ego-to-Eco (Egotik Ekora) izeneko markoagatik ere bada ezaguna; hain justu, horren helburua da identifikatutako hiru arrakala handiak lantzea. Horretarako, «izeberg eredu»¹⁴ aplikatzen dute (Scharmer eta Kaufer 2013), zeina beherago hobeto analizatuko baitugu, egungo sistema sozioekonomikoarekin lotuta:

- Marko horren arabera, ikusgai dauden gertakari eta krisien azpian, horien jatorri diren egitura, eredu mental eta iturriak daude. Ez ikusiarena egiten badugu, errealitatearen geruza sakon horiek halabeharrez bultzatuko gaituzte patroi zaharrak behin eta berriro errepikatzen.
- Izebergaren puntaren antzera, egun bizi dugun egoeraren sintomak egungo errealitatearen alderdi ikusgarri eta espizituak dira. Sintomen artean, auzi eta patologiek

osatutako paisaia zabala aurki dezakegu, eta hiru arrakala hartzen ditu bere baitan: arrakala ekologikoa, gizarte arrakala eta arrakala espirituala.

Halaber, izebergaren ereduaren bitartez hauxe froga daiteke: gure kontzientziaren 'hiru arrakala' horiek hausturak edo hutsuneak sortzen dituztela guk ezagutzen dugun sistemen eta errealtatearekin atzera konektatzeko landu behar ditugun behar sakonagoen artean. Gizartearen minak eta babesguneak identifikatuta, guk sortutako errealtatearen manifestazioa baitira horiek, gizartearen sakoneko erronkei heltzera bideratzen du ekintza Presencing Institutek.¹⁵ U teoriak norbanakoaren nahiz komunitatearen garapenerako baliatzen ditu kontzeptu horiek, eta lidergorako, erakundee-tarako eta hazkunde pertsonalerako erabili dira.



Izeberg ereduak niaren hiru zatiketak erakusten ditu,
norbanako nahiz kolektibo gisa.


Beheko diagramak U teoria eta izebergaren azpian dautzan hiru mailak irudikatzen ditu; denak ere landu beharrekoak dira erronken jatorrira iristeko.

Gure gizarte egituren artean, izebergaren puntako ondorioen oinarri diren sistemak eta antolamenduak daude, pentsamendu eta paradigmen babesean. Horiei heltzeko modu bakarra pentsamendu horien jatorria eraldatu eta birsortzea da, ondorioak ere berriak izan daitezten. Presentzia landu eta eraldaketa lortzeko prozesuan, U ibilbidean barrena lagunduko diguten hainbat praktika egin behar ditugu: jatorrira jo behar dugu, ezkerretik lehenik eta eskuinetik gero, etorkizun berria loratu eta errealtate berri bat elkarrekin sortzeraino.



Izeberg eredua U teoriarekin bateratuta,
bizi ditugun sintomen jatorrira iritsi gaitezke.

Presentzia lantzeko eta praktika kontzienteen bitartez al-daketa katalizatzen, hainbat aurrebaldintza landu behar ditugu: ikasitako sinesmen eta arauetan oinarritutako epaiak baztertu behar ditugu (epaiaren ahotsa bazter utzi; hurrengo irudian, ingelesezko VoJ edo *Voice of Judgement* gisa ageri da); errealitatea hautemateko dugun gaitasuna oztopatzen duen zinismoa edo mesfidantza birbideratu behar dugu (zinismoaren ahotsa birbideratu; irudian, ingelesezko VoC edo *Voice of Cynicism* bezala ageri da); eta gudan biziki errotuta dauden beldurrak askatu behar ditugu (beldurraren ahotsa askatu; irudian, ingelesezko VoF edo *Voice of Fear* bezala ageri da), beldur horiek adierazten baitute begien aurrean ditugun errealitateei atxikitzen gatzaitzkiela. Presente egotearen helburua da norbanako eta kolektiboek beren potentzialik gorena eta xederik onena zein den ulertu eta horretara iristea; hau da, honakoak deskubritzea: nor naiz ni? eta, zein da nire lana? Horrenbestez, metodo horrek norbanakoen trantsizioa bultzatzea du helburu: beren xede sakonekin bat ez datozen lanak egitetik ('I' xehez idatzia), Lan egitera igaro daitezke ('I' larriz); izan ere, azken horren xedea da norbere xede gorena eta eguneroko ahalegin eta ekintzak bateratzea.



U teoriaren prozesuaren mapa xehe bat, sakoneko eraldaketaren bidean.

U teoriari esker, bestelako emaitzak sortzen dira, eta, hala, ekosistema berriak elkarrekin sortzeko balia daiteke. Prozesuaren baitan, ezinbestekoa da askatzea, presentzia lantzea, ideia berriak mamitzea, prototipoak diseinatzea eta aldaketa gorpuztea. Mentalki eta emozionalki zabaldu nahi badute, eta elkarrekin errealitate berri batera igarotzeko adorea bildu nahi badute, parte hartzaileek zabalik izan behar dituzte ‘gogoa’, ‘bihotza’ eta ‘nahia’. Gune sozial eta kolektibo seguru bat sortu eta zaindu beharra dago, aldaketa gertatzeko ezinbestekoa baita, prozesuan inplikaturako pertsonak zabaldu eta aska daitezen laguntzen duen heinean.

*The Journal of Awareness-Based Systems Change*¹⁶ (kontzientzia oinarri duten sistemen aldaketa) aldizkariaren arabera, ikerlari eta profesionalentzat plataforma global bat elkarrekin sortzeko eginiko ahalegin handiago baten parte da U teoria, eta kontzientzia oinarri duten sistemen aldaketaren eremuari dagokio. Prozesu horretan, gizarte sistemen sakoneko egiturak

elkarrekin arakatu behar ditugu, horiek aldatzeko eta funtsezko gizarte erronkei helduko dieten emaitza berriak lortzeko. Arlo sozialak berebiziko esangura du praktikak nahiz gizarte sistema aldatzerakoan: gizarte sistemari barrutik nahiz kanpotik erreparatzen dio, eta errealitate sorkuntza indibidual, sozial eta erlazionalaren geruzarik ikusgaitzeneri heltzen die.

2021ean Suedian garatutako Inner Development Goals¹⁷ ekimen eta komunitatea (ingelesezko siglekin, IDG; euskaraz: barne garapenerako helburuak) bat dator sakoneko berrikuntzarekin eta berariazko eraldaketarekin. Presencing Institutek bezalatsu, IDG komunitate eta ekintzak berebat dira aldaketa sistemikoa tokian toki lantzen ari diren pertsona eta talde sare deszentralizatu eta globalaren ordezkari. IDG komunitatearen programa globala oso azkar ari da hazten, eta horren parte diren tokian tokiko jardunguneak saretzen ari dira: horiek guztiek baieztatzen dutenez, barne garapena eta eraldaketa kolektiboa ezinbesteko baldintza dira Garapen Jasangarriako Helburuak (GJH) lortzeko. Garapen jasangarria gauzatzeko trebetasun eraldatzaileen funtsezko marko bat eskaintzea da IDG delakoen helburua, eta, horretarako, kosorkuntza ikuspegia eta beharrezko trebetasun horiek garatzeko metodo zientifikoa biltzen dituen kit bat jartzen du eskuragarri: lizentzia irekiaren bitartez, metodo horiek dohainik erabil ditzake edonork. Egungo IDG markoak bost dimentsio eta hogeita hiru trebetasun eta ezaugarri jasotzen ditu, eta horiek guztiak bereziki erabakigarriak suertatzen dira GJHak betetzeko aldagetan.

1	Izatea – Niarekiko harremana
2	Pentsatzea – Gaitasun kognitiboak
3	Harremanetan egotea – Besteak eta mundua zaintzea
4	Elkarlana – Gaitasun sozialak
5	Ekitea – Aldaketa bultzatzea

Barne garapenak hartu beharreko neurria,
IDG komunitateak zehaztu duen moduan.

Ekimen eta kolaborazio global ugari jakintza partekatzea eta komunitate nahiz norbanakoak ekintzara bultzatzea dute xede, eta, helburu hori lortzeko bidean, bitartekari dituzte tokian tokiko jardunguneen sarea eta globalki konektatuta dauden taldeak, zeinak lanean ari baitira aurrean ditugun erronkei erantzuteko modua aldatzeko, are goitik behera eginitiko politikek gidatutako ekimenek aurrera jarraitzen badute ere. Ildo beretik, International Futures Forum¹⁸ erakundeak garatutako hiru horizonteen ereduak berebat azpimarratzen du eraldaketa sakona behar-beharrezkoa dela alternatiba bideragarri bat eraikitzeko, ohiko negozio ereduak eta gehikuntzan oinarritutako ikuspegiek ez baitute halakorik egingo.

Kontzientzia oinarri duen sistema aldaketa eta ekintza kolektiboa, praktikan

Nire lan pertsonalean, jasangarritasunaren eta diseinu birsortzaile sistemikoaren eredura igaro den ekonomista naizen aldetik, jakitun naiz jasangarritasuna ez dela nahikoa arazo ekologiko eta sozialak birsortu eta berrezartzeko. Izan ere, zientzialarien eta adituen komunitateak ohartarazi bezala, eta NBERen Ekintzaren Hamarkadan aitortu bezala, denbora tarte laburra dugu erreakzionatzeko eta 2030 eta 2050 urteetarako helburuak betetzeko. Niretzat, argi eta garbi dago: larrialdi ekosozial globalaren eta tokian toki azaleratzen diren sintomen aurrean, egungo instituzioen jasangarritasun bulkada geldoegia da, eta ez da nahikoa; gainera, pentsamolde esploatazaile nagusiak zuzentzen ditu instituzio horiek, funtsean.

2020an, HumanNation enpresa eta agentzia jarri nuen abian, Kultura eta Ekonomia Birsortzaile bateranzko trantsizio bidea garatu dadin sustatu eta laguntzeko, berrikuntza sakoneko metodoak aplikatuta. Bide horretan, lasaigarria suertatu zait trantsizio bera egiten ari den beste hainbat pertsona aurkitzea. Izan ere, horiek ere erabat sinetsita daude arazoen jatorririra jota baino ez dela posible sakoneko aldaketa gertatzerik; horretarako, gure barne muinetik lan

egin beharra dagoela pentsatzen dute. Trantsizio sakonago horren alde lanean ari diren norbanako eta kolektibo sareek osatzen duten komunitate globala izugarria da. Trantsizio birsortzailea aztertzen ari nintzela, U teoria aplikatzen ikasi nuen. Orain, gauza bera egin dut IDG markoarekin: ikuspegi horrek aski errotutako auzi sozialak lantzeko baliabideak eskaintzen dizkie erakundeei nahiz pertsona berritzaileei, eta auzi sakon horiei egiaz heltzea du xede; hots, ez da mugatzen dagoeneko martxan dauden negozio ereduak edo *modus operandi*-ei jasangarritasun irizpideak gehitzera.

Bizitza eta gizatasuna ardatz dituzten diseinu pentsamolde horiek marko eta oinarri indartsuak eskaintzen dituzte berrikuntza erradikal eta apurtzaile berriak sustatzeko, tokian toki lan egin eta elkarlan globalean arituta. Sakoneko berrikuntzarako teknikak azkartu egingo dute Europako Batasunaren politika eta ildoak argi eta garbi definitutako helburuak betetzeko trantsizioa; haatik, Green Deal eta New European Bauhaus-en antzera, egiazki berariazkoak diren proiektu eraginkorren bidez egin nahi lukete hori. Hala-ko proiektuek gizartearen min guneez arduratu behar dute, zuzen-zuzenean: hiru arrakalei heldu behar diete, eta gizartean azaltzen diren burbuilak nahiz gunek itsuak landu behar dituzte.

U teoria aplikatzeko, u-Lab programa balia daiteke, zeina ekosisteman inpaktua edukitzeko prototipo eta ereduak garatzera iritsi baita. Azken hiru urteetan, lantalde motor bat eta kolaboratzaileak are urrunago heldu dira, eta hurrengo u-Lab x2 programa azkartzailaren¹⁹ bitartez garatu dugu gure egitasmoa. Halaber, erakundeen kudeaketarako eredu alternatiboak arakatzear

Bizitza eta gizatasuna ardatz dituzten diseinu pentsamolde horiek marko eta oinarri indartsuak eskaintzen dituzte berrikuntza erradikal eta apurtzaile berriak sustatzeko, tokian toki lan egin eta elkarlan globalean arituta

datza gure lana, tokiko ekonomiak atzera indartu eta enpresa txiki eta ertainek gidatutako negozio kluster lokalak garatzeko; besteak beste, honakoak aztertzen ditugu: Steward Ownership (administrazio jabetza) ereduak enpresak, Shared Wealth (aberastasun partekatua) ereduak eta TEAL erakundeak. Gure azken kontzeptu ereduak landaguneak birpopulatzeko beharra du ardatz: gazteak eta emakumeak populaziorik gabeko landaguneekin konekta daitezen bultzatu nahi dugu, baita urrutiko lana eta ekoizpen eredu deszentralizatuak ahalbidetu ere. Horretarako, aurrez identifikatutako kokagune zehatzetan proiektu pilotuak proposatuko ditugu lehenik. Landaguneeen eta hiriguneeen arteko lotura sustatu nahi du egitasmo horrek; horretarako, gazteek eta emakumeek behetik gora zuzendutako ekintzazailtza eta berrikuntza bultzatuko du, lau helizeko (ingelesezt, Four-Helix) lankidetzaren ekosistemaren laguntzarekin; besteak beste, hezkuntza eta ikerketa erakundeekin, tokiko agintari publikoekin eta bestelako enpresekin batera lan eginez (Schütz, Heidingsfelder eta Schraudner 2019).

Azken oharrak

Gorago azaldutako hiru horizonteen ereduari atzera erreferentzia eginez, etorkizun bideragarri bateranzko aldaketa egiazko eta sakonaren sorburuan ezinbestean egongo da sor-kuntza erabatekoa eta tokian toki oinarritutako antolakunde progresista eta eklektikoek bultzatutako eraldaketa; hala, tokiko komunitate, ekintzaile, barne ekintzaile eta lider ameslariak urratuko dute bide berri hori. Elkarrekin ikasi eta jakintza partekatzeko sare eta gune global konektatuak sortuta, tokian tokiko ahaleginak susta daitezke, eta bertan aurkitutako konponbideak beste leku batzuetan moldatu eta errepikatu.

Gutxikako aldaketek aurrera egingo dute 'jasangarritasunaren' bitartez: horietako zenbait hutsalak eta kaltegarriak izango dira, baina beste batzuek hiru arrakalak konpondu eta onbideratzeko balioko dute.

Etorkizun birsortzaile, berde, inklusibo eta, beraz, bidera-garrirako bidean, trantsizio horren kontrako indarrak egon badaude. Interes pribatuek eta ideia kontserbadoreek baldintzatutako zenbait indar kontraerasoan ari dira, eta eraberritzearen edo sozialki inklusiboa den trantsizio berdearen aurkako indar arriskutsuak hauspotzen ari dira. Politikariak bideratutako kontraerasoak ausarki ukatzen du larrialdi ekosoziala, edo beste batzuei egozten die erro-erroko arazoan errua, gizarte arrakala areago zulatuz. Kontraeraso indartsu horrek erakunde politikoei eragiten die, politika espektroan ezker eta eskuin mutur berriak sortzen ditu eta liskarrak eragiten ditu tokian tokiko komunitateen baitan. Horren aurrean, politikariak noraezean dabilen publiko etsia mobilizatzen dute, masa hori irensten errazak diren erantzun nostalgikoekin bazkatuta; horren ondorioz, batzuetan, komunitateak modu arriskutsu eta are bortitzean zatitzen dira. Egoera onbidertzeko aukerari kontra egiten dion itzaleko indar hori ezker eta eskuineko politikagintza tradizionaletik harago doa.

Gizateria bere historiako bidegurutze erabakigarrian dago, bere etorkizun larria taxutu beharrean. Zibilizazio gisa bizirauteko gaitasuna indar kontserbadoreen aurkakotasuna jasateko gai diren indar birsortzaileen baitan dago. Indar birsortzaile horien arrakastak zehaztuko du zer-nolako azkartasunarekin erantzungo diogun larrialdi ekosozialari. Klima aldaketak, biodibertsitatearen galerak, gizarte bazterkeriak eta indarkeriak dagoeneko eragina dute gugan, eta gizateriaren etorkizuna ziurgabetasunez betetzen dute.

Baina badugu arrazoirik baikortasunez, itxaropenez, mobibazioz eta erabakimenez beteta egoteko ere, bide birsortzaileak itsasargi itxaropentsu bat eta aukera boteretsu bat eskaintzen baitizkigu erronka existentzial hori gainditzeko. Une honetan hartzen dugun erabakiak gizateriaren etorkizuna taxutuko du, eta gure biziraupena baldintzatuko du. Aukera paregabea dugu gizartearen sistema eragilearen mui-na berridazteko. Ilustrazioan eta Urrezko Aro Islamikoan pentsamolde eta gizarte egitura berriak loratu ziren bezalaxe,

garai honetan are sakonera jo behar dugu guk, auzitan jar-
tzeko desoreka oro: gizonen eta emakumeen artekoa, gizaki
ororen artekoa eta gizakien eta naturaren artekoa. Gutako
bakoitzak gure oinarritzko balioak berriro aztertu behar ditu:
hala nola autodeterminazioa, askatasuna, parekidetasuna eta
gure espiritualtasunaren askatasun paregabea. Haatik, ahal
den heinean, prozesu horrek kolektiboa izan behar du. Hori
eginez gero, oinarrian datzan sistema eragilearen muina be-
rridatziko dugu, sistema bera berrabiaraziko dugu eta etor-
kizun hobea eraikiko dugu, modu egiaiti eta esanguratsuan:
tokian toki hasi eta mundu osoan zabalduko da. 🌱

Oharrak

1. www.credit-suisse.com/about-us/en/reports-research/global-wealth-report.html
2. www.oxfam.org/en/tags/inequality
3. <https://globalinitiative.net/wp-content/uploads/2021/03/The-Global-Illicit-Economy-GITOC-Low.pdf>
4. www.un.org/sustainabledevelopment/decade-of-action
5. <https://ellenmacarthurfoundation.org/topics/circular-economy-introduction/overview>
6. <https://biomimicry.org/what-is-biomimicry>
7. www.kateraworth.com/doughnut
8. <https://designforsustainability.medium.com/sustainability-is-not-enough-we-need-regenerative-cultures-4abb3c78e68b>
9. www.science.org/doi/10.1126/science.aaa5139
10. <https://sitn.hms.harvard.edu/flash/2019/exploring-the-underground-network-of-trees-the-nervous-system-of-the-forest>
11. www.u-school.org
12. <https://medium.com/activate-the-future/the-three-horizons-of-innovation-and-culture-change-d9681b0e0b0f>
13. www.h3uni.org/tutorial/three-horizons
14. www.u-school.org/ego-to-eco
15. www.u-school.org/acupuncture-points
16. <https://jabsc.org/index.php/jabsc>
17. www.innerdevelopmentgoals.org

18. www.internationalfuturesforum.com/three-horizons
19. www.u-school.org/offerings/ulab-2x-2023
www.aspeninstitute.org/wp-content/uploads/files/content/docs/pubs/4th%20sector%20paper%20-%20exec%20summary%20FINAL.pdf

Bibliografia

- Birkeland, Janis (2002): *Design for Sustainability. A Sourcebook of Integrated, Eco-logical Solutions*, Londres, Earthscan.
- Graeber, David; Wengrow, David (2021): *The Dawn of Everything. A New History of Humanity*, New York, Farrar, Straus and Giroux.
- Hawken, Paul (2007): *Blessed Unrest. How the Largest Movement in the World Came into Being and Why No One Saw It Coming*, New York, Viking Press.
- Kauffman, Stuart A. (1995), *The Limitations of Reductionism in Biology*.
- Lerner, Gerda (1987): *The Creation of Patriarchy*, New York, Oxford University Press.
- Mang, Pamela; Reed, Bill (2012): 'Regenerative Development and Design', in Vivian Loftness, Dagmar Haase (argk.): *Sustainable Built Environments*, New York, Springer, 478-501. doi: 10.1007/978-1-4614-5828-9_303.
- McDonough, William; Braungart, Michael (2002): *Cradle to Cradle. Re-making the Way We Make Things*, New York, North Point Press.
- Rahimifard, Shahin *et al.* (2018): 'Net Positive Manufacturing: A Restoring, Self-healing and Regenerative Approach to Future Industrial Development', *Procedia Manufact* 21, 2-9.
- Scharmer, Otto; Kaufer, Katrin (2013): *Leading from the Emerging Future. From Ego-System to Eco-System Economies*, San Francisco, Berrett-Koehler Publishers.
- Schulze, Ernst Detlef; Mooney, Harold A. (1993): *Holism and reductionism in ecology: The debate continues*.
- Schütz, Florian; Heidingsfelder, Marie Lena; Schraudner, Martina (2019): 'Co-shaping the Future in Quadruple Helix Innovation Systems', *She Ji. The Journal of Design, Economics, and Innovation* 5(2), 128-146.
- Simard, Suzanne W. (2018): 'Mycorrhizal Networks Facilitate Tree Communication, Learning, and Memory', in Frantisek Baluska, Monica Gagliano eta Guenther Witzany (argk.): *Memory and Learning in Plants*, Cham, Springer, 191-213.
- Walker, Evan Harris (2000): *The Physics of Consciousness. The Quantum Mind and the Meaning of Life*, Cambridge, Perseus.
- Wilber, Ken (2000): *Sex, Ecology, Spirituality. The Spirit of Evolution*, Boulder, Shambhala.

Erreferentzia osagarriak

Diru sarrera eta aberastasun desparekotasunari buruzko txostenak

Credit Suisse Global Wealth Factbook (2012)

www.una.org.uk/magazine/summer-2012/natalie-samarasinghe-fresh-approach-global-economic-governance

<https://inequality.org/facts/global-inequality/#global-wealth-inequality>

2018: www.oxfam.org/en/pressroom/pressreleases/2018-01-22/richest-1-percent-bagged-82-percent-wealth-created-last-year

www.oxfam.org/en/press-releases/worlds-billionaires-have-more-wealth-46-billion-people

2021: www.oxfam.org.au/wp-content/uploads/2021/01/Oxfam-The-Inequality-Virus-Report-2021.pdf

www.weforum.org/agenda/2017/04/the-new-economic-model-that-could-end-inequality-doughnut (Iturria: Munduko Ekonomia Foroa).

Ikus hau ere: Doughnut Economics Action Lab (<https://doughnutecomics.org>).

Cottey, Alan (2022): 'Climate and nature emergency: From scientists' warnings to sufficient action', *Public Understanding of Science* 31(6), 818-826. doi.org/10.1177/09636625221100076.

'The global risks landscape & the risks-trends' (www.zurich.com/en/knowledge/topics/global-risks/global-risks-landscape-and-risks-trends-interconnections-maps-2019) (Iturria: Zurich Insurance Group Ltd: www.weforum.org/reports/the-global-risks-report-2021).

www.weforum.org/agenda/2020/04/who-funds-world-health-organization-un-coronavirus-pandemic-covid-trump

'Confronting the Climate Crisis with Scientist Activism: the Essential Role of Rule Breakers' (<https://blog.ucsusa.org/erika-spanger-siegfried/confronting-the-climate-crisis-with-scientist-activism-the-essential-role-of-rule-breakers>).

Euskal Herria 2025, nazio algoritmikoa

**Eskubide digitalak babestuz, datafikazio
estrategia emantzipatzaileak egikaritu**

Igor Calzada

*Gizarte Zientzietako ikertzaile nagusia Cardiffeko
Unibertsitatean*

Sarrera: Euskal Herria 2025

Digitalizazioa eta datafikazioa gailendu egin dira gizabanakoaren eguneroko jardueren inguruan. Hala nola medikura joatean, bankuarekin eragiketa bat egin nahi denean edo erosketak egin nahi ditugunean: guztia bihurtu da datu, gizabanakoen arteko hartu-eman telematikoen artean, sarritan hartu-eman horiek dagoeneko gizakien artean ere gertatzen ez direla. Ikus, adibide gisa, ChatGPT (Arendt 1949, Berditchevskaia eta Baeck 2020).

Paradoxa handi batean erortzen ari garen susmoa dut: gure segurtasuna bermatu nahi duten sistema algoritmiko horietan jarri behar omen dugu gure konfiantza guztia, baina sistema horiek diseinatu dituztenek ez dute gugan konfiantzarik (Andersen 2020, Christl 2017). Are gehiago, gure nortasun digital propioa horiei frogatzen ibili behar dugu, nortasun digitalaren unibertso konplexuan (Aho eta Duffield 2020, Nguyen 2017). Alegia, zer garen eta nor garen frogatzen: gure nortasun digitala berresten etengabe. Horri *dataismoa*

deitzen zaio (Van Dijck 2014): dena datu bihurtu dugu, baina gure datuak gobernatzen dituzten erakundeek eta enpresek gure baina gehiago dakite gure bizitzaz. Baimenik gabe xurgatzen dizkigute gure bizitza pusketak. Gure argazki, mezu edota oroimenen desjabetza bortitza bihurtzen ari da, ondorioz. Fenomeno horri datuen politika deitzen zaio (Bigo *et al.* 2019). Ba al dago horren kontzientziarik euskal erakunde edota enpresetan? Edo zirimola handi baten *follower*-ak dira, katebegi erraldoi, global eta ikusezinean?

Horrek guztiak zerikusi zuzena du gobernantza, herrigintza, erakundetze, herri estrategia, nazio eta balizko estategintza batera lerratzeko urratsekin (Zabalo eta Iraola 2020); alegia, nazio algoritmikoarekin (Calzada 2018a, 2020f). Hala ere, eztabaida honetan, hiriak izan dira lehenak plazara ateratzen (Calzada 2018c). Adibidez, Bartzelona hiriaren kasuari azpimarra berezia egin behar zaio, Bartzelonan planteatu baitira munduan oihartzun zuzena izan duten politika eta estrategia emantzipatzaileak eta subiranotasun teknologikoarekin zerikusia duten eztabaidagai anitz (Calzada 2019a). Debate subiranista politiko hutsaren aldamenean (Calzada 2018b, 2019b), subiranotasun teknologikoaren gaiak sona handia lortu du eta itzal handiko proiektu eta jarduerak burutu dira, Nazio Batuen agendan eragin zuzena izan dutenak (Calzada eta Almirall 2020). Horien artean, eskubide digitalen mugimendu osoa eratu da, *Cities Coalition for Digital Rights*, hiri globalen sarearen altzoan (Calzada, Pérez-Batlle eta Batlle-Montserrat 2021, Portland City Council 2022). Are gehiago, egunotan Europako Batasunak eskubide digitalen deklarazioa plazaratu du, eskubide digitalen afera politika publikoen erdigunean jarritz. Baina nola kokatu euskal nazio algoritmikoa munduko hiru paradigma global eta digitalen artean, eskubide digitalak hauspotuz (Calzada 2022a)?

Algoritmoak ez daude hodeian. Algoritmoak patrikan nonahitik daramagun sakelako telefonoko zerbitzuetan eta nabigazioan sortzen ditugun *gure* datuekin elikatzen ditugu euskal hiritarrok etengabe. Eta horrek zuzeneko zerikusia

du krisi honen ondorioen ostean ‘geratuko’ zaigun demokrazia mailarekin (Ercan *et al.* 2022). Edo, hobeto esanda, geratuko ez zaigunarekin. Adimen artifiziala, datu ekosistemak eta, oro har, eraldaketa digitalak ez dira jadanik gure bizitza eta gure herri proiektutik at egon beharko luketen gaiak. Kontrara, gomendatuko nuke ahalik eta lasterren gai horiek debate publikoan txertatzea eta ekintza estrategiko inklusi-boak abian jartzea Euskal Herriko lurraldeetako eragile eta interes taldeekin (*stakeholder*-ekin) (Calzada 2020c, 2020g).

Nola jarri adimen artifiziala euskal nazio algoritmikoaren zerbitzura ongizate soziala bermadain (Floridi 2020)? Nola ekidin Euskal Herria eta euskal hiritarrak etengabe zelatatuta egotea *Big Tech* direlakoan edota estatuaren kontrolaz? Nola diseinatu euskal estatu bat, hain zuzen ere, panoptiko digitalaren kontzeptutik urrun (Calzada 2020d)? Posible al da egungo mundu konplexu, interkonektatu, interdependente, eta mugaz jositako honetan estatu bat izatea? Ezinbestekoa litzateke euskal estatu batek demokratizazio eskaintzarik zabalena egitea.

Beraz, estatugintza demokratikoa ez da posible izango nazio algoritmiko moduan operatzen hasten ez bagara, behintzat. Gure hartu-eman guztiak daude zipriztinduta kodetutako sare, datu eta hartu-emanek: teknohiritar gara teknopost-COVID-19 gizartean. Determinismo teknologikoa ekiditeko bidea subiranotasuna garatzea da, baina europar hiri-eskualdeekin, nazioekin eta estatuekin elkartasun eta lankidetzaren bidez (izan Estonia, izan Katalunia). Euskal errepublika bat nazio algoritmiko gisara operatzen irudikatu ahal dugu europar federazio batean? Kontzertu berri honetan

Algoritmoak ez daude hodeian. Algoritmoak patrikan nonahitik daramagun sakelako telefonoko zerbitzuetan eta nabigazioan sortzen ditugun gure datuekin elikatzen ditugu euskal hiritarrok etengabe

jokatzeko gure aukerak baliatu behar ditugu; bestela, datu azpiegiturarik, erakunderik eta ekosistema egituraturik gabe, gureak egingo du. Ezingo ditugu euskal hiritarren eskubide digitalak babestu aurrerantzean, ezta horien lan, bizi eta duintasun baldintzak bermatu ere (Calzada 2018b). Eta... ez al dira nahiko arrazoi euskal naziogintzaren narratiba berritu bati ekiteko (Calzada 2017a, 2017b, 2018c, 2022b)?

Datafikazio estrategia emantzipatzaileak erdiesteko, balizkoa izan daiteke transhumanismotik (Echeverría 2022) eta *Digital Foundational Economy* delakoaren (Calzada 2022b) iturrietatik edatea. Demokrazia teknopolitiko postpandemikoan estrategia emantzipatzaileak egikaritzeko erreminta kaxa aurkezten da hemen. Lau erreminta kabitzen dira bertan: (i) nazio algoritmikoak, (ii) datu subiranotasuna, (iii) eskubide digitalak eta (iv) datu kooperatibak. Euskal Herria 2025 bidegurutzean dugu.

Erreminta kaxa: (euskal) naziogintza algoritmikoa

Nazio algoritmikoak

Googlek eta Facebookek beren gain hartu dituzte jada nazio estatuaren funtzio asko (Calzada 2022d), kartografiatik abiatu eta hiritarren zelatatzeraino iritsi arte. Enpresa erraldoi horien ortzi muga agorrezina dela dirudi. Pandemia garaian ikusi dugun moduan, teknologiek hiritarren datuak jaso ahala, datu horiek aldi berean osasuna antolatzeke molde teknikoak aldatu dituzte. Teknifikatutako osasun sistema algoritmikoak. Osasuna, gure datuak eta ongizatea elkarrekin doaz.

Beraz, gure gizartearen osasun demokratikoa berreskuratzeko, demokrazia teknopolitiko postpandemikoetan jarri behar dugu atentzioa. Baina, horretarako, nazioa bera ikus-teko moldeak aldatu behar ditugu. Balio al digute honezkero nortasunak eta komunitate konkretu batekiko atxikimendu mailak, nazio ikuspegia aztertzeke eta neurtzeke? Ez al daude honezkero beste parametro batzuk jokoan? Nazio

algoritmikoak estaturik gabeko nazioek behar duten paradigma bat dira (Calzada 2020b). Izan ere, hiritar digitalak bizi dira nazio algoritmiko horietan (Bridle 2016, Calzada 2022c). Eta hiritar digital horien datuak askatu eta birklasifikatu behar ditugu. Horretarako, hiritarrek erabiltzen dituzten datuak lurraldera ekarri behar ditugu, alegia, lokalizatu behar ditugu. Datuak ez daude hodeian. Datuak zerbitzari erraldoietan artxibatuak eta gordeak daude. Gure lana datu horiek non eta nola gordetzen diren arakatzea da. Hori egin eta gero, datuak lurraldeari itzuli behar dizkiogu. Horri *data devolution* deitzen zaio (Calzada 2017a). Datuen arakatze lan horri teknopolitika deitzen zaio, eta oso inportantea da datuak nondik nora dabiltzan jakiteko (Calzada 2017b). Datuen arakatze lan hori burutzeko, datu etnografiak erabiltzen dira. Ekintza-ikerketak bidez burutzen dira.

Datuak arakatutakoan, datuak berregituratu edo ensanblatu egin behar dira, alegia, berriro elkartu. Nazio algoritmikoak bidea eman beharko luke horretarako, alegia, kale, auzo, herri eta abarretako lurralde eskalako datuak elkartu eta hiritarren eskura jartzeko.

Euskal Hiriaren, alegia, euskal hiri-eskualdearen izate konfederalarekin lotuta legoke nazio algoritmikoa, Euskal Herriko kasuari aplikatuko bagenio. Eta, horretarako, Estoniari begiratzea baino ez dugu, ikusteko oso gaztea den estatu independente batek nola erdietsi duen jadanik nazio algoritmikoa izatea (Calzada 2018a) eta datafikazioarekin eratorriak diren erronkei aurre egitea.

Nazio algoritmikoaren paradigma edo erreminta ere aplikatu geniezaioke Ipar Irlandaren kasuari (Calzada eta Bustard 2022). Izan ere, gatazka ondoko kasu garbi bat izanik, esan genezake *brexit*-ak eta pandemiak Ipar Irlanda nazio moduan erroto eraldatu dutela. Izan ere, uste dugunaren kontrara, hain zuzen ere Ipar Irlandako hiritar bati bere 'hiritartasuna' galdetuz gero, duda asko sortuko zaizkio; kategoria etnikoetatik harago, irlandar hutsa edo britainiar hutsa, kategoria bikoitz asko aurkituko ditugu. Horrek, halabeharrez, nazioak

Zergatik da inportantea nazio algoritmiko gisa jokatzea? Gure datuak beste erakunde nahiz esparru batetik gobernatzen badituzte, gureak egin duelako: sarean egiten ditugun jarduerak ez dira gure jabetasuna izango

eta hiritarren datuak nola erabiltzen diren birpentsatzera eramane beharko gintuzke. Nazio algoritmikoak nortasun algoritmikoa izatera behartzen gaitu: gure pasaporteak, gure pasahitzak, gure datu biometriko

eta hatz markak eta geroz eta filtro gehiago, frogatzeko geure gurela gure diogun pertsona (Cheney-Lippold 2011). Eta zergatik da inportantea, orduan, nazio algoritmiko gisa jokatzea? Bada, gure datuak beste erakunde nahiz esparru batetik gobernatzen badituzte, gureak egin duelako: sarean egiten ditugun jarduerak ez dira gure jabetasuna izango. Pribatutasuna, zelatatzea eta datuen hornidura estatuen jabetasuna izanik, nazio algoritmikoak

hiritarren onura lehenetsi beharko lukete ezer baino lehen (Christl eta Spiekermann 2016). Nazio algoritmikoak ez du zertan bermatu atzean dagoen estatua ez dela autoritarioa (Christensen 2019). Txinari begiratzea besterik ez dago horretaz ohartzeko (Calzada 2022a).

Nazio algoritmikoak, definizioz, lurraldetasun berri baten azaleratzearekin du zerikusia. Alegia, digitalaren eta ez-digitalaren arteko uztarketa. Algoritmikoaren eta nazionalaren arteko uztarketa perspektiba urbano eta metropolitano batetik, perspektiba etniko huts batetik baino gehiago. Estaturik gabeko nazioek iraultza algoritmikoa besarkatu behar dute, atzean gelditu nahi ez badute behintzat. Nazio algoritmikoak, bestalde, deszentralizatzea du muinean; beraz, kideztasun eratzen da (Calzada 2017c), ez inposizioz edo goitik behera. Beraz, erreminta kaxa honetako lehenengo lanabesa dugu nazio algoritmikoa. Baina, lehenengo lanabesa egiteko, bigarrenak behar dugu: datu subiranotasuna. Zer da hori?

Datu subiranotasuna

Gure datuen kontrola berreskuratzeko moldeak dira datu subiranotasuna. Batetik, enpresa nahiz erakunde publikoek gure datuak erabiltzen dituzte, eta, ordainetan, guk beren zerbitzuak dohainik jasotzen ditugu. Gakoa da, ia gehienetan, bueltatzen zaigun balioa kentzen zaiguna baino eskasagoa dela. Alegia, zenbat balio dute gure datuek? Erabilera kolektiboaren baitakoa da gure datuek duten erabilera. Ekonomia digitalean aski frogatua dagoen kontu bat da honako hau: sare efektu deitzen dena. Erabilerak egiten du balioa izatea, baina erabilerak kolektiboa izan behar du. Gure datuek, isolaturik, horiek bakarrik, ez dute inongo baliorik. Hori da, hain zuzen, *big data*-k egiten duena: gure datuak agregatu, metatu edo gehitu; horrela sortzen da ekonomia digitala datuen erabileraren inguruan. Datuak lekuan eduki behar ditugu; datuek lokalak direnean dute balioa (Loukissas 2019). Eta, subiranotasuna izateko, nahitaez behar dugu gure erabilerak sortzen dituen datuak gure esku izatea (Muldoon eta Stronge 2020). Horregatik, datu subiranotasuna ez duten hiri eta leku askok joera handiagoa izan dezakete gizarte ezberdintasunak sufritzeko (Lightfoot eta Wisniewski 2014, Lutz 2019, Pilkington 2019). Datuen kudeaketa garbia ez denean, datu ilunak eta gardentasunik eza pairatzen da gizarteetan (Hand 2020). Eta gardentasunik ez dagoen tokietan, zelatatze azpiegiturak oso modu errazean ugaritzen dira (Gekker eta Hind 2019).

Baina, bestalde, benetan da kontuan izatekoa estatu txikiek pandemiaren aurrean eskaini duten erantzuna. Estatu txikiak, alegia, Zeelanda Berria, Islandia, Irlanda, Danimarka, Herbehereak, Singapur, Hego Korea edo Eslovenia, besteak beste, eraginkorrak izan dira datu subiranotasuna beren esku zutelako.

Hala ere, ez dezagun ahaztu estatu txikiek duten boterea oso mugatua dela, EB, AEBak eta Txina bezalako superpotentzia digitalen arabera jokatzeari egokitzen zaiela halabeharrez. Datu subiranotasuna, beraz, ez da Euskal Herriak soilik bere kontura egin ahal duen zerbait. Sarritan, datu subiranotasunaren

diskurtsoa oso mugatua eta inozentea dela ere esan genezake. Datafikazio estrategia emantzipatzaileak garatzeko asmoz, datu ekonomiaren analisi serioa eta osoa egin beharko genuke.

Azkenik, gure erreminta kaxarako, datu subiranotasunari lotuta dagoen azken ideia bat behar dugu: gobernuak, egun, teknologia berri eta deszentralizatuarekin egiten ari dira probak. Teknologia deszentralizatu ezagunena *blockchain* deitzen da. Izatez, ez da bakarra (Calzada 2018a). Hala ere, egiten ari diren esperimentazioak oso itxaropentsuak dira (Calzada 2022e). Datu subiranotasuna garatzeko, bestalde, hiritarrek beren eskubide digitalen kontzientzia bereganatu beharko lukete. Eta hori praktikatik bakarrik etor liteke. Mobilizazio eta praktika esanguratsuak gertatzen ari dira munduko zenbait hiritan.

Eskubide digitalak

Zer dira eskubide digitalak? Interneten erabilerari lotuta, erabiltzaile eta hiritar gisara dagozkigun eskubideak dira (Goggin *et al.* 2019; Calzada, Pérez-Batlle eta Batlle-Montserrat 2021). Erreminta horren inguruan, esan behar da mundu mailan badela erakunde bat eskubide digitalen aldarria lau haizeetara zabaltzen diharduena: *Cities Coalition for Digital Rights* (2019). Erakunde hori 50 hiri global baino gehiagoz osatuta dago, eta oso arrakastatsua gertatzen ari da. Eta horien helburuen artean, hiri administrazioaren bermea: hiritarren eskubide digitalak ez urratzeko. Sailkapen asko daude eskubide digitalen inguruan: ahaztua izateko eskubidea, deskonektatuta egoteko eskubidea, ondare digital pertsonala izateko eskubidea, pertsonak teknologiaren aurrean babesteko eskubidea, adierazpen askatasuna izateko eskubidea, nortasun digitala izateko eskubidea, algoritmoen erabilera arduratsu eta gardena izateko eskubidea, beste askoren artean (Calzada 2021b). Azken batean, erabiltzaileek jasan ditzaketen eskubide urraketak babesteko sortu dira eskubide horiek (Calzada 2020g). Hain dira garrantzitsuak, ezen Nazio Batuen Erakundeak ere babesten baititu. Zenbait

autorek eskubide digitalak zelatatzearekin eta pandemiaren osteko erantzun batekin lotzen dituzte (Hintz *et al.* 2017, Kitchin 2020); hein handi batean, erakunde publikoetan oso zabaldua dago gerturatze hori.

Adimen artifizialaren gailentzearekin batera gertatzen ari da eskubide digitalen aldarria. Kontua da orain arte estatuen aurretik hiriak direla soilik testigu zuzena hartu dutenak. Hiriak dira, hain zuzen, hiritarren eskubide horien bermea eskatzen hasi direnak. Calzada *et al.* (2021) ekintza-ikerketan erakusten den moduan, hamahiru hiri global hasi dira lan zehatz eta sakona egiten. Baliteke Euskal Herriko testuingurutik urrun aurkitzea kontu hori, baina euskal hiritarrak munduko beste hiritarren pare jasaten ditu eskubide digitalen bortxaketak.

Baina, behin aldarria eginda: zer egin?, nola jokatu? (Calzada 2021c). Erantzuna garbia da, baina zailagoa aurrera ateratzea. Ez, ordea, ezinezkoa: antolakuntza eta estrategia, biak batera eta elkarrekin. Datu kooperatibak antolatzeari buruz ari gara. Hau da, erreminta kaxaren azken lanabesa. Datafikazio estrategia emantzipatzaileak aurrera ateratzeko bidea izan litezkeenak.

Datu kooperatibak

Datu kooperatibak eratzeko, datuak libre izan behar ditugu. Izan ere, horien jabetza aldarrikatzeaz gain, antolatu egingo gara lanabes horrekin estrategia emantzipatzaileak ere lortu ahal izateko (Calzada 2021a, Tommaso 2020). Datu kooperatibak plataforma kooperatiben azpimultzo bat dira, Calzadaren azterketaren arabera (2020b). Eta, datu kooperatibak eratzeko, ezinbestean izan behar dugu eskura datu subiranotasuna (Calzada 2021a); alegia, subiranotasunik gabe ezin antola ditzakegu kooperatibak.

Gai honen inguruan, Borkin (2019) aipatzekoa bada ere, Pentland *et al.* (2019) da benetan aitzindaria. Scholzek (2016) egin dio, bestalde, hurbilketarik sakonena gaiari, nahiz eta zenbait gabezia aurkitzen dizkiogun (Scholz eta Calzada 2021).

Datu kooperatibak datuak gordetzeko kooperatibak dira; baina, gordetzen direnak kooperatibakideen datuak izanik, horien inguruko betebeharrak ere badaude. Alegia, datu kooperatibek, kooperatibakideen eskubide digitalak bermatzeaz gain, horien datuen eta horien kideen datuen inguruko betebeharrak ere badakartzate. Besteak beste, datuen pribatutasuna bermatzeko sortuak dira, baina ez hori bakarrik. Datu kooperatibak, gure datuen erabileraren gordeleku izateaz gain, gure datuen balioaren bermatzaile ere badira. Adibiderik garbienak Salus, Driver's Seat eta MyData dira (Calzada 2021a).

Datu kooperatibek duten esanahiaren eta erabileraren inguruko desadostasuna dago Pentland eta Scholzen artean. Lehenak diru bidezko hartu-emanekin lotzen du; bigarrenak, komunitateek egiten duten erabilerarekin. Eztabaidak eztabaida, hiru ideia zehatzekin amaituko dugu.

- Lehenengo ideia: gizarte zibilak biziberritzeko behar handia dago. Horregatik, datu kooperatibak behar horri erantzuteko moduan egon litezke. Europar arautegia testuinguru egokia sortzeko oso aldekoa dela ikus genezake.
- Bigarren ideia: kooperatibagintzari buruzko trebakuntza oso beharrezkoa da oraindik. Hala ere, kooperatibagintzari buruz jakiteak soilik ez du bide ematen datu kooperatiben ezagutza praktikoa izateko. Datu kooperatibak kooperatiba digitalak dira, ez kooperatiba edo enpresa fisikoak (Orona, Ampo, Orkli...). Beraz, datu kooperatibena oraindik eratzen ari den fenomeno berria denez, dauden adibideei gertutik jarraitzea komeni da.
- Hirugarren ideia: datu kooperatibak ugaltzeko, administrazioetatik apustu sendoa egin behar da. Harritzekoa da Euskal Herrian gai honi ematen ari zaion hauspo urria. Izan ere, Europako Batasunean, datu altruismoa eta donazioa dagoeneko legediaren parte dira. Legeak eta araudiak egon badaude, falta dena ekintzailetasuna da. Ekitea, alegia, datu kooperatibak eratzea, gure inguruko beharretatik (Buterin 2022, Calleja-López eta Cancela 2022). 🍷

Bibliografia

- Aho, B.; Duffield, R. (2020): 'Beyond surveillance capitalism: Privacy, regulation and big data in Europe and China', *Economy and Society* 49(2), 187-212. doi: 10.1080/03085147.2019.1690275.
- Andersen, R. (2020): 'The Panopticon Is Already Here' (www.theatlantic.com/magazine/archive/2020/09/china-ai-surveillance/614197).
- Arendt, H. (1949): 'The Rights of Man: What Are They?', *Modern Review* 3, 4-37.
- Berditchevskaia, A.; Baeck, P. (2020): *The future of minds and machines. How artificial intelligence can enhance collective intelligence*, Londres, NESTA.
- Bigo, D.; Isin, E.; Ruppert, E. (2019): *Data Politics*, Londres, Routledge.
- Borkin, S. (2019): *Platform co-operatives – solving the capital conundrum*, Londres, NESTA.
- Bridle, J. (2016): 'Algorithmic Citizenship, Digital Statelessness', *GeoHumanities* 2(2), 377-381. doi: 10.1080/2373566X.2016.1237858.
- Buterin, V. (2022): *Proof of Stake. The Making of Ethereum and the Philosophy of Blockchains*, New York, Seven Stories.
- Calleja-López, A.; Cancela, E. (2022): *Desplazar los ejes: alternativas tecnológicas, derechos humanos y sociedad civil a principios del siglo XXI*, Barcelona, Tecnopolítica - UOC.
- Calzada, I. (2017a): 'Data Devolution in Europe', *ESADE MSc Speaker Series: Smart Cities and Data*, 2017-11-23.
- (2017b): 'The Techno-Politics of Data and Smart Devolution in City-Regions: Comparing Glasgow, Bristol, Barcelona, and Bilbao', *Systems* 5(1), 1-18. doi: 10.3390/systems5010018.
- (2017c): 'Metropolitan and city-regional politics in the urban age: Why does 'smart' devolution' matter?', *Palgrave Communications* 3(17094), 1-17. doi: 10.1057/palcomms.2017.94.
- (2018a): 'Algorithmic nations': seeing like a city-regional and techno-political conceptual assemblage', *Regional Studies, Regional Science* 5(1), 267-289. doi: 10.1080/21681376.2018.1507754.
- (2018b): 'Metropolitanising Small European Stateless City-Regionalised Nations', *Space and Polity* 22(3), 342-361. doi: 10.1080/13562576.2018.1555958.
- (2018c): '(Smart) Citizens from Data Providers to Decision-Makers? The Case Study of Barcelona', *Sustainability* 10(9), 3252. doi: 10.3390/su10093252.
- (2019a): 'Technological Sovereignty: Protecting Citizens' Digital Rights in the AI-driven and post-GDPR Algorithmic and City-Regional European Realm', *Regions eZine* 4. doi: 10.1080/13673882.2018.00001038.

- (2019b): ‘Catalonia Rescaling Spain: Is It Feasible to Accommodate Its ‘StatelessCitizenship’?’, *Regional Science Policy & Practice* 11(5), 805-820. doi: 10.1111/rsp3.12240.
- (2020b): ‘Platform and Data Co-Operatives amidst European Pandemic Citizenship’, *Sustainability* 12(20), 8309. doi: 10.3390/su12208309.
- (2020c): ‘Tekno-Politika/Techno-Politics’ (www.sarean.eus/tekno-politika).
- (2020d): ‘Gizarte Mugimenduen Rola Gizarte Berrikuntzan (GB): *Euskaraldia*, Panoptiko Digital Gisa’, *Bat* 115, 85-114.
- (2020e): ‘Herrigintza Algoritmikoa eta Adimen Artifiziala Post COVID-19 Gizartean’, *Galde* 29.
- (2020f): *Euskal Nazio Algoritmikoa Sortuz: Subirautza Teknologikoa Post-COVID-19 Gizartean*, Bergara, TMLab.
- (2020g): ‘Eskubide digitalak? Bai, eskerrik asko’ (www.sarean.eus/eskubide-digitalak-bai-eskerrik-asko/).
- (2021a): ‘Data Co-operatives through Data Sovereignty’, *Smart Cities* 4(3), 1.158-1.172. doi: 10.3390/smartcities4030062.
- (2021b): ‘The Right to Have Digital Rights in Smart Cities’, *Sustainability* 13(20), 11438. doi: 10.3390/su132011438.
- (2021c): *Smart City Citizenship*, New York, Elsevier Science Publishing Co Inc.
- (2022a): ‘Citizens’ Data Privacy in China: The State-of-the-Art of the Personal Information Protection Law (PIPL)’, *Smart Cities* 5(3), 1.129-1.150. doi: 10.3390/smartcities5030057.
- (2022b): ‘Digital Foundational Economy’, *WISERD Annual Conference 2022 – ‘Civil Society and Participation: Issues of Equality, Identity, and Cohesion in a Changing Social Landscape’*, 2022-07-06/07, Swansea, Swansea University.
- (2022c): *Emerging Digital Citizenship Regimes. Postpandemic Technopolitical Democracies*, Emerald Publishing Limited.
- (2022d): ‘How Digital Citizenship Regimes Are Rescaling European Nation-States’, *Space and Polity* 26(1), 44-52. doi: 10.1080/13562576.2022.2072197.
- (2022e): ‘Hyperconnected Diasporas’, *AEMI Journal* 19-20, 49-68. doi: 10.13140/RG.2.2.30513.04965/1.
- Calzada, I.; Almirall, E. (2020): ‘Data Ecosystems for Protecting European Citizens’ Digital Rights. Transforming Government: People, Process and Policy 14(2), 133-147. doi: 10.1108/TG-03-20200047.
- Calzada, I.; Bustard, J. (2022): ‘The Dilemmas Around Digital Citizenship in a Post-Brexit and Post-Pandemic Northern Ireland: Towards an Algorithmic Nation?’, *Citizenship Studies* 27(2), 1-22. doi: 10.1080/13621025.2022.2026565.

- Calzada, I.; Pérez-Batlle, M.; Batlle-Montserrat, J. (2021): 'People-Centered Smart Cities: An Exploratory Action Research on the Cities' Coalition for Digital Rights', *Journal of Urban Affairs* 43(10), 1-26. doi: 10.1080/07352166.2021.1994861.
- Cheney-Lippold, J. (2011): 'A New Algorithmic Identity: Soft Biopolitics and the Modulation of Control', *Theory, Culture & Society* 28(6), 164-181. doi: 10.1177/0263276411424420.
- Christensen, B. (2019): 'Cyber state capacity: A model of authoritarian durability, ICTs, and emerging media', *Government Information Quarterly* 36(3), 460-468. doi: 10.1016/j.giq.2019.04.004.
- Christl, W. (2017): 'Corporate Surveillance in Everyday Life. How Companies Collect, Combine, Analyze, Trade, and Use Personal Data on Billions. A Report by Cracked Labs' (<http://crackedlabs.org/en/corporate-surveillance/info>).
- Christl, W.; Spiekermann, S. (2016): 'Networks of Control: Corporate Surveillance, Digital Tracking, Big Data and Privacy' (http://crackedlabs.org/dl/Christl_Spiekermann_Networks_Of_Control.pdf).
- Cities Coalition for Digital Rights (2019): 'Declaration of Cities Coalition for Digital Rights' (<https://citiesfordigitalrights.org>).
- Craglia, M.; Scholten, H. J.; Micheli, M.; Hradec, J.; Calzada, I.; Luitjens, S.; Ponti, M.; Boter, J. (2021): *Digitranscope. The governance of digitally-transformed society*, Luxemburgo, Publications Office of the European Union.
- Echeverría, J. (2022): *Transhumanismo y Tecnologías de Mejoramiento Humano*, Mexiko Hiria, Heúresis.
- Ercan, S. A.; Asenbaum, H.; Curato, N.; Mendonça, R. F. (2022): *Research Methods in Deliberative Democracy*, Oxford, Oxford University Press.
- Floridi, L. (2020): 'The Fight for Digital Sovereignty: What It Is, and Why It Matters, Especially for the EU', *Philosophy & Technology* 33(3), 369-378. doi: 10.1007/s13347-020-00423-6.
- Gekker, A.; Hind, S. (2019): 'Infrastructural surveillance', *New Media & Society* 22(8). doi: 10.1177/1461444819879426.
- Goggin, G.; Vromen, A.; Weatherall, K.; Martin, F.; Sunman, L. (2019): 'Data and digital rights: recent Australian developments', *Internet Policy Review* 8(1), 1-19. doi: 10.14763/2019.1.1390.
- Hand, D. J. (2020): *Dark Data*, Princeton, Princeton University Press.
- Hintz, A.; Dencik, L.; Wahl-Jorgensen, K. (2017): 'Digital citizenship and surveillance society', *International Journal of Communications* 11, 731-739 (<http://ijoc.org/index.php/ijoc/article/view/5521>).
- Kitchin, R. (2020): 'Civil liberties or public health, or civil liberties and public health? Using surveillance technologies to tackle

- the spread of COVID-19', *Space and Polity* 24(3), 362-381. doi: 10.1080/13562576.2020.1770587.
- Lightfoot, G.; Wisniewski, T. P. (2014): 'Information asymmetry and power in a surveillance society', *Information and Organization* 24(4), 214-235. doi: <https://doi.org/10.1016/j.infoandorg.2014.09.001>.
- Loukissas, Y. A. (2019): *All data are local. Thinking critically in a data-driven society*, Cambridge, MIT Press.
- Lutz, C. (2019): 'Digital inequalities in the age of artificial intelligence and big data', *Human Behavior and Emerging Technologies* 1(2), 141-148. doi: 10.1002/hbe2.140.
- Muldoon, J.; Stronge, W. (2020): *Platforming Equality. Policy Challenges for the Digital Economy*, Autonomy.
- Nguyen, J. (2017): 'Identity, rights and surveillance in an era of transforming citizenship', *Citizenship Studies* 22(1), 86-93. doi: 10.1080/13621025.2017.1406456.
- Pentland, A.; Hardjono, T.; Penn, J.; Colclough, C.; Ducharmee, B.; Mandel, L. (2019): *Data Cooperatives: Digital Empowerment of Citizens and Workers*, Cambridge, MIT Connection Science.
- Pilkington, E. (2019): 'Digital Dystopia: how algorithms punish the poor' (www.theguardian.com/technology/2019/oct/14/automating-poverty-algorithms-punish-poor).
- Portland City Council (2022): *Justicia digital, derechos digitales y tecnologías de vigilancia. Ciudad de Portland: Políticas de privacidad y tecnologías de vigilancia*, Portland, Portland City Council.
- Scholz, T. (2016): *Platform Cooperativism. Challenging the Corporate Sharing Economy*, New York, Rosa Luxemburg Stiftung.
- Scholz, T.; Calzada, I. (2021): 'Data Cooperatives for Pandemic Times', *Public Seminar Journal* (<https://publicseminar.org/essays/data-cooperatives-for-pandemic-times/>). doi: 10.13140/RG.2.2.12320.51200/1.
- Tommaso, F. (2020): 'An Alternative to Data Ownership: Managing Access to Non-Personal Data through the Commons', *Global Jurist* 21(1), 181-210. doi: 10.1515/gj-2020-0034.
- Van Dijck, J. (2014): 'Datafication, dataism and dataveillance: Big Data between scientific paradigm and ideology', *Surveillance & Society* 12(2), 197-208. doi: 10.24908/ss.v12i2.4776.
- Zabalo, J.; Iraola, I. (2020): 'Current discourses and attitudes in favour of the independence of the Basque Country', *Regional & Federal Studies* 32(1), 73-93. doi: 10.1080/13597566.2020.1831475.

Eraldaketa handien dimentsio kulturala: euskal esperientzia

Gorka Espiau Idoiaga

Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendaria

Euskal gizarteak Francoren diktaduraren amaieratik (1975-1978) gaur egunera arte bizi izan duen «eraldaketa handiaren» (Castillo eta Patton 2010) ezagutza sakontzea da artikulu honen helburu nagusia. Gernikako Autonomia Estatutuak sortutako arkitektura instituzional berriak (Agirreazkuenaga eta Alonso 2014), oinarri ekonomiko eta industrialaren eraldatzeko garatutako ekimenek (Alberdi 2010, Aranguren *et al.* 2012), politika publiko berriek (Betolaza 2010) eta gizarte zibilaren portaerak (Casquete eta De la Granja 2012) giza garapenaren adierazleak esponentzialki hobetzea ahalbidetu dute, gatazka politikoak eta indarkeriak baldintzatutako testuinguru batean.

Artikulu honek ez du bilatzen euskal gizartearen eraldaketa sozioekonomikoa ahalbidetu duten proiektu estrategikoak (Porter *et al.* 2013) zailtasun handiko testuinguru batean nola eraiki ziren azaltzea; aitzitik, erakunde, enpresa eta gizarte erakunde multzo ezberdin batek lehen zegoena baino giza garapenerako eredu iraunkorragoa sortzea ahalbidetu zuen eraldaketa sozioekonomikoko mugimendu bat eraikitzeak arrazoi sakonagoak deszifratzen laguntzen du. Azken batean, euskal gizarteak garatutako razionalizazio prozesua (Weber 1999) ulertzen saiatzen gara, erabaki estrategiko arrakastatsuak

hartzea ahalbidetu baitzuen, eta, aldi berean, berrikuntza prozesu horren dimentsio kulturalan sakontzea (Castells 2017). Ahalegin horri esker, garrantzi akademiko handiko ezagutza berriak sortu ahal izango ditugu gizarte berrikuntzako prozesuen «dimentsio kulturalari» buruz (Moulaert eta MacCallum 2019: 110). Era berean, euskal gizarteak gaur egun dituen erronken azterketa zehatzagoak egiten lagundu beharko luke, eta esperientzia hori giza garapen iraunkorreko eredu berriak sustatu nahi dituzten munduko beste leku askorekin partekatu (Brundtland 1987).

Europako Kontseiluak adierazten duenez, «gero eta uste handiagoa dago garapen iraunkorrak porrot egingo duela kultura baztertuta badago». Horrela, uste da kulturak zeregin garrantzitsua izan dezakeela lotura zibikoak sustatzeko eta arazo sozial eta ekonomikoei erantzun sortzailea emateko, baina funtsezkoa da arduradun publiko eta pribatuak horren balioaz jabetzea. Beraz, badago kulturaren errealizazioa hainbat interpretazio eta ikuspegitatik, gizarte kohesiorako eta ikaskuntza kolektiborako faktore garrantzitsutzat hartuta, gizarte eta ekonomia gaiei erantzun sortzaile eta irudimentsuak emateko eta, ondorioz, lurralde garapeneko prozesuak sustatzeko duen gaitasunagatik.

Eremu jakin bateko sustrai kulturalak eragin erabakigarria dute «ekoizpena den ekintza kolektiboaren forman [...] eta merkatuen ziurgabetasunari eta aldakortasunari aurre egiteko moduan» (Sforzi 1999: 25), halako moldez non produkzio sistema baten funtzionamenduaren eraginkortasuna kohesio soziokulturalaren mailak baldintzatzen baitu, baina, batez ere, tokiko sisteman, hau da, herritarrengan (herritarrak, botere publikoak, negozioak, akademiak) dagoen kontzientziazio mailak (*ibid.*). Laburbilduz, jarduera ekonomikoaren baldintza kulturalak oso lotuta daude jarduera horren emaitzekin. Ekonomia kultura da, Castellsek (2017) argudiatuko lukeen bezala.

Sinesmen sistemak eragina du, beste faktore askoren artean, tokiko ekonomien eraginkortasunean, prozesu ekonomikoak

hartzeko moduak baldintzatzen dituzten balio partekatuak sustatuz: lanean ahalegintzeko joera duten jarrerak, berdintasunera bideratutako etika bat izatea, jokabide kolektibo sortzaile eta berritzaileagoak, aldaketara egokitutako jokabide malguagoak...

Euskal gizarteak, beste edozein gizartek bezala, bere garapenaren imajinarioa eraikitzen du sozialki (Keating eta Harvey 2014: 35). Ez dagokio bere historiari, eta arrakasta edo porrota faktore anitzekoa da beti. Ez dago lurraldearen tamainaren mende, ezta biztanleriaren homogeneotasunaren mende ere, baizik eta positiboa denaren edo ez denaren ikuspegi komuna izateko konpromisoaren mende. Metanarratiba horrek erabaki estrategiko guztiak baldintzatzen ditu, eta baita sistema instituzionalaren konfigurazioa ere (*ibid.*: 36).

Berrikuntza, beraz, talde ahalegina da. Lurraldea eta komunitatea dira aldaketa ahalmen hori bultzatzen edo mugatzen dutenak. Ezagutza tazitua, kodetuta ez dagoenez, pertsonen arteko harremanen bidez transmititzen da (Maillat 1995). Lurraldeek, beraz, ideia berriekin esperimintatzeko giro egokia sor dezakete, eta konponbide erabilgarrien hedapena erraztu (Rullani 2000), tokiko kohe-sioa kulturalki indartzen bada.

Pichierrik dioenez (2002), tokiko itun prozesuak dira lan-kidetza sare horiek eraikitzeko oinarria, eta eragile sozioekonomiko publiko edo pribatuen arteko akordio formaletan edo informaletan gauzatzen dira, interes komunei erantzuten dieten helburuekin. Aktoreen arteko loturak hurbiltasun geografiko eta kulturalean, elkarrenganako konfiantza giroan eta identitate kolektiboaren sentimenduen garapenean oinarritzen dira. Artikulazio sistema

Uste da kulturak zeregin garrantzitsua izan dezakeela lotura zibikoak sustatzeko eta arazo sozial eta ekonomikoei erantzun sortzailea emateko, baina funtsezkoa da arduradun publiko eta pribatuak horren balioaz jabetzea

hori, funtsean, endogenoa da, eta horrek ez du eragozten tokiz gaindiko agintariek tokiko sistema ekonomiko batean parte hartzen duten eragileen arteko harremanak ezartzea eta horiek kanpoko sareetan integratzea.

Honako ekintza hauek behar dira, besteak beste: ekimen sozioenpresarialak sustatzea eta babestea, eragileen arteko elkarrenganako konfiantza giroa sortzea, adostasuna/lankidetzatza ahalbidetzeko eta proiektu komunei eusteko gai den identitate kolektiboaren sentimendua sustatzea eta tokiko komunitateak helburu kolektibo estrategikoen alde mobilizatzea (Vázquez Barquero 1993).

Laburbilduz, lurralde garapena konplexua dela oinarri hartuta, euskal esperientziak berresten du, Caravacak adierazten duen bezala, beharrezkoa dela «jokabide berritzaileak sortuko dituzten ikaskuntza prozesu kolektiboak sustatzea, proiektu komunak egitea ahalbidetuko duten sare sozioinstituzionalak sortzea eta horien balioa handitzea ahalbidetuko duten baliabideekiko interesa izatea» (Caravaca *et al.* 2005).

Euskal esperientziak indartu egiten ditu berrikuntzaren interpretazioak ekintza kolektibo gisa, baita banakoen berrikuntzak aldaketa sistemikotik deskonektatuta daudela erakusten duten ebidentziak ere. Berrikuntzaren ekintza eremu mugatua prozesu indibidual gisa ulertuta, euskal kasuan eraiki zen «gizarte berrikuntzako ekosistemarekin» (Cameron 2012) alderatzen da.

Euskal esperientzia

Berrikuntza esparru horren adibide on gisa, azken hamarkadetako eraldaketa sozioekonomikoaren euskal esperientziak aparteko adierazle kuantitatibo batzuk aurkezten ditu, zailtasun handiko testuinguruan garatu badira ere. Adierazle horiek berretsi egiten dute garapen inperfektuko eredu bat dagoela, baina zuzenagoa gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik (Cooke eta Morgan 1998), etorkizunean baloratu eta proiektatu beharrezkoa (Jauregizuria 2018).

Eredu horren elementu esanguratsuenak (fabrikazio arreratuaren aldeko apustua, estrategia klusterra, instituzionalizazio eta autogobernu prozesua, hezkuntza erreforma, euskararen berreskurapena, indarkeriaren amaiera, gizarte politiken berrikuntza...) sakon aztertu dira (Porter *et al.* 2013, Valdaliso 2013), baina diziplina anitzeko planteamendu gutxi daude horien arteko harremana hobeto ulertzen saiatzen direnak. Asko dira prozesuaren dimentsio kuantitatiboari buruzko ikerketak, prozesuaren garapenari buruzkoak (Alberdi 2014, 2015), baina ia ez dago azterlan kualitatiborik nazioarteko erakunde nagusiek ezarritako logikaz oso bestelako logika bati erantzuten dioten hainbat erabaki zergatik hartu ziren jakiteko.

‘Euskal kasua’ (Ibarretxe 2011) ikerketaren emaitzek haxe adierazten dute: euskal kasua ulertzeko funtsezko gakoak garatutako lankidetzaren mekanismoetan eta egoera oso larri bati beste erantzun bat ematea ahalbidetu duten kultur faktoreetan daude. Elementu horiek azalduko lukete zergatik saiatu diren askotan antzeko prozesuak errepikatzen (Bilbao Guggenheim Museoa, Mondragon Korporazioa, klusterren politika, euskararen berreskurapena...); baina beti huts egin dute, ez zirelako egungo dinamika kulturalen gainean eraiki. Habermasen hitzetan, berrikuntza instituzionalak ez dira gertatzen beren populazioen balio orientazioetan lehen aldiz oihartzuna eta babesa aurkitzen ez duten gobernu eliteen gizarteetan (Habermas 1994).

Euskal esperientziak, beraz, ikuspegi sistemikoa txertatzea iradokitzen du, eskala handiko eraldaketak hobeto ulertzeko. Euskal esperientziak, gainera, gizarte berrikuntzaren praktika oso prozesu dinamikoa dela pentsatzera gonbidatzen gaitu, kontraesankorra, tentsio interaktiboak eta ezusteko ondorioak dituen. Konplexutasun horrek gizartea eraldatzeko prozesuak modu garatzailean aztertzea eskatzen du, eta arreta handiagoa jartzea atzeraelikadura, ikaskuntza eta egokitzapen kudeaketa indartzen dituzten mekanismoei (Kilelu *et al.* 2013).

Euskal auziari buruz egindako ikerketak (Ibarretxe 2011) berrikuntza sistema bat aurkezten du, produktu berriak, prozesu berriak eta antolatzekeko modu berriak elkarlanean sortzera bideratutako erakunde, enpresa eta partikularren sare batek osatua. ‘Ekosistema’ hori ekintza kolektiborako plataforma gisa interpreta daiteke, benetako eraldaketa mu-

Euskal kasuak era askotako koalizio bat egin du, kohesioan oinarrituta, hau da, egoera ezin zela alde bakarrez eraldatu dioen printzipioan

gimendu bat artikulatzeko gai izan zena, gainazalean logikari eta prozesu deskonektatuei erantzutekeko diruditen ekimen ugari lotuz. Ekosistema horrek, hainbat eragile ez ezik, baditu gobernantza ez-hierarkiko eta konpartituaren eredu berriak (mugimendu kooperatiboan edo euskararen berreskurapenean ikusten dugun

bezala), azpiegitura berriak (Bilboko Guggenheim Museoa edo Basque Culinary Center, kasu) eta esparru geografiko berean araudi berrien euskarria ere.

Ekosistema eta praktika horiek antolatzekeko moduak forma desberdinak har ditzake. Azken hamarkadetan, eta ingurune digitaletan izandako aurrerapenen eragina dela-eta, plataformak adimen kolektiboa sustatzeko, gobernatzeke eta ebaluatzeke espazioez ari gara (Van der Bijl-Brouwer eta Malcolm 2020). Ikuspegi horretatik, euskal plataformak alderdi interesdun batzuk lotuko zituen, giza garapen iraunkorraren eredu berri bat eraikitzeke helburuarekin. Plataforma horrek elkarlan sistemikorako espazio bat eskaini du, elkarri lotutako soluzioak ezartzea ahalbidetu duena (Meadows 1998).

Euskal kasuak era askotako koalizio bat egin du, kohesioan oinarrituta, hau da, egoera ezin zela alde bakarrez eraldatu dioen printzipioan. Koalizio horrek hainbat sektoretan aldaketa prozesu berriak egiteke beharrezko baliabideak eta trebetasunak sortu zituen, harreman, ikuspegi, gaitasun, akordio eta ekimen berriak ahalbidetuz. Plataforma horrek narrazio,

aliantza, politika eta azpiegitura berriak ere sortu zituen. Horregatik, euskal kasuak berrikuntza sistemikoaren edo gizarte berrikuntza handiko prozesuaren adibide bakan bat aurkezten du (Cat *et al.* 2021), indarrak batzearen, mugimendu sozial baten antzeko harreman dinamikaren, politika publiko berrien eta jokabide aldaketen ondorioz. Berrikuntza sistemikoa, oro har, zaila da orkestratzen, eta are zailagoa proiektu berri bat edo isolamendu arrisku berri bat babestea baino.

Sistema oso bat eraldatzeko, askotariko eta elkarri lotutako berrikuntza multzo bat behar da, sektore publikoko, pribatuko eta hirugarren sektoreko eragile ugari inplikatzeko dituen, askotan premia eta motibazio desberdinak dituztenak.

Horrela, lurraldea osatzen duten hurbileko sareekin lotutako elementu ‘ukiezinek’ edo ‘bigunek’ –hala nola konfiantza, eragileen arteko lankidetzak, lankidetzaren eta elkarrekikotasunaren kultura, pertsonen eta erakundearen arteko elkarre-ragina gidatzen duten arau eta balioen multzoa, gizartearen kohesio orokorra, hau da, lehen aipatutako kapital soziala (Putnam 2000)– deskribatu ditugun eragileen arteko elkarre-ragina eta ikaskuntza errazten lagundu dute (Morgan 2016).

Gizarte Berrikuntzarako Euskal Plataforma

Euskal esperientzian oinarrituta, Gizarte Berrikuntzarako Plataforma bat honela defini dezakegu: 1) eragileak, 2) metodologiak eta 3) ekintzak, modu integratuan eta irekian prozesu, produktu eta zerbitzu berriak sortzen dituztenak, lurralde baten dituen erronka ‘glozialei’ aurre egiteko. Plataforma horiek tresnak eta prozesuak txerta ditzakete lurraldearen gizarte dinamika ulertzeko; askotariko eragileen artean narrazio eta diskurtso partekatuak eraikitzea ahalbidetuko duten eztaba-ida espazio ugari ezar ditzakete, abian jartzen diren ekimenak eraldaketa mugimendu beraren parte senti daitezen.

Euskal plataformak elkarlanerako aukera berriak sortu zituen hainbat alderdi sozialen artean, eta, metodologia parte hartzaileak aplikatuz, elkarri lotutako soluzio sorta bat sortu

zuen. Hau da, Gizarte Berrikuntzarako Euskal Plataformak lankidetza eta alderdi anitzeko aliantzak sustatzeko antolaketak espazio gisa funtzionatzen zuen, garai hartako erronka sozioekonomikoei aurre egiteko. Protagonisten arabera, plataforma dinamika hori berez eraiki zen, erakunde batek koordinazio funtziorik izan gabe. Horrelako prozesuak modu aktiboan susta daitezke lankidetza prozesu horiek endogenoki sortzen ez diren testuinguruetan. Honako hauek dira plataforma honen oinarritzko elementuak.

Kontakizun partekatua

Ikerketa kualitatiboetan kontakizunaren eta narrazioaren erabilera ongi finkatuta dago giza geografiaren alorretan. Informazio hori tresna etnografikoekin osa daiteke pertzepzio sozialen eboluzioa behatzeko, aztertzeko eta segmentatzeko. Narrazioak identifikatzeko prozesuak zentzua sortzen duen eta esperientzia kolektiboak legitimatzen dituen gizarte batek partekatzen dituen sinesmenak ikertu nahi ditu.

Euskal kasuan, badirudi istorio horiek balio partekatuko sistema baten gainean eraiki direla eta denborarekin oharkabean eboluzionatzen dutela. Dinamika kultural inplizitu horiek ulertuta, sakonago uler dezakegu zergatik hartzen diren esplizituki zenbait erabaki estrategiko eta zergatik eragiten duten lurralde jakin bateko berrikuntza eta aldaketa prozesuetan (Engle eta Slade 2018). Pattonek (2014: 13) dioen bezala, analisi narratiboak kultur eta gizarte esanahiei leihoak eskaini diezazkieke funtsezko bi galdera jorratuz: zer erakusten du istorio horrek jatorrizko pertsonari eta munduari buruz? Nola interpreta daiteke narrazio hori, hura sortu zuen bizitza eta kultura ulertzeko eta argitzeko? Gizarte berrikuntzako prozesuak prozesu horien dimentsio pertsonalean arreta jartzea eskatzen du; beren kulturaren, zehazki, pertsonen zer pentsatzen duten, zer baloratzen duten, nola jokatzeko duten eta aktoreen eta gizarte sistemen arteko harremanak nola gertatzen diren, gizarte ikertzaileek adierazi bezala.

Kosorkuntzarako eta adimen kolektiborako prozesua

Bendapudi eta Leonek (2003) psikologia sozialaren esparrutik azaldu zutenez, produktu edo zerbitzu baten diseinuan parte hartzearen ondorioek eragin positiboa dute bezeroaren gogobetetasunean. Urte batzuk geroago, Scharmerrek (2009) *U teoriaren* oinarriei buruzko bere liburua argitaratu zuen, sor-kuntza gizarte berrikuntzako prozesuen funtsezko elementu gisa proposatuz. Sortzen ari den etorkizunaren balioa sortzeko modu gisa ulertzen da kosorkuntza hori, askotariko taldeen protagonismoa indartzen duten partaidetza prozesuekin.

Euskal esperientziak iradokitzen du, halaber, kosorkuntza prozesu horiek –mugimendu kooperatiboaren eraikuntzan edo euskararen berreskurapenean deskribatutakoak, kasu–interpretazio kolektiboa (informazioa biltzeko prozesuaren sentsazioa, sistemaren kartografia eta narrazioen identifikazioa) ekintza estrategiko zehatz batzuekin lotzea ahalbidetu zutela. Ekimen horiek aukerak eta erronkak aztertzeko prozesuen azken emaitza gisa interpreta daitezke, eta ideia, produktu edo prozesu berriak sortu behar dira errealitate eta testuinguru desberdinei erantzun ahal izateko. Ideia horiek tokiko arazo zehatzak konpontzera bideratuta daude (berrikuntza komunitarioa), ekintzailetzara edo abian jartzeko ekimenetara, lankidetza publiko/pribatueta, zerbitzu publikoetara edo eskala proiektuetan arautzera eta aldaketa sistemikora bideratuta (Westley *et al.* 2013).

Proiektu, pilotu eta prototipo interkonektatuen zorroa

Orain dela 40 urteko erronka sozioekonomikoei aurre egiteko Euskal Herriak emandako erantzunak (euskal erakunde eta berrindustrializazio politika berriak, mugimendu kooperatiboa, sukaldaritza, Bilboren eraldaketa prozesua, euskara berreskuratzea...) ezin dira modu isolatuan ulertu. Interbentzio horiek, historikoki modu deskonektatuan aztertu diren arren, denbora errealean probatutako esperimientuen proiektu zorro gisa funtzionatu zuten.

Esperimentazio aktiboari jarraituz, euskal eraldaketarekin lotutako ekimen nagusiak berez sortu ziren, unean uneko premia larriei aurre egin nahian (industria kolapsoa, langabezia, pobrezia eta indarkeria) eta arrisku txikiagoko proiektuak eta prototipo apurtzaileagoak konbinatuz. Proiektu zorroaren ikuspegi integratu batetik jardunez, lurraldeko aktoreek baliabide gehiago inbertitu zituzten, noski, sistemako beste elementu batzuekin kalitatezko loturak zituzten ekimenetan. Euskal proiektu zorroak honakoak integratu zituen: arrisku txikiko proiektuak (azpiegitura logistikoak, hezkuntza eta osasun inbertsioak), pilotuak (beste esperientzia batzuetan funtzionatu zuten ekimenak, baina euskal testuingurura egokitu beharrekoak –Michael Porterren kluster politika, euskararen berreskurapena, kooperatiben mugimendua eta oinarritzko errentaren politika–) eta prototipo apurtzaileagoak (Bilbao Guggenheim Museoa edo Basque Culinary Center). Euskal esperientziak iradokitzen du sistema osoan eragina izateko gaitasuna duen proiektu zorro bat orekatu behar dela kategoria horien eta deskribatutako tipologiaren artean (ekintzailatza edo abiarazteko ekimenak, lankidetzako publiko/pribatuak, zerbitzu publikoak edo araudia).

Gobernantza sistema konpartitua

Europako Batzordeak subsidiariorotasun printzipioa nola interpretatzen duen gogoratuz, gobernantza eraginkorragoa da tokiko erakundeek, enpresek eta tokiko gizarte sareek beren arazoei irtenbideak bilatzen laguntzen dutenean. Horrela, tokiko ikuspegi eta identitate eraldatzaileak sortzen eta erreproduzitzen dira, komunitate horien benetako ahalduntzea ahalbidetzen duten prozesu parte hartzaileen bidez. Ildo beretik, Gonzálezek eta Healeyk (2005: 2056) «gobernantza gaitasun berritzaileaz» honako hau aipatzen dute: «erakundeak bizi kalitate askoz hobea eta bidezkoagoa duten testuinguruak sortzeko modu kolektiboan lankidetzan aritzeko duen harreman gaitasuna».

Euskal esperientzia koherentea da gobernantza konpartitua ulertzeko modu horrekin. Eraldaketa kolektiboko prozesuek bat egiten dute azpimarratzean eragile ekonomiko eta sozialen parte hartze ez-hierarkikoak lagundu egiten duela praktika irekiagoak eta demokratikoagoak ezartzen giza garapen iraunkorreko ereduen bilaketan. Eragileen sare pluralek (erakunde publikoak, enpresak eta gizarte entitateak) elkarlanean lan egin dezakete lurraldearen eraldaketa sozioekonomikoa bezalako erronka konplexu bati aurre egiteko; baina, horretarako, beharrezkoa da proiektuen garapen linealean zentratutako gobernantza egitura hierarkikoak aldatzea, elkarlaneko eta sareko gobernantzarako gaitasun berriak sortzeko helburuarekin (Mataix 2018).

Adimen kolektiboko hau bezalako hurbilketek beren inpaktua neurtu eta ebaluatzeko beste modu bat eskatzen dute. Inpaktu ebidentziak aurkezten laguntzen diguten parametro kuantitatiboak alde batera utzi gabe, beharrezkoa da beroriek adierazle berriekin konbinatzea. Adierazle berri horiekin batera, beharrezkoa da «garapen ebaluazioko» taldeak (Patton 2010) sartzea prozesu osoan, akatsak zuzendu eta ekimenak denbora errealean egokitu ahal izateko.

Gobernantza
eraginkorragoa da
tokiko erakundeek,
enpresek eta tokiko
gizarte sareek beren
arazoei irtenbideak
bilatzen laguntzen
dutenean

Euskal eraldaketaren etorkizuna

Azaldu den bezala, euskal esperientziak lurralde garapeneko teoria modernoak indartzen ditu, lurralde baten dinamika ekonomikoa, soziala, kulturala eta instituzionala bateratzen dituzten eraldaketa planteamendu sistemikoen alde egiten dutenak, «desnaturalizazioa» saihesteko (Sforzi 1999).

Garapen teoriak, korporazio pribatua eragile isolatutzat bakarrik hartzen dutenak, zaharkituta daude jada (Raworth

2017), baina, gaur egungo euskal imajinarioan, gainerako ekosistemaren mendeko alderdi garrantzitsuena da oraindik ere. Gure esperientziak berak erakusten du haren jardueraren dimentsio soziala, ekonomikoa eta lurralde dimentsioa elkarren mendekoak eta elkarri lotuak diren elementuen multzoa dela, eta enpresak ezin duela garatu ekosistemako gainerako elementuak gabe (Sforzi 1999).

Paradoxikoki, gaur egungo diskurtso instituzionalek sektore pribatua babestera bideratutako bigarren rol baten alde egiten dute oraindik ere, eta ez eragile ekonomiko, sozial eta instituzionalen ekosistema bat egituratzeko nodo baten alde, giza garapen iraunkorraren prismaren pean benetako balioa sortzeko (Mazzucato 2019b). Tokiko eta nazioarteko korporazioei egotzen zaien protagonismoa da oraindik ere garapenaren diskurtsoaren giltzarria, 'enpresaren geografia' baten gainean eraikia, eragile guztiek beren zeregina betetzen duten lurraldeko geografia baten gainean eraiki ordez. Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoak, tradizionalki, logika postfordistaren eraginpean dagoen ikuspegi industrialari jarraiki eraiki dira, eta euskal kanporatzeak, nazioarteko-tzeak eta industria ekoizpenaren espezializazio adimendunak oraindik ere bere egiten dute imajinario berri hori.

Gaur egungo diskurtso publikoak, horrenbestez, teoria ekonomiko klasikoenetatik (Marshall 2006) datozen tokiko garapeneko elementuak ditu, interpretazio berrien ekarpenek indartuta, zeinek kluster eta espezializazio adimentsuko estrategiak azpimarratzen baitituzte (Porter 1990); baina gaur egungo narrazioek ez diete garrantzi bera ematen, eta ez dituzte beharrezko baliabideak eskaintzen garapen estrategien parte diren gizarte dinamikak giza garapen iraunkorraren prisma baten pean ulertzeko (Raworth 2017, Mazzucato 2019a).

Berdintasuna eta gizarte garapena presente daude oraindik diskurtso publikoan, baina ez dago artikulazio argirik elementu horiek euskal gizartearen hurrengo eraldaketa nola bideratuko duten jakiteko. Gaur egungo narratibek ez dute argitzen nola integra daitezkeen dinamika komunitarioak

garapen ekonomiko, ingurumeneko eta sozialeko eredu berrietan. Gainera, berrikuntza prozesua jada ez da interpretatzen eraldaketa mugimendu sozial gisa. Gaur egungo diskurtsoek garapen klasikoko ereduak indartzen dituzte, komunitatea jarduera ekonomikoaren testuinguru edo onuradun gisa hartzen dutenak, ez protagonistatzat.

Testuinguru horretan, euskal kasuak inspirazio iturri izaten jarraitzen du beren burua eraldatu nahi duten hiri, eskualde eta herrialdeentzat, giza garapen jasangarriaren ikuspegi integrala aplikatu nahian, dinamika sozial eta kulturaleri erantzuten baitie, mugimenduen eraikuntzaren ikuspegitik. Paradoxikoki, gure eraldaketa prozesua beste bide bat hartzen ari da. Hori posible egin zuen balio sistema (berdintasuna, lankidetzak, sakrifizioa...) Mendebaldeko gainerako gizarteentzera ari da eboluzionatzen. xx. mendearen amaiera arteko metanarrazioa eraldaketarako gaitasun endogeno eta kolektiboaren gainean eraiki bazen, uste sakonenak, gaur egun, lortu den bizi kalitatea arriskuan ez jartzeko erantzun indibidualistekin lotzen dira.

Gaur egun ere, euskal gizartea bat dator berdintasunarekiko eta giza garapen iraunkorrekiko konpromisoari buruzko diskurtso positiboarekin (Barandiaran 2022), baina hutsune nabarmenak daude genero berdintasunarekin eta lurraldearen trantsizio ekologikoarekiko benetako konpromisoarekin. Kontakizun publikoak gizarte lehiakorra eta modernoa eraikitzen jarraitzen du, ongizate estatuarekiko konpromiso sakonari uko egin gabe. Diskurtso hori ekimen zehatzek eta azken hamarkadetan lortutako emaitzek babesten dute, baina narrazio ezkutu eta azpikoek gabezia nabarmenak erakusten dituzte aipatutako esparruetan, eta baita euskal gizartearen hurrengo eraldaketa berrirudikatu beharra ere. 🍁

Bibliografia

- Alberdi, A. (2001): *Tasa de beneficio, crecimiento económico y distribución de la renta. Una visión postkeynesiana con aplicación a las economías vasca y española en el período 1965-1995*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- (2010): 'Economía vasca 1980-2010: tres crisis y una gran transformación', *Ekonomiaz* (25. urteurrena), 32-95.
- (2014): 'Las fuerzas del desarrollo en la economía vasca desde la Edad de Oro a la Gran Recesión y más allá', *Ekonomiaz* 86, 218-245.
- (2015): *Euskadi entre las regiones avanzadas del mundo. Juego de espejos para una guía de desarrollo*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- Agirreazkuenaga, J.; Alonso, E. (2014): *The Basque Fiscal System. History, Current Status, and Future Perspectives*, Reno, University of Nevada.
- Aranguren, M. J.; Magro, E.; Navarro, M.; Valdaliso, J. M. (2012): *Estrategias para la construcción de ventajas competitivas regionales: El caso del País Vasco*, Madril, Marcial Pons, Ediciones Jurídicas y Sociales.
- Autio, E.; Thomas, L. (2014): *Innovation Ecosystems: Implications for Innovation Management*, Oxford, Oxford, University Press.
- Barandiaran, X. (2022): 'Los retos de la gobernanza colaborativa', *Social Innovation Review* 5 (gaztelaniazko edizioa).
- Bendapudi, N.; Leone, R. (2003): 'Psychological Implications of Customer Participation in Co-Production', *Journal of Marketing* 67(1), 14-28.
- Betolaza, J. L. (2010): 'Análisis del sistema sanitario de Euskadi', *Ekonomiaz* 25(3), 286-317.
- Breznitz, D. (2021): *Innovation in Real Places*, New York, Oxford University Press.
- Brundtland, H. (1987): *Report. Our Common Future*, World Commission on Environment and Development.
- Cameron, H. (2012): *Social Entrepreneurs in the Social Innovation Ecosystem*, Londres, Palgrave Macmillan.
- Caravaca, I.; Gonzalez, G.; Silva, R. (2005): 'Innovación, redes, recursos patrimoniales y desarrollo territorial', *Eure* 31(94), 5-24.
- Casquete, J. M.; De la Granja, J. L. (2012): 'Movimientos sociales, nacionalismo y símbolos', in S. de Pablo, J. L. de la Granja, L. Mees eta J. Casquete (koordk.): *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*, Madril, Tecnos, 15-32.
- Castells, M. (2017): *Another economy is possible. Culture and economy in a time of crisis*, Cambridge, Polity Press.
- Castillo, J.; Paton, J. (2010): 'Política de promoción y reconversión industrial', *Ekonomiaz* 25(3), 96-123.
- Castillo, J.; Paton, J.; Barroeta, B. (2010): 'The Great Basque Competitive Transformation towards sustainable innovations', in L. Kebir, O. Crevoisi-

- sier, P. Costa eta V. Peyrache-Gadeau (argk.): *Sustainable Innovation and Regional Development*, Cheltenham, Edward Elgar Publishing, 189-212.
- Cat, D.; Robinson, C.; Winhall, J. (2021): *System-shifting design. An emerging practice explored*, Design Council eta The Point People.
- Chesbrough, H.; Vanhaverbeke, W.; West, J. (2008): *Open Innovation. Researching A New Paradigm*, Oxford, Oxford University Press.
- Cooke, P.; Morgan, K. (1998): *The Associational Economy. Firms, Regions, and Innovation*, New York, Oxford University Press.
- Engle, J.; Slade, S. (2018): 'Listening for social change: transformative tools to unleash community innovation', in Askoren artean: *Platforms that trigger innovation. A new approach for international development cooperation*, Palma, La Caixa Foundation, 21-37.
- González, S.; Healey, P. (2005): 'A sociological institutionalist approach to the study of innovation in governance capacity', *Urban Studies* 42(11), 2.055-2.069.
- Habermas, J. (1994): 'Struggles for Recognition in Constitutional States', in A. Gutman (arg.): *Multiculturalism. Examining the Politics of Recognition*, Princeton, Princeton University Press, 107-148.
- Henrich, J. (2016): *The Secret of our Success. How Culture is Driving Human Evolution, Domesticating our Species, and Making us Smarter*, Princeton, Princeton University Press.
- Ibarretxe, J. J. (2011): *The Basque Case: A Comprehensive Model for Sustainable Human Development*, Bilbo, EHU.
- Jauregizuria, N. (arg.) (2018): *Nazio-markagintza. Nola transmititu gure balioa*, Bilbo, UEU.
- Keating, M.; Harvey, M. (2014): *Small Nations in a Big World. What Scotland Can Learn*, Edinburgo, Luath Press.
- Kilelu, C.; Klerkx, L.; Leeuwis, C. (2013): 'Unravelling the role of innovation platforms in supporting co-evolution of innovation: Contributions and tensions in a smallholder dairy development programme', *Agricultural Systems* 118, 65-77.
- Maillat, D. (1995): 'Les milieux innovateurs', *Sciences Humaines* 8, 41-42.
- Marshall, A. (2006): *Principles of Economics*, Basingstoke, Palgrave Macmillan.
- Mataix, C. (2018): 'Financing and promotion of platforms for the SDGs. The role of financing organisations', in Askoren artean: *Platforms that trigger innovation. A new approach for international development cooperation*, Palma, La Caixa Foundation, 71-92.
- Mazzucato, M. (2019a): *El estado emprendedor*, Bartzelona, RBA.
- (2019b): *The Value of Everything. Making and Taking in the Global Economy*, Londres, Penguin Books.
- (2021): *Mission Economy. A Moonshot Guide to Changing Capitalism*, New York, Harper Collins.

- Meadows, D. (1998): *Leverage Points. Places to Intervene in a System*, The Sustainability Institute.
- Morgan, K. (2016): 'Collective entrepreneurship: the Basque model of innovation', *European Planning Studies* 24, 1-17.
- Moulaert, F.; MacCallum, D. (2019): *Advanced Introduction to Social Innovation*, Camberley, Edward Elgar Publishing.
- Patton, M. Q. (2010): *Developmental Evaluation. Applying Complexity Concepts to Enhance Innovation and Use*, New York, Guilford Press.
- (2014): *Qualitative Research & Evaluation Methods. Integrating Theory and Practice*, New York, SAGE Publications.
- Pichierri, A. (2002): 'Concertation and local development', *International Journal of Urban and Regional Research* 26(4), 689-706.
- Porter, M. E. (1990): *The Competitive Advantage of Nations*, New York, The Free Press.
- (2003): 'The economic performance of regions', *Regional Studies* 37(6-7), 549-578.
- Porter, M. E.; Ketels, M.; Valdaliso, J. M. (2013): *The Basque Country: Strategy for Economic Development*, Boston, Harvard Business School.
- Putnam, R. (2000): *Bowling Alone. The Collapse and Revival of American Community*, New York, Simon & Schuster.
- Rajan, R. (2019): *The Third Pillar. How Markets and the State Leave the Community Behind*, Londres, Penguin Press.
- Raworth, K. (2017): *La economía rosquilla*, Bartzelona, Paidós.
- Rullani, E. (2000): *Local Systems and Knowledge Production*, OCDE.
- Sandel, M. (2020): *The Tyranny of Merit. What is Become of the Common Good?*, Londres, Penguin Books.
- Scharmer, C. O. (2009): *Theory U. Learning from the Future as It Emerges*, Oakland, Berrett-Koehler Publishers.
- Sforzi, F. (1999): 'La teoría marshalliana para explicar el desarrollo local', in F. Rodríguez Gutiérrez (arg.): *Manual de Desarrollo Local*, Gijón, Trea, 13-32.
- Valdaliso, J. M. (2013): 'Las estrategias de desarrollo económico del País Vasco: una perspectiva histórica', *Ekonomiaz* 83(2), 146-173.
- Van der Bijl-Brouwer, M.; Malcolm, B. (2020): 'Systemic Design Principles in Social Innovation: A Study of Expert Practices and Design Rationales', *She Ji. The Journal of Design, Economics, and Innovation* 6(3), 386-407.
- Vázquez Barquero, A. (1993): *Política económica local*, Madril, Pirámide.
- Weber, M. (1999): *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, Bartzelona, Península.
- Westley, F.; Tjornbo, O.; Schultz, L.; Olsson, P.; Folke, L.; Crona, B.; Bodin, Ö. (2013): 'A Theory of Transformative Agency in Linked Social-Ecological Systems', *Ecology and Society* 18(3).

Lankidetzazko gobernantza eta berrikuntzarako ekosistemak gizarte erronken aurrean aldaketa eragiteko: Arantzazulab-en adibidea

Naiara Goia Imaz

*Arantzazulab gizarte berrikuntza laborategiko
zuzendari nagusia*

Ione Ardaiz Osacar

*Arantzazulab gizarte berrikuntza laborategiko
proiektuen zuzendaria*

Hitzaurrea

Lankidetzazko gobernantza eredu berrien eta berrikuntzarako ekosistemen beharra aztertzen du artikulua honak, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko. Zehatzago, Arantzazulaben lana aurkezten du, gobernantzaren berrikuntzan diharduen gizarte berrikuntza laborategia.

Bestalde, lankidetzazko gobernantza eta sistemen analisieraren lotura sakontzen da, erakunde publikoei agenda publiko berri bat eraikitzen eta kudeatzen laguntzeko hurbilpen eraginkor gisa. Azkenik, tokiko eskala maila globalarekin lotzearen garrantziaren inguruan hausnartzen da, trantsizio ezberdinei eman beharreko erantzunek eskalako inpaktu zabalagoa eta handiagoa dutela ziurtatzeko.

Aurkezpena eta testuingurua: gobernantzaren berrikuntza, demokrazia indartzeko

Aldaketa politiko, ekonomiko eta sozial sakonak bizi ditugu, eta globalizazioak elkarrekiko mendekotasun berriak ekarri ditu politika publikoen esparrura. Gobernuak dagoeneko ez dira politiken arrakasta edo porrota kontrolatzen duten alderdi bakarrak, edo gobernuen ekintzei buruz herritarrek duten pertzepzioa kontrolatzen duten bakarrak. Horrez gain, erronka horiek izaera konplexua dute, eta, gizarte moduan, inoiz baino ziurgabetasun handiagoa dugu aurrean. Testuinguru horretan, arazo konplexuak gainditu beharko ditugu, hau da, kausa edo irtenbide bat baino gehiago dituztenak (OCDE *et al.* 2020). Aldaketa horiek abiadura ikaragarrian gertatzen ari dira, eta azelerazio horrek orain arte ezezaguna zen izaera berria ematen dio eraldaketari. Aldaketa horien atzean dagoen eraldaketa faktorea bikoitza da: 1) batetik, garapen zientifiko eta teknologiko disruptiboak eta garapen horiek ekoizpen sistemetan eta ezagutzaren sorrera sistemetan dituzten aplikazioa eta inpaktua, sozializazio, komunikazio eta interakzio sistemetan eragiten duten eraldaketarekin batera; 2) bestetik, sistema kapitalistaren merkatu libreko garapen 'eredua', aldi berean demokrazia liberalen sistemari lotuta dagoena.

Demokrazia liberalaren krisiaz ari garenean, mundu oso-ko demokrazia liberaleri eragiten dieten bi ageriko gertaera aipatzen ditugu:

- Administrazio publikoek edo gobernu egiturek eskain dezaketenaren eta gizarteek espero dutenaren arteko desoreka. Horrek areagotu egiten du herritarrek erakunde publikoekiko eta sistema politikoekiko sentitzen duten desafekzioa. Gobernatzen dutenen eta gobernatuen arteko deskonexio arazo larria dago.
- Ordezkaritza lanetarako eta politika publikoak kudeatzeko egitura politiko zaharkituak eta ahulak, eta gizartearen aldaketa azkar eta konplexuei aurre egiteko duten gaitasunik eza.

Demokrazia liberalaren krisiak esan nahi du eredu berriak behar direla espazio publikoa eta politika publikoak kudeatzeko; demokrazia berrezartzen lagunduko duten eta gizartea deliberazio gunean txertatuko duten ekintzarako bide eta modu berriak (Kultura politiko berriari buruzko Deliberazio Taldea 2022). Pertsonak demokraziaren erdi-erdian egon daitezen lortu behar dugu.

Are gehiago eta, zalantzarik gabe, gorago adierazitako testuinguruaren ondorioz, gizarte modernoa, sarritan, indibidualistatzat, ahultzat, pluralizat eta konplexutzat jo da pentsamoldeari eta jokabideei dagokienez. Gizarte indibidualista batez ari garenean, esan ohi da komunitate bizitzak eta bizitza publikoarekin lotutako alderdiek ez dutela interesik pizten eta gizarteak duen kontzeptu horien pertzepzioa aldatu egin dela. Mendeabaldeko herrialdeetan, iritzi publikoaren inguruko inkesten arabera, herritarrek interes txikia dute politikan eta gutxi ezagutzen dituzte errealitate politikoa, komunitate politikoa eta espazio publikoa, baita sistema politiko eta instituzionala osatzen duten elementuak ere. Kritika hori bereziki nabarmena da gazteen artean. Gazteek bereziki sentitzen dute desafekzio hori, eta ez dute interesik gai politikoetan; beraz, zaila da gazte horien parte hartzea lortzea administrazio publikoek sustatutako edozein ekimenean, ez baitute gazteen interesa pizten eta mesfidantzaz hartzen baitituzte.

Egia da aldaketa mundu mailan gertatzen ari dela eta gure eskala oso txikia dela. Hala ere, etortzeke dauden aldaketek gure herrian misio berriak ezartzera bultzatzen gaituzte.

Demokrazia liberalaren krisiak esan nahi du eredu berriak behar direla espazio eta politika publikoak kudeatzeko; demokrazia berrezartzen lagunduko duten eta gizartea deliberazio gunean txertatuko duten ekintzarako bide eta modu berriak

Errealitate berri horrek dakartzan erronkak arrakastaz gainditu nahi baditugu, munduari begiratzeko eta gure artean antolatzeke modu berriak aurkitu behar ditugu. Izan ere, erakunde publikoen, herritarren eta gizarte antolatuaren arteko lotura eta lankidetzaz sare sendo bat eraikita bakarrik lortuko dugu erronkei gizarte moduan aurre egitea. Sare horiek indartzeko, ezinbestekoak dira erakunde publikoen eraldaketa eta bilakaera. Gobernuaren eta gizartearen arteko interakzio eta harreman modu berriak arakatu behar ditugu, etorkizuneko erakundeak diseinatu eta gobernantza eredu berriak abiarazi eta probatu. Horretarako, halabeharrez, ezagutza eta berrikuntza behar dira: ezagutza behar da faktore eraldatzaile horiek hobeto ulertzeko eta nola eragiten diguten interpretatzeko, eta berrikuntza behar da erantzunak proposatu eta tresna berriak sortzeko. Beste era batera esanda, gobernantza berria behar dugu galdera berriak planteatzeko eta erantzun berriak bilatzeko.

Zentzu horretan, lankidetzazko gobernantza da erakundeek dituzten erronken magnitude sistemiko eta konplexuari modu eraginkorrean aurre egiteko gobernantza eredua, hots: «gobernaren, erakunde pribatuaren eta gizarte zibilaren interakzioa ahalbidetzen duen prozesua, komunitatearen norabidea eta gobernantza erabakitzeko, koordinatzeko eta egikaritzeko» (Arellano *et al.* 2014: 121). Horrela, kapital soziala eta politika publikoen ekosistemaren eraginkortasuna indartzen dira, deliberazioari eta erakunde eta herritarren arteko ekintza bateratuari esker.

Gizartea deliberazioan integratzeko espazio berriak garatu behar dira, kosorkuntza, hausnarketa eta ekintza bateratuak ahalbidetzen dituztenak; eta tresna, antolamendu eredu eta metodologia berriak ikertu eta probatu behar dira. Gizarte berrikuntzarako laborategia den heinean, hauxe da, zalan-tzarik gabe, Arantzazulaben helburu nagusia: gobernaren eta gizarte zibilaren arteko harreman eta lankidetzaz modu berriak ikertu eta esperimentatzea elkarrekin agenda berri bat sortzeko. Gizarte zibilak agenda publikoan duen parte

hartzea eta ahalduntzea areagotzeko tresna eta mekanismo berriak behar ditugu. Teknologia eragile horien arteko harremanen eraldaketan duen eginkizuna hausnartu, ikertu eta esperimentatu behar dugu. Ildo beretik, nazioarteko sareekin lotura ezartzea funtsezkoa da egungo testuinguru globalean, gure erantzunak eraginkorrak izan daitezen nahi badugu behintzat.

Ikuspegi sistemikora eta pentsamendu sistemikora hurbilpena

Aurreko atalean aipatu den bezala, erronka global konplexuen mendea da hau. Mundua egiturazko aldaketa sakonak bizitzen ari da, eta aurrean ditugun erronkak sistemikoak eta aurrekaririk gabeko eskala batekoak dira. Ezin zaie aurre egin *ad hoc* eta epe laburrerako esku hartze sektorialen bidez. Aitzitik, onartu behar dugu sistemak dinamikoak direla, eta beren propietate eta ezaugarriek neurri handi batean zehazten dituzten moduetan eboluzionatzen eta jokatzen dutela (Hynes *et al.* 2020).

Nahiz eta ez dagoen pentsamendu sistemikoaren definizio bakar bat sistemen dinamikaren komunitatean, literaturan nolabaiteko adostasuna dago zazpi ezaugarri gakoren inguruan: interkonexioak ezagutzea (zatiak nola erlazionatzen diren ulertzea eta sistema bere osotasunean ikustea), atzeraelikadura identifikatzea (elkarreraginak eta atzeraelikadura ezagutzea), portaera dinamikoa ulertzea (atzeraelikaduraren eta portaeraren arteko erlazioa ulertzea), fluxu eta aldagai motak bereiztea (mailen eta tasen arteko aldea ulertzea), eredu kontzeptualak erabiltzea (sistemen printzipio orokorrak erabiliz azaltzea eta behatzea), simulazio ereduak sortzea (eredu matematikoak erabiliz loturak deskribatzea) eta politikak probatzea (hipotesiak probatzea politikak garatzeko) (Stave eta Hopper 2007).

Laburbilduz, pentsamendu sistemikoak osagai guztiak eta horien eragina osotasun gisa aztertzea eskatzen du. Gure

Gobernantzaren
berrikuntzan
erreferentzia zentro eta
gizarte berrikuntzan
katalizatzaile da
Arantzazulab.
Lankidetzazko
Gobernantzan sakontzea
eta berori hedatzea du
helburu nagusi

ohiko ikuspegi analitikoaren kontrakoa da; hots, siloetan arrazoitzen eta funtzionatzen ohituta gaude, gauzak zati bereizietan banatu eta banaka kudeatzen saiatzen gara. Arazo konplexuei ikuspegi sistemikoa aplikatzeak lagundu diezaguke sistemaren osagaien arteko erlazioak ulertzen eta emaitza hobeak ekar ditzaketen esku hartzeak identifikatzen. Arazo eta helburu publikoak etengabe aldatzen ari den sistema baten parte direla

ulertzen badugu, erakundeei egokitzen lagunduko dieten metodoak behar ditugu. Pentsamendu sistemikoaren tresnak izan litezke XXI. mendeko gure erronketarako irtenbidea.

Daniel Innerarityren hitzetan (Kultura politiko berriari buruzko Deliberazio Taldea 2020: 5):

Oinarritzko ideia da gizarteak aurre egin behar diela gobernu tresna klasikoak gainditzten dituzten arazoei. Hau bi gauzatan islatzen da: 1) politikaz hitz egiteko erabili genituen kontzeptuak gurearen oso bestelako garai batean diseinatu ziren (duela 300 urte). Rousseauk garai hartako Genevan pentsatzen zuen 'gizarte kontratua' idaztean. Teknologia oso apalekin. Beraz, kontzeptu horiek berriz pentsatu behar dira, ea balio duten. 2) sinplizitatearen erabilera interesatua. Eragile politiko batzuek errealtatearen sinplifikazio oso interesatua hartzen dute aintzat. Eskuinaren eta ezkerrekoaren sinplifikazioak daude; populistak eta teknokratak: hemen jendeari entzun behar zaio edo hemen aditu bat ekarri behar da. Horra bien oinarritzko posizionamenduak dira.

Politika ulertzean konplexutasunean pentsatzeak sistemikoki pentsatzea esan nahi du. Horrek esan nahi du gizarte batzuetan bizi garela non faktore guztiak beharrezkoak diren koadro orokor baterako; dena pentsatu behar da gauza batean pentsatu ahal izateko. Eta gaur egun indarrean dagoen inter-espezializazioaren aurkako dinamika bat dago.

Ondoen dakiena da une honetan oso zaila den ikuspegi orokorra izateko gai dena, eragile eta faktore kopuru handia baitago. Demokrazia konplexua balio eta faktore askoren arteko interakzioa ahalbidetzen duen demokrazia bat da.

Hain zuzen ere, eta horri lotuta, lankidetzazko gobernantzaren eredu baten bidez, sektore publikoko erakunde batek komunitateko beste eragile batzuk inplikatzeko dituen ikaskuntza prozesu estrategikoak gauzatzeko, balio publikoa, haren bultzatzaileak eta behar diren baliabide estrategikoak areagotzeko komunitatearen emaitzetan eragiteko (Ansell eta Gash 2008). Lankidetzazko gobernantza, beraz, gobernantza publikoko mekanismo bat da, desafekzio politikoari aurre egiteko eta politika publikoen diseinua eta ezarpena osatzen duten ekosistemen beharrei ikuspegi sistemikotik erantzuteko.

Hurrengo atalean, Arantzazulab laborategiaren deskribapen bat jasotzen da, irakurleak hobe uler dezan Euskal Herrian lankidetzazko gobernantza indartzen laguntzeko egiten duen ekarpena. Bertan azaldu dugu laborategiak, lankidetzazko kultura berri bat zabaltzeko helburuarekin, sareak eraikitzeko eta ekosistemak aktibatzen egindako lana.

Arantzazulab: erreferentziazko zentroa gobernantzaren berrikuntzaren arloan

Gobernantzaren berrikuntzan erreferentzia zentro eta gizarte berrikuntzan katalizatzaile da Arantzazulab. Lankidetzazko gobernantzan sakontzea eta berori hedatzea du helburu nagusi; horretarako, erakunde publikoen eta gizarte zibila-ren arteko harreman eredu berrien inguruan hausnartzeko, ikertzeko eta esperimentatzeko ardura du, besteren artean. Arantzazuko Gandiaga Topagunean kokatua, laborategiaren azken helburua da lankidetzarako kultura gizartean hedatzea, herritarren elkargune eta ikaste aktiboko topagune bihurtzea, eta herritarrek agenda publikoan duten inplikazioa eta parte hartzea areagotzeko tresna berriak eta ezagutza eskaintzea (<https://arantzazulab.eus>).

Arantzazulabek misio argi bat du: «Lankidetzazko gobernantzaren inguruan ezagutza garatzeko gure herriko gunerik garrantzitsuen izatea, herrigintzaren, erakunde sistemaren eta gizarte eragileen zerbitzura egongo dena». Gainera, bizi dugun aldaketa sakoneko garaian, gure etorkizunaz, gure herriaz eta euskal gizartearen erronkez modu berritzailean hausnartzeko eta esperimentatzeko gizarte-berrikuntza laborategia da. Erronka konplexuen aurrean ezagutza berria, balio berriak eta egiteko modu berriak garatzeko berrikuntza ekosistemaren katalizatzaile izateko rola du baita ere, bertako zein nazioarteko askotariko eragileekin lankidetzazko sareak sustatuz eta eraikiz.

2022an zehar, lankidetzazko gobernantzaren definizio bat garatu dugu, hainbat eragileren arteko adostasunetik, abiapuntuko marko bezala:

Lankidetzazko gobernantza erakunde publiko, gizarte eragile eta herritarren artean instituzionalizatutako lankidetzazko da, herri politiken ekosistema ahaldundu eta eraginkortzeko; hori erakundeen, gizarte eragileen eta herritarren arteko gizarte kapitala sendotuz egin behar da, deliberazio eta ekintza partekatuen bidez.

1. irudian, laborategiaren marko estrategikoa ikus daiteke. Lau ardatz estrategiko ditu laborategiak:

1. Lankidetzazko gobernantza sustatzea eta horren inguruko ezagutza garatzea: herritarren parte hartzea eta ahaldundutza sustatzeko deliberazio espazioak erraztea eta tresna berriak proposatzea.
2. Gizarte erronka eta eduki berrien, balio berrien, egiteko modu berrien ikerketa, formakuntza eta sozializazioa.
3. Ekosistemaren aktibazioa: saretzea eta elkarlana sustatzea.
4. Irekiera eta nazioartekotzea: eredu aurreratuetatik ikasi eta ezagutza lortzea, eta nazioarteko sareetan posizionatzea.

Egungo testuinguruak ezagutza eta berrikuntza eskatzen ditu ezinbestean: ezagutza, gizarte erronken eta faktore eraldatzaile horien ulermenean sakontzeko eta nola eragingo diguten ondo interpretatzeko; eta berrikuntza, erantzunak planteatzeko eta tresna berriak artikulatzeko. Tresna

berriekin esperimentatzeko ausardia eta lidergoa eskaintzen ditu Arantzazulabek. Eta, finean, topagunea da, esperimentazio berritzaileko eta hausnarketa askerako elkargunea, erakunde publikoekin, eragile sozialekin eta herritarrekin lankidetzan estuan adimen kolektibo hori garatu ahal izateko.

1. irudia. Arantzazulaben marko estrategikoa



Arantzazulabean ekarpen nagusiak modu honetan laburtu daitezke: gobernuen eta gizarte zibilaren arteko harreman eta lankidetzan modu berrien inguruan ikertu eta esperimentatzea, tresna eta mekanismo berriak geureganatuz; berrikuntza ekosistemen inguruko ezagutza, eta horiek eraginkorrak izateko egiturak, sareak, gaitasunak, beharrezko lidergoak eta finantzaketa ereduaren inguruko proposamenak; eragileen arteko harremanen eta gobernantza eraldatzeko teknologiaren rola inguruan ikastea; nazioarteko sareekin konektatzea,

governantzaren berrikuntzan aurreratuak diren herrialde, esperimentzia, gobernu eta laborategiekin lankidetzazko proiektuak; gizarte erronken inguruko ikerketa aurreratuak.

Laborategia lankidetzazko gobernantzan oinarritzen da, eta gure herriko erakunde garrantzitsuen laguntza jasotzen du: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Mondragon Korporazioa, Kutxa Fundazioa, Oñatiko Udala eta Frantziskotarren Probintzia dira erakunde sustatzaileak eta Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenak. Gobernantza egiturari, orobat, eta Aholku Batzordea osatuz, erakunde hauek daukete: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Agirre Lehendakaria Center, Telesforo Monzon eLab Euskal Herrigintza Laborategia eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak.

Arantzazulab lankidetzazko gobernantzarako erreferentzia zentroa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz estrategiaren markoan (www.gipuzkoa.eus/en/web/etorkizunaeraikiz). Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimen aurrendari horrek politika egiteko eta sektore publikoa kudeatzeko modu berriak zabaltzeko nahi ditu lankidetzazko gobernantza irekiaren bitartez.

Etorkizuna Eraikiz erreferentzia zentroek proiektu estrategikoak bultzatzen dituzte, modu kolaboratiboan, Gipuzkoako gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrek lotutako gaiei buruz. Zentro publiko-pribatu espezializatuak dira, eta Gipuzkoan estrategikotzat jo diren sektoreak indartzea dute helburu (mugikortasuna, zahartzea, zibersegurtasuna, gastronomia, gobernantza, euskara...). Erreferentziazko zentro horiek Europako Batasunaren misio estrategikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren espezializazio adimendunaren estrategiarekin (RIS 3) lerrotuta daude. Esparru horren barruan, Etorkizuna Eraikiz ekimenak politika eta agenda publikoa eraldatzeko proposatzen dituen prozedurak ulertu, abiarazi eta kolektiboki legitimatzen direla ziurtatzeaz arduratzen da Arantzazulab.

Amaitzeko, Arantzazulabek bere programa garatzeko hiru lan ildo nagusi ditu: ikerketa, esperimentazioa eta dibulgazioa.

Jarraian azalduko ditugu esparru horietan Arantzazulabek diseinatu eta sustatutako zenbait proiektu (informazio osoa: <https://arantzazulab.eus>).

Sareak eraikitzea eta berrikuntzarako ekosistemak katalizatzea

Arantzazulaben, lankidetzazko gobernantzan sakontzeko, eragileen arteko harreman eredu berriak eta berrikuntza ekosistemak sustatzen ditugu, laborategiaren egiteko nagusia da hori. Gobernuen eta gizarte zibilaren arteko harreman eredua aldatu nahi badugu, aktore ezberdinen arteko sareak indartu behar dira, harremanak eraginkortzeko eta banakako inpaktua zabaltzeko. Berrikuntza ekosistemak, hain zuzen ere, eraldaketa eragileek osatutako sareak dira; eta beste eragile batzuekin konektatzeko eta lan egiteko konpromisoa hartzen duten eragileek koordinatzen eta sustatzen dituzte. Arantzazulaben, berrikuntza ekosistemak antolatzeaz, deialdiak egi-teaz, koordinatzeaz, lankidetzan egiteko egitasmoak proposatzeaz eta eragile ezberdinen arteko harremanak sustatzeaz arduratzen gara; berrikuntzarako ekosistemen ‘katalizatzaile’, ‘koordinatzaile’, ‘zubigile’, ‘antolatzaile’ gara.

Gaur egun, Arantzazulabek lau ekosistemen katalizatzaile gisa jarduten du, lau elkargune moduan diseinatuak: Ikerketa Elkargunea, lurraldeko hiru unibertsitaterekin; Euskal He-

rriko kosorkuntza ekosistema, 25 eragilerekin; gobernantza eta berrikuntza demokratikoan ezagutza garatzen duten eragileen ekosistema, bertako eta nazioarteko ezagutza eragileekin; nazioarteko gizarte berrikuntzako liderrekin eta profesionalekin sarea, nazioarteko 40 baino eragile gehiagorekin.

ArantzazuLab
Lankidetzazko
Gobernantzarako
erreferentzia zentroa
da. Politika egiteko
eta sektore publikoa
kudeatzeko modu
berriak zabaltzeko nahi ditu

Helburua bikoitza da: 1) erakundeen eta eragileen artean lehendik zeuden sareak eta harremanak indartzea, elkarren arteko sinergieei ahalik eta onura handiena ateratzeko; 2) hausnarketarako, elkarrekintzarako eta esperimentaziorako espazio segurua eskaintzea, ekosistemen eta gobernuen arteko gobernantza eredu berriak probatzeko eta agenda publikoan duten eragina areagotzeko.

Arantzazulabek, beraz, erronka konplexuen aurrean, ezagutza berria, balio berriak eta egiteko modu berriak garatzeko berrikuntza ekosistemaren katalizatzaile rola du, bertako zein nazioarteko askotariko eragileekin lankidetzak sustatuz eta eraikiz. Elkarlana sustatzea gure azken helburuarekin bat dator: erakundeekin, elkarteekin, gizarte eragileekin, politika eta herri ekimenekin harremanak eta lankidetzak sustatu eta eraikitzea, testuinguru berrietara egokitzen laguntzeko eta lan egiteko modu berrietara eramateko.

Ikerketa eremua

Arantzazulabek, lehen urtean, ikerketa kolaborazioan egiteko espazio berritzailea abiatu zuen hiru unibertsitaterekin. Unibertsitate bakoitzaren banakako ikerketaren emaitzak batzera mugatu beharrean, Arantzazulabek balio erantsia eskaintzen du: batetik, lankidetzazko hausnarketa eta ikerketa gune hau unibertsitate ezberdinekin batera diseinatu, aktibatu eta kudeatzen dugu; bestetik, gure esparruan ikerketa aurreratua sustatzen dugu, ikerketa proiektu kolektiboak garatzen dira, beti ere unibertsitateen arteko lankidetzan. Hainbat ikerketa proiektu eta lan ildo jarri dira martxan; nagusiak aipatzearren: batetik, oinarrizko ikerketa garatzen dugu demokrazia eta lankidetzazko gobernantzaren esparruetan. Bestetik, hausnarketa gune bat abiatu da; hain zuzen ere, Ikerketa Elkargunearen izaerari lotuta, beste espazio eta foroetan gertatzen ez ziren hausnarketak egitea eta ideia berriak sustatzea bilatzen da era berean topagune honetan. Jakintza arlo ezberdinetako ikertzaileak batuko dituen espazioa eraiki nahi

da; hauek dira espazio honetan parte hartzen duten unibertsitate nagusiak: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Unibertsitateak batzen dituen Ikerketa Elkarguneaz gain, ikerketa eremuan kokatzen dira baita ere: ikerlarien erresistentzien programa, Fellowship ikerketa programa...

Esperimentazio eremua – Lankidetzazko gobernantza praktikan

Gizarte berrikuntzako laborategia izanda, esperimentazioak eginkizun garrantzitsua dauka Arantzazulaben jardueran. Esperimentazioa honela definitzen da: «Ezagutza berria eta egiteko modu berriak garatzeko ekintzak sustatu eta dinamizatzea». Ekimen guztiek oinarri bera dute, hau da, lankidetzazko gobernantza moduekin esperimentatzea eta lankidetzazko gobernantza praktikara eramatea, komunitatea ahalduztzeko eta hausnarketarako espazio partekatuak sortzeko herritarrekin eta gizarte zibilarekin batera.

Jarraian aipatzen dira esperimentazioaren esparruan ikuspegi eraldatzailearekin Arantzazulabek aktibatutako egitasmo batzuk:

- Lankidetzazko gobernantza praktikara eramateko, demokrazia deliberatiboko prozesuak: bi ‘Herritarren Batzar’ sustatu eta abian jarri ditugu, modu aitzindarian lehenengoz gurean (Tolosan bata, lurralde mailan, Gipuzkoan, bestea). Erakunde publikoek deitutako prozesuak dira biak, erronka handiko erabaki publiko zailen inguruan zozketa zibiko bidez hautatutako herritarrak modu esanguratsuan inplikatzeko bilatzen dutenak. Demokrazia deliberatiboaren arloko aditu ezberdinen bide laguntzarekin garatu dira, besteak beste, Ekonomia Lankidetzazko eta Garapenerako Erakundearena (OCDE), prozesu horien inguruko mundu mailako erreferentziak eta eskarmentua ekarri dituelarik.

Prozesu horiek lankidetzazko gobernantzan sakontzeko aukera ematen digute, eta erakunde publikoen

eta herritarren arteko harreman eredu berriak aktibatzen dituzte. Bi egitasmo horiekin, helburua da tokiko gaitasunak sortzea eta euskal erakundeetan deliberazio prozesuak instituzionalizatzea. Bi Herritarren Batzarrek 2022ko amaieran eta 2023ko hasieran garatu ziren, urtebeteko diseinu lana egin eta gero. Informazio osoa Arantzazulaben webgunean jarrai daiteke.

- Euskal Herriko kosorkuntzarako ekosistema aktibatzea: ikaskuntzarako, elkarrekintzarako eta esperimentaziorako elkargunea da, xede izanik ezagutza berriak, jarrera berriak, pentsatzeko eta egiteko modu berriak garatzea. Hiru helburu ditu: (1) Euskal Herriko kosorkuntza gu- neak, ezagutza eta eragileak konektatzea; (2) esperimentatzeko espazioak dinamizatzea, sormena sustatzeko eta ezagutza berria sortzeko: bi esperimentu berritzaile dira abian; (3) berrikuntza ekosistemaren egitura finantzatzeko eredu berriekin esperimentatzea. Gaur egun, 30 toki- ko eragilek eta gizarte berrikuntzako erakundek hartzen dute parte.
- 2030 Agenda garatzea eta bere lokalizazioa indartzea, Garapen Jasangarrirako Helburuen kokapena sustatuz eta helburuak erdiesteko gizartea aktibatuz. Lokalizazio prozesu global horren lehentasuna da agenda planetako toki eta eskualde gobernu bakoitzean errotzea, gobernuen askotariko mailen arteko koherentzia sustatuz, eta asko- tariko eragile eta diziplinen lankidetzaz publiko-pribatua mobilizatuz, behetik gora eraginkortasunez ezartzeko.

Esperimentazioko beste proiektu batzuk: ‘governantza eta teknologia esparrua’ garatzea, teknologia berriek harreman ereduak eraldatzeko duten gaitasun eraldatzailearekin es- perimentatuz; berrikuntza demokratikoko tresna berriak esploratzea helburu duen espazioa; lankidetzazko gobe- nantza sendotzeko eta hedatzeko hainbat egitasmo garatzea: udalekin ‘tokiko laborategiak’ (Etorkizuna Eraikiz, Gipuz- koako Foru Aldundia); ikasleekin eta gazteekin deliberazio eta kosorkuntza guneak...

Amaitzeko, ikerketa eta esperimentazioa uztartzen dituzten beste hainbat egitasmo ere badira, hala nola: nazioartekotze proiektuak eta estrategiak; 'Nazio txikietan berrikuntza ekosistemak sustatzeko aliantza'; politika publikoetan eragiteko metodologia eta hurbilpenak txertatzen dituzten egitasmoak (misioetan oinarritutako berrikuntza teoria, ebaluazio ebolutiboa, sormen kolektiboa sustatzeko metodologiak)...

Dibulgazioa

Ikerketaren zein esperimentazioaren bidez garatutako ezagutza gizarteratzea du helburu dibulgazioaren ardatzak, gizarte erronken ulermenean sakontzeko, ezagutza berria zabaltzeko eta herritarrei helarazteko, eta azkenean komunitatea ahalduntzeko. Horretarako, hezkuntza eta sozializazioa dira jarduera nagusiak; sortutako ideia, ezagutza, diskurtso eta ikerketen emaitzak partekatu, dibulgatu eta kontrastatu ditugu hainbat forotan. Nabarmentzekoa da ezagutza dibulgatzeko Arantzazulaben 'Ezagutza Ataria', 2023ko hasieran estreinatu dena.

Gobernantzaren arloko berrikuntza laborategietatik berrikuntza ekosistemetara

Lehen aipatu bezala, lankidetzazko gobernantza hedatzeko, gobernuen eta gizarte zibilen arteko harreman ereduak aldatzea bilatzen dugu Arantzazulaben. Abiapuntuko hipotesia da, gainera, harreman eredu horren eraldaketa gerta dadin, gizarte eragile ezberdinen arteko sareak indartu behar direla, gizarte deliberazioan txertatzeko, eragileen arteko harremanak sendagoak eta eraginkorrak izateko. Sare horiek sortzeko berrikuntza ekosistemen bidez lan egin behar dugula pentsatzea izan da Arantzazulabek egin duen hurbilpen bat ere.

Mundu osoko erakunde publikoak eta berrikuntzaren alorreko eragileak laborategiak eraikitzen aritu dira azken urteetan, pentsatzeko eta jarduteko modu berriei buruz hausnartzeko, ikasteko eta esperimentatzeko. Laborategi horiek funtsezko

eginkizuna izan dute puntako jardunbideen garapenean eta gaitasun berriak eraikitzeko espazio seguruen sorreran.

Gaur egun, ordea, laborategi horien bilakaeraren inguruan hainbat ikerketa garatzen ari dira: laborategiek egindako lana


Banakako proiektu
isolatuak alde batera utzi
eta aldaketa sistemikoa
aktibatu nahi badugu,
eraldaketa ahaleginak
bateratu behar
ditugu, tokiko zein
nazioarte mailan

aztertu ondoren, mundu oso-ko hainbat berrikuntza eragile ondorio batera iritsi dira: horrelako laborategiak eraikitzea ez da nahikoa (The Finnish Innovation Fund Sitra 2020). Banakako proiektu isolatuak alde batera utzi eta aldaketa sistemikoa aktibatu nahi badugu, eraldaketa ahaleginak bateratu behar ditugu, toki-ko zein nazioarte mailan. Eta


eraldaketarako berrikuntza ekosistemen beharra aldarrikatzen dute: ekosistema horiek aukera egokia dira harremanak eta interakzioak eraikitzeko. Askotariko pertsona taldeak eta ekimenak antolatzeko modua eskaintzen dute eta ahaleginak konektatzeko eta zabaltzeko gai dira. Testuinguru konplexu eta ezezagunetan mugitzeko planteamendu alternatibo bat eskaintzen dute.

Sitrak ibilbide bat proposatu du laborategiak berrikuntza ekosistema bihurtzeko (2. irudia). Ibilbide horren arabera, hasierako laborategiak elkarrekin ikasteko eta gaitasunak batera eraikitzeko tokiak dira, eta, ondoren, lankidetzaz goiztiarrak aktibatzen dituzten eta komunikazio aktiboa ahalbidetzen duten gunek (*hub*) eta sare bilakatzen dira. Gero, inpaktu kolektiboko espazioa iristen da, lankidetzaz sendoak ezartzeko eta agenda partekatu bat, neurketa esparru partekatu bat eta antolakuntza ardatz bat eraikitzeko. Azkeneko fasean, berrikuntza ekosistema hazi eta lankidetzaz garatuak agertzen dira. Lankidetzaz horiek finantzaketa mekanismo berriak behar-ko dituzte, proiektu-zorro planteamendu bat, plataformak, I+G+B eta ekosistema sostengatzeko gaitasunen eraikuntza.

2. irudia. Laborategiak berrikuntza ekosistema izatera iritsiko dira?



3. irudia. Arantzazulaben ekosistema, bertako eta nazioarteko eragileekin



Aurreko atalean aipatu den bezala, Arantzazulabek hain zuzen ere bere esparruko eragile sarearekin berrikuntza ekosistemak sortu, garatu eta koordinatzeko ardura bere gain hartzen du, aktoreen artean lankidetzaren kultura hedatuz, eta horien arteko eta gobernuekin duten gobernantza eta harreman eredua eraldatzeko egitasmoak proposatuz (3. irudia: 155 eragilek osatzen dute Arantzazulaben sarea; 2022ko abendua).

Tokikoa eta globala konektatzea

Aldaketen maila globala da, eta gure neurria txikia da oso. Aurrean ditugun erronka konplexuek tokiko mailan lankidetzan aritzea eskatzen dute, nazioarte mailan ahaleginak bateratzeaz gain. Klima larrialdiari, erronka ekonomikoari, gora doan erakunde publikoekiko desafekzioari edota areagotzen ari den desberdinkeriaaren arazoei erantzun sistemikoak eman ahal izateko, elkarrekin lan egin beharko dugu, gure ahaleginak batu beharko ditugu eta mundu mailako erantzukizun kolektibo sendoak eraiki beharko dira. Tokiko maila eskala globalarekin konektatu behar da ezinbestean.

Bestalde, ordea, bila ari garen erantzun kolektiboak gure tokiko testuinguruan eta kulturaren oinarritu behar dira, gure balioak islatu behar dituzte eta geure errealitateekin lotura izan behar dute.

Bestalde, eraldaketa maila sakonak behar dira gizarte globalak aurrean dituen elkarri lotutako erronka konplexuei aurre egiteko. Eraldaketa mota hori ezin dute eragileek edo herrialdeek euren kabuz lortu. Aurreko atalean aurkeztutako berrikuntza ekosistemak aldaketaren eragileek osatutako sareak dira, eta eragile horiek ekintzak gauzatzen dituzte; baina, era berean, norberaren inpaktua zabaltzeko xedearekin, beste eragile batzuekin partekatze, konektatzeko eta lan egiteko konpromisoa hartu behar dute.

Arantzazulabek ikerketa bat abiatu du Fellowship programaren esparruan, nazioarteko ikerlariarekin. Ikerketa horren helburu nagusia da eraldaketaren katalizatzaile diren

etorkizuneko erakundeak eta ekosistemetako eragileen arteko harremanak zein gobernantza ereduak esploratzea. Zehatzago esanda, honako bi helburu hauek ditu ikerketak: (1) eraldaketa prozesuetarako beharrezkoak diren aktoreen, rolen eta baldintzen inguruko azterketa egitea; (2) adibide zehatzetan sakontzea, esperientzia arrakastatsuek izan duten gobernantza ereduari, kudeaketari, baliabideei eta antolaketa ereduari buruzko informazioa bilduz. Ikerketa horren emaitza bezala, nazioarteko zenbait testuinguru eta ekimenetatik ondorioztatutako indarguneak eta ikaskuntzak jaso ditugu, eta lau argitalpenetan islatu ditugu gure webgunean (Arantzazulab 2022).

Ikerketa horretan, eta berrikuntzarako ekosistemak arakatzean, arreta berezia jarri dugu orobat ekosistemen ‘katalizatzaileen’ gainean. Horiek dira ekosistemak antolatzeaz, deialdiak egiteaz, koordinatzeaz, lankidetzan egiteko egitasmoak proposatzeaz eta eragile ezberdinen arteko harremanak sustatzeaz arduratzen direnak. Izen ezberdinak hartzen dituzte literaturan: berrikuntzarako ekosistemen ‘katalizatzaile’, ‘koordinatzaile’, ‘zubigile’, ‘antolatzaile’, ‘lider’. Hori da, hain zuzen ere, Arantzazulaben rola gure ekosisteman.

Lankidetzazko gobernantza hedatzeko, gobernuen eta gizarte zibilen arteko harreman ereduak aldatu behar da. Abiapuntuko hipotesia da, gainera, harreman eredu horren eraldaketa gerta dadin, gizarte ezberdinen arteko sareak indartu behar direla, gizarte deliberazioan txertatzeko, eragile ezberdinen arteko harremanak sendoagoak eta eraginkorragoak izateko. Sare horiek sortzeko, berrikuntza ekosistemen bidez lan egin behar dugu, batez ere, beharrezko eskalan eragina izatea espero badugu.

Berrikuntza ekosistemak eraldaketa eragileek osatutako sareak dira, eta eragile horiek ekintzak gauzatzen dituzte; baina, era berean, norberaren inpaktua zabaltzeko xedez, beste eragile batzuekin partekatuzko, konektatzeko eta lan egiteko konpromisoa hartu dute. Horregatik, eta Fellowship ikerketa lan horren markoan, ‘Nazio txikiengan berrikuntza ekosistemak sustatzeko aliantza’ izeneko egitasmoa sortu dugu Arantzazulaben.

Nazio txikien definizio zehatzik ez bada ere, gure eskala eta tamainarako alderagarriak izan daitezkeen nazioarteko beste herrialde, nazio, eskualde edo estatuez ari gara. Nazio txikiek betidanik izan dute eraldatzaileak izateko beharra. Herrialde eta nazio txikiek esperimentazio aurreratuko gune bihurtzeko behar diren ezaugarriak eta ahalmenak dituzte, erronka global handiei (trantsizio sozioekologikoa, krisi demografikoa edo desberdintasunaren aurkako borroka) modu eraginkor eta jasangarriagoan erantzuten ikasteko. Herrialde edo nazio handienek oztopo administratibo asko gainditu behar dituzte, eta ez dute denbora errealean esperimentatzeko arintasunik. Herrialde txikiagoek eskala handiko konplexutasuna jorratzeko malgutasuna, azkartasuna eta gaitasuna lortu dute, aldi berean tokian tokiko erroak mantenduta. Gure tamaina egokia da gure gizartearen beharrekin lerrokatuta dauden sareak sortzeko. Guk meso mailan dihardugu, eta zubi lana egin dezakegu oso tokikoak (eremu txikikoak) diren eta eskalatzeko arazoak dituzten eta tokiko testuinguruak interpretatzeko zailtasunak dituzten gobernu erantzunen artean.

Arantzazulaben 'Nazio txikietan berrikuntza ekosistemak sustatzeko aliantzak' bost helburu operatibo ezarri ditu:

1. Etorkizunerako egokiak diren egitura instituzional eta gobernantza egitura berriak aktibatzea. Horiek tokiko kulturei ahalik eta onura handiena ateratzeko eta mundu osoko sistemak konektatzeko gai izan beharko dute.
2. Proiektuetan, aholkularitzan edo lankidetzan oinarritutako pentsamoldeetatik harago doazen finantzaketa mekanismo berriak sortzea.
3. Gaur egun euren tokiko esparruan ekosistemak koordinatzen ari diren eragileengandik ikastea, ezagutza eta gaitasunak zabaltzea, hartara, etorkizunerako diseinu egokiak definitzea.
4. Etorkizunerako erakundeen zein ekosistemen diseinuetan beharrezkoak izan litezkeen rol berriak identifikatzea.
5. Nazio txikiekin sarea sortzea, tokiko eraldaketako esperimentuak elkarrekin eta mundu mailako beste batzuekin

partekatu nahi dituzten eragileekin eraldaketa eskala handiagoan bultzatzea.

Gure aburuz, nazio txikiekin lan eginez gero, aldaketa sortzeko bide berriak ikasi, partekatu eta garatu ditzakegu, esanguratsua den eskala batean, baina tokiko funtsa mantenduz. Gure ustez, esperimentatzeko, pilotuak sortzeko eta une honetan aldaketa oztopatzen duten erronka estrukturalak gainditzeko helburuarekin elkarrekin lan egiten duten nazio txikietako berrikuntza ekosistemen koordinatzaileen aliantza bat lortzen badugu, horrek inpaktu esanguratsua izango du gutako bakoitzarentzat, mundu osoan. Aliantza hori gai zehatzetan has daiteke lanean, hala nola 'berrikuntza sistemetarako finantzaketa eredu berriak' lankidetzazko gobernantzaren ikuspegitik edo 'trantsizio sozioekologikoa errazteko esperimentazioa erregulazioaren eremuan', politika publikoetan berrikuntza txertatuz.

Gure etorkizuneko lanak are gehiago sakonduko ditu ikerketa helburu horiek, eta esperimentazio partekaturako aukerak identifikatzen hasiko gara. Gizarte berrikuntzaren arloko mundu osoko beste profesional eta adituekin lankidetzan hasi gara, eta nazio txikiek osatutako aliantza bat sortzen jarraituko dugu, etorkizunerako egokiak diren eta eraldaketa globalak aktibatzeke behar diren erakundeak, gobernantza ereduak, finantzaketa mekanismoak, eginkizunak eta gaitasunak diseinatu eta elkarrekin sortu ahal izateko.

Gizarte berrikuntzaren
arloko mundu osoko
beste profesional eta
adituekin lankidetzan
hasi gara, eta nazio
txikiek osatutako
aliantza bat sortzen
jarraituko dugu

Ondorioak

Aldaketa sakoneko garai honetan, gaur egungo erakunde demokratikoek eta gobernantza erakundeek onartu egin

dute beren gaitasun estrukturala eta ezagutza ez direla nahikoa uneko erronken eskalari, abiadurari, interrelazioari eta konplexutasunari aurre egiteko. Testuinguru horretan, halaber, herritarrek gero eta desafekzio handiagoa sentitzen dute erakunde publikoekiko eta sistema politikoekiko. Are gehiago, ezagutza sakabanatua dagoen gizarte plural, askotariko eta konplexuetan bizi gara; beraz, erakundeak dagoeneko ez dira ezagutza osoaren gordailu, eta ekintzak aurrerantzean ezingo dira banakakoak izan.

Gauzak horrela, lankidetzazko gobernantza izan daiteke gizartea deliberazioan eta erabakiak hartzeko prozesuetan txertatzeko irtenbide bat, eta baita gobernuen eta gizarte zibilaren arteko kosorkuntzarako, hausnarketa partekaturako eta ekintzarako espazio berriak garatzeko bidea ere. Arantzazulabek alor horretan esku hartu eta eraldaketa bultzatu nahi du. Artikulu honetan azaldu dira laborategia, helburu hori lortzeko ahaleginean, garatzen ari den metodologia, planteamendua eta hainbat egitasmo. Arantzazulaben ekarpen nagusiak edo orain arte egin dugun lanak barne hartzen ditu: euskal gizartean lankidetzaren kultura bat sustatzea, premiazko gizarte erronken inguruan ikerketa aurreratuak burutzea, eragile anitzek osatutako berrikuntza ekosistemak eraikitzea –azken horiek komunitatearen gobernantza erabaki, koordinatu eta gauzatzeko helburuarekin gobernuen eta gizarte zibilaren interakzioa ahalbidetzen duten sareak izanik–, herritarrak ahalduentzeko mekanismo eta tresna berriekin esperimentatzea eta abian diren tokiko ekimen eraldatzaileak konektatzea, ekimen horien inpaktua zabaldu eta eskala zabalagoko erantzukizunak eraikitzeko nazioarteko lurraldeen artean. 🤝

Bibliografia

- Ansell, C.; Gash, A. (2008): 'Collaborative Governance in Theory and Practice', *Journal of Public Administration Research and Theory* 18(4), 543-571.
- Arantzazulab (2022): *What would it take to reimagine the future of collaborative governance? Research into transformation ecosystems* (<https://arantzazulab.eus/en/what-would-it-take-to-reimagine-the-future-of-collaborative-governance-research-into-transformation-ecosystems01/>; <https://arantzazulab.eus/en/what-would-it-take-to-reimagine-the-future-of-collaborative-governance-research-into-transformation-ecosystems02/>; <https://arantzazulab.eus/en/what-would-it-take-to-reimagine-the-future-of-collaborative-governance-research-into-transformation-ecosystems03/>).
- Arellano, D.; Sánchez, J.; Retana, B. (2014): '¿Una o varios tipos de gobernanza?', *Cuadernos de Gobierno y Administración Pública* 1(2), 117-137.
- Hynes, W.; Lees, M.; Müller, J. (argk.) (2020): *Systemic Thinking for Policy Making. The Potential of Systems Analysis for Addressing Global Policy Challenges in the 21st Century. New Approaches to Economic Challenges*, Paris, OECD Publishing, doi: 10.1787/879c4f7a-en.
- Kultura politiko berriari buruzko Deliberazio Taldea (2020): *Etorkizuna Eraikiz Think Tank. Kultura politiko berria. 3. bileraren memoria*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia (www.etorkizunaeraikiz.eus/documents/33991264/e9e1d488-9957-c538-d693-86bb4fcdf8ea).
- (2022): *Etorkizuna Eraikiz Think Tank. Kultura politiko berri baten eraikuntza Gipuzkoan. Kontzeptuak, metodologia eta esperientziak*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- OCDE et al. (2020): 'Introducing Systems Thinking into Public Sector Institutions: Learning by Doing?', in Hynes et al. 2020: 143-151. doi: 10.1787/3a9acaa6-en.
- Stave, K.; Hopper, M. (2007): 'What Constitutes Systems Thinking? A Proposed Taxonomy', in System Dynamics Society: *Proceedings of the 25th International Conference of the System Dynamics Society*, Boston, System Dynamics Society.
- The Finnish Innovation Fund Sitra (2020): *Lab log #20: What are innovation ecosystems and what to they have to do with wicked problems?* (www.sitra.fi/en/blogs/lab-log-20-what-are-innovation-ecosystems-and-what-to-they-have-to-do-with-wicked-problems).

Berrikuntza sozial sistemikoa: Eusko Ikaskuntzaren GizarteLab esperientzia

Javier Castro-Spila

*SOCINNOVA gizarte berrikuntzako aholkulari sareko
ikertzailea*

Auxkin Galarraga Ezponda

*Eusko Ikaskuntzako GizarteLab proiektuaren zuzendari
zientifikoa eta UPV/EHUKo Soziologia eta Gizarte
Langintza Saileko irakaslea*

Koro Muro Arriet

*Eusko Ikaskuntzako gizarte berrikuntzako proiektuen
arduraduna*

Eusko Ikaskuntzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin diseinatu eta garatu duen GizarteLab gizarte berrikuntzako laborategia aurkeztea eta testuinguruan jartzea da artikulu honen helburua. GizarteLab gizarte berrikuntzako azpiegitura bat da, Euskal Herriko udalerriei trantsizio demografiko eta ekologikoko prozesuetan laguntzea helburu duena, herritarrak eta politika kudeatzaileak lotuz.

Artikulu honetan, programaren oinarri teorikoak laburbilduko ditugu, testuinguratze gisa, eta programaren ezaggarri nagusiak eta aplikatzeko moduak deskribatuko ditugu. Amaitzeko, GizarteLabek trantsizio demografiko eta ekologikoaren erronka nagusiei buruzko ikuspegi sistemikoa

txertatzeko eta garatzeko moduari buruzko gogoeta batzuk egingo ditugu.

GizarteLaben kontzeptu oinarriak: gizarte berrikuntza sistemikoa eta trantsizioen kudeaketa

GizarteLab ekimena toki eta udal mailan esku hartzeko eta laguntzeko laborategi bat da, gizarte berrikuntzaren eta trantsizioen kudeaketaren ikuspegi teorikoen arabera bideratua. Jarraian, GizarteLaben elementu nagusiak deskribatuko ditugu.

Gizarte berrikuntza sistemikoa

Izaera sistemikoa duten eta makro, meso eta mikro mailetan agertzen diren arazoak konpontzera bideratzen da gizarte berrikuntza, hala nola gizarte bazterketa, diskriminazioa, klima aldaketa, zerbitzu publikoen garapen maila, energia krisia edo biztanleriaren zahartzea (Martínez-Celorrio 2017).

Arazo konplexu, sistemiko eta mardulak konpontzea (Jones 2014, Mumford *et al.* 2000, Coyne 2005) lan konplexua da, ziurgabetasun eta aurreikusteko ezintasun maila handia duena (Gurrutxaga eta Galarraga 2019), eta hori erronka garrantzitsua da berrikuntza sozialentzat. Konplexutasunari aurre egiteko, gizarte berrikuntzek mikro mailan jarduten dute, eta soluzio partzial eta inkrementalak eskaintzen dituzte. Soluzio horiek ez dute izaera sistemikorik, baizik eta mikroberrikuntza sozialen forma hartzen dute (Castro-Spila eta Unceta 2015), hau da, maila mikrosozialean jarduten duten eta intentsitate txikiko inaktuak dituzten erakundeek (enpresak, GKEak, unibertsitateak eta administrazio publikoak) bultzatutako produktu, metodo eta/edo zerbitzuak, talde kaltebera espezifikotara mugatuak.

Hala ere, berrikuntza mikrosozialek beren eragina bultzatzen duenak, berrikuntza sozialeko nitxo bihurtzen baitira (Witkamp *et al.* 2011), eta horiek, epe luzera, arazo sozial baten azpiko

baldintzak eralda ditzakete (berrikuntza sozial eraldatzailea). Berrikuntza sozialeko nitxoek eragina izan dezaten, berrikuntza sozialen transferentzia hedakorreko sistemak behar ditzute (Castro-Spila eta Alonso-González 2021), hau da, zabal-kunderako eta erreplikaziorako mekanismoak, berrikuntza sozial bat edo batzuk konponbide estandarizatu bihurtu arte (Castro-Spila *et al.* 2016), aldaketa instituzional progresiboak sustatuz (Hochgerner 2012).

Berrikuntza sozialak aldaketa sistemikoko prozesu gisa egituratzeko, irtenbide adimendunak esploratzera eta ustiatzera (Avelino eta Wittmayer 2018) eta dinamika instituzionaletan integratzera bideratutako azpiegiturak garatu behar dira, askotariko gizarte eragileen ahal-duntzea posible egingo luketenak, alegia (Avelino *et al.* 2019).

GizarteLab, ikuspegi horretatik, gizarte berrikuntza kolaboratiboak diseinatzeko azpiegitura bat da, herritarrak tokiko politika publikoen kudeatzaileekin lotzen dituen, gizarte berrikuntzak hedatzeko eta instituzionalizatzeko.

GizarteLab ekimena toki eta udal mailan esku hartzeko eta laguntzeko laborategi bat da, gizarte berrikuntzaren eta trantsizioaren kudeaketaren ikuspegi teorikoen arabera bideratua

Aldaketaren gobernantza: trantsizioen kudeaketa

GizarteLab trantsizioak kudeatzeko ereduari oinarritzen da. Eredu horrek elkarlaneko gobernantza estrategia sustatzen du, trantsizioa hainbat mailatako (mikro-meso-makro) ikaskuntza eta esperimentazio sistema gisa kontzeptualizatzen duena, erregimen jasangarrietarako trantsizioa bultzatu, erraztu eta gidatzeko (Kemp *et al.* 2007, Loorbach 2010, Nill eta Kemp 2009, Raven *et al.* 2010).

Dagokigun kasuan, trantsizioen kudeaketa lau prozesuren inguruan egituratzen da:

A) Trantsizio erronkak (lurralde ahultasunak)

Trantsizio erronkak lurralde ahultasunen arabera aztertzen dira (sozialak, teknologikoak, instituzionalak, ekonomikoak eta kulturalak). Kalteberatasuna pertsona/lurralde/ekosistema talde batek hainbat mehatxurekiko (ekonomikoak, sozialak, instituzionalak, ingurumenekoak) duen esposizio mailaren eta mehatxu horiei aurre egiteko gaitasunaren arteko erlazioari dagokio (Castro-Spila *et al.* 2016, Cutter *et al.* 2003, Smit eta Wandel 2006). Ebaluazio dinamikoa da, eta, erronka sozialak diagnostikatzera ez ezik, trantsizioaren oztopoak ebaluatzen ere bideratuta dago. Horregatik, ebaluazioa etorkizuneko agertokiaren ikuspegitik egiten da, eta ez egungo diagnostikoen ikuspegitik.

B) Proiektu esperimentalak (esperimentazio bidezko ikaskuntza)

Proiektu esperimentalak apustu erradikalak dira, trantsizioa errazten edo bultzatzen duten ideia eta esperientzia berrien testetan oinarritutako ebidentzia sortzea bilatzen dutenak. Esperimentazio nitxoaren kudeaketa estrategikoa da, proiektu esperimentaletan ardaztua (prototipo parte hartzailea, esperimentazio paraleloa, saiakuntza eta errorea). Proiektu erradikal bat ez du bere ideien erradikalotasunak definitzen, trantsizioarekiko inpaktu kate bat bultzatzeko gaitasunak baizik (kate laburrak eta luzeak). Inpaktu kateak beti iradokitzen du konektibitate maila bat esperimentazioaren, eskalatzearen eta politikak sortzearen artean (Addari eta Lipparini 2017), berrikuntzaren gizarte aurrerapen eta erantzukizunaren eremuan (RRI) oinarrituta (Owen *et al.* 2012).

C) Trantsizioko berrikuntzak (lurralde gaitasunak)

Proiektu esperimentalek trantsizioak (inpaktu katea) bultzatzeko gaitasuna dute, lurralde erregimenaren baldintzak eraldatzeko (erakundearen inertzia apurtzeko). Proiektu bakar batek ezin du prozesu hori egin, baizik eta beste batzuekin konektatzen da, elkarrekintzak sortzen ditu, berrikuntza

nitxo batean txertatzen da (esperimentazio nitxoak), non elkarrekintzak kudeatzen diren eta esperimentazioak eta horien emaitzak nahita konektatzen diren. Trantsizioak bultzatzean, finantzaketa independentearen ereduak saihesten dira, ausazko emaitzek inpaktuak sortuko dituztelakoan. Trantsizioen ereduari, nitxo esperimentalen kudeaketa bultzatzen da (Caniëls eta Romijn 2008), emaitzak klusterizatzeko eta lurraldean ikasteko ereduari oinarrituta.

D) Trantsizio politiken zuzendaritza (trantsizio agendak)

Trantsizio politikak funtsezko bi alderdiren inguruan egituratzen dira. Lehenengoa trantsiziorako aliantzei buruzkoa da (gobernantza). Maila eta eragile anitzeko gobernantza egiturazkoa da trantsizio prozesuetarako, eta horrek egungo baldintzen eta etorkizuneko agertokiaren inguruko akordioak dakartza. Bigarrena politika tresnei buruzkoa da (esperimentaziorako pizgarriak, ez berrikuntzarako pizgarriak), politika inkrementalak egituratzeko aukera ematen dutenak. Hori trantsizio agenden inguruan egituratzen da (ez dira berrikuntza agendekin nahastu behar).

Trantsizio gaitasunak: gaitasunen garapena

Ondoko taulan, trantsizio eskumenen matrizea ikus daiteke. Matrizeak konpetentzia mota desberdinen garapena adimen mota desberdinen garapenarekin lotzen du.

Trantsizio gaitasunen matrizea

	Adimen emozionala	Adimen prospektiba	Adimen komunikatiboa	Adimen formala
Gaitasun heuristikoak		x		x
Gaitasun esperimentalak		x	x	x
Gaitasun berritzaileak		x		x
Gaitasun erlazionalak	x		x	

Iturria: Javier Castro-Spila, Koro Muro eta Arantza Cuesta (2018): *GizarteLab: trantsizio gaitasunak*, 3. lan dokumentua, Gasteiz, Eusko Ikaskuntza, 1-23.

Gaitasunak honela definitzen dira:

- *Gaitasun heuristikoak*. Domeinu jakin bati buruzko arazoei eta balizko konponbideei buruzko informazioa eta ezagutza interpretatzeko trebetasunak dira, kausazko harremanak eta joerak egituratzeko. Gaitasun horiek aurreratzeko adimenarekin eta adimen formalarekin artikulatzen dira. Arazoaren eta konponbidearen arteko erlazioari buruzko lanak arazo baterako irtenbiderik onenak aukeratzea eskatzen du, eta horrek aurre hartzeko gaitasuna sortzen du (inpaktu katearen diseinua). Bestalde, konponbide bat garatzeko bide logikoaren definizioak adimen formala entrenatzen du (arazo batetik konponbide batera doazen prozesuak egituratzeaz arduratzen da). Prozesu horiek guztiak arazo bat egituratzen duten dimentsioei eta aldagaiei eta horien konponbideei buruzko interpretazio iraunkor eta kolektiboan ardatzen dira.
- *Gaitasun experimentalak*. Hipotesiak testatzeko (harreman kausalak identifikatzea) eta esperimentuak (teknikoak eta sozialak) garatzeko trebetasunak dira, hainbat motatako arazoei (zientifikoak, sozialak, instituzionalak) ebidentziak eta konponbideak ezartzea ahalbidetzen dutenak. Hainbat inpaktu motari (ekonomikoak, sozialak, instituzionalak) erantzun egokia ematen dieten prototipoen bidez arazo baten konponbidea probatzeko aukera ematen dute (mikro-meso-makro). Gaitasun horiek adimen aurreratzailearekin (inpaktu katea) eta adimen formalarekin (arazoaren eta konponbidearen arteko erlazio logikoak) artikulatzen dira. Horrez gain, gaitasun horiek komunikazio adimena garatzea eskatzen dute. Adimen hori gai da erabiltzaileentzat ulergarria den mezu bat egituratzeko eta lantaldeen barruan konponbideak elkarrekin ekoizteko.
- *Gaitasun berritzaileak*. Eredu parte hartzaileen bidez berrikuntzetako prototipo experimentalak kontzeptualizatzeko eta kodetzeko trebetasunak dira. Funtsezko gaitasunak dira negozio ereduetan (sozialak edo enpresakoak) edo

eredu instituzionalean (politika publikoak) egituratutako berrikuntza prototipoak garatzeko/eskalatzeko, prototipoaren benetako bideragarritasuna bermatzen dutenak. Gaitasun horiek adimen formalarekin (berrikuntzaren logikaren diseinua eta ulermena erraztuz) eta adimen komunikatiboarekin artikulatzen dira; izan ere, soluzioek optimoak (onargarriak) izan behar dute xede biztanleriarentzat, eta horrek esan nahi du azken erabiltzaileak berrikuntzen diseinu prozesuan sartu behar direla.

- *Gaitasun erlazionalak*. Pertsona eta belaunaldi ezberdinen arteko lankidetzak harremanak egituratzeko trebetasunak dira, baita komunitateak eraikitze gaitasuna ere. Harremanetarako gaitasunak adimen emozionalarekin eta komunikazio adimenarekin lotuta daude. Bi adimen mota horien garapenak bermatzen du soluzioen prototipoak, berrikuntzak bezala, kolektiboak eta inklusiboak izango direla, eta arazoak/konponbideak erakunde eta erabiltzaileekin konektatuko direla. Gaitasun eta adimen horiek oso lotuta daude lidergo gaitasunarekin, hau da, emaitzak lortzeko taldeak gidatu eta kudeatzearekin.

GizarteLab esperientziaren ezaugarri nagusiak

Helburuak

GizarteLab gizarte berrikuntzako sare gisa egituratzen da, tokiko (udal) herritarren ahalduntzea sustatzen duena, elkarlaneko gobernantza prozesuen esparruan (instituzionala eta soziala) trantsizioak bultzatzeko. GizarteLab programaren helburu orokorra da trantsizio eskumenak garatzea herritarren hainbat profiletan, trantsizio demografikoaren eta trantsizio ekologikoaren eremuan politika publikoen tokiko agenda partekatua diseinatzen laguntzeko.

Bestalde, programaren helburu espezifikoaren artean, honako hauek aipa daitezke:

- i) Trantsizioko konpetentzien prestakuntza eredu bat ezartzea eta finkatzea (prestakuntza tailerrak), hainbat

esperientzia piloturen bidez trantsizio demografiko eta ekologikoei lotutako 50 pertsona inguruko talde bat ahalduzko.

- ii) Trantsizioa bi komunitate diseinatzea eta inplementatzea, herritarrek gidatutako tokiko ekintza pilotu horiek bultzatzeko.
- iii) Ebaluazio eredu bat garatzea eta ezartzea (kontzeptuak, tresnak eta adierazleak), GizarteLab programaren tokiko eta gizarte eragina neurtzeko.
- iv) Komunikazio plan bat garatzea, GizarteLaben faseen emaitzak zabaltzeko.

Metodologia

GizarteLabek tokiko lurralde eskumenak (herritarrek, udalak eta erakundeak) garatu nahi ditu. Tokiko ahultasunen eba-

luazioa (hiria, herria...), soluzioen prototipoa eta esperientzien eskalatzea proposatzen ditu. GizarteLaben bat egiten dute gizarte berrikuntzako ereduak + prototipo metodologia bizkorrek + berrikuntza gaitasunen garapenak eta harreman ebaluazioko metodologiek.

Proiektuak garrantzi berezia ematen dio trantsizio gaitasunen garapenari eta ekimen esperimentalen diseinuari, trantsizioen agenda herritarren ikuspegitik egituratzeko (zer

esperimentatu behar den Ongizateko Hirugarren Estaturako trantsizioa bultzatzeko).

Ekimena hiru lan fase nagusitan egituratzen da. Hasierako plangintza fasean, udalarekin batera definitzen dira bai erronka zehatza, bai laborategiko parte hartzaileak hautatzeko

GizarteLabek tokiko lurralde eskumenak (herritarrek, udalak eta erakundeak) garatu nahi ditu. Tokiko ahultasunen ebaluazioa (hiria, herria...), soluzioen prototipoa eta esperientzien eskalatzea proposatzen ditu

irizpideak. Aldi berean, landu beharreko erronkari buruzko aurretiazko azterketa diagnostikoa egiten da, abian dauden ekimenak edo programak, zailtasun partikularrak eta tokiko berezitasunak kontuan hartuta.

Bigarren fasea trantsizio gaitasunetan gaitzeko tailerrak garatzen diren zentrala izango litzateke, demografikoak edo ekologikoak izan. Batez ere praktikoak diren lauzpabost saio egiten dira, eta esperientzia ikaskuntzari ematen zaio lehen-tasuna. Tailerretan hainbat teknika erabiltzen dira, hala nola Bizitza Mapak, Etorkizun Mapak, Enpatia Mapak, Pertsonak... Teknika horien helburua trantsizio sozial eta pertsonaleko prozesuei buruz hausnartzera gonbidatzea da, etorkizuneko zalantzei aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak aztertzeke. Gainera, prototipatze azkarreko teknikak erabiliz, parte hartzaileek ekintza pilotu bat diseinatzeko dute tokiko ekimen bat bultzatzeko. Modulu horretan, aurreko moduluetakoe esperientziak integratzen dira, eta ikaskuntza horiek ekintza pilotua diseinatzeko erabiltzen dira. Ekintza pilotuek epe laburrerako helburu bat dute: ekintza gauzagarriak eta ebaluagarriak, ikaskuntza komunitate batek sostenga ditzakeenak.

Hirugarren faseak ebaluazio eta sozializazio lanak barne hartuko lituzke. Ebaluazioari dagokionez, taldearen barne ebaluaziorako eta parte hartzaileen autoebaluaziorako tresnak ezartzen dira. Gainera, lorpen adierazleak kontuan hartzen dira, hala nola parte hartzaileen kopurua (segmentatua), sortutako ekimenen kopurua eta eskuratutako gaitasun maila. Bestalde, GizarteLab esperientziaren sozializazioa oso garrantzitsua da, bai parte hartzaileek bai erakunde antolatzaileak (udalak edo beste batek) espero dituzten itzulerak direlako, eta esperientzia eta horren ahalmenak behar bezala zabaltzea ahalbidetzen duelako, etorkizunean proiektua inplementatzen lagunduz.

Emaitzak

GizarteLab ekimen baten eragina hainbat mailatan har daiten kontuan: alde batetik, laborategian parte hartzen duen

norbanakoarengan duen eragina, ikuspegi teoriko berri bat ematen baitzaio eta bere etorkizun pertsonalerako funtsezkoak diren trantsizio konpetentziak eskuratzen edo indartzen baititu; bestetik, pertsona horiek sortutako komunitatea zuzenean interpelatzen eta ahalduntzen da, eta, beraz, subjektu aktibo eta trantsizio erronkei arrakastaz aurre egin nahi dieten ekimenen objektu bihurtzen da.

Beste inpaktu maila bat erakunde antolatzailean gertatzen da (udala edo beste bat); horrek, jakina, hobetu egiten du herritarrekiko harremana, eta hobetu egiten du herritarrekiko pertzepzioa, klase politikoarekiko desafekzioa eta elkarlaneko gobernantza bezalako alderdiak hobetzeko. Azken finean, GizarteLab herritarren eta erakunde publikoen arteko interfase bat da.

Eta, azken batean, epe ertainean, eragin zabalagoa gertatzen da tokiko gizartean bertan, laborategiko emaitzak eta esperientziak zabaltzen diren neurrian, bertan parte hartzen duten pertsonak baitira protagonistak.

Azken gogoetak

Eraldaketa sistemikoa izan da berrikuntza sozialeko ekimen, proiektu eta programek gehien aipatu izan duten helburuetako bat. Hala ere, onartu beharra dago gizarte berrikuntzaren planteamenduetatik martxan jarri izan diren ekimen askoren irismen gaitasuna eta eragina partziala eta mugatua bakarrik izan dela, nahiz eta eraldaketa soziala jomuga bezala izan (Gurrutxaga eta Galarraga 2022). Izan ere, egungo sistema ekonomiko eta sozialaren erreprodukzio gaitasuna oso indartsua da, nahiz eta ondorio suntsitzaileak dituen ikuspegi sozial, kultural edo ekologikotik. Horren aurrean, berrikuntza sozialeko programek ez dute beti behar adinako gaitasunik izan arazo sozial desberdinak sortzen dituzten kausa sakonetan jarduteko.

Kontraesan edo paradoxa horrek boterearen inguruko afera eztabaidaren erdigunean kokatzea eskatzen du. Izan

ere, aldaketa sozialen norabidea jasangarritasunaren bidetik eraman ahal izateko pribilegio egoerak gaitutako dituen lehentasun agenda berri bat diseinatzea suposatzen du, egungo botere banaketa desorekatuak deuseztatuz. Inplikaturako eragilean artean aldaketa sistemikoan eragiteko hasierako baliabide eta gaitasunen egungo arrakala erraldoiak ikusirik, zalantzarria da gizarte berrikuntzako ekimenek zenbateraino ahalbidetzen duten indarrean dauden botere harremanen erreproduktzioa, edo benetan autoritatearen banaketa berri bat sortzeko gai diren (Avelino 2021).

GizarteLab moduko esperientzia batek, beraz, aldaketa sistemikoaren baldintzak eta mugak zein diren eta non ageri diren sakon aztertu beharra du. Norabide horretan, historian zehar aldaketa sistemikoaren akuilu izan diren gizarte berrikuntzako hainbat kasu aztertu ondoren, eraldaketaren prozesuetan giltzarri diren zenbait patroi orokor identifikatu izan dira (McGowan *et al.* 2021):

- i) Gizarte sinismen eta egiturei buruzko hasierako baldintza profetikoak egoteak aldaketa prozesuen bilakaera baldintzatzen du, batez ere berdintasunerako joera bultzatzen duten gizarte erakundeak edo balioak.
- ii) Gizarte-berrikuntza prozesuek garapenerako denbora behar izaten dute, eta, beraz, norbanako edo talde zehatz baten esfortzu pertsonal edo irismen gaitasunetik harago joan behar dute.
- iii) Inguru edo egoera bakoitza partikularra da, eta, beraz, tokian tokiko baldintzak, gaitasunak eta indarrak erabakigarriak dira.
- iv) Jakintza arlo eta eremu desberdinetatik jasoak diren ideia, baliabide, errutina, teknologia edo gaitasunen konbinazioaren bitartez gauzatu ohi dira berrikuntza prozesu nabarmenenak.
- v) Gizarte berrikuntza prozesuen baitan paradoxa eta tentsioak etengabeak dira, batez ere talde desberdinen elkarikidetzak bultzatzen denean eta kolaborazio egiturak bultzatu nahi izaten direnean.

- vi) Gatazka eta oposizioa gizarte berrikuntzen partaide garrantzitsuak dira. Horren aurrean, eragileek beren aliantzak, babes politikoak edo ekintza alternatiboen bilaketak aktiba ditzakete.
- vii) Aldaketa eta erabaki politiko ausartek esperimentaziorako eta garapenerako testuinguru iraunkor eta egokiak sor ditzakete.

Gauzak horrela, GizarteLab esperientzia aldaketa sistemikoan eragiteko desiran oinarritua dago, berrikuntza sozialaren bitartez eta pausoz pauso, eremu lokaletik abiatuta, trantsizioak bultzatuko dituen hiritartasun ereduak eraikiz. Hori posible egin ahal izateko, esparru teorikoan identifikatu diren zenbait dimentsioren lanketa eta garapena jarri dira jomugan GizarteLab egitasmoa orain arte zabaldu den udalerri desberdinetan (Legazpi, Laudio, Deba, Beasain, Arrasate eta Donostia):

- a) Diskurtso eraldatzaileen hedapena eta berariazko lanketa teoriko-kontzeptuala (Wittmayer *et al.* 2019). Garaiko trantsizio prozesuek tresna kontzeptual berriak garatzea eskatzen dute, eta GizarteLab tailerretan ikuspegi eta ekarpen teoriko-praktiko berrien garapen kolektiboa gauzatzen da.
- b) GizarteLab ekimenak hiritarren ahalduntzea bultzatzen du trantsizio gaitasunetan, besteak beste, trantsizio prozesuek errotuta ditugun sinesmen, errutina, balio edo ikuskera pertsonal eta kolektiboetan aldaketak eskatzen dituztelako (Fisk *et al.* 2019).
- c) Trantsizioen kudeaketarako gobernantza eredu berriak gauzatzea ezinbestekoa da, maila anitzeko elkarlanak posible egingo dituen eta deliberazio eta erabaki ahalmena eragile desberdinen artean banatuko duena (Mulgan 2019, Teasdale *et al.* 2020). GizarteLab esperientziak, zehazki, eragile instituzional, komunitario eta hiritarren arteko elkarkidetzak bultzatzen du, trantsizioen kudeaketa partekatua garatze aldera.

- d) Politika eta erabaki instituzional ausartak hartu behar dira bizi ditugun trantsizioen aurrean joko zelaiaren aldaketa gauzatu dadin (Hulgård eta Ferreira 2019). GizarteLab esperientziak udalerrri mailako arduradunen konpromisoa eta lidergoa eskatzen du.

Osagai horiek kontuan hartuta eta bizi ditugun trantsizioen abiadura azkarra ikusirik, GizarteLab esperientzia egitasmo bizi eta aldakor modura ulertu behar dugu aldi berean. Errealitate eta esperientzia lokal gehiagotara hurbiltzen den heinean indartuz eta garatuz joango den laborategia izango da. 🍌

Bibliografia

- Addari, Filippo; Lipparini, Fiorenza (2017): *Visions and Trends of Social Innovation in Europe*, Luxenburgo, European Commission - Directorate-General for Research and Innovation.
- Avelino, Flor (2021): 'Theories of power and social change. Power contestation and their implications for research on social change and innovation', *Journal of Political Power* 14(3), 425-448.
- Avelino, Flor *et al.* (2019): 'Transformative social innovation and (dis)empowerment', *Technological Forecasting and Social Change* 145, 195-206.
- Avelino, Flor; Wittmayer, Julia M. (2018): 'Transformative social innovation and its multi-actor nature', in Jürgen Howaldt, Christoph Kaletka, Antonius Schröder eta Marthe Zirngiebl (argk.): *Atlas of Social Innovation. New Practices for a Better Future*, Dortmund, Sozialforschungsstelle - TU Dortmund University, 46-49.
- Caniëls, Marjolein C.J.; Romijn, Henny A. (2008): 'Strategic niche management: towards a policy tool for sustainable development', *Technology Analysis & Strategic Management* 20(2), 245-266.
- Castro-Spila, Javier; Alonso-González, David (2021): 'Social innovation patents', *Journal of Social Work Education & Practice* 6(2), 44-63.
- Castro-Spila, Javier; Luna, Álvaro; Unceta, Alfonso (2016): 'Social innovation regime. An exploratory framework to measure social innovation', in *SIMPACT Working Paper 1*, Gelsenkirchen, Institute for Work and Technology.

- Castro-Spila, Javier; Unceta, Alfonso (2015): 'Les modes d'innovation sociale et de gouvernance', in Juan Luis Klein, Anne Camus, Christian Jetté, Christine Champagne eta Matthieu Roy (zuzk.): *La transformation sociale par l'innovation sociale*, Quebec, Presses de l'Université du Québec, 91-102.
- Coyne, Richard (2005): 'Wicked problems revisited', *Design Studies* 26(1), 5-17.
- Cutter, Susan L.; Boruff, Bryan J.; Shirley, W. Lynn (2003): 'Social vulnerability to environmental hazards', *Social Science Quarterly* 84(2), 242-261.
- Edwards-Schachter, Mónica; Matthew L. Wallace (2017): "Shaken but not stirred": Sixty years of defining social innovation', *Technological Forecasting & Social Change* 119, 64-79.
- Fisk, Raymond; Fuessel, Angie; Laszlo, Christopher; Struebi, Patrick; Valera, Alessandro; Weiss, Carey (2019): 'Systemic social innovation: co-creating a future where humans and all life thrive', *Humanistic Management Journal* 4, 191-214.
- Gurrutxaga, Ander; Galarraaga, Auxkin (2019): 'Recursos y dilemas de la innovación social: Un concepto problemático', *RES. Revista Española de Sociología* 28(3), 135-150.
- (2022): 'Controversies in social innovation research', *Innovation. The European Journal of Social Science Research* 35(2), 224-244.
- Hochgerner, J. (2012): 'New combinations of social practices in the Knowledge Society', in Hans-Werner Franz, Josef Hochgerner eta Jürgen Howaldt (argk.): *Challenge Social Innovation. Potentials for Business, Social Entrepreneurship, Welfare and Civil Society*, Heidelberg, Springer, 87-105.
- Hulgård, Lars; Ferreira, Silvia (2019): 'Social innovation and public policy', in Jürgen Howaldt, Christoph Kaletka, Antonius Schröeder eta Marthe Zirngiebl (argk.): *Atlas of Social Innovation. 2nd Volume. A World of New Practices*, Munich, Oekom Verlag GmbH, 26-29.
- Jones, Peter H. (2014): 'Systemic design principles for complex social systems', in G. Metcalf (arg.): *Social Systems and Design*, Tokio, Springer, 91-128.
- Kemp, René; Loorbach, Derk; Rotmans, Jan (2007): 'Transition management as a model for managing processes of co-evolution towards sustainable development', *International Journal of Sustainable Development & World Ecology* 14(1), 78-91.
- Loorbach, Derk (2010): 'Transition management for sustainable development: a prescriptive, complexity-based governance framework', *Governance* 23(1), 161-183.
- Martínez Celorrio, Xavier (2017): 'La innovación social: orígenes, tendencias y ambivalencias', *Sistema. Revista de Ciencias Sociales* 241, 61-88.

- McGowan, Katharine *et al.* (2021): 'The importance of systems thinking and transformation for social innovation research: the evolution of an approach to social innovation', in Jürgen Howaldt, Christoph Kaletka eta Antonius Schröder (argk.): *A Research Agenda for Social Innovation*, Chentelham, Edward Elgar, 59-79.
- Montgomery, Tom (2016): 'Are social innovation paradigms incommensurable?', *Voluntas* 27, 1.979-2.000.
- Mulgan, Geoff (2019): *Social Innovation. How Societies Find the Power to Change*, Bristol, Policy Press.
- Mumford, Michael D.; Zaccaro, Stephen J.; Harding, Francis D.; Jacobs, Owen T.; Fleishman, Edwin (2000): 'Leadership skills for a changing world: Solving complex social problems', *The Leadership Quarterly* 11(1), 11-35.
- Nill, Jan; Kemp, René (2009): 'Evolutionary approaches for sustainable innovation policies: from niche to paradigm?', *Research Policy* 38(4), 668-680.
- Owen, Richard; Macnaghten, Phil; Stilgoe, Jack (2012): 'Responsible research and innovation: From science in society to science for society, with society', *Science and Public Policy* 39(6), 751-760.
- Raven, Rob; Van den Bosch, Suzanne; Weterings, Rob (2010): 'Transitions and strategic niche management: Towards a competence kit for practitioners', *International Journal of Technology Management* 51(1), 57-74.
- Smit, Barry; Wandel, Johanna (2006): 'Adaptation, adaptive capacity and vulnerability', *Global Environmental Change* 16(3), 282-292.
- Teasdale, Simon; Roy, Michael J.; Ziegler, Rafael; Mauksch, Stefanie; Dey, Pascal; Raufflet, Emmanuel B. (2020): 'Everyone a changemaker? Exploring the moral underpinnings of social innovation discourse through real utopias', *Journal of Social Entrepreneurship* 12(3), 417-437.
- Witkamp, Marten J.; Raven, Rob P. J. M.; Royakkers, Lambèr M. M. (2011): 'Strategic niche management of social innovations: The case of social entrepreneurship', *Technology Analysis & Strategic Management* 23(6), 667-681.
- Wittmayer, Julia M. *et al.* (2019): 'Narratives of change: How social innovation initiatives construct societal transformation', *Futures* 112, 1-12.

Desiderata: Hiri Laborategizatua

Luis Berasategi Retegi

*Bilbao AS Fabrikeko Hiri Laborategien koordinatzailea
eta Mondragon Unibertsitateko MIKeko ikertzailea*

Hiri Laborategiak elkargune irekiak eta emergenteak dira; bertan, teknologo, ikertzaile, ekintzaile eta herritarrak biltzen dira, aro berriak aurkezten dizkigun erronka konplexuei aurre egiten dieten soluzio berritzaileak prototipatzeko. Nahiz eta 'Hiri Laborategi' terminoak esperimentazio zientifiko eta teknikoko irudiak baino ez dituen gogora ekartzen, ezinbestekoa da erronka horiei modu sistemikoan heltzeko ikuspegi sozioekonomiko eta humanista ere sartzea.

Giza zientziei buruzko kontsiderazioak ikuspuntu tekniko eta ebidentzian oinarritutakoarekin konbinatzean, Hiri Laborategiek gizarte inklusiboago, iraunkorrago eta erresilienteagoak sortzen lagun diezagukete. Ikuspegi hori partekatzen dute Bilbao AS Fabrikeko Hiri Laborategiek, Zorrotzaurre uhartean, hiriaren etorkizuneko ezagutza barrutian, daudenak.

Azken hamar urteetan, Bilboko hiri ekosistemaren barruan hainbat ekimenetan parte hartu dugu, batzuetan lider gisa, eta beste askotan, gehienetan, kolaboratzaile gisa. Artikulu honetan, praktikan ikasi dugunetik abiatuta, antzeko proiektuetarako diseinu gako batzuk partekatuko ditugu. Gako horiek *desiderata* izendatu dugun zerbaiten barruan bildu ditugu, Olentzerori zuzendutako gutun bat balitz bezala,

argitasun nahikoa baitugu zer nahi dugun adierazteko, baina zalantza gehiago ditugu horrelako proiektuetan ageri den konplexutasunari heltzeko moduari dagokionez.

Gure desiderata diseinatu aurretik, hitzaurrea(k) egingo d(it)ugu: Hiri Laborategi kontzeptuaren eta gure proiektuaren jatorriaren testuingurua luzatuko dugu. Eta desiderata horren ondoren, hitzatzea(k) etorriko d(ir)a gure testua ixtera: etorkizunerako ditugun betebeharrak adieraziko ditugu.

Hitzaurrea(k)

Hiri Laborategiak

Adimendun Hiritik Hiri Laborategietara

Adimendun Hiriaren kontzeptuak ospe handia du; bereziki, aholkularitza enpresa handiek eta enpresa teknologikoei sustatzen dute, hirien kudeaketarako soluzioak merkaturatzeko lehian ari baitira. ‘Gauzen Internet’ bezala ezagutzen den gailu eta sentsore sarearen eta *big data* eta adimen artifizialean oinarritutako plataformen eskuragarritasuna ugaritu eta kostuak murriztearen ondorioz gertatu da hori. Konponbide teknologiko horiek egiten duten promesa herritarren bizi kalitatea hobetzearena da, kalitate, eraginkortasun eta efizientzia handiagoko zerbitzu eta administrazioak eskaintzen dituztela baieztatuz.

Hala ere, eskala handiko hiri garapenen esperientzia teknozentrikoek –horien artean, Songdo Hego Korean eta Masdar Arabiar Emirerri Batuetan– huts egin dute; neurri handi batean, ez delako herritarren parte hartzea integratu eta ez direlako kontuan hartu inplementatu den tokiko testuingurua, faktoreak eta helburuak (Sennett 2012).

Honako hauek izan daitezke arazo potentzial nabarmenenak:

- Sentsorez jositako hiri hipermonitorizatuak, non datu bilketa masiboak herritarren askatasuna eta pribatutasuna mehatxatzen dituen.
- Aukera deterministen kontsumitzaile bihurtutako herritarrek, non egiten duten ekintza bakoitzak leku eta luzapen

egokia izan behar duen, ekintza eta erabaki askatasuna galduz.

- Teknologian oinarritutako erabaki hartzea eta datuetan oinarritutako gobernantza. Horrek eztabaida publikoaren garrantzia neutraliza dezake, botere posizioetatik abiatutako agendak inposatuz.
- Ingurumenarentzat kaltegarria den hiperkontsumismoa sustatzen duten konponbideak ezartzeko, arrazoi nagusi gisa merkataritza onura erabiltzea.
- *Top-down* plangintza, planteamendu teknokratikoek eta hirietako gobernantzaren korporatibizazioak definitua, herritarren interesekin bat ez datozen emaitzak ekarri dituen.

Epe luzerako plangintza nagusia duten izaera konbenzionalagoko proiektuen alternatiba gisa, eskala askoz ere erabilgarriagoa duten beste ekimen batzuk sortzen ari dira, izaera esperimentalekoak eta dimentsio anitzeko lankidetzakoak. Hiri eremuan esperimentazio aro berri bat ireki da (Karvonen *et al.* 2019), eta Hiri Laborategi izena hartu du. Termino orokor horrek hiri testuinguru batean ikuspegi esperimentala duten espazio, ekimen eta komunitate ugari biltzen ditu. Aterki horren barruan sartuko lirateke: Living Labs, Makerspaces, Fab Labs, Urban Future Labs, Social Innovation Labs, Change Maker Labs, Impact Labs, Citizen Science Community, Biohacker Spaces, Regulatory Sandbox, Communities of Practices...

URB@Exp proiektuaren barruan (Scholl *et al.* 2017), Hiri Laborategiek partekatzen dituzten ezaugarri batzuk identifikatu ziren:

Hiri eremuan
esperimentazio aro berri
bat ireki da, eta Hiri
Laborategi izena hartu
du. Termino horrek hiri
testuinguru batean
ikuspegi esperimentala
duten espazio, ekimen
eta komunitate ugari
biltzen ditu

- Ikuspegi kolektiboa duten alternatibak aztertzea, aurrez pentsatutako soluziorik gabeak.
- Prozesuetan eta jardueretan askotariko agenteen parte hartzea.
- Akademiaren, administrazioaren eta gizartearen arteko hibridazioa.
- Tokiko baldintzetara egokitutako egitura gardenak.
- Epe luzeko harremanak sortzeko aukera emango duten epe mugatuko proiektuetan oinarritutako esperimentazioa.
- Esperimentazioan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.
- Balio publikoen kosorkuntza, modu garden eta zuzenean banatua.

Espazio horiek, lehen ikerketa eta esperimentazio teknikorako tokizat hartzen zirenak, dimentsio berri bat hartu dute, diziplina arteko lankidetzarako eta sektore desberdinen arteko elkarriketarako plataforma bihurtzen dituenak.

Bilbo: 'Hiri Laborategizatua'

Jarraian agertzen diren izen guztiek, xehea izan nahi ez duen zerrenda baten barruan, Bilboko hirian bizikide diren erakunde, gune, komunitate eta ekimenen multzo bat osatzen dute, eta, beraien ikuspegi eta ezagutza eremu desberdinetatik, profesionalen, ekintzaileen eta oro har herritarren artean lan kolaboratiboa eginez, lurralde honetako bizi kalitatea hobetzeko helburu amankomuna partekatzen dute.

Aclima, AI Saturdays, Afrika Basque Challenge, Aiara Valley, AIEDUTECH, Auzo Factory Sarea, B-Accelerator Tower, Basque Biodesign Center, Basque Pro Elkargoak, BIG Bilbao, Bizilabe, Betabeers, BBF Fintech, BIOOK, BBK Kuna, Bilbao AS Fabrik, Bilbao Berrikuntza Faktoria, Bilbao Metropoli 30, Bilbao Port Lab, Bilbao Urban & Cities Design, Brainn, Bilbao Valley, B-Venture, Databeers, Data on Kubernetes Community, Deustotech, dotNet, EIDE, EIDE Gazteak, EIKEN, Elhuyar Fundazioa, Eraikune, Espacio Open, ESLE, Fair Saturday Foundation, Fundación Novia Salcedo, GAIA,

Getxo Itsas Hub, Global AI Developers, Global Shapers, Bizkaia Talent, Innolab, Jakinmin Elkarte, Plain Concepts Sessions, Karraskan, Koops SF 34, Konekta La Perrera, KSIGune, Loturak, Loraldia, Media Attack Parties, Mondragon Team Academy, NextStation, Ohana Meetup, Pikara, Pabellón 6, Plataforma50, Red de Consultoría Artesana, Torre BAT, Silver Economy Taldea, Singularity, Unesco Etxea, Univercity MU, Weetbe Hackaton, Wikitoki, ZAWP, Zinegoak, Zorraquino Sessions, 42Urduliz...

Guztiek bat egiten dute Hiri Laborategien definizioaren ikuspegi kolektiboarekin, askotariko agenteen parte hartzearekin, sektoreen arteko hibridazioarekin, proiektuetan oinarritutako esperimentazioarekin eta balio publikoen kioskuntzarekin.

Lankidetza publiko/pribatuko proiektuak Zorrotzaurre bezalako hiri espazioetan garatzen ari diren herritarren ekimenekin batera bizi dira eta biziko dira. Ekimen horiek Bilbo Hiri Laborategizatua bihurtzen ari den lankidetza eta ekintzailtza kulturaren esperimentazio agertoki bihurtzen dira.

Bilbao As Fabrikeko Hiri Laborategiak

Sormena

Bilbao As Fabrikeko Hiri Laborategiek hiriko zerbitzu aurreratuen sektorearen garapenean jartzen dute arreta, eta Bilboko hiriak, aipatutako sektorearen prestakuntzarekin, ekintzailtzarekin, berrikuntzarekin eta dinamizazioarekin lotutako hiriko agente publiko eta pribatuen partzuergoarekin batera, Europako UIA (Urban Innovation Actions) deialdira aurkeztutako proiektuan dute jatorria. Proiektuak 4,6 milioi euroko laguntza ekonomikoa jaso zuen.

Hiru urtez, Bilboko zerbitzu aurreratuen sektoreko profesionalekin elkarlanean aritu ginen, eta emaitza nabarmenak lortu genituen proiektuaren lau ardatzetan (ibilbide orria, prestakuntza espezializatua, ekintzailtza eta lankidetza), UIA batzordeak Europako beste hiri batzuetarako jardunbide

Topatuko dugun errealitate hori hobeki definitzen duen hitza 'ekosistema' da. Biologiako kontzeptu hori hartzen dugu agente eta jarduera sistema konplexua deskribatzeko

egokitzen jo baitzuten. Proiektuak, bere jardueren garapenerako, espazio fisiko baten berregokitzea eta teknologia ugari dituzten laborategiak jartzea eskatzen zuen.

2021eko urtariletik, proiektua industria iragan bat duen eraikin batean kokatzen da, Zorrotzaurre uhartearen epizentroan; hiriaren erdigunetik gertu dagoen manufaktura gune zahar bat da, eta Bilbok unibertsitate gune, teknologia

parke eta hiriko sormen industriaren gune bihurtzeko asmoa du. Ekosistemen barruan dagoen ekosistema bat.

Ekosistemen barruan dagoen ekosistema bat

Topatuko dugun errealitate hori hobeki definitzen duen hitza 'ekosistema' da. Biologiako kontzeptu hori hartzen dugu agente eta jarduera sistema konplexua deskribatzeko. Biologiaren arabera, ekosistema batek organismo bizien komunitatea behar du, elkar erlazionatzeko inguru fisiko bat eta elikagai eta energia fluxuak sortzen dituen komunitatearen eta inguruaren arteko interakzioa.

Bilbao As Fabrikeko Hiri Laborategiaren barruan, hauek dira osagaiak:

- Herritarrek, tailerretan esperimentatzen duten haurrek, unibertsitate karreretako eta etengabeko prestakuntzan dauden ikasleek, ikertzaileek, ekintzaileek, sektoreko profesionalek eta berrikuntza, ekintzailetza eta finantzaketako bitartekari diren erakunde ordezkariak osatutako komunitatea.
- Espazio fisiko ireki eta berezia, elkarrekintza eta kosorakuntza bultzatzen dituen testuingurua sortzen duena;

Bilboko ekosistemako beste agente batzuen parte hartzea errazteko eta erakartzeko posizio neutrala hartzen duen espazioa.

- Elkarrekintzak:

- Hiriko zerbitzu aurreratuen sektorean garrantzitsuak diren teknologiak eta makrojoerak zaintzea.
- Oinarri teknologikoko ekimen berriak diseinatzeko, abian jartzen eta fisikoki inkubatzeko espezializatutako ekintzailtzari eta barne ekintzailtzari laguntza.
- Teknologia ezberdinekin esperimintatzea eta prototipoak egitea (3D inprimaketa, laser ebaketa, arduinoak, robotika, errealtate birtualeko eta areagotuko betaurrekoak, ikus-entzunezko ekoizpena, materioteka, fisikako laborategia...).
- Teknologiaren, enpresaren eta gizartearen ikuspegi hirukoitzarekin, ekonomia digitalaren erronkei aurre egiteko prestatutako haurren, unibertsitateko ikasleen eta profesionalen talentua garatzea.
- Ekitaldi eta topaketen bidez komunitateak sendotzen laguntzea.

Bilbao As Fabrik ekosistema epe luzera begira diseinatuta dago, eta ekintzailtzaren bizitza ziklo osoa kontuan hartzen du. Ziklo hori hiritarren sentsibilizazioarekin hasten da, eta zerbitzu aurreratuen eskaintza eta eskaria ezagutzea, teknologia eta negozio prestakuntza eskaintzea, inkubazioan laguntzea eta lankidetzan oinarritutako hazkundea bultzatzea eskatzen du.

Naturan bezala, etorkizun iraunkorrago eta erresilienteagoa sustatzeko azpiekosistemen ikuspegitik begiratu eta elkarlanean egindako berrikuntzak bermatu behar dira.

Lehenik eta behin, Mondragon Unibertsitateko unibertsitate ekosisteman txertatuta gaude; bertan, lehen aldiz bizikide dira Enpresagintza, Humanitate eta Hezkuntza Zientziak eta Ingeniaritza fakultateetako ikasle, irakasle eta ikertzaileak. Etorkizunera begira edozein soluziok eskatzen dituen hiru ikuspegiak.

Bigarrenik, Bilboko zerbitzu aurreratuen enpresen ekosisteman integratuta gaude. Hirian zerbitzu aurreratuak eskaintzen

dituzten *start-up* eta enprekin harremanetan gaude, beren beharrak eta aurrerapenak ezagutzen ditugu, aukera berriak identifikatzen laguntzen diegu eta ekimen ekintzaile berrien sorkuntza eta talentuaren garapena bultzatzen dugu.

Gainera, industria enpresen eta digitalizazioan eta zerbitzazioan oinarritutako balio proposamenak eskatzen dituzten beste sektoreen ekosistemaren parte gara. Hiriko zerbitzu aurreratuen proposamenen enbaxadore eta bitartekariak gara, eta eskaria, finantzaketa eta lankidetzak aukerak bilatu eta bultzatzen ditugu.

Azkenik, Zorrotzaurre uharteko ekosistemaren partaide gara; hiriko berrikuntza barrutia. Sormen industriako aitzindariak duela hogeitau urte sortu zuten ekosistema hori kultura eta ekoizpen digitalera igaro da, egun formakuntza espezializatu, ikerkuntza eta ekintzailak aukera gero eta gehiago eskaintzen duelarik.

Zorrotzaurreko familia argazkiak erakunde hauek biltzen ditu: ZAWP, Espacio Open, Bizinahi, Pabellón 6, Zirkozaurre, Karola Zirko, PiuGAZ, Espacio 600, Guretxoko, Eidabe, Digipen, Kunsthal, Bilbao As Fabrik eta, laster, hezkuntza berrikuntzaren esparruan, Ikaskuntza Berrikuntzarako Zentroa eta ISEI-IVEI; eta garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren esparruan, Bilboko Campus Teknologikoaren egoitza nagusia, Bizkaiko Parke Zientifikoari eta Teknologikoari lotuta (Euskadiko Parke Teknologikoak), Vicomtech eta Ikerlan zentro teknologikoen presentzia jada baieztatuarekin. Berrikuntza irekiko kulturaren testuinguruan aritzen diren agente ezberdinen batasun aberats horrek proiektu garaikide eraldatzaileekin amets egitea ahalbidetzen digu, ekonomian eta gizartean eragiteaz gain nazioarte mailan ere inpaktua lortzen dugularik.

Zentzu horretan, uhartearen ekosisteman hartzen dugun rola lankidetzak aukerak identifikatu eta eskaintzea da, uharteko dinamika sendotzeko, Win Win ekimenak martxan jartzeko eta etorkizunera begira uhartearen narratiba koherente, erronkari eta inspiratzailea sortzeko.

Desiderata

Desideratum hitzak, latinetik datorrenak, desira, aspirazio edo xede bati egiten dio erreferentzia, eta *desiderata* da bere plurala.

Hiri Laborategizatua interakzio eta harreman konplexuen sistema korapilatsua da. Baso baten barruan dagoen urmael txiki bat bezala, ekosistema bakoitza pieza bat bezala txertatzen da bizitzaren sarean, eta inguruko ekosistemetan eragiten du eta horien eragina jasaten du. Ildo horretan, azpiekosistema bakoitza, bere ezaugarri bereziekin eta prozesu bereizgarriekin, ekosistema handiagoaren barruan dagoen unitate txikiagoa da. Helburu partekatu batekin lan egiteko eta hirian ekimen berritzaileak eta lankidetzakoak arrakastaz ezartzeko, funtsezkoa da azpiekosistema horien arteko loturak ulertzea eta erraztea. Erronka, gure ekosisteman erabakiak sintonizatu ahal izateko, konplexutasuna aztertzea ahalbidetzen diguten tresnak lortzea da.

Sare Sozialen Analisia (SSA) sare bateko norbanakoen eta taldeen arteko harremanak eta elkarrekintzak aztertzen dituen metodologia da. Diziplinarteko ikuspegi horrek soziologiaren, matematikaren eta antropologiaren kontzeptuak eta teknikak uztartzen ditu, eta sareen kontzeptuari buruz modu sendoan hitz egiteko hiztegi aberatsa ematen digun taxonomia paregabea garatu du.

SSAren taxonomiaren bidez, Hiri Laborategizatua eta Hiri Laborategien esparruan elkarlaneko berrikuntzan oinarritutako etorkizun iraunkorrago eta erresilienteagoa lortzeko, sareen ezaugarrien desiderata posible bat defini dezakegu. Gainera, desiderata hori hausnarketarako eta eztabaidarako tresna baliagarria izan daiteke.

Jarraian, Bilboko hiri ekosisteman hamar urtez lan egin ondoren izan dugun zuzeneko esperientzian, behaketan eta praktikan oinarritutako desiderata zerrenda bat aurkeztuko dugu. Olentzerori zuzendutako gutun berezi honek hiru atal ditu; bertan, gure ekosistemako nodoen portaera hiru begiradatan nolakoa izatea gustatuko litzaigukeen eskatzen

diogu: sareko posizionamenduan, sareko transakzioetan eta sareko harremanetan.

Hala ere, ondoko testu hau norberaren ikaskuntza enpirikoan oinarritutako gogoetatzat hartu behar da; beraz, irismen mugatua du, baina elkarriketa aberatsagoa sortzeko balio dezala espero dugu.

Sareko posizionamendurako desiderata

Sareko posizionamendua nodo batek sare batean duen kopapenari eta ondoriozko konektibitateari dagokio. Hiri Laborategien testuinguruan, elkarlaneko ekimen, espazio edo proiektu batek Hiri Laborategizatuko sareko beste nodo batzuen aurrean zer posizionamendu estrategiko hartzen duen adierazten du.

A) Zentraltasun desideratuma

Desiragarria da sarean posizio zentrala duten nodoak, hau da, beste nodo batzuekin lotura handia dutenak, Hiriko Laborategien sarean identifikatzea. Nodo zentralenak funtsezkoak izan daitezke informazioa zabaltzeko, baliabideak eskuratzeko eta lankidetzak aukera berriak sortzeko.

Zentraltasun hori ez da posizio hierarkiko gisa ulertu behar. Alde batetik, baliabide handiena duten *top-down* ekimenek sarean zentraltasun handiagoa izan dezakete; horri esker, hirian eragin eta ekintza gaitasun handiago dute. Bestalde, *bottom-up* ekimenek sarean zentraltasun txikiagoa izan dezakete, baina malguagoak eta herritarren behar eta eskaeretara egokituagoak eta are berritzaileagoak izan daitezke.

B) Lidergo desideratuma

Desiragarria da Hiriko Laborategiek, beren tamaina edozein dela ere, dagokien espezializazio eremuen sarean posizio nagusi bat garatzea. Horri esker, hirian ikusgarritasun, eragin eta lidergo gaitasun handiagoa izango dute.

Kasu horretan, eskuragarritasuna eta bizkortasuna nabarmentzen ditugu aktoreen ekosistema baten barruan espezializazio eremu batean lider izateko funtsezko faktore gisa. Eskuragarritasunak eta lankidetzarako, entzuteko eta erantzuteko borondateak konfiantza sortzen du eta harremanak sendotzen ditu, eta horrek lidergo aukerak ireki ditzake.

C) Kohesio desideratuma

Desiragarria da Hiriko Laborategiek, horien jatorria eta espezializazioa edozein dela ere, sarearen kohesioa sustatzea, nodoen arteko lankidetzak eta ezagutza eta baliabide trukea bultzatzea.

Izan ere, zatiketaren aurrean hiri ekosisteman helburu partekatua duen sare kohesionatu batek erresistentzia handiagoa du, eta berrikuntzarako eta arazoak elkarlanean konpontzeko gaitasuna areagotzen da baldintza horietan.

D) Sarearen dentsitatearen desideratuma

Desiragarria da sarearen dentsitatea handitzeko Hiriko Laborategiek ekosisteman lan egitea, eta horrek esan nahi du nodoen arteko lotura eta konexio gehiago sortzen lagundu beharra dagoela.

Sakabanatuegia edo dentsitate gutxikoa den sare batek eraginkortasun gutxi du informazioa zabaltzeko eta lankidetzak aukera berriak sortzeko; sare trinkoago batek, aldiz, sareko agenteen artean sinergiak sortzeko aukera sustatzen du.

E) Praktika komunitateen desideratuma

Desiragarria da ekosistemako agente guztiek laborategien arteko praktika komunitateen hedatzea bultzatzea. Komunitate horiek formalak edo informalak izan daitezke, eta gai jakin baten edo lan ildo amankomun baten inguruan sortzen dira.

Praktika komunitate baten barruan, nodoak oso lotuta daude; baina komenigarria da beste komunitateetako nodoekin

konektatzeko zubi gisa jarduten duen nodoren bat ere egotea. Horrek komunitate berean lankidetzatza eta informazioa zabaltzea errazten du, eta, era berean, aukera ematen du komunitate desberdinen artean ezagutzak eta baliabideak transferitzeko.

Sareko transakzioetarako desiderata

Sareko transakzio deitzen zaie aktoreek sare baten barruan dituzten harremanen bidez ematen dituzten ondasun ukigarri (hala nola produktuak eta zerbitzuak) eta batez ere ukiezinei (hala nola informazioa, ezagutza, trebetasunak, eragin soziala edo laguntza emozionala). Transakzio horiek testuinguru formaletan (lan harremanak bezalakoak) edo informaletan (adiskidetasun harremanak bezalakoak) gerta daitezke.

A) Helburu partekatuko desideratuma

Desiragarria da Hiri Laborategizatuaren erronka amankomunen narratiba bat elkarrekin garatzea eta partekatzea, eta horren nodoen helburu partikularrak gainditzea.

Elkarrekin sortutako narratiba horrek, alde batetik, da-goeneko ukaezinak diren erronka sistemikoak biltzen ditu (jasangarritasuna, berdintasun soziala eta giza eskubideekiko eta kultura eta ondarearekiko errespetua); eta, bestetik, Hiri Laborategizatuaren berezko erronkak: esaterako, Bilboren kasuan, oinarri teknologikoko zerbitzu aurreratuen sektorearen inguruko kalitatezko enplegua garatzea.

B) Sozializazio desideratuma

Desiragarria da Hiri Laborategizatuan nodoen arteko adiskidetasunezko harreman esanguratsuak garatzea. Izan ere, lotura sozialen garapena beharrezkoa da etorkizuneko lankidetzarako oinarri sendoak sortzeko.

Prozesu hori errazten du laborategien berezko dinamiken barruan interakzio sozial informalerako aukerak sortzeak: komunitatearen bilerak, ekitaldiak...

C) Laguntza eta aholku desideratuma

Desiragarria da, premia edo zailtasuna dagoenean, nodoen artean laguntza emozionala eta aholkua ematea.

Babes emozionalak elkarrekikotasuna erakartzen du eta Hiri Laborategizatueta nodoen artean kidetasun eta helburu amankomun baten zentzua mantentzen laguntzen du.

D) Ezagutza partekatzeo desideratuma

Desiragarria da ekosistemako nodoen artean baliozko ezagutza eta adituen kontaktuak modu irekian partekatzea.

Agenteen garapen profesionalerako funtsezko elementua da hori, eta konfiantzazko eta elkarrekikotasunezko loturak sortzen ditu. Gainera, komunitateari balioa itzultzeko modu bat ere bada, eta agenteen arteko helburu amankomun baten zentzua helarazten du.

E) Ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko desideratuma

Desiragarria da sareko aktoreen artean produktu eta zerbitzuen transakzioak gertatzea.

Hiri ekosistema baten barruan garrantzitsuak dira ondasun ukigarrien transakzioak, baliabideak trukatzeko eta komunitatean balioa sortzeko ahalbidetzen dutelako. Transakzio horiek tokiko ekonomia sustatu eta agenteen arteko lankidetzaren bultzatza dezakete, gizarte kohesioa eta hiri ingurunearen garapen iraunkorra indartuz.

F) Aukera berrietara iristeko desideratuma

Desiragarria da Hiriko Laborategiek sareko beste nodo batzuekin aukera eta harreman garrantzitsuak identifikatu eta partekatzea.

Ekintza horiek, alde batetik, agenteei laguntzen diete bezero, hornitzaile eta bazkide berriak aurkitzen, eta baita erronkei aurre egiteko eta tokiko eta batez ere nazioarteko merkatuetako aukerak aprobetxatzeko gaitasuna hobetzen ere; eta,

bestetik, Hiri Laborategizatuari berrikuntza, posizionamendu globala eta erresilientzia gaitasun handiagoa ematen diote.

Sareko harremanetarako desiderata

Harremana sare baten barruan dauden bi nodoren artean ezar daitekeen lotura motari dagokio. Harremanaren kontzeptua oso zabala denez, hainbat modutan uler daiteke: sareko bi profesionalen arteko adiskidetasunari, bi agenteren arteko proiektu partekatuari edo plataforma partekatu bateko bi erabiltzaileren arteko Internet bidezko elkarrekintzari egin diezaioke erreferentzia.

A) Elkarrekiko errekonozimenduaren desideratuma

Desiragarria da jarduerak ezagutzea eta beste nodoek Hiri Laborategizatuan duten garrantzia aitortzea. Lankidetzara oro elkarrekiko errekonozimendutik abiatzen da.

Hiri Laborategizatuko nodo bakoitza eremu ezberdin batean jarduten da. Eremuak ugariak eta gero eta gehiago dira (zahartzea, hirigintza, digitalizazioa, jasangarritasuna, zerbitzu aurreratuak, gizarteratzea, sormen industriak...), eta espezializazio maila oso desberdinak dituzte (digitalizazioa, 4.0 industria, teknologia gehigarriak, bioprintinga, bioprintinga gastronomian...).

B) Moldakortasunaren desideratuma (dimentsio anitzekoa)

Desiragarria da nodoen arteko loturak transakzio mota edo helburu bakar batera ez mugatzea, baizik eta rol ugari betetzea, edozein erlaziok har dezakeen dimentsio aniztasuna islatuz.

Horren arabera, harreman horrek honako transakzio mota hauen artean pibotatu dezake: dimentsio soziala, pertsonen arteko lotura emozionala eta adiskidetasuna indartzen dituen; ezagutza dimentsioa, ezagutzaren partekatze irekia errazten duena; eta balio dimentsioa, non alderdiek zerbitzuak partekatzen dituzten proiektu eta ekimen bateratuen barruan.

C) Elkarrekikotasunaren desideratuma

Desiragarria da nodoen arteko loturek interakzioan eta babesa eta laguntza emateko prestasunean mutualitatea (bi norabidekoa) islatzea, kohesioa eta konfiantza sendotuz.

Elkarrekikotasunak sare bateko agenteen arteko balio trukea dakar, eta horrek lankidetzaz eta konfiantzazko zirkulu bertutetsua sor dezake. Elkarrekikotasuna bultzatuz, interesdunen arteko harremanak sendotu daitezke, eta, ondorioz, komunitate osoaren errendimendu ekonomiko eta soziala hobetu daiteke.

D) Konpromisoaren desideratuma

Desiragarria da hiri ekosistema bateko eragileen dedikazioa eta konpromisoa komunitate osoaren ongizaterako izatea.

Agenteek konpromiso hori erakusten dutenean, baliabideak, ezagutzak eta aukerak partekatzeko prest daude, eta horrek hiri ekosistemaren erresilientzia eta errendimendu ekonomiko eta soziala hobetzen ditu. Horrez gain, konpromisoak identitate eta kideatasun sentimendua ere sortzen du, gizarte kohesioa indartuz.

E) Dinamikaren desideratuma

Desiragarria da ekosistema bateko aktoreak elkarren artean harremanak sarritan izatea, sarearen dinamika sustatu eta abian dauden proiektu eta ekimenei buruz eguneratuta egotea.

Dinamika horrek transakzioen eraginkortasuna hobetzen du eta komunikazio desgokiarekin lotutako arriskuak murrizten ditu. Hiriaren barruan, gizarte kohesioa eta ekosistemaren garapen iraunkorra indartzen ditu.

F) Bilakaeraren desideratuma

Desiragarria da ekosistema bateko aktoreen arteko loturaren bilakaeraren jarraipena egitea.

Horrek lankidetzan ereduak, aukerak eta erronkak identifikatzen lagun dezake, eta baita erabakiak hartzea eta ku-deaketa hobetzen ere. Horrez gain, erregistro hori baliagarria izan daiteke eraginaren ebaluazioa eta feedbacka egiteko, komunitatearen erresilientzia eta garapen iraunkorra indartuz.

Hitzatzea(k)

Bagara

Elkarriketak gara...

Geure buruari esaten dioguna eta besteei esaten dieguna gara; eta biek konprometitzen gaituzte.

(L. Berasategi, dutxan edozein egunetako pentsamendua)

Elkarguneak gara...

Ura buztinean dago, buztina adreiluan

Adreilua horman dago eta horman zure argazkia

(J. Drexler: *Guitarra y vos*)

Serendipiak bi ideia horiek askotan ekartzen dizkit eta, zalantzarik gabe, nire subkontzienteak elkarriketei eta hibridazioari ematen dien garrantzia azpimarratzen du. Baina oraingoan, desiderata idazten ari nintzela, ia mantra bihurtu da.

Elkarriketak gara. Ez dut zalantzarik: elkarriketa esanguratsuak, entzute aktiboa barne hartzen dutenak eta ekintzaren aurretik gertatzen direnak, hiri ekosistemen garapenaren giltzarri dira.

Desideratan irakur dezakegun bezala, elkarriketa horiek, gure nortasuna eta balioak islatzeaz gain, gure errealitatea eta guztiok elkar eragiten dugun ingurunearena ere moldatzen dute. Elkarriketa horien izaerak eta kalitateak gehitu edo kendu egingo dio ekosistema osasuntsu, eraginkor, kohe-sionatu eta sinergiko bat eraikitze bideari. Ekosistema horrek helburu propioen eta proposamen partekatuen oreka mantendu behar du, premiazkoa baita gure garaiko gizarte eta ingurumen erronkei aurre egiteko.

Elkarguneak gara. Sareko nodoak, bai eta bertako pertsonak ere, hainbat faktoreren arteko elkarreragin konplexuaren emaitza dira, hala nola kulturaren, harremanen sozialen eta testuinguru aldakorren barruko esperientzien artekoenak. Eta konbinazio horiek guztiak, zorionez, desberdinak dira pertsona bakoitzarengan.

Desideratan berriz ere ikus dezakegu ekosistemaren erresilientziak bere eragileen aniztasunean eta horien arteko lankidetzan ezartzen dituela bere oinarriak. Hiri ekosistema erresilienteago bat jatorri, sentsibilitate, trebetasun eta ezagutza desberdinak dituzten askotari-ko eragileak dituen da, harreman sare sendoa eta askotari-koa duena eta erronka berriei aurre egiteko koordinazio eta lankidetz gaitasuna duena.

Denok gara aldaketa horren protagonistak. Bagara.

Ekosistemaren
erresilientziak bere
eragileen aniztasunean
eta horien arteko
lankidetzan ezartzen
ditu bere oinarriak

In memoriam

Tom Snow gogoratzuz: laguna eta sistema bizietan inspiratutako diseinuan aitzindaria.

Duela gutxi utzi gintuen Tomek, eta, berarekin batera, bizitzarekiko errespetu eta konpromisozko ondare neurgaitz batek. Bere metodologiek konplexutasuna modu didaktikoan lantzen dute, eta modu jasagarrian bizi, sortu eta produzitu ahal izateko tresnak eskaintzen dituzte, beti prozesu bizien forma eta adierazpen guztiekin harmonian. Bere ondarearen zati handi bat designcontext.org webgunean dago eskuragarri; Tomek, bertan, bere pentsamenduak eta lan liluragarriak eskuzabaltasunez partekatzen zituen. Ea bere ondareak etorkizuneko belaunaldiak bizitzaren konplexutasunarekiko mundu kontzienteago eta errespetuzkoago baten alde lan egitera inspiratu eta gidatzen dituen! Jaso eta senti ezazu gure besarkada, Tom. 🌻

Bibliografia

- Karvonen, A.; Cugurullo, F.; Caprotti, F. (2019): 'Conclusions: The Long and Unsettled Future of Smart Cities', in A. Karvonen, F. Cugurullo eta F. Caprotti (argk.): *Inside Smart Cities. Place, Politics and Urban Innovation*, Abingdon eta New York, Routledge, 291-298.
- Scholl, C. *et al.* (2017): *Guidelines for Urban Labs*, Viena, JPI Urban Europe (www.maastrichtuniversity.nl/research/msi/research-output/guidelines-urban-labs).
- Sennett, R. (2012): 'No one likes a city that's too smart. Let's hope Rio rather than Songdo or Masdar is the inspiration for the urbanists gathering in London this week', *The Guardian*, 2012-12-04.

Gomendatutako irakurgaiak

- Scott, J. (2013): *Social Network Analysis*, Londres, SAGE Publications.
- Snow, T. (d.g.): *Agence Design Context* (www.designcontext.org).
- Wasserman, S.; Faust, K. (1994): *Social Network Analysis. Methods and Applications*, Cambridge, Cambridge University Press.

Bestela pentsatu bestela ekiteko

Gizagintza eta mundugintza bizigarri baterako

 Lorea Agirre Dorronsoro
Kazetaria eta JAKINEko zuzendaria

Nola pentsatu bukatzen ari den mundu bat, nola pentsatu ahitzen ari garen mundu bat. Agian, hori da, orain eta hemen, esku artean dugun egiteko behinena. Bukatzen ari den mundu batean, finitua den planeta batean eta xahutzen ari garen edo xahutzen ari zaizkigun mundu batean, nola pentsatu. Nola pentsatu beste modu batez ez bada, eraldatuz eta irauliz.

Modernitatearen hileta kanpaiak jo du, oparotasunaren, arrazoimenaren, aurrerabidearen, mundu hobegoaren amets ilustratua hautsi zaigun garai hauetan. Proiektu ilustratuak, modernitateak, bere deriba historikoan, humanitate asko –kulturak, hizkuntzak, epistemologiak, gorputzak, lurraldeak...– aurrerabidetik eta gizateria proiektutik kanpo utzi eta horien gaineko esplotazioan hartu izan du indar eta egin du bidea, eta, kasik, bere burua ahitzera iritsi da. Zentzua galdu dute aurrerabide eta etorkizun hobearen ideiek, eta, garrantzitsua goa dena, dagoeneko aurrera joatea genion hori ez da aurrera joatea, ez bada amiltzea. Aurrerabidea ez da aurrerabidea. Etorkizun hobegoaren bidea krisi ekosozialaren luiziak iren-tsi du. Etorkizun hobek beste bide batetik etorri beharko du, beste bide batetik ekarri beharko dugu, beste oinarri batzuen

gainean eta beste helburu batzuen arrastoan. Horregatik, katastrofismoari eta distopiaren kulturari gerra egin behar diogu.

Pentsatzen ikastea da pentsatzea, dio Marina Garcés filosofoak (2022 [2015]), ahitzen ari garen mundu honetan pentsamendu amaitu gabea aldarrikatzeko garaia dela. Etorkizun berriak irudikatzea ezinbesteko zaigu. Bestela pentsatzea. Arrakalak irekitzea arrakalaz jositako mundu honetan. Eta, horregatik, agian, abagune ezin egokiagoan gaude pentsamenduari arrakalak irekitzeko. Pentsatzearen, ezagutzaren, jakintzaren metafora berriak behar ditugu. Zer den pentsatzea, nola egiten den, nork jartzen dizkion pentsamenduari itxiturak, nori aitortzen diogun pentsatzeko zilegitasuna eta nori ez. Mari Luz Esteban antropologoak, aurtengo IkerGazte jardunaldian, aditu eta aritu banaketa kritikatu ondotik –bide batez, monografia honi ere zuzentzen zaio kritika hori–, galdera bota du: ezagutza nork sortzen du? Ezagutza akademian, unibertsitateetan, ezagutza zentroetan, zientzia eta teknologia poloetan, laborategi eta institutuetan *adituek* egiten duten hori bakarrik al da? Eta gehitu: «Nola lortzen du *aditu* batek esaten duena esatea? Feminismoaren santuek, esate batera, hitz egiten dutenean, nor dute atzean?».

Eta erantzuna ere tamainakoa: *adituek* batzuetan isildu eta entzun egin behar dute.

Bi auzi, bi ezagutza, gori-gori daudenak gure artean: indarkeria matxista eta zaintza. Nork sortzen du ezagutza esparru horietan? *Adituek* soilik? Eta herritarrek? Antolatutako militanteek? Emakumeek? Noren pentsamenduak balio du? Noren bizipenek, noren sentimenduek? Ezagutza kolektiboa da beti, sorkuntza den bezala. Jeinurik ez dago, are: gizon zuri pentsalari jeinu bakarlari autonomo hori lapurretaren edo esplotazioaren gainean dena baino ezin da izan.

Ezagutza kokatuak eta mundu ugariak

Donna Haraway pentsalari feministari ‘ezagutza kokatuak’ kontzeptua ikasi diogu (1988), eta berria bezain zaharra egin

zaigu, euskarari, abertzaletasunari eta emakumeen borrokari lotutako geure genealogian oihartzun egiten digulako. Lehen ideia da jakintza edo ezagutza oro kokatua dela, baldintzak dituela, lur bat, hizkuntza bat, posizio bat, baliabide material jakin batzuk, botere harremanetan leku jakin bat... Ezagutza oro da kokatua, eta, beraz, baita unibertsaltzat eta objektibotzat jotzen duguna ere. Hau

da, baldintza soziopolitiko eta kultural jakinen eraginpean eta baldintzapean sortzen eta garatzen dela ezagutza oro, eta, beraz, objektibotasuna bere horretan ez dela modu absolutuan inon existitzen, beti dela subjektibitate objektibizatu bat, eta, kasu batzuetan, gainontzekoei indarrez inposatu eta unibertsal bihurtzen dela. Pentsamendu unibertsal kontsideratzen duguna beste edozein pensamendu parti-

kular eta partzial kontsideratu bezain etnozentrikoa dela. Pentsamendu unibertsalaren eta pensamendu partikularren arteko aldea da lehena partikularitasun inposatu bat dela. Kito. Dugun hau mundu posibleen artean bat baino ez da. Garcésen hitzekin laburbil daiteke: «*Mundu* izendatzen eta errepresentatzen duguna *mundu bat* baino ez dela, beste edozein mundu posible itzalpean utzi duena» (2022 [2015]: 8).

Bigarren ideia bat ere erartortzen da 'ezagutza kokatuak' kontzeptutik. Ezagutza guztiek maila bera dutela, eta lekua-ri eta garaia-ri erantzutea dutela beti xede, hots, ingurunea ulertu eta bizitzari zentzu bat ematea. Eta, Harawayk gehitzen dio, menderatuen emantzipazioa bilatzea duela helburu.

Azken idea hori garrantzitsua da, bidea irekitzen dielako pensamendu *beste* batzuei –eta ez *beste* pensamendu batzuei, dekolonialismoaren pentsalariek gaztigatu izan diguten

Pentsatzearen, ezagutzaren, jakintzaren metafora berriak behar ditugu. Zer den pentsatzea, nola egiten den, nork jartzen dizkion pentsamenduari itxiturak, nori aitortzen diogun pentsatzeko zilegitasuna eta nori ez

bezala, eraldaketa epistemologikoa hizkuntzan hasten baita–, mendeko errealitateei eta berezko bizipenei. Izan ere, bizipen jakinetatik sortzen diren pentsamendu eta praktika guztiak dira zilegi, bizipen hori soziala, gorpuztua, historikoa, antropologikoa, komunitarioa, epistemologikoa baita: bizi zentzuzkoa.

Mendeko errealitateak zein dira, baina? Emakumeak edo emakume gisa irakurritako edota sozializatutako pertsonak; pertsona arrazializatuak; komunitate kolonizatuak; gizarte klase prekarizatuak; hizkuntza eta kultura minorizatuak, gorpuz eta desio ez-normatibodun pertsonak... Luzatu zerrenda, jarri izena, aitortu zilegitasuna.

Harawayk proposatzen duen irekiera hori gabe, mendekoak ez luke aukerarik izango eraldaketarako subjektu politiko gisa aritzeko, ez luke bere *patua* aldatzeko gaitasunik izango, beti mendeko izatera kondenatua geratuko litzateke.

Hori da pentsamendu balekoa eta zentzuzkoa egiteko modu bat: *worlding* deitzen dio Harawayk (2020). Mundugintza. Mundua gugandik pentsatzea: pertsonen eta komunitateen bizitza hobetzeko balio duen mundua pentsatu eta egitea, zapalkuntza, esplotazio eta desparekotasun egoerei aurre egiteko, eta ez duenari agentzia ahalmena emateko.

Hori dena berria bezain zaharra egin zaigula esan dugu, badugula genealogia bat non begiratu, ez baita, gurean, bestela pentsatzen jartzen garen lehen aldia. Euskal pentsamendu berria, 56ko belaunaldiarekin abiatu zena eta egun gizarte berrikuntza deitzen dugunaren eredu garbia dena –berrikuntza, eta are eraldaketa, euskal pentsamendu berriaren DNA baita–, hil ala biziko kordokan, 36ko gerraren ondoren –hori ere mundu baten akabera zen, gerrak txikitu zituen zirenak eta ez zirenak, eta euskara jendearekikoak kasik eginda zeudela–, hutsetik hasi zen, ordura arteko munduaren pentsamenduaren mugak arrakalatuz. Zer pentsatu du, baina, euskal pentsamenduak?

Euskal pentsamendu berriaren berrikuntza

Pentsamendu kokatua da, ia postmodernoa, modernitatea zalantzan jartzen duelako eta modernitate erlatibizatuan, beste

errealitate batzuetara irekitako modernitatean, oinarritzen delako. Aurrerabide bat. Hizkuntza minorizatua eta debekatua aldarrikatzen da, euskara, emantzipazio proiektu dekolonial, berdinzale baten estakuru eta komunitate baten berregite bokazio kooperatibo modura Euskal Herriaren lurraldean. Hiltzen ari den hizkuntza, kultura eta gizatasun baten alde engaiatuta, batetik, eta, bestetik, europar modernitate baten bukaera oihartzunez inguratuta eta europar postmodernitatearen ateetan, Alaitz Aizpuru pentsalariak esan bezala (2019).

Joxe Azurmendi filosofoak horrela laburbiltzen du:

Zer da egiten dena, belaunaldi batek naziotasunari buruz euskararen aldeko hautua egiten duenean, arrazaren alde egin zuen beste belaunaldi baten aurka? Ideien sistema guzia aldatzen da. Balioen sistema guztia. (Azurmendi 2019: 5)

Horixe da bestela pentsatzea, arrakalak irekitzea itotzen ari denak arnasa har dezan.

Azurmendik, euskal pentsamendu kokatuaren pentsalari eta 56ko belaunaldiko kideak, 60ko hamarkadan jada, 'gizagintza' kontzeptua plazaratzen du –eta, Rikardo Arregiri jarraituz, «euskalgintza berdin gizagintza» idatziko du (1996)–. Hau da, hizkuntza berreskuratzea ere gizatasuna berregiteko proiektu bat dela. Alegia, ezagutzak partikularrak –kokatuak– izateak ez duela esan nahi ez denik ekarpen bat gizaki izatearen kondizio humanistari. Hau da, hizkuntza berreskuratzea –bere inplikazio soziopolitiko, ekonomiko eta epistemologiko guztiekin– gizatasun proiektu bat dela. Aipatu dugun Hara-wayren *worlding* horri, mundugintzari, zentzugintza ere dei dakioke, emantzipazioaren eta berdintasunaren harra baitu barrenean. Bitxia da mundugintza eta gizagintza hitzen antzeko musika, geure belarrietara. Mundua eta gizatasuna gugandik beste modu batera pentsatzetik hasi, pertsonen eta komunitateen bizitza hobetzeko helburuz, zapalkuntza, esplotazio eta desparekotasun egoerei aurre egiteko.

Jakin egitasmoaren tradizioa –hori ere 1956an sortua– horixe bera izan da gaur arte, eta ezagutza kokatuen eta euskal

pentsamendu propioaren garapena eta zilegitasuna aldarrikatu ditu, euskal komunitate subalternoari nor izateko eskubidea aitortuz. Eta hori hizkuntzaren, herriaren eta kulturaren garapenaren gainean zurkaiztu du. Hau da, lurralde honetan errotutako ahots anitzeko gu bati hitza eman dio, bere bizipen, ezagutza, esperientzia eta pentsamenduari leku zilegia egiteko. Tradiziotik jasotako pentsamendu erlatibista ez-dogmatikoak ekarri dio, hizkuntzaren eta kulturaren biziberritzean oinak jarrita, feminismoan, dekolonialismoan, berdintasunean eta bizitza bizigarrietan bestela pentsatzen jarraitzea. Hau da, intersektionalitate, txirikordatzaren bizipen, errealtate eta subjektuen arteko aliantzatik.

Eta jarraitzen dugu geure buruari galdetzen eta galderak partekatzen: zer du pentsatzeko euskal pentsamenduak? Nola pentsatu behar du? Zein aldamiorekin? Izan ere, Jakin proiektuak gizagintza egitasmo bat izaten saiatzen jarraitzen du, Garcésék definitzen duen «gizatasunaren disputa» gor-

dinaren lubakietan bizi garen garai larriotan (2017: 74). Alegia, gizatasuna zer den eta zer ez auzi garaikide zaigun honetan, «denboratasunaren zentzua landu behar dugu [...] bizi izandakoaren eta bizigarri denaren, gertatu denaren, galdu denaren eta egiteko dagoenaren artean harreman esanguratsuak harilkatzeko». Eta, hari horri helduta, esan dezakegu, hemen eta orain, hizkuntza, kultura eta lurraldea berreskuratzea hiperkapitalismo indibi-

Hemen eta orain,
hizkuntza, kultura eta
lurraldea berreskuratzea
hiperkapitalismo
indibidualista eta
homogeneizatzailearen,
prekaritatearen, ustiapen
ekologikoaren eta giza
ustiapenaren aurkako
borrokarako leku bat da

dualista eta homogeneizatzailearen, prekaritatearen, ustiapen ekologikoaren eta giza ustiapenaren aurkako borrokarako leku bat dela. Bestela esanda, eskubide kolektiboetan, feminismoan, dekolonialismoan, jasangarritasun/desazkunde

auzian, aniztasun eta berdintasunean eta bizitza bizigarrien defentsan hartzen duela sustrai. Giza bizitzaren, gizagintzaren *worlding* eta zentzu proiektu bat, finean.

Euskara, erresistentziarako eremu behinena

Garcesék bestela esaten du, ederrago akaso, *Filosofia amaitu gabea* euskarazko itzulpenari berariaz idatzi dion hitzaurrean: «gaur egun, beharrezkoa da hizkuntza ez-hegemonikoen altxamendu bat, adierazteko, bizitzeko eta pentsatzeko moduak estandarizatzen ari diren hizkuntzen aurrean» (Garces 2022 [2015]: 10).

Ibai Atutxa pentsalariak are ederrago eta zehatzago idatzi du:

Modernitatean zehar emakumeentzako eta komunitate arrazializatuentzako gorputza izan dena, soldatapeko langileentzako fabrika izan dena eta heterodisidentziarako desira izan dena izan da euskara euskal nazio barbarizatuarentzat eta euskaldun basarentzat. Hau da, euskara izan da zapalkuntzetarako eta erresistentzietarako eremu behinena. (Atutxa 2022: 100)

Eta zera proposatzen: euskara bilakatzea *pinkwashing*, *greenwashing*, *basque washing* eta *washing* neoliberal guztien aurkako borrokarako tresna.

Horra, bada, garai hil hurren hauetan bestela pentsatzeko eta gure desobedientzia epistemikoa armatzeko gramatika berri baten hainbat zantzu. Hori da egin behar duguna, pentsatu: pentsatu beste inorekin, taldean, besteekin; geure buruak birkontatu, eta, mundu berrien posibilitatea zilegitzeko, pentsamendu marko zaharrak arrakalatu eta bestelakoak sortu; egin behar duguna da pentsatu, pentsatu ekintza gisa; horregatik da garrantzitsua zein gaiz, zerez egiten ditugun pentsamenduak, zerekin pentsatzen dugun, zein ideia erabiltzen ditugun beste ideia batzuk pentsatzeko; garrantzitsua da zein istorio kontatzen ditugun beste istorio batzuk kontatzeko; zein pentsamendu pentsatzen ditugun pentsatzerakoan; zein pentsamendu pentsatzen dituzten pentsamenduek; zein deskribapenek deskribatzen dituzten deskribapenak; zein

korapilok lotzen dituzten korapiloak; pentsatu, pentsa daitekeenaren harresietan arrakalak zartatzeko; pentsatu, genealogia eginez; pentsatu, arkeologia eginez, erraietara joz, erradikalki pentsatuz, lokatzetan sartuz, beldurrik gabe espekulatuz. Pentsatu, inor atzean utzi gabe. Pentsatu, gizagintza eta mundugintza bizigarri baterako. 🍌

Bibliografia

- Aizpuru, Alaitz (2019): 'Txillardegi, postmodernitatea eta postkolonialismoa', *JAKIN* 232, 11-30.
- Atutxa, Ibai (2022): *Barbaroak eta zibilizatuak. Euskal gatazken eskuliburu materialista*, Tafalla, Txalaparta.
- Azurmendi, Joxe (1996): 'Euskalgintza berdin gizagintza', in Askoren artean (1996): *Rikardo Arregi, gizona eta garaia*, Andoain, M. Larra-mendi Kultur Bazkuna, 379-432.
- (2019): '56ko belaunaldiaren pentsamendua ulertzeko giltza: hizkuntza', in Miren Rubio Iturria: *Txillardegi, batasunaren pentsalaria*, Andoain, Bilbo eta Leioa, Jakin, AEK eta EHU, 5-38. *Dabilen pentsamendua* bilduma.
- Garcés, Marina (2017): *Nueva ilustración radical*, Bartzelona, Anagrama.
- (2022 [2015]): *Filosofia amaitu gabea*, Andoain, Jakin. Itzultzailea: Olatz Mitxelena Larreta. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 50. [Jatorrizkoa: *Filosofía inacabada*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg].
- Haraway, Donna (1988): 'Situated Knowledges: The Science Question in Feminism and the Privilege of Partial Perspective', *Feminist Studies* 14(3), 575-599.
- (2020): *El mundo que necesitamos*, Bartzelona, Icaria.

Norabide aldaketarako unea al da?

Amaia Ruiz Castellanos

*Mondragon Unibertsitateko Humanitate Digital
Globalak graduako ikaslea*

Gaixotasun mentalen hazkunde arinarekin batera, gaur egungo gizartearen funtzionamendua birplanteatzeko unea heldu da. COVID-19ak gizartean izan duen arrakalak, postmodernitateak eta hipermmodernitateak beren ezaugarrietan duten aurrerapen azkarraren joerak eta teknologiaren, komunikabideen eta sare sozialen erabileraren hazkundeak gizabanakoak dituen behar naturaletatik aldentzea eragin dute.

Horrenbestez, gizakiak mentalki mantendu behar duen oreka baldintzatu eta kaltetzen dute bizitzeko joera edo ezaugarri horiek. Hori dela eta, norbanakoak jarrera aldaketa behar duela ondoriozta daiteke. Zaurgarritasuna eta interdependentzia erabili beharko lirateke gizakiaren ezaugarri nagusi moduan. Bada, gizakia naturalki osotasunean dena adierazten duten ezaugarriak dira bizitzeko zentzua aurkitzen laguntzen dutenak.

Osasun mentala

Artikulu zein datu ugariren arabera, haurrek eta gazteek, nerabeek eta helduek, langileek eta langabeek, ikasketadunek eta ikasketa gabekoek, guztiek aldaketak pairatu dituzte

Norabide aldaketarako unea al da?

azken urteetan beren eguneroko portaeran, gizarte harremanetan eta gozamen pertsonalean. Urte hasierako hainbat hedabidetako berriei erreparatzea besterik ez dago:

2022-2024 Osasun Mentaleko Planak 240 profesional berri gehitzea aurreikusten du, arreta haur eta gazteen biztanlerian jarrita. (*Europa Press*, 2022)

Osasun mentala, arrisku globala 2022an, nahasmenduak 'nonahikoak' direlako. (*Redacción Médica*, 2022)

Osasun mentaleko adituek depresioak eragindako krisi globalaren berri eman dute eta tratamendua aldatzea eskatu dute. (*El Diario*, 2022)

COVID-19aren eragina gazteen enpleguan eta osasun mentalean: ebazpen baten bozketa. (Europako Parlamentua, 2022)

Espainiako biztanleria aktiboaren zati batek osasun mentala jotzen du 2022an lanpostua uzteko arrazoi nagusitzat. (*Pharma Market*, 2022)

Osasun mentala, mehatxu nagusia Espainiaren dimisio handiarentzat: 2022 honetan lanpostua utzi nahi duten langileen %32k aipatzen dute. (*Burgos Noticias*, 2022)

Civivoxek proposatu du otsailean lan egitea osasun mentalari buruzko estigmatikak haustearen alde. (*Diario de Navarra*, 2022)

Horietan guztietan argi sumatzen da osasun mental orekatua mantentzea garrantzitsutzat duela gaur egungo munduko biztanleriaren gehiengoak. Osasun fisikoa ez ezik, osasun mentala ere zaindu beharko litzatekeela uste dute egungo aditu askok. Azken hiru urteotan, biztanleriaren osasun fisikoa bereziki zaindu dugu, pandemia egoerak horrela eskatu baitu, baina bidean herritarren osasun mentala alde batera uzteko joera izan du gizarteak. Hori dela eta, orain indibiduen ongizate mentalean fokua jartzea egokia izango litzatekeela aurreikusten da gizartearen hainbat esparrutan.

Izan ere, osasunaren osagai integral eta funtsezkoa da alde mentala. Horren inguruan OMEn Konstituzioak honela dio (2018):

Osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez soilik afekzio edo gaixotasunik eza. Definizio horren

ondorio garrantzitsua da osasun mentala nahasmendu edo desgaitasun mentalik eza baino zerbait gehiago dela.

Osasun mentala ongizate egoera da, non pertsonak bere gaitasunak gauzatzen dituen eta bizitzako estres normalari aurre egiteko, modu produktiboan lan egiteko eta komunitateari laguntzeko gai den. Zentzu positibo horretan, osasun mentala norberaren ongizatearen eta komunitatearen funtzionamendu eraginkorraren oinarria da.

Osasun mentala eta ongizatea funtsezkoak dira pentsatzeko, sentimenduak adierazteko, besteekin elkar eragiteko, sostengua irabazteko eta bizitzaz gozatzeko dugun gaitasun kolektibo eta indibidualerako. Hori oinarri hartuta, esan daiteke osasun mentala sustatzea, babestea eta berrezartzea mundu osoko pertsonen, komunitateen eta gizarteen funtsezko kezka dela.

Argi dago, hortaz, osasun mentala ongizatean zentratutako egoera dela. Gainera, egoera gogobetegarri horrek norberaren eguneroko bizitzarekin aurrera ekiteko ahalmena sorrarazten duela azpimarratu beharko litzateke. Orduan, ildo horretan ebatz daiteke, arazo mentalak sortzen diren momentuan, norbanakoak egunero egiten dituen ekintzak eta betebeharrak betetzeko zailtasunak izaten dituela; hots, bizimodua eraldatzeko joera hartzen duela. Horretan, agian, aipa daiteke gizabidearen kontrako norabiderantz zuzentzen den joera bereganatzen dela. Hortaz, horretaz kontziente izanda, osasun mentalaren inguruko ikerketa eta hausnarketa egiteko momentua dela dirudi. Osasun mentalaren ardura goraipatzen ari den aroan murgiltzen ari da gizarte globala, eta horren jakin-mina eta kontzientzia izatea bereziki garrantzitsua da modu egokian bizitzeko.

Osasun mentalaren ardura goraipatzen den aroan murgiltzen ari da gizarte globala, eta horren jakin-mina eta kontzientzia izatea bereziki garrantzitsua da modu egokian bizitzeko

Hori dela eta, testu honetan zehar osasun mentalaren gaia-
ren bueltan sor daitezkeen hiru puntu nagusi jorratuko dira.

Hasteko, gaixotasun mentalen jatorri eta adibideak azalduko dira. Jarraian, filosofiaren eremutik gizakia historikoki eta gaurko aroan kontestualizatuko da eta gizakiaren jatorrizko joera naturalekin alderatu. Horretan, gizakia gizaki den heinean dituen benetako beharrak azaleratuko dira, gaur egun dituen joerekin alderatuz eta horien arteko aldearen inguruko hausnarketa sorraraziz. Amaitzeko, etorkizunean gizakiak zer-nolako joera har dezakeen planteatuko da, hurrengo galdera eginez: gizakia orain arteko bizimodu eta joeretan mantenduko da ala zalantzan jarriko ditu, etorkizun ezberdinak irudikatuz?

Gaixotasun mentalen eragileak

Osasun mentalaren egoera optimoa aztertu ostean, horren hondamena ahalbidetzen dituzten faktore, ekintza, harreman motak... ikertzea da hurrengo pausoa. Eta osasun mentalaren oreka hondatzea edo desegonkortzea ahalbidetzen duten determinanteak ikertu dituen OMEren Konstituzioak (2018) honela azaltzen du bere ikerketa:

Banakako osasun mentala faktore sozial, psikologiko eta biologiko ugari zehazten dute. Adibidez, presio sozioekonomiko iraunkorrek arrisku aski ezaguna dira pertsonen eta komunitateen osasun mentalerako. Frogarik nabariena pobrezia adierazleekin lotuta daude, eta, bereziki, hezkuntza maila baxuarekin.

Osasun mental txarra gizarte aldaketa azkarrekin, lan baldintza estresagarrieekin, genero diskriminazioarekin, gizarte bazterketarekin, osasungarriak ez diren bizimoduekin, indarkeria arriskuarekin eta osasun fisiko desagokiekin eta giza eskubideen urraketekin lotzen da.

Badira, halaber, nortasun faktore eta faktore psikologiko espezifikokoak, pertsona buruko nahasmenduen aurrean ahulagoa izan dadin eragiten dutenak. Azkenik, nahasmen mentalek ere arrazoi biologikoak dituzte, faktore genetikoaren edo desoreka biokimiko zerebralaren mendekoak, adibidez.

Horrez gain, zenbait gaixotasun mental eremu geografiko finkoetara mugatuta daude, eta tokiko kulturara errotuak.

Marko bereziak dira, psikopatologiarik ez baitute, eta ezin dira beste kulturekin alderatu. Horrelako gaixotasun eta nahasmenen oinarri hori etnopsikiatria deitzen da, kultur eta adimen prozesuen arteko elkarrekintza aztertzean datzana. Horren inguruan, Soraya B. Rodríguezek eta bestek (2019) ekarpen handia egin dute beren ikerketan:

Émile Kraepelinek (1856-1926) nabarmendu zuen bi etnia desberdinetan gaixotasun mentalak alde nabarmenak zituela intzidentzian eta kalitatean. GNS-10ean kultura jakin batzuei lotutako hamabi nahasmendu erregistratu dira, eta ezaugarri hauek dituzte: nazioartean erabiltzen diren kategorien barruan ez egotea eta populazio jakin batzuetara mugatzea. Hona hemen adibide batzuk:

Amok (*Malaysia*): portaera suntsitzailea edo hiltzailea, itxurazko eragilerik gabe, eta, ondoren, amnesia edo suizidioa.

Shen-Kuei (*Taiwan*): antsietatea eta arazo somatikoak, semena galtzeko beldurrarekin edo semena jariatzen dela pentsatzearekin lotutakoak (emakumeetan). Sintoma: deskarga zurixka gernuarekin.

Koro (*India*): izua genitalen uzkurduraren aurrean.

Gaixotasun mentalari buruz mintzatzean, beraz, desorekari buruz hitz egiten da. Desoreka hori baldintzatzen duten faktore nagusiak lau direla ondoriozta daiteke: faktore geografikoak, biologikoak (geneetan oinarritutakoak), faktore psikologikoak edo nortasunarekin zerikusia dutenak eta eguneroko bizitzako une txarretan edota inguruneke egoera latzean sortzen diren baldintzen inguruko faktoreak, hain zuzen ere. Horietariko batzuk aldaezinak edo iragazgaitzak diren heinean, besteak aurreikus daitezkeela azpimarra daiteke. Baina erabat baieztatu daitekeena da gizarteak alderdi bi horien hobekuntzan parte har dezakeela, eta aukera dagoela mentalki oreka mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntza eskaintzeko.

Horretarako, alde batetik gaixotasun mentalen estigmatizazioaren puskaketan lan handia egin behar du gizarteak. Beste aldetik, egun mekanizatuta dagoen sistemak ez dio on egiten mentalki orekan dagoen indibiduoari. Bada, gizabanakoaren osasun mentalaren egoera baldintzatzen duen faktore garrantzitsuenetarikoa ingurunean eta bizi baldintzetan

oinarrituta dago. Hori dela eta, erlazio horretan sakonketa sendoa egitea egokia izango litzateke, gizakiak edota gizarteak alda dezakeen arazoa delako.

Egungo egoera soziala

Azken urteotan, norbanakoaren osasunaren eta babesaren bueltan bizi izan da gizakia. COVID-19ak gizakiaren osasun fisikoa bereziki kaltetu du, eta horrek gizarte moduan neurri batzuk hartzera bideratu gaitu. Hots, gizartearen funtzionamendua aldatu eta baldintzatu du, gizabanakoari bere bizimodua ere aldaraziz.

Postmodernitatearen eta
hipermodernitatearen
neurrigabeko
aurrerapenak
indibiduen helburuak,
bizitzeko zentzuak eta
nahiak bide naturaletik
desbideratzea lortu dute

Birus hori agertu aurretik, lagunekin geratzeko joera zuen gizakiak, familiarekin sarri elkartzen zen, jende ezezagunarekin hitz egiten zuen, kutsa zitekeen beldurrik izan gabe. Albiste onak ospatzeko jaiak antolatzen ziren, irrikaz itxaroten zituen herritarrak bere

herriko zein hiriko jaiak, bertoko giroaz gozatzeko eta identitatea sorrarazten zuen herria goraiatzeko. Norbaitek behar zuenean batak bestea elkar besarkatzen zuen, albokoa hurbil sentitzearen beharra baitzuen gizabereak. Illo berean, familietako pertsona nagusiei maiz bisitak egiten zitzaizkien berotasuna sentitu eta horien iragana eta bizipenak jasotzeko. Eta gaixoak zaintzen eta besarkatzen ziren, gogor ekiteko indarra eta adorea emateko ahaleginak eginez.

Egun, duela hiru urte gizakiaren bizimodua zena amets bihurtu da. Gizabanakoak, bere egunerokoan jarduteko, iraganekoengandik guztiz desberdinak diren balioak bereganatu behar izan ditu, bizitzari zentzu ezberdina txertatuta.

Horren harira, postmodernitatearen eta hipermodernitatearen neurrigabeko aurrerapenak indibiduen helburuak,

bizitzeko zentzuak eta nahiak bide naturaletik desbideratzea lortu dute. Bada, modernitatearen bi adar horiek aurrerapenean jartzen dute fokua, eta aurrerapen horrek bereziki teknologiaz eta zientziaz mintzatzeraz eraman du gizakia. Horren auzia zera da, natura eta ingurunea sakon eraldatu eta eraldatzen direla, eta manipulazio horrek gizakia naturatik edota berezko ingurunetik at uzten duela. Horregatik, naturaren eta gizakiaren beraren manipulazioaz hitz egin daiteke.

Teknologiaren hedapena gizartean

Gainera, teknologiaren hedapenarekin, gizartean etengabeko informazio fluxua dagoela azpimarra daiteke. Sare sozialek eragin duten arrakalak indibiduoaren bizimoduan bete-betean jo duela berretsi behar da. Gizakia egunero ibiltzen da Interneten menpe, eta argi geratu da horren erabilera guztiz beharrezkoa bilakatu zaiola. Norbanakoaren osasun mentalekin lotuz gero, bi talde nagusiren bereizketa egin daiteke.

Alde batetik, Gianni Vattimok *En torno a la posmodernidad* liburuan (2003 [1990]) azaldu zuen bezala, egungo komunikabideetan existitzen den informazio fluxu handiaz eta gardenaz hitz egin daiteke. Bada, betidanik gutxi batzuen historia entzuteko nahia izan dute boterea dutenek, eta ildo hori jarraitu du komunikabideen estiloak. Egun, aldiz, pertsona bakoitzak bere ahotsa zabaltzeko ahalmena eskuratu du, eta, hori dela eta, komunikabideetan hainbat ikuspunturen zabalkundea sortu da. Horrek bere alde positiboak ditu, indibiduen pentsatzeko eta adierazteko gaitasunen hazkundea ekartzen duelako barnean. Aldiz, kaosa ere sor dezake, kontzeptu gehiegi eta ikuspuntu ugari zabaltzearen ondorioz, pertsonen ikuspuntuen hausnarketa geroz eta erronka zailagoa bilakatzen ari delako, eta arrazoimenaren aurka doan abiadura azkarra hartzen ari delako fluxu hori. Ildo horretan, Irati Zubiak (2020: 3) egia ostearen aroan gaudela aipatu zuen, eta hurrengo hau ondorioztatu:

Egia-ostearen aroa aztertu ahala, ondorioztatu daiteke egia-ostea egia krisian dagoen garaia dela. Esan bezala, ez bereziki egia ez-

kutatzen delako edo egiaren bilaketa jardun zaila delako. Haatik, parez pare dugunean ere kasurik egiten ez diogulako. Horrek badiu inplikazio ugari.

Beste aldetik, sare sozialen existentzia dago. David Navarretek eta bestek (2017) azaltzen dutenez, sare sozialen erabilera desegokiak gazteen zein pertsona helduen osasuna kaltetzen du aspektu desberdinetan. Horren adibide dira osasungarriak ez diren elikadura ohiturak, jazarpen zibernetikoa, sexu sozializazioa, sare sozialen taldekatzea eta teknologia berriekiko mendekotasuna, besteak beste. Gainera, sare sozialetan sortzen den iruditeria faltsuak eragin handia dauka erabiltzaileen egunerokoan. Bada, inkontzienteki sare horietan agertzen diren modak, ekintzak eta ohiturak jarraitzeko joera nagusitu da. Horrek ez du askatasunik eskaintzen bakoitzak bere plan propioa sortzeko edota bere gustuak birplanteatzeko. Askok modak jarraitzeko joera hartzen dute, eta ez diote beren izaera garatzeari aukerarik eskaintzen. Horretan luzaroan, nortasun eta identitate arazo handiak pairatzeko joera gailentzen da.

Horrez gain, aipatu beharra dago sare sozialek onurak ere sortzen dituztela norbanakoarengan. Hori bereziki sumatzen da sortzen duten sare interrelazionalean. Teknologiaren arlo horrek gizarte talderen baten parte sentitzea ahalbidetzen du: giza harremanen beharra asetzea, gizakiari berezkoa zaiona.

Gizakiaren joera naturalak egungo egoerarekin alderatuz

Egungo egoera soziala testuinguruan kokatu ondoren, pertsonen osasun mentalean sortzen duen porrota aztertuko dugu, labur. Aurreko paragrafoetan aipatu den bezala, gizakiak indibidualismoa lankidetzaren aurretik jartzen duen bizimoduaren gainean funtzionatzen du, gauza perfektuak sortzeko lan egiten du, eta ideologia ugari ditu bere nortasuna sortzeko, baita gizarte osoa ordezkatzeko duen iruditeria finkoa ere. Haatik, gizakiak naturaz ez ditu ezaugarri horiek betetzen. Mikel Urdangarinek, Azurmendiren esanak azpimarratuz, argi azaltzen du zein den gizakiaren oinarritzko joera:

Esan bezala, Azurmendiren giza aberea mugatua eta zaugarria da. Oinarri horretatik abiatuta, honako ezaugarria gehitu dio: «Aberetxo erkina eta lagunkoia da gizon-emakumea. Ahula delakoxe lagunzalea eta lagunbeharra» (Azurmendi 2016a: 36). Hau da, ahulak eta erkinak garen heinean (delakoxe), besteak behar ditugu, besteekiko dependenteak gara. Hots, interdependentekak gara, komunitatearekiko elkarrekintza estuan gara nor. Are gehiago, komunitateak berak egiten gaitu: «komunitatean jaiotzen gara, komunitatean heltzen gara pertsonak izatera; komunitateak egiten gaitu, guk egiten dugu komunitatea» (*ibid.*: 131-132). (Urdangarin 2019: 184)

Horren inguruan, Brené Brown soziologoak zaugarritasunaren ikerketarekin,¹ Zygmunt Baumanek gizarte likido eta solidoaren kontzeptuak sortzearekin,² Henryk Skolimowskik ekofilosofiaren eraketarekin,³ Emilio Durók beldurra ezabatzaren prozesuaren hausnarketarekin,⁴ eta beste hainbat pentsalari edo ikerlarik hainbat teoria eta soluzio mahaigaineratu dituzte gizarteak egun duen jarrera planteatua izan dadin.

Aurrerapausoak dira teoria horiek, alde batetik gaixotasun mentalak ekiditeko, eta, bestetik, halabeharrezkoak diren gaixotasun mentalekin elkarbizitzeko. Gizakiaren zaugarritasunaren onarpen prozesuan gizarte interdependentearen dibertsitatea onartzeko.

Etorkizuneko bidea, zein?

Saiakera honi amaiera emateko, etorkizuneko erronkei buruzko hausnarketa sakona egitea baino ez da falta. Nabaria da gizakia egungo egoera berresteko prozesua eratzen hasi dela. Mentalki zein jarrerari dagokionez, aldaketak nabaritzen hasi da, gizabereak bizitzeko zentzua bilatzeko ahaleginetan interdependentziaren, sakontasunaren eta naturaren beharra aurkitu izan baitu, eta horren gaineko aldaketa sakona egiteko asmo txikiak sumatzen hasi da.

Baina, bide horren ondoan, paraleloki, zientzia eta teknologiaren hazkundea ere gertatzen ari da, eta horrek zentzu eta gizatasun naturalarekiko krisira bideratzen du gizakia.

Halaber, teknologia abiadura oso arinean sartzen ari da giza-banakoaren eguneroko bizitzan, eta geroz eta funtzio gehiago hartzen ari da horretan. Alegia, transhumanismoaren eta *big data*-ren gaiak geroz eta finkatuago daude gizartean.

Orobat, gizartean boterea dutenen asmoek teknologiari, sare sozialei, naturaren manipulazioari, aurrerapenaren azelerazioari... garrantzi handia eskaintzen diete.

Hori dela eta, esku artean dugu gaur eguneko joera digitalen kontua, dudarik gabe garrantzitsua dena. Eta gobernuburuek eta enpresari handiek egiten ez badute, gizartea altxatzeko garaia heldu da; hots, norbanakoaren bizimoduari eta bizitzeko esanahiari norabidea aldatzeko garaia. Gure zentzua eta esanahia modu egokian bilatu eta aurkitzeko unea heldu zaigu. Gure barneko zein ingurunearekiko dugun begirada sakonetara bideratu behar dugu, baita sentimenduei eta emozioei harrera egokia egin ere.

Gizaki moduan bizitzeko garaia heldu zaigu, beraz, gure gizatasunaren baitan dugun zaurgarritasuna, interdependentzia eta sakontasuna goraiatu eta erakusteko, orain. Hortaz, hurrengo galdera berriz hartuko dut: garaia al da gizakiak etorkizun ezberdinak planteatzeko, ala bere bizimodu eta joerak mantenduko ditu? 🍷

Oharrak

1. «Zaurgarritasuna da gure ausardia neurririk onena» (Brown 2010: 14:42-15:20).
2. «Kultura likido modernoak ez du jada sentitzen ikaskuntza eta metatze kultura denik, historialari eta etnografoen txostenetan erregistratutako kulturak bezala. Ordainetan, atxikimendu ezaren, etenaren eta ahanzturaren kultura gisa agertzen zaigu» (Bauman 2009).
3. «Ekofilosofiaren helburua gure garairako metafisika berri bat eskaintzea da» (Skolimowski 2017: 55).
4. «Zoritzarraren arrazoi nagusia beldurra da. [...] Egungo munduan beldurrak ez du zentzu handirik, ditugun arriskuak ez baitira fisiokoak» (Duró 2016: 1:05-1:36).

Bibliografía

- Bauman, Zygmunt (2009): '¿Qué hay de malo en la felicidad?', in *El arte de la vida. De la vida como obra de arte*, Bartzelona, Paidós, 11-32.
- Brown, Brené (2010): *El poder de la vulnerabilidad*, TEDxHouston (www.ted.com/talks/brene_brown_the_power_of_vulnerability?language=es).
- Burgos Noticias (2022): 'La salud mental, principal amenaza para 'la gran dimisión española': el 32% los trabajadores que se plantea dejar su puesto este 2022 la menciona como primer motivo', *Burgos Noticias*, 2022-12-02 (www.burgosnoticias.com/actualidad/041042/la-salud-mental-principal-amenaza-para-la-gran-dimision-espanola-el-32-los-trabajadores-que-se-plantea-dejar-su-puesto-este-2022-la-menciona-como-primer-motivo).
- Diario de Navarra (2022): 'Tres centros Civivox proponen trabajar en febrero por romper los estigmas sobre la salud mental', *Diario de Navarra*, 2022-02-14 (www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/pamplona-comarca/2022/02/14/tres-centros-civivox-proponen-trabajar-febrero-romper-estigmas-sobre-salud-mental-517420-1002.html).
- Duró, Emilio (2016): 'La felicidad y el miedo hoy en día' (www.youtube.com/watch?v=2TX6E0E1s5s).
- Europa Press (2022): 'Plan de Salud Mental 2022-2024 contempla aumento de 240 nuevos profesionales con el foco en la población infanto juvenil', *Europa Press*, 2022-02-14 (www.europapress.es/madrid/noticia-plan-salud-mental-2022-2024-contempla-aumento-240-nuevos-profesionales-foco-poblacion-infanto-juvenil-20220214190842.html).
- Europako Parlamentua (2022): 'Impacto de COVID-19 en empleo juvenil y salud mental: votación de una resolución', *Berriak*, 2022-02-14 (www.europarl.europa.eu/news/es/agenda/briefing/2022-02-14/11/impacto-de-covid-19-en-empleo-juvenil-y-salud-mental-votacion-de-una-resolucion).
- Fernández, Iván (2022): 'La salud mental, riesgo global en 2022 por la 'omnipresencia' de trastornos', *Redacción Médica*, 2022-01-12 (www.redaccionmedica.com/secciones/psiquiatria/la-salud-mental-riesgo-global-en-2022-por-la-omnipresencia-de-trastornos-7921).
- Fuentes, Verónica (2022): 'Expertos en salud mental alertan de una 'crisis global' por la depresión y piden cambios en su tratamiento', *El Diario*, 2022-02-16 (www.eldiario.es/sociedad/expertos-salud-mental-alertan-crisis-global-depresion-piden-cambios-tratamiento_1_8752727.html).
- Navarrete, David *et al.* (2017): 'Influencia negativa de las redes sociales en la salud de adolescentes y adultos jóvenes: una revisión bibliográfica', *Psicología y Salud* 27(2), 255-267 (<https://psicologiasalud.uv.mx/index.php/psicysalud/article/view/2531>).

- Osasunaren Mundu Erakundea (2018): 'Salud mental: fortalecer nuestra respuesta', *Osasunaren Mundu Erakundea*, 2022-06-17 (www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/mental-health-strengthening-our-response).
- Pharma Market (2022): 'Una parte de la población activa española considera la salud mental como motivo principal para dejar su puesto de trabajo en 2022', *Pharma Market*, 2022-02-15 (www.phmk.es/economia/una-parte-de-la-poblacion-activa-espanola-considera-la-salud-mental-como-motivo-principal-para-dejar-su-puesto-de-trabajo-en-2022).
- Rodríguez, Soraya B. *et al.* (2019): 'Trastornos mentales específicos de cada cultura', *Congreso Virtual de Enfermería en Salud Mental V* (<https://psiquiatria.com/bibliopsiquis/volumen.php?wurl=trastornos-mentales-especificos-de-cada-cultura>).
- Skolimowski, Henryk (2017): 'La ecofilosofía frente a la filosofía contemporánea', in *Filosofía viva. La ecofilosofía como un árbol de la vida*, Vilaür, Atalanta, 52-91.
- Urdangarin, Mikel (2020): 'Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mitogisa: zaurgarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna', *JAKIN* 237-238, 179-192.
- Vattimo, Gianni (2003 [1990]): 'Posmodernidad: ¿Una sociedad transparente?', in Gianni Vattimo *et al.*: *En torno a la posmodernidad*, Barcelona, Anthropos, 9-19.
- Zubia, Irati (2020): 'Egia-ostea ziurgabetasunaren garaian', *JAKIN* 239, 75-93.

EGUNEN GURPILEAN

187 Kultura
Patata!
Hiru flash
Maialen Akizu Bidegain

193 Glokalia
Merkatu harremanak eta bizimodu
komunitarioa
Zalantza existentzialak existitzea bera
zalantzazkoa denean
Kulturak iraunarazteko baldintza
sozialak
Gizartea eraldatzeko baldintza
kulturalak
Joanes Igeregi Santamaria

200 Historia
Zuen periferiak, gure erdiguneak
Erreferentziaz
Zahar usaina dutenak
Cira Crespo



Kultura

Maialen Akizu Bidegain

Patata!

Espainian *patata* esaten da; Frantzian, *Ouistiti* (tximinoa); Mexiko, Argentina edo Hondurasen, *Whisky*; Estatu Batuetan, *Cheese* (gazta); Armenian, *Tsitiky Trav* (atera da txoritxo). Lerro hauek hemen idazten ari naiz eta hor nonbait Orion bikotekide ohiak eraildako emakumearen gorpuaren argazkia dabil bolo-bolo. Niri ez zait iritsi, eta ez dut bilatu. Baina bitxia da argazkiak egon badaudela dakidanetik burura eszena horren irudi posibleak heldu zaizkidala, sortu ditudala irudi horiek.

Bitartean kaleak argazkiz bete dira. Gure herrian Eider Mendoza, Maddalen Iriarte, Mikel Lezama, Jose Ignacio Asensio, Miren Etxebeste eta beste ageri dira erakusleihen bihurtutako paretetan. Denak daude galai. Photoshopa erabiliko al zuten? Nola ba. Nola ez ba. Zergatik aukeratuko zuten ateratako dozenaka erretraturen artean horixe? Bai, transmititzen dute zerbait. Hasierako koloreak, baina, ari zaizkie joaten. Zer esango zien transmititzeko aho keinuan? Gertutik ateratako argazkia izango al da? Eta nork erabakiko zuen orain begiratzen ari naizen modua dela argazkiak harrapatu behar zuena?

Frantzia sareetako irudiak erregulatzeko lege bat onartzeaz da. *Influencer*-ek jakinarazi egin beharko dute filtroak darabiltzaten edo ez, eta ezingo dute apusturik edo kirurgia estetikorik sustatu, besteak beste. Bien bitartean, adimen artifizialaren azken magiaren eta ChatGPTk egin ditzakeen marabillen bila dabilta gure algoritmoak. Datozen urteetan, itxuraz, etengabea izango da sokaren alde bateko erregulazioa eta mugatu ezin denaren hedapena.

Argazkiek errealtatearen ilusioa sortzeko gaitasuna dute, eta gizarte modernoa irudiarekin obsesionatuta dago. Argazkiek errealtatea dokumentatu bezain manipulatzeko gaitasuna dute. 60 urteren bueltako gizon bati entzuten nion, ispilura begiratuta, bere burua antzeko ikusten zuela, denboraren joanetik salbuetsita-edo; eta, aldiz, argazki bat ikusita, derrepentean zenbat zahartu zen ohartzen zela, eta derrepentean izutu.

xix. mendera arte, argazkilariek teknika landu eta neketsekin jarduten zuten. Begiratzea lan bat zen, eta argazkilaria instant bateko mundua eta egia jasotzea zuen helburu. Ordura arteko margolanak ez bezala, bazirudien argazkiak gardentasuna eta objektibotasuna ezinbestean egiten zituela bere; baina, pixkanaka ohartu ziren kamerak begiaren baino pintzelaren antz handiagoa zuela. Argazkian islatu nahi zena ez zetorren bat errealtatearekin. Kamera analogiko eta gorpuzdunen garaian, saihetsezina zen jardunak suposatzen zuen lana itxuraldatzea; baina, digitalizazioarekin, artistaren eta turistaren arteko aldea desitxuratuz joan da: bizitza turismo obsesibo bihurtu da ia. Bisita turistikoa ohera, gosarira, lagunarteko kafera. Kasik, zertarako egin bizitzeko ahalegina, bizitza bera zalapartarik gabe jaso badezaket? Zeri ari gara argazkia ateratzen, ordea, soilik argazkiak ateratzen ari bagara?

Identitatea kontu konplexua da. Ispiluak lasaitu egiten gaitu; argazkiak, izutu. Gaur egun, filtro eta abarrak medio, ispiluaren aurrean makilatzetik ispilua bera makilatzera igaro gara. Adimen artifisial deitzen ari garen horrek areagotu egin du kontua. Duela gutxi irakurri nuen, baina albistea orain bi urtekoa zen, adimen artifizialak sortzen dituen pertsonen erretratuak, batez ere, pornografiarako erabiltzen ari direla. Bizirik zein hilda dauden pertsonaia ezagunen simulakroak dira bideo horietan agerikoenak; baina 100.000 emakumek baino gehiagok salatu dute, baimenik eskatu gabe, euren sareetako irudiekin izaera pornografikoko bideoak egin dituztela. Beldurgarria da kontua. Eta ezin da ezer egin. Zuk «hori ez naiz ni» esaten baduzu ere, gorputza erabat desitxuratu eta irudia bihurtu da identitate.

Errealitatea berretsi eta esperientzia argazkien bidez luzatzeko beharra kontsumismo estetiko mota da, eta, egun, ia gehienok dugun mendekotasuna. Ez naiz teknofobia. Ez dut uste. Onartzen dut teknologiak asko kezkatzen nauela, mesfidantza diodala eta sare sozialetan ez naizela batere eroso sentitzen. Teknologia, baina, egunerokoan behar-beharrezkoa dut, izugarri laguntzen dit, plazera ere sortzen. Baina ez gaitezen engaina. Apenas dago zerbait onuragarria mundua eta egia kentzen badizkigu. Teknologiak errealitatea bere egin eta mundua zein egia alboratzeak larritzen nau. Berrikuntzak eta harridurarik gabeko gizarte batek kezkatzen nau, eta Orioko eszenak errepikatzen diren batek.

Hiru flash

Hilabete honetan argazkiari lotutako hiru eszena izan ditut begitan. Lehenengoa Mikel Ibarluzea Barruetabeña argazkilari bilbotarraren azken lana izan da. ETB unoko programa ikusgarrienetako bat da parez pare harrapatzen kosta egiten den *EITB Kultura*, eta bertan izan nuen Ibarluzearen lanaren berri. Ibarluzearen ibilbide oparoan argazkilaritza ulertzeko modua aldatzen joan da: lehen gehiago erreparatzen zion irudiari; orain, irudiaren kanpokoari.

Kameraren erabilera orok agresioa dakar. Talaia horretatik, Bilboko Solokoetxe auzoan du begia jarrita Ibarluzeak. Solokoetxe auzoa Solokoetxe izeneko baserri baten ingurumaria zen XIX. mendean. Izenetik izanerako tarte motzean, solo eta belardi ederreko lekua zela pentsa daiteke. Industrializazioa medio, biztanleriaren gorakadak patata eta azak zeuden lekuan etxebizitzak egitea beste biderik ez zuen ikusi. Egun, Bilboko biztanle dentsitate handiena duen barrutia da.

Bada, Solokoetxen badira bere garaian kartzela funtzioa ere izan zuten etxebizitza bloke irmo batzuk. Arkitekturaz ezer gutxi dakigunok lego piezekin konparatuko genituzke. Hormaren parte diren leihoak, balkoirik gabeko pisuak,

eta teilatua ez den gainaldeak ez du terraza bihur daitekeen itxurarik. Aterpea dute etxeok, aterpe zabala, eta ur galeria-duna, bere garaian auzokideek erabil zezaten jarria. Bestelako baliabideen faltan, Bilboko etxegabe ugarik bertan hartu izan dute aterpe, eta hori ez da segurtasuna eta ordena ahoz gora darabiltzaten horien gustukoa. Horregatik erabaki dute 'garbitzea'. Ur galeriak aktibatzen dituzte bertaratutakoen ondasunak bustitzeko, eta, modu baketsuan, espazio publikotik kanporatzeko.

Izugarria iruditu zait eszena. Judutarren gasezko dutxen parekoa. Ibarluzeak hormei erreparatu die. Nola dituzten hormek bizitza arrastoak inorentzat leku ez den etxebizitzaren eremu horretan. Zuri-beltzera eraman ditu argazkirik gehienak, nolabait, adierazpen askatasun falta irudiak berak ere izango balu lez. Eta galdera egiten du nola heldu garen horraino, zer eta nola erantzuten dien arkitekturak hirigintzak konpondu ezin izan dituen arazoei.

Bigarren eszena herritik gertuko autokarabana batean kokatzen da. Eli Garmendia tolosarra eta bere bikotekide Carlos Pericas herriz herri dabilta *Bitxa* deitu dioten autokarabana-rekin. Bizi aldaketa baten menturaz, autokarabanaren aukerei erreparatu zien bikoteak. Leku ezberdin askotan egon eta pertsona ugari ezagutu dituzte bidean, eta bizimodu hori euren jardun artistikoarekin nola uztartu pentsatzen hasi ziren. *Erretratu nomada* proiektua sortu dute hortik. Proiektuaren ardatza da herrira iritsi, plazan kokatu eta astebetzez herriko ahalik eta biztanle gehienei erretratu bana egitea. Gero, erretratua jasotzeko aukera dute biztanleek, eta, modu horretan, argazkilariek artxibo gisako bat sortzen dute, herri hartan izan ziren unearen erradiografia bat. Kamerak aurpegiak maskara sozial gisa erakusten baititu ezinbestean.

Lan artistikoa eremu publikora eraman, eremu publikoarekin nahastu, eta nolabait herriari itzulpen bat egin. Kultura zerbitzu bat da, besteak beste. Izango da esango duenik argitaratzen denak beti duela xede publikoa argitaratzea erabakitzen den momentutik, ez dela ezinbestekoa berariazko

itzulpenik egitea; edo izango da esango duenik arteak ez duela behar xederik izateko. Argazki oro, aldi berean, sasi-presentzia eta ausentzia zeinu bat da. Nik espazio publikoaren eta kulturegintzaren arteko harremanaz eta funtzioaz gehiago pentsatu behar dugula besterik ez dut esaten, edo, gaur eta hemen, horraino esango dut.

John Szarkowski argazkilari estatubatuarrek bi argazki mota bereizten ditu: leiho diren argazkiak, eta ispilu direnak. Garmendiak dio berak barrutik kanpora begiratzeko erabiltzen duela argazkia. Leioa litzateke berea, munduari begiratzeko modu bat. Baina argazkilariaren sentimendu, iritzi edo asmoak islatzen dituen argazkiak ere badira, eta horiek ispiluak dira. Nago Nomad Studiok bi-biak dituela, eta, *selfie*-ak, aldiz, ez bata eta ez bestea.

Hirugarren eszena gure herrian izan da, Urretxun. Garaje batean, maleta baten barruan, album bat eta ehundik gora negatibo zeudela abisatu zioten Andoni Lubakiri. Lubaki Rifin zegoen mezua jaso zuenean. Sorpresarako, argazkilari ezezagun hura bere birraitona zen, Eustakio Berriotxo Elgarresta, eta argazkiak Rifeko gerrakoak ziren. Gora magia. Gehienez, argazkiak ez dira artistaren asmoen araberrak: argazkilariaren eta gaiaren arteko ia ustekabeko elkartaren ondorio dira.

Rifeko soldaduek debekatua zuten gerra kolonial haren zantzuak gorde zitzaizkien edozein material sortzea, argazkiek begiratzeko merezi duenaren eta behatzeko eskubidea dugunaren gure nozioak aldatzen eta zabaltzen dituztelako. Apenas dago bertako herritarrek kolono espainiar eta frantziarrak garaitu zituzten gerra hartako dokumentaziorik. Espainiarrak eta frantziarrak parez pare. Horregatik dio Sarrionandiak, besteak beste, ordukoak baduela gurearen antza, moroak gaila behelaino artean.

Andoni Lubakik birraitonaren argazkiak errebelatu eta erakusketa osatu du Antton Valverde, Eñaut eta Unai Agirre, Asya Zayzaoui eta Joseba Sarrionandiari gonbita pasatuta. Valverdek Afrikako gerraren jirako kanta bilduta ditu, eta

horietako bat agirretarrek kantatzen dute. Paulo Iantzi bertsolariarena da sorta, 1922an semea Afrikan zuen ama baten eskaera medio idatzia. Kultura zerbitzu berriz ere. Iantziren bertsoak militarren jo-puntuan egon ziren, baina, hala ere, bost bider argitaratu dira ordutik, eta jende aurrean ez baina isilka eta ostatuetan sona handia izan dute. Gordina eta ederra da dozenatik gorako sorta. Hauxe bat: «Bete besuak galoiez/ zillar ta urre kolorez/ agindu modu gogorrez;/ artu ta eraman gure semiak, azitakoak dolorez;/ ez dute eskatzen faborez/ batek nai badu edo ez/ lur bustitzera odolez».

Asya Zayzaoui riftarra da, eta Garabideko kideak zioen ohikoa dela Rifin gerraren kontakizuneko kanta etxeetan kantatzea. Kantua isildu nahi izan zuten ahotsaren memoria. Eta jabetza. Aspaldian, memoriaz baino gehiago gustatzen zait jabetzaz mintzatzea. Ez baikara ari oroitzeaz, edo islatzeaz, edo historia duintzeaz, bakarrik. Argazkiak ateratzea argazkian ateratzen den horretaz jabetzea da, eta, argazkiekin, Wittgensteinek hitzekin esandakoa gertatzen da: erabilerak ematen die esanahia. 🎨



Merkatu harremanak eta bizimodu komunitarioa

Duela gutxi, nasa herriaren asanblada batean egoteko aukera izan dut, Toribio udalerriko *Amyu' Kiwe* babesgune indigenan, Kolonbian. Nasak Andeetako jatorrizko herri bat dira, gurea bezalako hizkuntza bakartu baten hiztunak, gurea baino lurralde bakartuagoan. Gehienak Cauca iparraldean eta inguruko departamentuetan bizi dira, estatuak, lur jabe handiek, erakunde indigenek eta narkotrafikatzaileek borrokatutako lurraldean. Zailtasunak zailtasun, beren lurralde, bizimodu eta identitateari eusteko borrokan dira. Horixe zen, hain zuzen ere, aipatutako batzarraren helburua, nasen nortasuna eta bizitza ona zein ezaugarrik definitzen duten eztabaidatzea, XXI. mendean nasa izatea zer den hausnartzea. Une batean, Fabriciano *Kiwe Thë'j*-ak hartu zuen hitza, komunitatean nasa kosmobisioa zaintzeko ardura duen gidetako batek:

Mende luzez, hainbat arrazoik eraman dute galbidera gure herria. Lehenengo, eliza etorri zen gure sinesmenak ezabatzeri. Lur jabe handiek lurraldetik kanporatu gintuzten, beren gobernuaren ezarri zuten. Gero eskola heldu zen; kanpoko hizkuntza inposatu ziguten, kanpoko gizartean bizitzen irakatsi. Azkenik, dirua heldu da. Orain, familiek ez dute bizitzeko ekoizten, ez komunitatearentzat. Legez kontrako laboreak ereiten dituzte kanpoan saltzeko, eta kanpoan erosten dute bizitzeko behar dutena. Gero eta zailagoa da nasa izatea.

Historia horrek baditu bere bereizgarriak nasa herrian, baina kontinente osoko galera prozesuekin pareka daiteke. Merkatu harremanek komunitateko bizitzan zer-nolako eragina duten pentsatzen hasita, Oaxacako zapoteka herriaren *aberastasunaren mitoarekin* gogoratu naiz. Diotenez, pobrezia

belaunaldiz belaunaldi betikotzen da familietan, espainiarrek emandako abizenak bezala. Horren aurka, alferrik da lan egitea. Aberastasuna misteriotsua da, mendi sorgindu batean bizi den izaki batek gobernatzen du, *Bene Ya* izenekoak, zilarraren eta boterearen jabeak. Hainbat identitate har ditzake, eta gaztelaniaz zein zapotekaz hitz egin. Batzuek, bere kobazuloan bisita egin eta gero, ondasun handiak metatu dituzte, baina langile asko behar ditu eta urte luzez derrigortu ditzake gogor lan egitera. Herritarrek diote, Bene Ya merkatu egunez agertzen denean, dirua samaldan heltzen dela, denetarik salerosten dela, merkatarien joan-etorri etengabea.

Behin, gauaren ilunean, auzokide batek tratutan ikusi zuen arin aberasten ari zen Macarioren etxean, 25 oreinek zamatutako zilarra ematen. Egunen joanean, herritarrek bisitez ohartzen hasi ziren. Hiruzpalau hilean behin, Macariok zilarra eguzkitan jartzen zuen etxeko atarian, artoa lehortzen duenak bezala, bestela hezetasunarekin kirastu egiten baita. Halako batez, bat-batean, Macario txarto sentitu zen. Inork ez zuen jakin nola hil zen. Geroztik, ehiztariek diote aberastasunaren mendi sorgindu hartan ikusi izan dutela, oreinak ehizatik babestu nahian. Bene Yarekin batera bizi da, iristeko leku zailetan, mendiko animalia eta landareak zaintzen. Mitoaren beste bertsio batzuek diote Macariok ez diela herritarrei uzten basoan biderik zabaltzen, bide arriskutsuak hartzera derrigortzen dituela, ardiak ezkutatzen dizkiela...

Mito gehienek bezala, kontakizun horrek azalpena eman nahi dio azalpen argirik ez duen gertakari bati, kasu honetan, aberastasunaren jatorriari. Mito gehienek bezala, hainbat interpretazio eta galdera eragin ditzake. Aberastasunaren metaketa ikusezina da? Merkatuak zer onura eta kalte dakartzkio komunitateari? Instituzio arrotza da? Macario benetan hil da edo, besterik gabe, komunitateko kide izateari utzi dio? Animalia, landare eta basoak zaintzen ditu ala horien ustiapen pribatua sustatu? Enrique Marroquín idazle mexikarraren arabera, *aberastasunaren mitoa* erresistentzia kulturalerako arma bat da Oaxacako herri indigenentzat, merkatu harreman

kapitalisten gehiegizko hedapenaren aurrean bizimodu komunitarioa defendatzeko. Hedapen horrek hartu duen dimentsioa kontuan hartu gabe ezin da ondo ulertu zergatik ari diren galtzen hizkuntzak eta kulturak mundu osoan.

Zalantza existentzialak existitzea bera zalantzazkoa denean

Gaur egungo hizkuntzen galerak ez du aurrekaririk, ez taiman, ez abiaduran. Joerak errotik aldatu ezean, hurrengo hamarkadetan ehunka edo milaka hizkuntza desagertuko dira, atzera-bueltarik gabe. Horiekin batera, beste hainbeste hizkuntza komunitate desegituratzen ari dira, horien mundu ikuskerak eta bizimoduak galtzen, lurralde eta gizarteak antolatzeko moduak berdintzen. Hizkuntza jakin batzuen galera ez da berria, duela milaka urte ere desagertu izan dira, baina sekula ez da fenomeno globala izan. Historian lehen aldiz, mundu mailako uniformizazio prozesu bakar batez hitz egin dezakegu, lekuan lekuko ezaugarriak hartu arren.

Ameriketako hizkuntza indigenak izan litezke bilakaera kezkagarri horren adibide garbienetakoa. Bost mende luzez, kontinenteko jatorrizko hizkuntzek ez dute inolako onarpen ofizialik izan, beren lurraldeetatik kanporatuak izan dira, eta, muturreko kasuetan, hizkuntza komunitate osoak hil eta ordezkatu dituzte. Hala ere, oraindik 600 eta 1.000 hizkuntza indigena artean hitz egiten dira kontinentean, eta batzuek oso arnagune sendoak gorde dituzte oraintsu arte. Une honetan, guztiek dute desagertzeko arriskua, baita, kitxuak edo nahuatlak bezala, milioitik gora hiztun dutenak ere, Paraguai-ko guaranien salbuespenarekin, agian. Guatemalako maiekin eman nituen urteetan, komunitate asko ezagutu nituen duela gutxi arte hizkuntzari ia %100ean eutsi diotenak, eta oso tarte laburrean transmisioa ia erabat eten dutenak. Familia askotan ikusi ditut aitite-amama elebakarrak maia hizkuntzan, guraso elebidunak eta seme-alaba elebakarrak gaztelaniaz.

Zer gertatu da hainbeste lekutan eta aldi berean hizkuntzaren transmisioa bat-batean eteteko? Beste azalpen batzuk eman litezke, baina, zalantzarik gabe, oso faktore garrantzitsua da komunitate tradizional nahiko itxiak zirenak estatuaren eta munduko merkatuen zirkuituetan txertatu izana. Duela gutxi arte, hizkuntza gutxitu gehienetako hiztunek oso esparru geografiko eta sozial txikian eman dute bizitzaren zatirik handiena, eta hor sendo iraun dute. Familian eta komunitate hurbilean asetzen ziren oinarritzko behar ia guztiak, bertan egiten zen lana, hezkuntza, harremanak... Bazituzten hartu-emanak beste lurralde eta hizkuntza batzuekin, noski, baina komunitateko kide gehienek beren hizkuntzan betetzen zituzten eguneroko bizitzako funtzio guztiak, nahikoa zen kide batzuek inguruko hizkuntzen oinarritzko ezagutza izatea.

Euskararen kasuan ere, atzeraldia aspalditik zetorkigun estatuaren hizkuntza politiken ondorioz, baina egun batetik bestera azeleratu zen, nekazaritza tradizionalaren ordeztasuna eta industrializazioa nagusitu zirenean. XIX. mendera arte, ordezkapena lurralde ukipenean oinarritzen zen. Belaunaldi bakoitzean, hizkuntza hegemonikoekin muga zuzena zuten eskualdeek galtzen zuten euskara, belaunaldi bakoitzean kilometro batzuk egiten zituen atzera euskararen mugak, Hego Euskal Herrian batez ere. XX. mendetik aurrera, aldiz, euskararen lurraldearen barruan sortu ziren zuloak: eskualde buru bakoitza, eskola bakoitza, lantoki bakoitza bihurtu zen herriak eta auzoak erdalduntzeko foku. Geroago, masa hedabideekin, itoginak etxeko sukaldara eta poltsikoraino sartu zaizkigu.

Euskararen erreproduktzioa bermatzen zuten harreman sareak kolapsatzen ari zirela ikusita, askok transmititzeari utzi zioten, nagusitzen ari zen gizartean erdarak erabilgarriagoak zirelakoan. Beste batzuek kontrako bidea hartu zuten, «hizkuntza larreakoa noranahikoa» izan zedin, Lizardiren hitzekin esateko. Hasieran, erresistentzia kultural horrek bazuen modernitatearen aurkako erreakziotik, inposatzen ari zen gizarte ereduarekiko erresistentziaz. XX. mendetik aurrera, berriz, tradizioarekiko haustura handiagoa ekarri zuen, apustu bete

egin zuen euskara eta Euskal Herria modernitatearen zirkuituetan txertatzeko. Gehiegizkoa agian, beharrezkoa ziurrenik. Jatorrizko herri asko eta asko bizi dira zalantza existentzial horiekin, inertzia nagusiei etsita hizkuntza galdu, ihesi doakien mundu tradizionala iraunarazi edo beren kultura modernitatearen zirkuituetan txertatzeko zurrunbiloaren erdian.

Kulturak iraunarazteko baldintza sozialak

Lagun indigenei euskararen biziberritze esperientziaren berri ematen diegunean, erraz ulertzen dituzte arlo bakoitzean egindako lanaren gakoak. Berehala ohartzen dira zergatik zen beharrezkoa eskoletan murgiltze ereduaren alde egitea, euskaltegiak eta hedabide propioak sortzea, kulturgintza berritzea, administrazioa euskalduntzea... Bestelako zalantza batek astintzen dizkie barrenak: nola egin kontzientzia pizteko, komunitatearen zati esanguratsu bat hizkuntzaren aldeko borrokara lotzeko? Zer gertatu zen 60ko hamarkadako euskal gizartean, hainbeste jende hain esparru ezberdinetan hizkuntzaren alde lanean hasteko? Zalantzak ez du erantzun errazik.

Urteotan, hainbat erantzun partzial eman ditut: euskararen galbide azeleratuak larritasuna agerian utzi zuela, beste be-reizgarri batzuk galduta hizkuntza zela herri bezala irauteko helduleku nagusia, abertzaletasunak lehenagotik metatutako indarra, frankismoaren errepresioak erreakzio bat eragin zuela, gerraosteko krisialdirik gogorreneko urteak atzean geratu zirela, euskararen aldeko borrokak beste gizarte mugimendu batzuekin bat egin zuela... Eta, testuinguru horretan, klase ertain euskaldun ikasi baten masa kritikoa sortu zela, oinarritzko behar materialak beteta zituena, eta hizkuntzaren alde egiteko nahikoa baliabide, ezagutza eta motibazio zuena. Ez da erraza horrelako eferbeszentzia kolektibo bat errepikatzea. Edozelan ere, argi dago gutxieneko baldintza batzuk behar direla hizkuntza biziberritzeko prozesu bati indarrez ekiteko. Bitartean, ahal den neurrian eustea da aukera bakarra herri askorentzat.

Duela gutxi, Boliviako guaraniekin hizkuntza galtzeko arrazoiez hizketan ari nintzela, bi faktore aipatu zizkidaten. Lehena ezaguna dugu: mendeetako diskriminazioa, hizkuntza esparru formaletatik erabat baztertuta egotea. Bigarrenak ez digu sekula eragin haiei beste, garai bateko euskaldunek edo gaurko zuberotarrek bizi arren. Esan zidatenez, herrialdeko guaranien %40 Santa Cruz de la Sierran bizi da, beren lurraldetik kanpo, hiru milioi biztanleko hirian deserrotuta. Nola ikusarazi hiztunei garrantzitsua dela hizkuntzari eustea, bizimodua kanpoan emateko hain aukera handia dutenean? Nola eutsiko genioke gure biziberritze prozesuari, Euskal Herriko gazteen erdiek lana Parisen edo Madrilen bilatu beharko balute? Gurean, Euskal Herrira etorritakoak euskal mundura erakartzea izan da azken hamarkadetako erronketako bat. Askoz zailagoa dute garapen kapitalistaren periferian egotea tokatu zaien herriek: gizarte eredu honen arrisku eta kalte guztiak jasan dituzte, onurak apenas ikusi gabe.

Hizkuntza komunitate batek gutxieneko kohesioa izateko, beharrezkoa da nolabaiteko garapen sozioekonomikoa izatea, komunitateko kide gehienek ondo bizitzeko aukerak ikustea, lurraldetik alde egin edo direnari uko egin gabe. Gainera datorkigun krisi ekosozialaren aurrean ere, esango nuke hor dagoela edozein herrik irauteko gako nagusietako bat: garapen eredu propio bat eraikitzea, bertan bizi garen guztion oinarritzko beharrak aseko dituen, gure lurraldearen aukera materialen baitan, ahalik eta modu bidezkoenean. Horretarako, klima larrialdiak, lehengaien eskasiak eta abarrek baldintzatutako etorkizun hurbilean, gai izan beharko dugu kontsumo materialean eta etengabeko hazkundean oinarrituko ez den bizitza on bat imajinatzeko.

Gizartea eraldatzeko baldintza kulturalak

Kontrakoa baieztatzeraz ere ausartuko naiz. Batetik, testuiguru sozioekonomikoak kulturen iraupenean eragina duen

bezala, testuinguru kulturalak eragina duela eremu sozioekonomikoaren bilakaeran. Esaterako, baliabide material gutxiagoko testuinguru batean guztion oinarritzko beharrak bermatzeko, esango nuke komunitate bateko parte sentitzeak, identitate partekatu bat izateak, arazoibideak ematen dizkigula jarrera indibidualistei aurre egin eta irtenbide kolektiboak bilatzeko.

Bigarrenik, mundu osoan garapen eredu bakarra ezartzeak kulturak homogeneizatu dituen bezala, kultur aniztasunaren alde egiteak lagun dezakeela askotariko garapen ereduak sortzen. Dagoeneko funtzio hori betetzen dute jatorrizko herri askok. Lurraldearekin harremanak izateko eta gizartea antolatzeke hainbat modu daudela gogorarazten digute, aberastasun hori arriskuan dagoen arren. Gainera, oso litekeena da etorkizunean giza jarduerak birlokalizatzea, hurbilago eta astiroago bizitzea. Testuinguru horretan, lekuan lekuko erantzun partekatuak beharko ditugu, lekuan lekuko baliabide eta baldintzetara egokituak. Horixe da kultura, azken finean.

Aniztasunaren balizko onura horiek gurean ere zentzua izan dezaten, hizkuntza biziberritzeko mugimendua bestelako bizimodu baten amets globalarekin lotu beharko genukeela iruditzen zait: ondo bizitzeko moduak tradizioetik berrasmatu, euskara gizarte-erlaketarako amets partekatu baten transmisore bihurtu, gizarte eraldaketa euskaraz sortu, euskalgintza bestelako gizarte mugimenduekin lotu. Baditugu horretarako elementuak gure kulturaren eta gizarte mugimenduetan. 🧡



Historia

Cira Crespo

Zuen periferiak, gure erdiguneak

Fisikan, 'erreferentzia sistema' esatean, kontzeptu multzo bat adierazi nahi da, puntu materialak non dauden eta bertako gertaerak noiz jazotzen diren zehazteko balio duena. Hala, objektuen posizioa edo higidura deskribatu eta analitikoki aztertuko bada, ezinbestekoa izango da espazio horretan alde zehatzetik erreferentzia sistema bat definitzea. Baina, egia esan, espazio fisikoaren azterketan bakarrik ez, ikertu nahi duzun beste edozein eremutan ere gertatzen da erreferentzia sistemarena. Pentsamenduak ere beti leku batetik abiatzen dira, eta behar-beharrezkoa izaten da leku hori erreferentzia sistema batean ongi zehaztua izatea.

Kultur kolonialismoaren ardatzetako bat da menderatutako kulturei onarraraztea menderatzailearen erreferentziak direla egokienak eta, are, izan daitezkeen bakarrik ere. Hegemonia kulturalak hobetsi beharreko hitzen esanahiak zein diren zehazten digu eta ezartzen dizkigu ikerketarako marko egokiak eta, gainera, nabarmentzen digu horiek zentralak direla eta, horregatik, gure kulturak periferiakoak direla.

Hala ere, bada denbora bat periferia horietako batzuetatik hori guztia zalantzan jartzen ari direna. Adibidez, emakume afroamerikar askok ekarpen biziki interesgarriak egin dituzte feminismoaren historia hobeto ezagutzeko. Hara hor Angela Davisen *Emakumeak, arraza eta klasea* (Jakin eta Elkar, 2016) adibide gisa. Hitzei esanahi propioak eman eta marko propioetan aurkeztuz, adibidez, ondoko galdera planteatzen du Davisek: nola izendatu *intelektual* bat unibertsitatetik ez den herri batean? Ez al daukate *intelektual* izateko eskubiderik? Edo *etxe* kontzeptua bera: etxearen esanahiak berbera behar

al du emakume dirudun zuriarentzat nahiz emakume esklabo beltzarentzat? Lehenengoaren kasuan, seguru asko, etxea zapalkuntzaren agertoki izan da, eta da; bigarrenarentzat, aldiz, eta laburbilduz, eremu aske bat sortzeko posibilitate bakarra. Eta antzera jarrai dezakegu beste kontzeptu askoren errepasoan: nola gerturatu *jainko* hitzak daukan esanahira? Guztiz desberdina da emakume zuri edo afroamerikar baten-tzat. Hori guztia ezin da berdin analizatu, bestela errealtate ugariri bizkarra emango baikenieke.

Hegemonia kulturala aterki totalizatzailea dela diote, beste errealtate guztiak ezkutatzen dituelako; baina ez da hori bakarrik, ez da soilik gure errealtatea ikusezin bihurtzea. Kontua da azalpen batzuekin gure hilobien zuloak egiten direla, kultur hegemoniak nahita distorsionatzen dituelako esanahiak, menderatuek menderatzaileak baino gutxiago direla senti dezaten.

Hori guztia zalantzan jarri dute, besteak beste, arrazoibide dekolonialek. Ikuspuntu horiei esker jakin dugu, adibidez, Mendebaldeko feminismoaren sortetxea dirudunen etxeak izan zirela, batez ere, eta, diskurtso on horien guztien atzetik, hizlariaren atrila garbituko zuen emakume beltz bat iritsiko zela. Feminismoan ahots asko arrazistak zirela, alegia. Horrek, ordea, zalantzan jartzen al ditu feminismoaren ideiak? Horixe ezetz; baina bai, noski, zurien jarrerak eta gizartearen egitura. Hau da, emakume arrazista batek boto eskubidea lortzeak ezer gutxi balio izango du gizarte hobe bat eraikitzeko. Alde horretatik, normala da garai hartako emakume afroamerikar askorentzat zaila izatea feminista dirudun eta arrazista horiek erreferentziatzat hartzea; euren askatasunak beste bide batzuk beharko zituen ibili.

Erreferentziaz

Nik nazio estatuen prototipoaren kontinente zahar honetatik idazten dut, galtzaileen eremuetatik ahalegintzen naiz pentsatzen. Zehazki, azken bolada honetan, Espainiako gerraurreko

emakume idazle euskaldunen historia hasi naiz ikertzen. Ez naiz bakarra, noski. Unibertsitatean nahiz handik kanpo, aspaldidanik ari dira horren inguruan. Amaia Alvarezek, adibidez, Katalina Eleizegiren inguruko tesi txit interesgarria burutu zuen 2011n; Nekane Goikoetxea gertukoa dut, Tene Muxika idazlearen figuran aditua; Xabier Altzibarrek Jule-ne Azpeitiari buruzko liburu mardula osatu du, *Askatasun eguzkia baino beharrago* izenburukoa. Saiakera literarioaren arloan, berriz, ezin aipatu gabe utzi Edorta Jimenezen Nikolas Atxika-Allenderi eskainitako liburua. Eta zerrendatxo honetan asko faltako dira, ziur. Nolanahi ere, nire ustez, ekarpen garrantzitsuena, beharbada, Jakinen webgunean Emakume Abertzale Batzaren kideen testu guztiak kontsultarako moduan jartzea izan da, bilatzaile on batekin.

Baina, nahiz eta lan polit hori guztia egin den, emakume horiei buruzko ikerlan zintzo horiek ez dira nahikoa izaten ari, antza. Zeren eta jende batek, Euskal Herrian, berezkoa bezalakoa baitu gaitzespen keinua emakume horien ekarpenaz aditzen dutenean. *Baina ez al ziren eskuindarrak? A, baina ez al ziren antifeministak? Eta, hori bai, ez al zeuden hatxearen kontra?!* Nire uste apalean, aurreiritzi horren atzean dagoen arazoetako bat da, besteak beste, Espainiako marko kontzeptualetatik pentsatzeko hezi gaituztela. Guri buruz esan dutena erreproduzitzen dugu, kritikarik gabe. Horregatik behar ditugu ikerketarako marko berriak, hain zuzen aurreiritzien hautsak astindu eta jarri dizkiguten etiketa distortsionatzaileak gainetik kentzeko.

Gai horri heltzeko, iradokitzaileak iruditzen zaizkit Atlantikoaz bestaldeko kontinentetik datozkigun zenbait ideia. Horrela, gerraurreko emakumeak aztertzeko estilo 'dekolonialaren' antzeko zer edo zer erabiltzea proposatuko nuke, batez ere ikuspuntuari dagokionaz bezainbatean. Adibidez, zer izan zen emakume euskaldun batentzat etxea, zapalkuntza bizi zuen eremua ala bere hizkuntzan lasai hitz egiteko eremua? Eta Jainkoa edo Eliza? Zapaltzaileak ziren soilik, ala batzuetan autoritate zibilak inposatzen zuenaren aurrean

aurki zitekeen alternatiba bakarra? Hori egin eta gero, agian beste modu batean ikusiko ditugu fede kontuak edo sukaldearekiko atxikipena.

Gero, fokuak besteen gain jartzea ere argigarri izan liteke. Zer irudi zuten Euskal Herrian pertsonaia ospetsu hark ala besteak? Esaterako, ez dut inon irakurri garai hartako emakume idazle euskaldun bat bera ere bere burua *feminista* izendatzen. Espainian, aldiz, bai. Oso esaldi ezaguna da, adibidez, Maria Maezturena: «Ni feminista naiz, lotsatuko ninduke ez izateak». Maria Maeztu Gasteizen jaio zen eta gero Bilbon igaro zuen gaztaroa. Hala ere, bizitza Madrilen egin zuen. Izen ospetsua zen garai hartan. Bere sendiko beste batzuk ere izen handikoak. Mariaren neba maitea, Ramiro Maeztu, teoria faxistak Espainiara sartu zituztenetako bat izan zen eta, berebat, *Hispanidad* kontzeptuaren sortzailea. Emakume euskaldunak oso ondo informatzen zirenez, egunkaria irakurtzen zuten bitartean jakingo zuten gure Maria horrek zeinen gustura hartu zuen Primo de Riveraren diktaduran, txantxetako parlamentuan, aulkitxo bat. Feminista ez izateak lotsatuko zukeen baina, antza, faxista izateak ez hainbeste.

Primo de Riverak zuzendutako jostailuzko parlamentu hartan, bazen emakume euskaldunei aski ezagun eta gertuko egingo zitzaien beste diputatu bat ere, Josefina Oloriz. 1936an Gipuzkoako Probintziako hezkuntza inspektore nagusi izendapena erdietsi du emakume horrek badaezpadako ohore. Irakasleen depurazio lana ongi egiten zuen, nonbait, Olorizek, eta halaxe mantendu zuten karguan diktadura urte ilun luzee-tan, harik eta 1964an erretiroa hartu zuen arte. Zalantzarik ez dago, jakingo zuen Elbira Zipitria batek Oloriz nor zen. Agian, amesgaiztoetan ere azalduko zitzaion andereñoari. Baina, era berean, zalantzarik ere ez zen izan 2001ean Donostian, gure herri ahazkor honetan, plazatxo bati Josefina Oloriz izena jartzeko orduan, hiriak izan zituen lehen bi emakumezko zinegotziak aldarrikatu behar zirela-eta. Barka iezadazue, baina hori ez da 'aterki totalizatzailea', hemen izan duguna ahanzturaren armada totalizatzaile bat izan da.

Beste izen bat: Clara Campoamor. Espainian emakumeentzat boto eskubidea lortu zuen emakumea, 1931ko ekainaren 23an, Kataluniako Estatutuaren gainean aritu zen eztabaidan Kongresuan. Hain zuzen, estatutuaren bigarren artikulua onartzeko botoa zegoen jokoan, katalana Katalunian hizkuntza ofiziala izendatzen zuena. Kontrako botoa eman zuen Campoamorrek. Espero izatekoa, zeren bera *Partido Radical*-eko kidea baitzen, Alejandro Lerroux demagogo antikatalan sutsuaren partidukoa, alegia.

Gaur egun gorespenez oroituriko gerraurreko emakume askok hartu dute parte gure herriaren suntsiketa lan ilunean, hilketak ahalbidetzen; gure porrota sendotu dute, nazionalismo totalizatzaile espainiarra zurituz. Feminismo espainiarraren sortzaile batzuek erabili zuten ideologiak, besteak beste, estatuaren armazoa zurkaizteko balio du. Emakume talde kataluniar batek, *Matriotes* izenekoak, aurtengo M8rako egin duten manifestu batean, oso ondo definitu du: espainiar nazionalismoaren proiektu harraparia da. Azaltzeke dute oraindik historialari espainiarrek zergatik den hain zaila estatu espainiarrean, historian zehar, ‘proiektu harrapari’ horretan parte hartu ez duten intelektualak aurkitzen.

Baina atzera ere gaiari helduz, ez da harritzekoa izen horiek Euskal Herrian gaitzesgarritzat jotzea, garai hartan, eta normala da, berriz, izen horiekin estuki lotzen zen ‘feminismoa’ programa zinez askatzailatzat ez hartzea.

Zahar usaina dutenak

Gerraurrean borrokatu, idatzi, publikoaren aurrean hitz egin zuten emakumeak gutxietsi egin ditugu. Gutxiespenaren arrazoietakoa bat izan da, esan dudan eran, beren ekarpenak eta posizio politikoak ulertzeko marko espainiarra erabili dugula. Baina bada besterik. Gu ere gizarte matxista batean bizi gara, eta oso merke ateratzen da ‘adineko’ emakume horiekin sartzea.

Esaterako, Tene Muxikak kontatzen zuen nola aldizkari baterako testu bat eskatu zioten eta gero atzera bueltan bidali zioten, zapuztuta. Izan ere, oso merke baitzitzaion «fraide gazte bati» esatea testu horiek «zahar usaina zutela». Tene Muxikak, Gipuzkoako Emakume Abertzale Batzaren lehendakari izanak, ingelesez antologizaturiko euskal idazle bakarrenetakoak, antza, zahar usaina zeukaten idazlanak egiten zituen. Emakume horiekin itxura gordetzen ere ez da asmatu. Eta zaku bete horrelako adibide.


Gerraurreko emakumeak, *andereñoak*, emakume zaharrak, eskuindarrak, zorrotz eta zurrin samarrak. Gizonei dago-kienean, berriz, horien ekarpen literarioez edo historikoez oroituko gara, eta, ahaztu, horietako asko gure emakume hauek baino eskuindarragoak eta zurrinagoak (eta *hatxearen* kontrakoagoak) izan zirela. Horrek ez du zer ikusirik kultur hegemoniarekin; edo, hobeto esanda, horrek matxismoa deritzon kultur hegemonia motarekin du zerikusia.

* * *

Horrekin guztiarekin zera esan nahi dut: astindu aurreiritziak, birbideratu fokuak, baretu autogorrotoak... Kontu handiz dira baloratu beharrekoak gerraurreko emakumeen testuak eta ekarpenak, izan zirena eta esan nahi izan zutena dagokion neurrian ulertzeko. Ongi jakin behar genuke zergatik idatzi zuen Euskal Herrira hurbildu zen emakumezko kazetari madrildar hark, 1931ko erreportajea, ondorengo hau:

Espainiako eskualde guztien artean, euskal eskualdea izango da akaso emakumezkoek gatazka politikoetan parterik aktiboena osatzen dutena; ez da parte hartuko ez duten ekintza publikorik [...] euskal herrixketan emakumezkoek auzi publikoan parte hartzea dagoeneko inork zalantzan jartzen ez duen zerbait da.

Ongi jakin behar genuke. Eta, tamalez, ez dakigu. 🍷



 **euskadi
irratia**
gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara ☐ **10 €**
- Jakinkide ez bazara ☐ **12 €**

DIGITALA

- ☐ **4 €**
- ☐ **7 €**



Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

[illegible]

Kontuaren jabea



Jakin *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin •eus
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

